



NAFARROAKO  
**Aldizkari Ofiziala**

2008. urtea

51. zenbakia

# Asteazkena, apirilaren 23a

A U R K I B I D E A

ORRIALDEA

ORRIALDEA

## I. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

### 1.1. XEDAPEN OROKORRAK

#### 1.1.4. Ebazpenak

- 721/2008 EBAZPENA, apirilaren 3koa, Osasun zuzendari nagusiak emana, Osasun Departamentuak 2008an sustatuko dituen ikerketa proiektuak arautuko dituzten baldintzak ezartzen dituena. 4583

### 1.2. AGINTARIAK ETA LANGILEAK

#### 1.2.1. Kargu-uzteak, izendapenak eta bestelako egoerak

- ERABAKIA, 2008ko apirilaren 7koa, Nafarroako Gobernuak hartua, Orisoaingo Udaleko udalburu-kudeatzailea izendatzen duena. 4586
- 58/2008 FORU AGINDUA, martxoaren 28koa, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak emana. Horren bidez, Arkitektura eta Kontserbazio Bulegoa Obra eta Azpiegitura Atalari atxikitzen zaio, eta José Antonio Uribarri Quintana jauna Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Ondare Zerbitzuaren Obra eta Azpiegitura Ataleko Arkitektura eta Kontserbazio Bulegoko buru izendatzen da, bitarte baterako. 4586
- 73/2008 FORU AGINDUA, apirilaren 14koa, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak emana, Camila Almendros Martín andrea, Aurrekontuen eta Ondarearen Zuzendaritza Nagusiko Ondare Zerbitzuko Erosketa Bulegoko burua, kargutik kentzen duena, berak eskatu baitu. 4586
- 157/2008 FORU AGINDUA, apirilaren 14koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseila-

riak emana, Camila Almendros Martín andrea Kudeaketa eta Modernizazio Administratiboaren Ataleko buru izendatzen duena, bitarte baterako. 4586

- 914/2008 EBAZPENA, martxoaren 25ekoa, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko administrari laguntzaile izateko 255 lanpostu oposizio bidez betetzeko deialdia ebazten duena. 255 lanpostu horietatik 10 lan araubidekoak dira, 6 lanaldi partzialeko kontratukoak eta 4 Errenta Kanpainetarako aldizkako langile finkoetarako. Ebazpen honen bidez 243 izangai izendatzen dira eta beste 10en kontratu mota zehazten da; lanpostu hutsak esleitzen dira, funtzionario araubideko 3. mailako euskara jakite maila eskatzen duen lanpostu bat eman gabe uzten da eta Elena Gil Cabañas andrearen izendapenaren tramitazioa eten egiten da eragiten dion ezinbesteko kasuaren arrazoia bukatu arte. 4587

- 29/2008 EBAZPENA, martxoaren 7koa, Nafarroako Larrialdietako Agentziako zuzendari kudeatzaileak, Nafarroako Larrialdietako Agentziaren zerbitzuko suhiltzaile izateko 21 lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdia ebazten duena. Deialdia apirilaren 27ko 63/2007 Ebazpenaren bidez onetsi zen. 4593

#### 1.2.2. Plantilla Organikoa, Lan Publikoaren Eskaintza, oposizioak eta lehiaketak

- 36/2008 EBAZPENA, apirilaren 9koa, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde au-

ORRIALDEA

ORRIALDEA

- tonomoen zerbitzuko kiroleko goi mailako teknikari izateko lanpostu bat oposizio bidez betetzeko deialdian onartu eta baztertu diren izangaien behin-behineko zerrenda onesten duena. 4593
- 1044/2008 EBAZPENA, apirilaren 7koa, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko administrazioeko erdi mailako teknikari izateko 3 lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bereziaren bidez betetzeko deialdian onartu eta baztertu diren izangaien behin betiko zerrenda onetsi eta Langileen Batzordeak epaimahaian izanen dituen ordezkariak izendatzen dituena. 4594
- 516/2008 EBAZPENA, martxoaren 26koa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua erakunde autonomoan ingeniari tekniko (Aurrea hartzeko Diziplina: Laneko Segurtasuna eta Industria Higienea) izateko lanpostu huts bat merezimendu-lehiaketa bidezko lekualdatzearen bitartez betetzeko deialdia bete gabe uzten duena. 4594
- 547/2008 EBAZPENA, apirilaren 3koa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua erakunde autonomoan OLT/EDU izateko 321 lanpostu huts bat merezimendu-lehiaketa bidezko lekualdatzearen bitartez betetzeko deialdia onesten duena. 4594
- DEIALDIA, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak apirilaren 7an emandako 33/2008 Ebazpenaren bidez onetsia, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko arkitekto tekniko izateko lanpostu bat oposizio bidez betetzeko. 4598
- DEIALDIA, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak apirilaren 7an emandako 34/2008 Ebazpenaren bidez onetsia, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko bidez, ubide eta portuetako ingeniari izateko lanpostu bat oposizio bidez betetzeko. 4604
- DEIALDIA, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak martxoaren 31ko 1014/2008 Ebazpenaren bitartez onetsia, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko herri lanetako ingeniari tekniko izateko 9 lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko. 4609
- DEIALDIA, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak martxoaren 31ko 1032/2008 Ebazpenaren bitartez onetsia, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko zaintzaile izateko 36 lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko. Horietatik 15 lan araubideko lanpostuak dira, aste-buruetarako lanaldi partzialeko kontratuarekin. 4611
- 1.3. BESTELAKO XEDAPENAK**
- 1.3.1. Lurraldearen antolamendua eta hirigintza**
- 519/2008 EBAZPENA, martxoaren 31koa, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza zuzendari nagusiak emana, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak otsailaren 12an emandako 28/2008 Foru Agindua Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu dadila xedatzen duena. Foru
- agindu horren bidez behin betikoz onetsi da Cascanteko Udal Plana Calchetas alderdian (AR-7) aldatzeko espedienteak, Residencial Tudela, S.L.k sustatua. 4614
- 1.3.3. Nahitaezko desjabetzeak**
- ERABAKIA, 2008ko apirilaren 7koa, Nafarroako Gobernuak hartua, "Erriberriko mendebaldeko hondakin uren hodia eta ponpaketa" izeneko proiektuaren lanek ukitutako ondasun eta eskubideen okupazioa presakoa dela adierazten duena, nahitaez desjabetzeko. 4614
- 1.3.4. Dirulaguntzak eta bekak**
- 45/2008 FORU AGINDUA, martxoaren 14koa, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilariak emana, establezimendu turistikoek kalitate turistikoaren "Q" ziurtagiria lortzeko eta mantentzeko laguntzen 2008ko deialdia onesten duena. 4615
- 57/2008 FORU AGINDUA, apirilaren 8koa, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilariak emana, elkarteek, toki entitateek eta partzuergoek turismo garapenerako jarduerentzako 2008. urterako laguntzen deialdia onesten duena. 4616
- 59/2008 FORU AGINDUA, apirilaren 8koa, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariak emana, elkarteek, toki entitateek eta partzuergoek 2008. urtean turismoa sustatzeko egiten dituzten jardueren laguntzeko deialdia onesten duena. 4620
- 1220/2008 EBAZPENA, apirilaren 9koa, Enpresa zuzendari nagusiak emana, Interneteko banda zabaleko konexiorako diru-laguntzen 2008. urteko deialdia onesten duena. 4623
- 1.3.6. Beste batzuk**
- 85/2008 EBAZPENA, martxoaren 27koa, Ikuskapenaren eta Zerbitzuen zuzendari nagusiak emana, Iruñeko "Ursulinas" ikastetxe pribatuaren baimena aldatzen duena, titulartasuna aldatzea-gatik. 4624
- 614/2008 EBAZPENA, martxoaren 26koa, Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiak emana, Antonio Iriarte Esparza jaunak Kasedako udal mugapean (San Isidro del Pinar) sustatu duen zerri gizendegiari Ingurumen baimen integratua eman eta proiektu horrek ingurumenean duen eragina adierazten duena. 4624
- 668/2008 EBAZPENA, martxoaren 31koa, Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiak emana, Ingurumen baimen integratua ematen duena Biurrun-Arrizabalagako udal mugapeko irin fabrika baterako. Jardueraren titularra Guria, S.A. da. 4625
- 669/2008 EBAZPENA, martxoaren 31koa, Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiak emana, Ingurumen baimen integratua ematen duena Bargoutako udal mugapeko zerri ustiategi baterako (zerri haztegi mistoa, ugalketarako zerramak, eta 20 kg-ko zerrikumeak hazi eta 100 kg arteko gizentzea). Jardueraren titularra Kaldias Etxaldea da. 4626
- 670/2008 EBAZPENA, martxoaren 31koa, Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiak emana, Ingurumen baimen integratua ematen duena Caparrosoko udal mugapeko zerri ustiategi baten jarduerarako (gizendegia). Jardueraren titularra David Fuente Aranaz da. 4627

|   | ORRIALDEA |  | ORRIALDEA |
|---|-----------|--|-----------|
| – LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE DEPARTAMENTUA. Iragarkia.                          | 4627      | <b>2.3. BESTELAKO XEDAPENAK</b>                          |           |
| <b>II. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA</b>   | 4628      | <b>2.3.1. Baimen eta lizentziak</b>                      | 4654      |
| <b>2.1. ORDENANTZAK ETA BESTELAKO XEDAPEN OROKORRAK</b>                                 | 4628      | <b>2.3.2. Kontratazioa, obrak eta zerbitzu publikoak</b> | 4654      |
| <b>2.2. AGINTARIAK ETA LANGILEAK</b>  |           | <b>2.3.4. Aurrekontuak-Toki Ogasunak</b>                 | 4655      |
| <b>2.2.1. Kargu-uzteak, izendapenak eta bestelako egoerak</b>                           | 4645      | <b>2.3.5. Beste batzuk</b>                               | 4659      |
| <b>2.2.2. Plantilla Organikoa, Lan Publikoaren Eskaintza, oposizioak eta lehiaketak</b> | 4645      | <b>V. ESTATUKO ADMINISTRAZIOA</b>                        | 4664      |
|   |           | <b>VIII. IRAGARKIAK</b>                                  | 4667      |
|   |           | <b>8.1. BESTELAKO IRAGARKI OFIZIALAK</b>                 | 4667      |
|   |           | <b>8.2. PARTIKULARREN IRAGARKIAK</b>                     | 4676      |

## I. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

### 1.1. XEDAPEN OROKORRAK

#### 1.1.4. Ebazpenak

**721/2008 EBAZPENA, apirilaren 3koa, Osasun zuzendari nagusiak emana, Osasun Departamentuak 2008an sustatuko dituen ikerketa proiektuak arautuko dituzten baldintzak ezartzen dituena.**

Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak, Nafarroan Osasun Zientzien arloko ikerketa sustatu beharraz jabetu da, Zientzia eta Teknikaren Ikerketa Sustatu eta Koordinatzeko apirilaren 14ko 13/1986 Legeak, Osasun Sistema Nazionalaren kohesio eta kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legeak eta Ikerketa Biomedikoari buruzko uztailaren 3ko 14/2007 Legeak ezarritako esparruan, eta Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legearen Hamargarren Tituluan, "Osasun irakaskuntza eta ikerketa" izenekoan, ezarritakoa betez.

Osasun Departamentuaren egitura organikoa ezarri zuen otsailaren 24ko 45/2005 Foru Dekretuak Osasunaren Irakaskuntza, Ikerketa eta Garapen Zerbitzuaren esku uzten du Osasun Zientzien arloko ikerketa eta berrikuntza teknologikoaren sustapena, Osasun Departamentuaren finantzaketarekin egiten dena, nazioko eta nazioarteko I+G+B planen barruan.

Ebazpen honen helburua da diziplina biomediko oinarriko, kliniko eta epidemiologiko eta osasun zerbitzuei buruzko ikerketa proiektuak, bai eta osasun publikoak ere, sustatzea, 2008an, osasun arloan eta Nafarroako Osasun Sistemaren eraginik handiena duten arloetan.

Osasunaren Irakaskuntza, Ikerketa eta Garapen Zerbitzuko Ikerketa Biomedikoaren Atalak luzatu duen txostena aztertutik, eta Osasunaren Irakaskuntza, Ikerketa eta Garapen Zerbitzuko zuzendariak eta Ogasuneko Kontu-hartzaileak sortutako gastua zein aurrekontu aplikaziori esleituko zaion, aplikazio hori onetsirik, bidezko da Osasun Departamentuak 2008. urtean sustatuko dituen ikerketa proiektuak arautuko dituzten baldintzak onestea.

Adierazitakoarekin bat, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 22.1 artikulua ematen dizkidan eskurantzak erabiliz,

#### EBATZI DUT:

1. Osasun Departamentuak 2008. urtean sustatuko dituen ikerketa proiektuak arautuko dituzten baldintzak onestea, ebazpen honen I. eta II. eranskinetan xedatutakoari jarraikiz.

2. Ebazpen hau eta eranskinak Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

3. Ebazpen hau eta eranskinak igortzea Osasun Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusira, Osasunaren Irakaskuntza, Ikerketa eta Garapen Zerbitzura eta Ikerketa Biomedikoaren Atalera.

4. Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa jartzen ahalko da, Osasun kontseilariari zuzendua, argitaratu eta biharamunetik hila-beteko epean.

Iruñean, 2008ko apirilaren 3an.–Osasun zuzendari nagusia, Enrique Martín de Marcos.

#### I. ERANSKINA

##### Arauk

1.–Osasun Departamentuak Osasun Zientzietako ikerketa proiektuak sustatuko ditu 2008an, modalitate hauen arabera:

A) modalitatea: Ortiz de Landázuri beka, oinarritzko ikerketarako, ebazpen honen I. eta II. eranskinetan adierazten diren zehaztapenekin.

Modalitate honetan, hiru proiektu onenak hautatuko dira; lehenbizikoari, haren kalitatearengatik hala merezi badu, "Ortiz de Landázuri beka" izena emanen zaio, eta beste biak akzesitak izanen dira.

B) modalitatea: ikerketa kliniko eta epidemiologikoa, Foru Komunitatearentzat interesgarriak diren arloetan eta, bereziki, ebazpen honen II. eranskinen lehentasunezko arlotzat jotzen direnetan. Horretaz gainera, lehentasuna emanen zaie masa kritiko ikertzaile gutxi duten eta Osasun Sistemaren garrantzitsuak diren programei, hala nola Oinarritzko Osasun Laguntzako ikerketari.

Aipatutako II. eranskinen B) modalitateko Osasun Sistemaren garapenari buruzko ikerketa proiekturik hoberenari, haren kalitatearengatik hala merezi badu, "Ikerketarako Mikel Larumbe Zazu beka" izena emanen zaio.

2.–Prozedura antolatzeke, instruitzeko eta ebazteko eskumena duten organoak.

Arauetan ezarritako ondorioetarako, proiektuak onartzeko prozedura antolatzeke eta tramitatzeko eginkizunak esleitzen zaizkio Osasun Departamentuko Osasunaren Irakaskuntza, Ikerketa eta Garapen Zerbitzuko Ikerketa Biomedikoaren Atalari. Organo instruktorearen ebazpen proposamena zazpigarren arauan ezarritako batzorde teknikoak emandako irizpenari jarraikiz egiten da. Arauetan "organo instruktorea" aipatzen denean, Ikerketa Biomedikoaren Atalari egiten zaio erreferentzia.

Diru-laguntzak emateko prozedura ebazteko eskumena Osasun zuzendari nagusiari dagokio.

#### 3.–Eskatzaileak.

Ikerketa proiektuak proposatzen ahalko dituzte, ikertzaile nagusi gisa, osasun zentro publikoak eta Nafarroako unibertsitateei atxikitako pertsonak. Halaber, Nafarroako irabazi-asmorik gabeko bestelako erakunde publiko zein pribatuetako ikertzaileek ere proposatzen ahalko dituzte.

Ikertzaile nagusia ezin izanen da Osasun Departamentuak finantzatutako proiektu batean baino gehiagotan agertu. Taldekide guztiek debekatuta izanen dute aldi berean abian diren proiektu bitan baino gehiagotan aritzea.

Prestakuntza espezializatua hartzen ari diren profesionalak ez dira proiektuko ikertzaile nagusi izaten ahalko, baina bai, ordea, ikerketa taldekide.

#### 4.–Eskaerak.

##### 4.1. Eskaerak agiri hauek bilduko ditu:

1. agiria: ikertzaile nagusiak eta proiektua zein zentro edo erakundetan egiten den, hango legezko arduradunak sinatutako eskabidea. Proiektua hainbat zentrotan gauzatu behar bada, zentro bakoitzeko eskabide bana bete beharko da. Erreferentziako zentroa ikertzaile nagusiarena izanen da.

II. eranskinen sailkapenaren arabera, eskabide guztietan Ebaluazio eta Prospektiba Agentzia Nazionalen dagokien arloa azalduko da, ebaluazioari begira. Orobat, kasu guztietan, "A modalitatea (oinarritzko ikerketa)" edo "B modalitatea (ikerketa kliniko eta epidemiologikoa)" atalak beteko dira.

B modalitateko eskabideen kasuan, gainera, proiektuari dagokion lehentasunezko arloa adieraziko da, II. eranskinarekin bat.

##### 2. agiria: ikerketa proiektuaren memoria.

3. agiria: ikertzaile nagusiaren curriculum vitae eta gainerako taldekideen curriculumen laburpena, proiekturako interes handieneko alderiak zein diren adieraziko duena eta eskura dagoen eredu normalizatutaren arabera, 4.2 atalean ezarritakoari jarraikiz.

4. agiria: txosten bat, zentro edo erakundeko zuzendariak sinatua. Horren bidez, talde ikertzaileari proiektua burutzeko baimena emanen zaio. Horretan zehaztuko da zenbat ordu kontatuko diren horretarako ikertzaileen lanaldian, eskatzen diren ordu guztien artean. Proiektuak zentro batekoak baino gehiagokoak badira, zentro horien txosten bana beharko da.

5. agiria: ikerketa zein zentrotan egingen den, hango ikerketa batzordearen txostena. Ikerketa batzorderik ez badago, txostena zentro edo erakundeko zuzendaritzak egingen du. Proiektuak zentro batekoak baino gehiagokoak badira, zentro horien txosten bana beharko da.

6. agiria: zentrotako etika batzordeak luzatuko duen txostena, proiektuan gizakiak ikertzen direnean edo giza jatorriko lagin biologikoak erabiltzen direnean. Zentroan etika batzorderik ez badago, Nafarroako Foru Komunitateko Ikerketa Klinikoko etika batzordeak egingen du ebaluazioa. Saio klinikoa izanez gero, Nafarroako Foru Komunitateko Ikerketa Klinikoko etika batzordeak eta Osasun eta Kontsumo Ministerioko Sendagaien eta Osasun Produktuen Agentziak txosten bana luzatu beharko dute. Azken txosten hori eskaeraren ondoren aurkezten ahalko da, betiere 2008ko abenduaren 15a baino lehen, eta ezinbesteko betebeharrak izan da onarpenaren agiria formalizatzen.

7. agiria: Osasun Zientzietako ikerketa sustatzeko bestelako agentzien finantzaketa baldin badago, proiektua elkarrekin finantzatu zutela adierazten duen ziurtagiria aurkeztu beharko da, eta bertan azaldu eskaera egin duen titularra nor den, proiektuaren izena, iraupena eta zenbatekoa, hala nola finantzaketa zein deialditan lortu zen.

4.2. Dokumentazio normalizatua Osasunaren Irakaskuntza, Ikerketa eta Garapen Zerbitzuko Ikerketa Biomedikoaren Atalean eskuratzeko ahalko da, bai eta Interneteko orri honetan ere: [www.cfnavarra.es/salud/docencia.investigacion](http://www.cfnavarra.es/salud/docencia.investigacion).

5.-Eskaerak aurkezteko epea eta tokia.

5.1. Eskaerak hilaibeteko epean aurkeztuko dira, ebazpen hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik hasita, dagokion eguneko 14:30 arte.

5.2. Eskaerak, ahal dela, Osasun Departamentuko Osasunaren Irakaskuntza, Ikerketa eta Garapen Zerbitzuko erregistroan aurkeztuko dira (Nafarroako Ospitaleko Irakaskuntza Pabilioia), edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aipatzen diren erregistro edo bulegoetan.

Postetxeetan aurkezten diren eskaerak gutun-azal irekietan sartuko dira, lehenbiziko orrialdeko goiko aldean onartu zeneko eguna eta abenduaren 3ko 1829/1999 Errege Dekretuan, posta zerbitzuak arautzen dituen horretan, aipatzen diren gainerako zehaztapenak adieraz daitezten. Eskaera igortzen duen egun berean, interesdunak igorpenaren berri eman beharko dio Osasun Departamentuko Osasunaren Irakaskuntza, Ikerketa eta Garapen Zerbitzuari, telefax bidez.

5.3. Eskaerak aipatutako baldintzak betetzen ez baditu, organo instruktoreak interesdunari eskatuko dio gehienez ere 10 egun balioduneko epean akatsak zuzen ditzala eta jakinaraziko dio, zuzentzen ez baditu, bere eskaera ezetsi eta artxibatu egingen dela, beste tramiterik gabe.

6.-Proiektuen onarpena.

Batzorde tekniko batek eskaerak baloratu, eta proiektuak onartzeko proposamena egingen du. Batzorde hori Osasun zuzendari nagusiak izendatuko du eta kide hauek izanen ditu:

-Deialdiko kudeaketarekin lotutako bi pertsona.

-Nafarroako Osasun Sistemako ikerketa batzordeetako bi kide.

-Ikerketan adituak diren lau pertsona.

7.-Eskaeren balorazioa.

Batzorde teknikoak baloratuko du proiektuak eskatutako modalitate egokitzeko ote diren. Eskaerak ezetsiko ditu, edo proiektuaren gaira hobeki egokitzeko den modalitatean sartuko.

Osasunaren Irakaskuntza, Ikerketa eta Garapen Zerbitzuko Ikerketa Biomedikoaren Atalak Ebaluazio eta Prospektiba Agentzia Nazionalera igorriko ditu onartutako proiektuak, bertan baloratzen. Ebaluazio hori Osasun zuzendari nagusiak izendatutako batzorde teknikoaren esku utzi, eta batzorde horrek proiektuak onartzeko proposamena egingen du, irizpide hauek baloratu ondoren:

1) Proiektuaren kalitatea, interes zientifikoa eta bideragarritasuna, baloraziorako kanpoko erakundeak emandako balorazio-txostenaren arabera.

2) Proiektua ebazpen honen xedeetara egokitzeko den, alderdi hauek era positiboan baloratuz:

-Lehentasunetzotzat jotako arloekin bat datorren ebaluatzea, B modalitatearen kasuan.

-Proiektua egokitzeko ote zaion ikertzaile taldeak finkaturik duen ikerketa ildoari. Hori baloratzen, ikertzaileen argitalpenek izan duten garrantzi zientifikoa aztertuko da. Ikertzaile talde berriek egindako pro-

posamenak ere aintzat hartuko dira, ikerketarako metodologiari buruzko prestakuntza dutela frogatzen badute, proposaturiko helburuak beteko direla bermatzea badago eta deialdiko gainerako baldintzak betetzen badituzte.

-Ikertzaile nagusiak bere helburuak lortu ote dituen lehenago finantzaturiko proiektuetan.

-Proiektuan zentro eta laguntza maila desberdinak lankidetzan aritzea eta diziplina anitzeko ikerketa taldeak izatea.

-Osasun Zientzietan ikerketa sustatzeko beste agentzia batzuek, ofizialki aitortuek, elkarrekin finantzatzeko baimena ematea.

-Ezarrirako finantza baliabideak proiektuan proposatutako helburuetara egokitzea.

8.-Ikerketa proiektuen onarpena eta formalizazioa.

Osasun zuzendari nagusiak, ebazpen bidez, eta batzorde teknikoak eginiko proposamen arrazoituari jarraikiz, Osasun Departamentuak sustatuko dituen ikerketa proiektuak zehaztuko ditu, berari eskatzen zaizkion artean; zenbatekoa, gastu kontzeptuak eta urtesariak adierazi beharko ditu.

Ebazpena eskatzaile guztiei jakinaraziko zaie, bai ikertzaile nagusiari bai ikerketa zein zentrotan burutzen den, zentro horretako zuzendariari, eta jendaurrean paratuko da, Osasunaren Irakaskuntza, Ikerketa eta Garapen Zerbitzuko iragarki oholean, bai eta Interneteko webgune honetan ere: [www.cfnavarra.es/salud/docencia.investigacion](http://www.cfnavarra.es/salud/docencia.investigacion).

Ikertzaile nagusiarentzako jakinarazpenari onarpen agiria, finantzaketa egin baino lehen formalizatu beharrekoa, erantsiko zaio, behar bezala beteko da eta aipatutako Osasunaren Irakaskuntza, Ikerketa eta Garapen Zerbitzuko Ikerketa Biomedikoaren Atalera igorriko da.

Proiektua onartzen ez bada, eskabidearekin batera aurkeztutako dokumentazioa berreskuratzeko epea hilaibete batekoa izanen da, jakinarazpena jasotzen denetik aurrera.

Azken memoria, Osasun Departamentuak aurretik finantzaturako proiektuen gastuen justifikazioa barne, aurkezten ez duten ikertzaile nagusiek ezin izanen dute proiektu gehiago formalizatu.

9.-Finantzaketa.

9.1. Ikerketa proiektuetarako finantzaketa ez da 30.000,00 eurotik gorakoa izanen proiektu bakoitzeko eta urteko, eta proiektuak sortutako gastuak finantzatzeko izanen da, osorik edo hein batean.

9.2. Proiektuen iraupena, gehienez, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 9ko 13/2007 Foru Legearen 40. artikuluan inbertsio-erako ezarrirakoa izaten ahalko da, bertan ezarrirako baldintzak zehatz-mehatz beteko.

9.3. Ikertzaile taldeko kideek ez dute laguntzarik jasoko, ezta prestakuntza espezializatua jasotzen ari diren lizentziadunek ere.

9.4. Ikerketa proiektuan bi motatakoa izan daiteke ordaindutako laguntza.

a) Proiektuaren kontura kontratatutako langileak. Haien ezaugarriak edo gaien aukerak direla-eta laguntza ikertzaileak kontratatu behar dituzten ikerketa proiektuei 16.000,00 euro ematen ahalko zaizkie urtean, horretarako. Zenbateko horretan sartzen dira gizarte segurantzaren kuota.

Proiektuaren konturako langileak kontratatzen, proiektua aurkezteko baimena eman zuen zentrotako edo erakundeko zuzendariaren baimena beharko da.

Proiektuaren konturako langileak, Nafarroako Gobernuak eta haren erakunde autonomoetako ikertzaileen proiektuetarako kontratatutako direnak, Miguel Servet fundazioaren bidez kontratatuko dira.

b) Zerbitzu profesionalak kontratatzea, behar bezala justifikatuak eta proiektua burutzeko premiazkoak badira. Haien kuantifikazioa orduen arabera izanen da edo, bestela, egindako lan unitatearen arabera (inkestak, aholkularitzak, etab.).

9.5. Adostutako finantzaketa honela burutuko da:

-2008ko ekitaldiari dagokiona osorik ordainduko da, onarpen agiria bete ondok.

-Hurrengo aurrekontu ekitaldiarako onetsitako finantzaketa Osasunaren Irakaskuntza, Ikerketa eta Garapen Zerbitzuko Ikerketa Biomedikoaren Atalak bere txostena egin ondok gauzatuko da, urteko memoria aurkeztu eta harekiko adostasuna agertu eta gero, eta horien ordainketa kontzeptuz kontzeptu egingen da, honela:

a) Material inbertariagarria: osorik.

b) Gainerako kontzeptuak (proiektuaren konturako langileak, material suntsikorra, profesionalen zerbitzuak eta gastu osagarriak): hiru-hilebeteka, aurretik.

10.-Ordaintzeko prozedura.

Proiektuari esleitzen zaion zenbatekoa ordainduko zaio ikertzaile nagusiari, bankuko kontuan. Kontu horretan titular gisa agertu, eta dirua zein proiektuetarako den adieraziko da.

Proiektuaren kudeaketa ekonomikorako lankidetzaz hitzarmenik bada ikertzaile nagusiaren eta Miguel Servet fundazioaren artean, fundazio horri ordaintzen ahalgo zaio.

#### 11.–Proiektua gauzatzea.

11.1. Proiektua ebazpen honetan eta ikertzaile nagusiaren eta Osasun zuzendari nagusiaren artean sinatzen duten onarpen agirian aurreikusitako moduan garatuko da.

11.2. Aurreikusitako garapen horretan gertatzen den aldaketa oro jakinarazi beharko zaio Osasunaren Irakaskuntza, Ikerketa eta Garapen Zerbitzuko Ikerketa Biomedikoaren Atalari.

Egindako lana aurreikusitako garapenari ez zaiola egokitzen frogatzen bada, Osasun zuzendari nagusiak, Osasunaren Irakaskuntza, Ikerketa eta Garapen Zerbitzuko Ikerketa Biomedikoaren Atalak egindako txosten arrazoitua ikusita, bertan behera uzten ahalgo du proiektuaren finantzaketa, izan daitezkeen erantzukizunak ezertan galarazi gabe.

11.3. Urte bakoitzeko abenduaren 15a baino lehen, ikertzaile nagusiak emaitza teknikoak eta aurrekontuaren gauzatzeari buruzko urteko memoria eguneratua eta laburbildua aurkeztu beharko du, Osasunaren Irakaskuntza, Ikerketa eta Garapen Zerbitzuko Ikerketa Biomedikoaren Atalean. Gastu guztiak jatorrizko agirien bidez justifikatuko dira. Gero, horiek itzultzen ahalgo dira, interesdunak eskatuta, behar diren egiaztapenak egin ondoren. Proiektuaren kontura kontratatutako langileei ordaintzeko aurrekontuetan dirurik bada, jatorrizko agiriak aurkeztu beharko dira, ordainketa egiaztatzeko.

Kudeaketa ekonomikorako lankidetzaz hitzarmenik bada ikertzaile nagusiaren eta Miguel Servet fundazioaren artean, aurrekontua gauzatzean memoria fundazioak aurkezten ahalgo du.

11.4. Osasunaren Irakaskuntza, Ikerketa eta Garapen Zerbitzuko Ikerketa Biomedikoaren Atalak ordainketa proposamenari diru-laguntzaren helburuak bete direla frogatzen duen txostena erantsiko dio.

#### 12.–Proiektuaren amaiera.

12.1. Ikerketa amaitu eta hilabeteko epean, ikertzaile nagusiak amaierako memoria igorriko du Osasunaren Irakaskuntza, Ikerketa eta Garapen Zerbitzuko Ikerketa Biomedikoaren Atalera, xehetasun hauekin:

a) Memoria tekniko xehatua. Bidezkoa denean, argibide osagarriak eskatzen ahalgo dira.

b) Proiektuaren laburpena. Laburpen hori Osasun Departamentuaren "Anales del Sistema Sanitario de Navarra" izeneko aldizkarian argitaratzen ahalgo da, Osasun Departamentuak onarturiko proiektuen sailean.

c) Memoria ekonomikoa: bertan justifikatuko dira finantzaketarekin lotzen diren gastuak, jatorrizko agirien bidez. Banku mugimenduen agiria erantsiko da.

Edonola ere, Osasunaren Irakaskuntza, Ikerketa eta Garapen Zerbitzuko Ikerketa Biomedikoaren Atalari dagokio behar diren ikuskapenak egitea eta bidezko erregulazioak proposatzea.

12.2. Proiektuaren amaieran, Nafarroako Gobernuak finantzaturako material inbentariagarria bere beharren arabera erabiliko du.

12.3. Material bibliografikoa proiektua egin duen zentro edo erakundearen esku geratuko da, proiektuaren amaieran.

#### 13.–Konpromiso osagarriak.

13.1. Finantzaketa onartzeak, ikertzaile taldearentzat, ebazpen honetan ezarritako baldintzak ere onartzea dakar.

13.2. Ebazpen honetan eta aplikatzeak diren beste arauetan ezarritako betebeharrak edo proiektua onartzeko agirian ezarritako baldintzak erabat edo hein batean bete ezik, proiektua bertan behera utzi, eta kobraturiko dirua itzuli beharko da, izan litekeen erantzukizuna deusetan ukatu gabe.

13.3. Proiektua burutzeko zentroak edo erakundeak, hirugarrenei eta zentroari berari proiektua buruzetik etor dakizkiekeen arriskuen esaldura behar du izan proiektuarekin ikustekorik duten inguruabarren aurrean.

13.4. Ikerketa proiektu horretarako beste edozein motatako diru-laguntzarik eman baldin bada, horren berri eman beharko zaio Osasunaren Irakaskuntza, Ikerketa eta Garapen Zerbitzuko Ikerketa Biomedikoaren Atalari, Osasun Zuzendaritza Nagusiari jakinaraz diezaion. Azken horrek ikerketa proiektuaren baldintzak aldatzen ahalgo ditu.

13.5. Ikerketa proiektuek hauek bete beharko dituzte: Helsinkiko Adierazpenean, giza eskubideei eta biomedikuntzari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmenean, eta giza genomari eta giza eskubideei buruzko UNESCOren Adierazpen Unibertsalean ezarritako oinarritzko hastapenak, eta Ikerketa biomedikoari buruzko uztailaren 3ko 14/2007 Legean, Datuak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta ikerketa biomedikoaren arloan aplika daitezkeen gainerrak arauetan ezarritako baldintzak.

13.6. Animaliekin saioak egiten dituzten proiektuak indarra duen arautegian eta, bereziki, Esperimentu eta beste helburu zientifiko bazuetarako erabiltzen diren animalien babesari buruzko urriaren 10eko 1201/2005 Errege Dekretuan xedaturikoari lotu beharko zaizkio.

13.7. Entsegu klinikoak diren proiektuak legeria indardunak xedatzen duenari lotuko zaizkio, Entsegu klinikoak egiteko arauari buruzko otsailaren 6ko 223/2004 Errege Dekretuaren arabera.

#### 14.–Gastuaren muga.

Ebazpen honetan aipatzen den proiektuak 2008ko aurrekontuetan onetsitako kontu-sailen kontura finantzaturako dira, gehienez ere zenbateko hauekin: 326.550,00 euro, "Lehentasunezko arloetako ikerketa proiektuak" 512002 51320 6092 465102 kontu-sailaren kontura; 85.250,00 euro, "Oinarritzko ikerketa proiektuak. Ortiz de Landázuri beka" 512002 51320 6092 465103 kontu-sailaren kontura; eta 12.700,00 euro, "Osasun kudeaketako ikerketa proiekturako Mikel Larumbe Zazu beka" 512002 51320 6092 465104 kontu-sailaren kontura.

Aurrekontuetako kontu-sail horietakoren batean soberakinak geratuz gero, beste edozeinetan erabiltzen ahalgo da, eman beharreko proiektuen arabera, betiere ezarritako gehiengo zenbatekoa gainditu gabe.

Proiektuak onetsi baino lehen, aurreko deialdietan hitzartutako zenbatekoren bat deuseztatzen bada, zenbateko hori dagokion kontu-sailari gehituko zaio, eta erabilgarri osoa proiektuak emateko beharren arabera esleitzen ahalgo da.

Urte anitzeko proiektuak badira, zilegi izan da hurrengo ekitaldietan ere gastuak finantzatzeko konpromisoa hartzea, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 9ko 13/2007 Foru Legean ezarritakoari jarraikiz, gehienez ere zenbateko hauekin: 336.000,00 euro, "Lehentasunezko arloetako ikerketa proiektuak", "Oinarritzko ikerketa proiektuak. Ortiz de Landázuri beka" eta "Osasun kudeaketako ikerketa proiekturako Mikel Larumbe Zazu beka" izeneko kontu-sailen kontura, 2009ko ekitaldian; eta 190.000,00 euro, "Lehentasunezko arloetako ikerketa proiektuak", "Oinarritzko ikerketa proiektuak. Ortiz de Landázuri beka" eta "Osasun kudeaketako ikerketa proiekturako Mikel Larumbe Zazu beka" izeneko kontu-sailen kontura, 2010eko ekitaldian.

## II. ERANSKINA

### I.–Osasun departamentuko arloak

#### A) modalitatea. Ortiz de Landázuri beka. Oinarritzko ikerketa

Oinarritzko Zientziak (Klinikaurrekoak): oinarritzko ikerketatzat definitzen ahal da, giza patologiarik dagozkion, baina ez ezinbestean giza materialarekin egiten dena. Oinarritzko fenomenoaren azterketarekin zerikusia duten proiektuak hartzen ditu, baldintza edo entitate kliniko bati modu espezifikoan edo orokorrean lotzen ahal zaizkionak. Gai-arlo zabal honi dagozkio oraindik klinikoki aplikatu ez diren prozesu zelularrekin, mekanismo fisiopatologiko oinarritzkoekin, mekanismo immunologiko eta genetikoen lotutako prozesu gehienak.

#### B) modalitatea. Ikerketa klinikoak eta epidemiologikoa

Hauek hartzen ditu barnean:

–Bereziki jarduera klinikoarekin zerikusia duten proiektuak, edozein direla ere horien ikuspuntua edo aztertu beharreko alderdi espezifikoak, eta erizaintzako prozedura eta zainketa bereziak barne direla. Bertan sartzen da, halaber, faktore klinikometrikoei eta eritasunen pronostikoari buruzko Epidemiologia Klinikoko ikerketa. Hemen kokatzen dira, beraz, patologia jakin batzuei edo entitate nosologiko klinikoak dagozkienak, salbu eta, oinarritzkoak direlako, A atalean biltzen direnak.

–Especifikoki edo orokorrean, alderdi edo tresna metodologikoak ukitzen dituzten proiektuak, bai epidemiologian, osasun publikoan eta osasun zerbitzuetan, bai jende multzo handia ukitzen duten patologien eta/edo arriskuen azterlan epidemiologikoetan, bai kolektibitatearen osasun programak ebaluatzean.

Lehentasunezko arloak ("B" modalitateko proiektuak):

#### a) Patologia garrantzitsuak:

- 1.–Eritasun neoplasikoa.
- 2.–Bihotz-hodietako eritasunak.
- 3.–Gaixotasun neurodegeneratiboak eta adimen arazoak.
- 4.–Arnas eritasun kronikoak.
- 5.–Eritasun immunologikoak.
- 6.–Digestio aparatuko eritasunak.

b) Osasuna eta eritasuna baldintzatzen dituzten faktoreak eta osasunaren sustapena

- 1.–Desberdintasunak Osasun arloan.
- 2.–Bizimodu osasungarriak. Osasun hezkuntza.
- 3.–Ezgarritasuna eta errehabilitazioa.
- 4.–Zainketa alternatiboak eta baliabide ez-formalak osasun arazoetan. Komunitatearen parte-hartzea.

- c) Osasun sistemaren garapena  
 1.–Osasun baliabideak eta teknologia.  
 2.–Laguntza prozesuen ebaluazio eta kontrola. Praktika klinikoaren aldakortasuna.

3.–Informazio sistemak.

*II.–Ebaluazio eta prospektiba agentzia nazionalaren arloak*

Nekazaritza (AGR)  
 Biologia Molekularra, Zelularra eta Genetikoak (BMC)  
 Biomedikuntza (BMED)  
 Landare Biologia, Animalia Biologia eta Ekologia (BVA)  
 Elikagaien Zientzia eta Teknologia (TA)  
 Konputazioaren eta Teknologia Informatikoaren Zientziak (INF)  
 Lurraren Zientziak (CT)  
 Gizarte Zientziak (CS)  
 Zuzenbidea (DER)  
 Ekonomia (ECO)  
 Hezkuntza Zientziak (EDUC)  
 Filologia eta Filosofia (FFI)  
 Fisika eta Espazioaren Zientziak (FI)  
 Fisiologia eta Farmakologia (FFA)  
 Abeltzaintza eta Arrantza (GAN)  
 Teknologia Transferentzia (IND)  
 Historia eta Arteak (HA)  
 Ingeniaritza Zibila eta Arkitektura (ICI)  
 Ingeniaritza Elektrikoa, Elektronikoa eta Automatikoa (IEL)  
 Ingeniaritza Mekanikoa, Itsasontzietakoa eta Aeronautikoa (IME)  
 Matematika (MTM)  
 Medikuntza Klinikoa eta Epidemiologia (MCLI)  
 Psikologia (PS)  
 Kimika (QMC)  
 Teknologia Elektronikoa eta Komunikazioetakoa (COM)  
 Materialen Teknologia (TM)  
 Teknologia Kimikoa (TQ)

F0805278

## 1.2. AGINTARIAK ETA LANGILEAK

### 1.2.1. Kargu-uzteak, izendapenak eta bestelako egoerak

**ERABAKIA, 2008ko apirilaren 7koa, Nafarroako Gobernuak hartua, Orisoaingo Udaleko udalburu-kudeatzailea izendatzen duena.**

Orisoaingo herria kontzeju irekiaren bidez antolatutako dago, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 32. artikuluan 1. idatz-zatian ezarritakoarekin bat.

Udal hauteskundeetan Orisoaingo Udalaren barrutian hautagai-zerrendarik aurkeztu ez zenez, bidezkoa da udalburu-kudeatzailea izendatzea, Hauteskundeetako Araubide Orokorri buruzko Lege Organikoaren 179., 181. eta 182. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Horrenbestez, Nafarroako Gobernuak, Toki Administrazioiko kontseilariak proposatuta,

ERABAKI DU:

1. María Victoria Labiano Alvarez andrea Orisoaingo Udaleko udalburu-kudeatzaile izendatzea.
2. Erabaki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.
3. Erabaki honen berri ematea Orisoaingo Udalari.

Iruñean, 2008ko apirilaren 7an.–Nafarroako Gobernuak kontseilari eta idazkaria, *Javier Caballero Martínez*.

F0805358

**58/2008 FORU AGINDUA, martxoaren 28koa, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak emana. Horren bidez, Arkitektura eta Kontserbazio Bulegoa Obra eta Azpiegitura Atalari atxikitzen zaio, eta José Antonio Uribarri Quintana jauna Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Ondare Zerbitzuaren Obra eta Azpiegitura Ataleko Arkitektura eta Kontserbazio Bulegoko buru izendatzen da, bitarte baterako.**

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legeak, 24.4 artikuluan, ezartzen du bulegoak eta ataletatik beherako unitateak sortu, aldatu eta kentzea, unitate horiek non sartuko diren, departamentu horretako kontseilari titularren foru aginduaren bidez egiten dela.

Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuak, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko Langilearen Estatutuaren testu bategina onesten duenak, hirugarren xedapen gehigarriaren bigarren atalean xedatzen du Foru Komunitateko Administrazioko atalburu eta bulegoburuak organo eskudunak izendatzen ahalko dituela bitarte baterako. Izendatuek, nahitaez, Foru Komunitateko Administrazioiko funtzionarioak edo hari atxikirik dauden langileak izan beharko dute.

Horrenbestez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 24.4 artikulua eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen organoetako langileen arloko eskurantzak zehazten dituen otsailaren 21eko 30/2005 Foru Dekretuak ematen dizkidaten ahalmenak erabiliz,

AGINDU DUT:

1. Arkitektura eta Kontserbazio Bulegoa Obra eta Azpiegitura Atalari atxikitzea.
2. José Antonio Uribarri Quintana jauna, Nafarroako Foru Komunitateko funtzionarioa, Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Ondare Zerbitzuaren Obra eta Azpiegitura Ataleko Arkitektura eta Kontserbazio Bulegoko buru izendatzea, bitarte baterako.
3. Foru agindu jakinaraztea José Antonio Uribarri Quintanari, eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiari eta idazkaritza tekniko nagusiari, behar diren ondorioak izan ditzan.
4. Foru agindu hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

Iruñean, 2008ko martxoaren 28an.–Ekonomia eta Ogasun kontseilari, *Alvaro Miranda Simavilla*.

F0804955

**73/2008 FORU AGINDUA, apirilaren 14koa, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak emana, Camila Almendros Martín andrea, Aurrekontuen eta Ondarearen Zuzendaritza Nagusiko Ondare Zerbitzuko Erosketa Bulegoko burua, kargutik kentzen duena, berak eskatu baitu.**

Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onetsi zuen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuak hirugarren xedapen gehigarriko 2. idatz-zatian xedatzen du atalburuen eta bulegoburuaren bitarte baterako izendapenak indarrik gabe uzten ahal dituela erabaki hori hartu zuen organo berak.

Hori horrela, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen organoetako langileen arloko eskurantzak zehazten dituen otsailaren 21eko 30/2005 Foru Dekretuak ematen dizkidan ahalmenez baliatuz,

AGINDU DUT:

1. Camila Almendros Martín andrea, Aurrekontuen eta Ondarearen Zuzendaritza Nagusiko Ondare Zerbitzuko Erosketa Bulegoko burua, kargutik kentzea, berak eskatu baitu, eta emandako zerbitzuak eskertzea.
2. Foru agindu hau jakinaraztea interesdunari, Ondare Zerbitzuari, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiari eta Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiari.
3. Foru agindu hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea ematea.

Iruñean, 2008ko apirilaren 14an.–Ekonomia eta Ogasun kontseilari, *Alvaro Miranda Simavilla*.

F0805799

**157/2008 FORU AGINDUA, apirilaren 14koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, Camila Almendros Martín andrea Kudeaketa eta Modernizazio Administrazioaren Ataleko buru izendatzen duena, bitarte baterako.**

Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuak, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langilearen Estatutuaren Testu Bategina onesten duenak, hirugarren xedapen gehigarrian ezartzen du Foru Komunitateko Administrazioiko atalburu eta bulegoburuak organo eskudunak izendatzen ahalko dituela bitarte baterako. Nahitaez, Foru Komunitateko Administrazioiko funtzionarioak edo hari atxikiak izan beharko dute.

Halaber, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legeko seigarren xedapen gehigarriak ezartzen duenez, kasuan kasuko unitate organikoak atxikirik dagoeneko departamentuko titularrak izendatuko ditu buruak bitarte baterako, funtzio publikoaren arloan eskudun den departamentuak adostasun txostena eman ondoren.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak 2008ko apirilaren 9an adostasun txostena eman duelarik eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen orga-

noetako langileen arloko eskurantzak zehazten dituen otsailaren 21eko 30/2005 Foru Dekretuak ematen dizkidan ahalmenez baliatuz,

AGINDU DUT:

1. Camila Almendros Martín andrea, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari funtzionarioa, Kudeaketa eta Modernizazio Administrazioaren Ataleko buru izendatzea bitarte baterako.

2. Foru agindu hau Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiari, Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiari eta interesdunari igortzea.

3. Foru agindu hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2008ko apirilaren 14an.—Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria, *Begoña Sanzberro Iturriria*.

F0805800

**914/2008 EBAZPENA, martxoaren 25ekoa, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko administrari laguntzaile izateko 255 lanpostu oposizio bidez betetzeko deialdia ebazten duena. 255 lanpostu horietatik 10 lan araubidekoak dira, 6 lanaldi partzialeko kontratukoak eta 4 Errenta Kanpainetarako aldizkako langile finkoetarako. Ebazpen honen bidez 243 izangai izendatzen dira eta beste 10en kontratu mota zehazten da; lanpostu hutsak esleitzen dira, funtzionario araubideko 3. mailako euskara jakite maila eskatzen duen lanpostu bat eman gabe uzten da eta Elena Gil Cabañas andrearen izendapenaren tramitazioa eten egiten da eragiten dion ezinbesteko kasuaren arrazoia bukatu arte.**

Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak martxoaren 25ean emandako 914/2008 Ebazpenaren bitartez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko administrari laguntzaile izateko 255 lanpostu (10 lan araubidekoak dira, 6 lanaldi partzialeko kontratukoak eta 4 Errenta Kanpainetarako aldizkako langile finkoetarako) oposizio bidez betetzeko deialdia ebartziz, honako hauek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko funtzionario izendatu dira, administrari laguntzaile lanpostuan aritzeko: Helena Armendáriz Semberoi, Carmen Aránzazu Filgueira Izcue, María Dolores Ibero Pérez, Francisco José Inchausti Arana, Iñigo Larrondo González y Dolores Nieto Navarro, igoera txandako izangaiak; Laura Aguado Escribano, María José Andrés Sánchez, Francisco Javier Jiménez Samanes y Estíbaliz Martínez Zurbano, ezintasunen bat dutenentzako txandakoak; eta Virginia Abad Oyarzun, María Macarena Abeti Pérez, Fernando Agreda Lizáldez, Beatriz Aguirre Baines, María Carmen Alava Jiménez, Beatriz Alzueta Oteiza, Myriam Alzueta Goyeneche, Daniel Andueza Gay, María Teresa Ansa Reclusa, Marta Ansorena Castillejo, Irene Antúnez Gurucharrí, Angel Aranguren Vallés, María José Arazuri Del Campo, Elena Arce Guillén, Eduardo Ardanaz Palacios, Ana María Arilla Sagüés, Amaya Arizcuren Zazpe, María Angeles Armendáriz Lasso, Ainhoa Arnaiz Tomé, Verónica Arnaiz Tomé, Ana Bella Aróstegui Lajusticia, María Dolores Arraiza Saldise, Beatriz Arrastia Larión, María Isabel Arrechea Irigoyen, Marta Asensio Ilzarbe, Ainhoa Aspazu Otín, Eva Astiz Inchusta, Miguel Asurmendi Salvide, Izaskun Auzu Dorronsoro, Miguel Azcárate Berango, Itziar Azcárate Langarica, Emilio María Azcona Ochoa, Sandra Azpilicueta Ansorena, Uxue Azpilicueta González, Beatriz Baleztena Burguete, Delia Belinchón Heras, María Teresa Berián Burgui, Maite Berrade Espinal, Ainhoa Blanco Azcona, María Gracia Blanquet Sánchez, María Jesús Burguete Equiza, Amaia Cabodevilla Eocay, José Luis Calvo Regueiro, Carlos Campo Ustároz, Iñaki Carlos Ibáñez, Silvia Castiella Alonso, Elena Castilla Vico, Ana Castillo Huguet, Iciar Celigueta Labairu, María Aránzazu Cemboráin García, Ana María Cerdán Sayes, Susana Charles González, María Cruz Cueli Orradre, María Dolores De la Mota Arzo, Pilar Del Burgo Aldaya, David Del Castillo Fuertes, Ana María Díaz Galindo, María Aránzazu Díez Andión, María Elena Díez Andión, Margarita Ducay Sabando, Francisco Javier Echarri Fernández, Nerea Echarte Etchepare, Begoña Echechiquía Pérez, Elena Egea Alfaro, María Elena Elcano Vizcay, Nora Elduayen Olleta, Sonia Elorz Cabodevilla, Angel Eransus Redín, María Izaskun Erviti Gastesi, María Dolores Escosteguy Goñi, Juan Antonio Escribano Sanz, María Sagrario Esnoz Vidaurre, Idoia Feliu Martínez, María Fernández García, María Alba Fernández García, Ana Cristina Fernández Trigo, Myriam Filgueira Izcue, Francisco Javier Franchez Apechechea, Eduardo Frías Pardo, Raquel Galar Beorlegui, Ainhoa Galarregui Argárate, Edurne Galarreta Lizarbe, María José Gárate Beaumont, Iñigo Fermín Garayoa Alvira, Unai Garbisu De Goñi, María Arantzazu García Cabriada, Josune García Gamboa, María Pilar García Huarte, Cecilia García Lipúzcoa, Beatriz García Martínez, María Cristina García Vega, María Lourdes García-Mochales Molero, María Garcíarena Otano, Arturo Gil San Pedro, María Isabel Gómez Díaz, Virginia Gómez Elizalde, Miren Goñi Urrizola, Nerea Guruceaga Lizarraga, Amaya Claire Hansen, Marta Hekneby Garteiz-Goxeascoa, Rosa María Hernández

Baigorri, Ana Isabel Hernández Pérez, Carlos Huarte Bortiri, Itziar Igea Larráyo, Susana Mercedes Induráin Zalguizuri, María Jerusalén Iñigo Luri, María Carmen Iriarte Ichaso, Ana Iriarte Zancajo, Ricardo Iribas Latour, Blanca Esther Irrozqui Eguaras, Cristina Istúriz Guembe, Idoya Izco Sanz, María Jesús Jiménez Alzorriz, Isabel Jiménez Vázquez, Itzaso Jolis Larrañeta, Sara Jorge Nepal, Rosa Lydia Juanarena Echeveriz, Celia Juanarena Pérez de Azpeitia, Oksana Kotuzyak, Ana Belén Labiano Macaya, Silvia Lander Erdozáin, Amaya Lanz Gil, Fernando Larequi Razquin, Luis Pablo Larráinzar Aristu, María Joaquina Larramendi Echaide, Izaskun Larráyo Oyarzun, María Lourdes Larraz Moriones, María Carmen Larrea Latasa, Roberto Lasa Anaut, Ana María Lázaro Carretero, Alodia Lecea Compáins, María Lecuona Tornos, Reyes Lerendegui Oyaga, Raquel Lima Zuasti, Elena Loitegui Biurrun, María Angeles López de Arroyabe Alegria, Olga Virginia López Vera, Cristina Lucas Muñoz, Itziar Luis Tellechea, Raquel Luis Tellechea, Celia María Machín Burguete, Angela Maeztu García, María José Marco Cebrián, Zulejka Marcos Díez, María Concepción Marín Pérez, Ana Isabel Martínez Abadía, Idoia Martínez Alcat, Idoia Martínez de Irujo Goñi, César Martínez Eslava, Joseba Martínez Itoiz, Carmen Mauleón Prieto, Silvia Méndez Bertol, José Manuel Méndez López, Esperanza Mendive García, Ana Belén Miguel Rojo, Noelia Miranda Franco, Ana María Monreal Lesmes, Izaskun Moreira Baigorri, Amaia Moreno Chivite, Yolanda Moreno Pérez, María Nieves Muñoz Gómez, María Antonia Ollo Senosiáin, Amaya Oroz Narváez, José Ignacio Orrio Arbizu, María José Ortiz Dávila, Virginia Osanz Macías, Diana Oscáriz Eraso, Sonia Osinaga Nuin, María Inmaculada Otermin Echarri, María Carmen Pagola Goñi, Marta Palacios Pascual, Cristina Pascal Fernández, María Jesús Peña Armendáriz, Carlos Pérez Arraiza, Natalia Pérez de Obanos Rodrigo, Amaia Pérez de San Román Fernández de Zañartu, Rubén Pérez Goñi, Francisco Pérez Larrea, Luis Vicente Pérez Sádaba, Maider Petrirena Gorosterrazu, Noelia Pico Revilla, Alicia Pino Arozarena, María Belén Plazas Bermejo, José Tomás Porto Viguria, Marta Recalde Iglesias, Rosa María Reguera Blanzaco, Beatriz Rentería Serrano, María Ujué Rey Moreno, Margarita Ana Riezu Labiano, María Lourdes Ripa Nava, Ana Rivas Calvar, Isabel Rodríguez Cantero, Clara Ros De la Huerta, Ana Isabel Ros Serrano, Amaia Ruiz Conde, Carlos Ruiz Zamarreño, Ana Sagaseta de Ilúrdoz Larraga, María Angeles Sagastibelza Glaría, María Concepción Sáiz Cubillo, Begoña Salvatierra Galdúroz, Inmaculada Sánchez Alba, Agustín Javier Sánchez Ortega, Angel Santamaría Urdániz, María Victoria Sanz Nalda, Sonia Sepi Izco, Nancy Sesma Fernández, Miriam Sola De Miguel, Laura Sola Les, Carlos Javier Suescun Sánchez, María Elena Tapiz Medina, Susana Tolosana Glaría, Marta Torres González, Nuria Tous Roldán, Patricia Tristán Oliver, Laura Unzué Induráin, Lourdes Urdiáin Guirado, María Cristina Urdín Zubiri, Eduardo Uriz Arangoa, María Milagros Urrizburu González, Juana María Urrutia Alberro, Begoña Vega López, María Vela Jaurrieta, Eva María Vélez Ferreira, María Teresa Villanueva Beloqui, Jesús Villanueva Durantez, Juana María Villanueva Esparza, María Antonia Villanueva Ortabe, Sergio Vitas Aguirre, María José Zabalza Guadalquivir, María José Zapelena Iñiguez, Susana Zardoya Villafraña, Sergio Zozaya Garralda eta Amaya Zufiaur Garde, txanda irekikoak.

Erabaki da lan araubidekoa lanaldi partzialeko kontratuarekin aritzeko honako hauek kontratatzea: María Dolores Carriue Iribarne, María Victoria Jiménez Leiva, Rebecca Mencos Jiménez, Nerea Moreno Macuso, Alfredo Muro Ortiz eta Isabel Pascual Munárriz. Eta Errenta Kanpainetarako aldizkako langile finkoko kontratuarekin honako hauek: María Asunción Arroyo Casares, María Luisa Martínez Cabodevilla, Idoia Mugueta López eta María Katia Pío Osés. Izangai hauek guztiak txanda irekikoak dira.

4. Ebazpen hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara dadila agintzea.

5. Ebazpen hau igortzea interesdunei, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiari, Langileriaren Kudeaketako Zerbitzuari, Langileen Erregistroko Atalari eta Nafarroako Larrialdietako Agentziako Kudeaketa Zuzendaritzari, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2008ko martxoaren 7an.—Nafarroako Larrialdietako Agentziako zuzendari kudeatzailea, David Sainz Jiménez.

F0804830

## 1.2.2. Plantilla Organikoa, Lan Publikoaren Eskaintza, oposizioak eta lehiaketak

**36/2008 EBAZPENA, apirilaren 9koa, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko kiroleko goi mailako teknikari izateko lanpostu bat oposizio bidez betetzeko deialdian onartu eta baztertu diren izangaien behin-behineko zerrenda onesten duena.**

Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak, otsailaren 6ko 11/2008 Ebazpenaren bitartez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko kiroleko goi mailako teknikari izateko lanpostu bat oposizio bidez betetzeko deialdia onetsi zuen. Deialdia 2008ko 26. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, otsailaren 27koan.

Eskabideak aurkezteko epea bukatuak, bidezko da deialdian onartu eta baztertu diren izangaien behin-behineko zerrenda onestea.

Hori horrela, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen organoetako langileen arloko eskurantzak zehazten dituen otsailaren 21eko 30/2005 Foru Dekretuaren bidez esleituak ditudan eskurantzak erabiliz, azaroaren 5eko 235/2007 Foru Dekretuaren bidez eman zaion idazketaren arabera,

EBATZI DUT:

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko kiroleko goi mailako teknikari izateko lanpostu bat oposizio bidez betetzeko deialdian onartu eta baztertu diren izangaien behin-behineko zerrenda onestea. Zerrenda eranskinen ageri da.

Izangai baztertuak hamar egun balioduneko epea izanen dute, behin-behineko zerrenda Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik, erreklamazioak aurkezteko eta, akatsik egin badute, zuzentzeko.

2. Ebazpen hau mahaikideei jakinaraztea eta Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara dadila agintzea, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2008ko apirilaren 9an.—Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzailea, Ignacio Bandrés Urriza.

ERANSKINA

Onartu eta baztertu diren behin-behineko zerrenda

—Txanda irekia:

Onartuak:

ANDRES ALBIASU, JOSE MIGUEL  
AZPIROZ ECHECOLENEA, AMAIA  
BARRETO ANDRADE, JOSE ANTONIO  
BONASTRE PIAZUELO, ISAAC  
CALLEJA ROMERO, ALBERTO  
CELAYETA BEUNZA, JON  
ECHEVERRI CELAYA, YOLANDA  
EGUILLOR URTIAGA, RAQUEL  
GARCIA AMORES, MIKEL  
GIL RESANO, MAITE  
HUGET PEREZ, MARTA  
IRIBERRI BERROSTEGIETA, JON  
IZQUIERDO REDIN, MIGUEL  
LOPEZ BUENO, RUBEN  
MURIEL OTEGUI, XABIER

OSABA MONGE, DANIEL  
URDAMPILLETA OTEGUI, ARITZ  
YANCI IRIGOYEN, JAVIER

Baztertuak:

–Eskabidea epez kanpo aurkezteagatik:  
LOPEZ ÑIGUEZ, IRENE

F0805513

**1044/2008 EBAZPENA, apirilaren 7koa, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko administrazioako erdi mailako teknikari izateko 3 lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bereziaren bidez betetzeko deialdian onartu eta baztertu diren izangaien behin betiko zerrenda onetsi eta Langileen Batzordeak epaimahaian izanen dituen ordezkariak izendatzen dituena.**

Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak, otsailaren 25eko 610/2008 Ebazpenaren bitartez, deialdia onetsi zuen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko administrazioako erdi mailako teknikari izateko 3 lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bereziaren bidez betetzeko. Deialdia 2008ko 29. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, martxoaren 3an.

Eskabideak aurkezteko epea bukatu eta izangai bat ere baztertu ez denez, lanpostuak betetzeko Erregelamenduaren 36. artikuluko 4. atalean xedatutakoari jarraituz, bidezkoa da izangai onartu eta baztertu behin betiko zerrenda zuzenean onestea.

Bidezkoa da, halaber, Administrazio Erroko Langileen Batzordeak epaimahaian aritzeko proposatutako kideak izendatzea.

Horrenbestez, otsailaren 21eko 30/2005 Foru Dekretuaren bidez esleiturik ditudan eskurantzak erabiliz,

EBATZI DUT:

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko administrazioako erdi mailako teknikari izateko 3 lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bereziaren bidez betetzeko deialdian onartu eta baztertu diren izangaien behin betiko zerrenda onestea. Ebazpen honen eranskinean ageri da.

2. Administrazio Erroko Langileen Batzordeak epaimahaian aritzeko proposatu dituen ordezkariak izendatzea: Juan Aranguren Pastor jauna, mahaikide titular, eta Juan José Ayesa López jauna, ordezkari.

3. Ebazpen hau epaimahaikideei igortzea eta Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu dadila agintzea, behar diren ondorioak izan ditzan, eta interesdunei ohartaraztea ebazpenaren aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkezten ahal dela, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariari zuzendua, hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik hasita, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz.

Iruñean, 2008ko apirilaren 7an.–Funtzio Publikoaren zuzendari nagusia, Gregorio Eguilaz Gogorza.

ERANSKINA

*Onartuen eta baztertuaren behin betiko zerrenda*

Onartuak:

ARDAIZ ASTRAIN, JUAN  
AUZMENDI ALUSTIZA, IÑAKI XABIER  
BERMEJO GARDE, MANUEL  
DIAZ DE CERIO FERNANDEZ, FRANCISCO JAVIER  
GOIBURU IMAZ, MARIA JESUS  
GOMARA URDIAIN, MARIA ELENA  
IRIARTE SOTES, FABIOLA  
LARRAYA GALARZA, RAMON  
MURILLO ZABALZA, MARIA ARANZAZU  
SAN MARTIN AYERRA, MIGUEL  
SORBET PEZONAGA, MARIMAR  
TELLECHEA LAVIN, EVA  
VIDAN ASTIZ, ARACELI  
ZABALZA GARCIA, ANA MARIA

Baztertuak: inor ez.

F0805493

**516/2008 EBAZPENA, martxoaren 26koa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua erakunde autonomoan ingeniari tekniko (Aurrea hartzeko Diziplina: Laneko Segurtasuna eta Industria Higienea) izateko lanpostu huts bat merezimendu-lehiaketa bidezko lekualdatzearen bitartez betetzeko deialdia bete gabe uzten duena.**

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak, otsailaren 5eko 168/2008 Ebazpenaren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan ingeniari tekniko (Aurrea hartzeko Diziplina: Laneko Segurtasuna

eta Industria Higienea) izateko lanpostu huts bat merezimendu-lehiaketa bidezko lekualdatzearen bitartez betetzeko deialdia onetsi zuen. Deialdia 2008ko 26. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, otsailaren 27an.

Eskabideak aurkezteko epea bukatu eta izangai bakar bat ere aurkeztu ez denez, bidezkoa da bete gabe uztea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan ingeniari tekniko (Aurrea hartzeko Diziplina: Laneko Segurtasuna eta Industria Higienea) izateko lanpostu huts bat merezimendu-lehiaketa bidezko lekualdatzearen bitartez betetzeko deialdia.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuen Estatutuak onesten dituen uztailaren 3ko 45/2006 Foru Dekretuak eman dizkidan eginkizunak betez,

EBATZI DUT:

1. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan ingeniari tekniko (Aurrea hartzeko Diziplina: Laneko Segurtasuna eta Industria Higienea) izateko lanpostu huts bat merezimendu-lehiaketa bidezko lekualdatzearen bitartez betetzeko deialdia bete gabe uztea.

2. Ebazpen hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

3. Ebazpen hau igortzea mahaikideei, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Laneko Arriskuei Aurrea hartzeko Zerbitzuko buruari eta Deialdiak Tramitzatzeko Unitateari, bai eta Osasun Departamentuko idazkari tekniko nagusiari ere, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2008ko martxoaren 26an.–Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailea, José Carlos Garde Celi-gueta.

F0804978

**547/2008 EBAZPENA, apirilaren 3koa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua erakunde autonomoan OLT/EDU izateko 321 lanpostu huts bat merezimendu-lehiaketa bidezko lekualdatzearen bitartez betetzeko deialdia onesten duena.**

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen ebazpenaren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan OLT/EDU izateko 321 lanpostu huts merezimendu lehiaketa bidezko lekualdatzearen bitartez betetzeko deialdia onetsi da. Hona hemen arauak:

ARAUAK

1.–Arau orokorrak.

Deialdi honetako arauak eta ereduak web orri honetan kontsultatu eta eskuratzeko ahal dira: [www.navarra.es](http://www.navarra.es), "Zerbitzuak" "Enplegu publikoa" epigrafeak.

Hona hemen deialdi hau gobernatzeko duten arauak: Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan sartu eta bertako lanpostuen betetzea arautzen duen azaroaren 22ko 347/1993 Foru Dekretua, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan sartzeko eta bertako lanpostuak hornitzeko prozeduretan aplikatuko diren merezimenduen baremoak arautzen dituen urriaren 3ko 464/2001 Foru Agindua, uztailaren 30eko 203/2001 Foru Dekretua, zeinak agertzen baitu Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantillako zein lanpostu diren euskaraz jakin beharrekoak eta zer jakite maila behar duten, eta zehazten baitu zein lanpostutan hartu behar den euskaraz jakitea beste batzuen arteko merezimendu gisa, eta gainerako arau osagarriak.

1.1. Deialdi honen xedea da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko OLT/EDU izateko 321 lanpostu huts merezimendu-lehiaketa bidezko lekualdatzearen bitartez betetzea. Hona hemen lanpostu horien destinoak:

- 30 lanpostu huts Laguntza Espezializatuan, honako zenbakiak dituztenak: 60264, 60397, 60597, 60740, 60886, 61064, 61184, 61326, 61981, 62189, 63907, 64717, 66037, 66116, 67299, 68532, 68543, 68785, 68814, 68815, 68818, 68819, 68821, 68822, 68823, 68824, 68825(\*), 68826(\*), 68827(\*), 68828(\*).

- 5 lanpostu huts Ubarmin Klinikari, honako zenbakiak dituztenak: 68878(\*), 68879(\*), 68880(\*), 68881(\*), 68882(\*).

- 29 lanpostu huts Tuterako Osasun Barrutian:

- 12 lanpostu huts Tuterako Ospitalean, 64405, 64440, 64505, 64651, 65168, 65228, 65239, 65425, 67612, 67798, 68980, 68981 zenbakiak dituztenak.

- 17 lanpostu huts Tuterako Osasun Barrutiko Oinarritzako Osasun Laguntzako Zuzendariordetzan, 69334, 69335, 69336, 69337, 69338, 69339, 69340, 69341, 69342, 69343, 69344, 69345, 69346, 69347, 69348, 69349 eta 69350 zenbakiak dituztenak.

- 45 lanpostu huts Lizarrako Osasun Barrutian:

- 16 lanpostu huts Lizarrako Ospitalean, 62622, 63229, 63384, 63539, 63765, 66629, 66635, 68608, 68961, 68962, 68963, 68964, 68965, 68966, 68969, 69094 zenbakiak dituztenak.

–Lanpostu huts bat Lizarrako Oinarrizko Osasun Laguntza Taldean, 63411 zenbakia duena.

–Lanpostu huts bat Villatuertako Oinarrizko Osasun Laguntza Taldean, 65830 zenbakia duena.

–27 lanpostu huts Lizarrako Osasun Barrutiko Oinarrizko Osasun Laguntzako Zuzendariordetzan, 69291, 69292, 69293, 69294, 69295, 69296, 69297, 69298, 69299, 69300, 69301, 69302, 69303, 69304, 69305, 69306, 69307, 69308, 69309, 69310, 69311, 69312, 69313, 69314, 69352, 69353 eta 69354 zenbakiak dituztenak.

▪ 58 lanpostu huts Nafarroako Bideko Ama Birjina Ospitalean. Lanpostuen zenbakiak: 62733, 62824, 62830, 62854, 62897, 62930, 63237, 63325, 63383, 63419, 63463, 63465, 63599, 63611, 64194, 64229, 64303, 64311, 64632, 64636, 64786, 64828, 65102, 65380, 65437, 65794, 66464, 66467, 67157, 68993, 68994, 68995(\*), 68996(\*), 68997(\*), 68998(\*), 68999(\*), 69000(\*), 69001(\*), 69002(\*), 69003(\*), 69004(\*), 69005(\*), 69006(\*), 69007(\*), 69008(\*), 69009(\*), 69010(\*), 69011(\*), 69012(\*), 69013(\*), 69014(\*), 69015(\*), 69016(\*), 69017(\*), 69018(\*), 69019(\*), 69020(\*), 69021(\*).

▪ 57 lanpostu huts Nafarroako Ospitalean. Lanpostuen zenbakiak: 61132, 61165, 61224, 61236, 61246, 61299, 61496, 61522, 61558, 61604, 61691, 61721, 61795, 61834, 61886, 61897, 61928, 61930, 61949, 62073, 62208, 62234, 62235, 62280, 62291, 62318, 62362, 62408, 62412, 62763, 62969, 63085, 63093, 63159, 63205, 63482, 63526, 63735, 63759, 63901, 63909, 63959, 63963, 65892, 66195, 67245, 68004, 68091, 68099, 68916(\*), 68917(\*), 68918(\*), 68919(\*), 68920(\*), 68921(\*), 68922(\*), 68923(\*).

▪ 97 lanpostu huts Oinarrizko Laguntzan:

–1 Berriozarko OOLTan. Plantilla-zenbakia: 68897.

–3 lanpostu huts Burlatako OOLTan, 60175, 68317 eta 68896 zenbakiak dituztenak.

–1 Zarrakazteluko OOLTan. Plantilla-zenbakia: 60953.

–2 lanpostu huts Alde Zaharreko OOLTan, 60969 eta 68898 zenbakiak dituztenak.

–1 Elizondoko OOLTan. Plantilla-zenbakia: 60212.

–1 Bigarren Zabalguneko OOLTan. Plantilla-zenbakia: 67646.

–1 Noaingo OOLTan. Plantilla-zenbakia: 65729.

–2 lanpostu huts Errotxapeako OOLTan, 66303 eta 61087 zenbakiak dituztenak.

–1 Salazarko OOLTan. Plantilla-zenbakia: 60978.

–1 Zangozako OOLTan. Plantilla-zenbakia: 61044.

–1 Donibaneko OOLTan. Plantilla-zenbakia: 67566.

–1 Tafallako OOLTan. Plantilla-zenbakia: 60238.

–1 Larrialdietarako Zerbitzu Berezian. Plantilla-zenbakia: 60261.

–80 lanpostu huts Oinarrizko Osasun Laguntzako Zuzendaritzan, 69185, 69186, 69187, 69188, 69189, 69190, 69191, 69192, 69193, 69194, 69195, 69196, 69197, 69198, 69199, 69200, 69201, 69202, 69203, 69204, 69205, 69206, 69207, 69208, 69209, 69210, 69211, 69212, 69213, 69214, 69215, 69216, 69217, 69218, 69219, 69220, 69221, 69222, 69223, 69224, 69225, 69226, 69227, 69228, 69229, 69230, 69231, 69232, 69233, 69234, 69235, 69236, 69237, 69238, 69239, 69240, 69241, 69242, 69243, 69244, 69245, 69246, 69247, 69248, 69249, 69250, 69251, 69252, 69253, 69254, 69255, 69256, 69257, 69258, 69259, 69260, 69261, 69262, 69263 eta 69264 zenbakiak dituztenak.

(\*) Lanaldi partzialeko lan-araubidea.

1.2. Merezimendu lehiaketaren deialdi honetan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen lekualdatze lehiaketa eta Espainiako lekualdatze lehiaketa sartzen dira. Espainiako lehenbizikoa bukatutakoan eginen da.

Espainiako lekualdatze lehiaketan, Nafarroako Foru Komunitateko eremuan egiten den merezimendu lehiaketaren ondorioz sortu eta lan publikoaren eskaintzan sartutako lanpostu hutsetatik %10 eskainiko dira, zenbaki osoetan betiere. Bestalde, Foru Administrazioako eremuan egiten den merezimendu lehiaketan sortzen den lanpostu kopurua hamarretik beharokoa bada, lanpostu huts horiek hurrengo deialdiatarako gordeko dira eta hamar lanpostu huts baino gehiago metatzen direnean baizik ez dira eskainiko eremu nazionalako lekualdatze lehiaketan (dagokion portzentajearen). Lerroalde horretan ezarritakoa betetzeko, soberrakinen kopuruari dagokionez, aurreko metaketa Okoa dela adierazten da.

1.3. Deialdi honetako lanpostuei epaimahaiak lehiakideen puntuazioaren arabera zerrrenda organo dei-egileari igortzen dion egunean hutsik dauden lanpostuak gehitzen ahalko zaizkie.

1.4. Lehiaketa honen barranean lanpostu hauek sartuko dira: hasieran zeuden lanpostuak eta lehiaketan lanpostu berria eskuratzen duten langileek hutsik uzten dituztenak, betiere langile horiek Osasun-

bidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren beste departamentu batzuetako edo haren erakunde autonomoetako plantillakoak badira. Kasua bada, aurreko atalean aipatzen diren lanpostuak ere betetzen ahalko dira, baina kasu horretan ezin izanen dituzte eskuratu Osasunaren Sistema Nazionalaren barreneko gainerako langile finkoek, non eta ez diren lan publikoaren eskaintzan sartutako lanpostu hutsak.

Izangaiek lehiaketan beste lanpostu bat lortu ondoren uzten dituzten lanpostu hutsak bete beharrekoak ez badira, "iraungitzeko" lanpostuak direlako edo titularrek nahiz ordezkoez betetzen ez dituztelako, ez dira eskainiko.

1.5. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen lekualdatze lehiaketa honetan parte hartzen duten langileei ez zaie aldatuko lehiaketan parte hartu aurretik zuten araubide juridikoa. Aurreikuspen hori ez zaie aplikatuko Nafarroako Foru Administrazioan eta bere erakunde autonomoetan lanaldi partzialean diharduten kontratadun finkoei. Langile horiek lanaldi osoko lanpostu bat hartzen dutenean funtzionario izatera pasatuko dira. Funtzionarioen araubideko edo estatutuko langileek aukera izanen dute lanaldi partzialeko lan araubideko lanpostu bat merezimendu lehiaketaren bidezko lekualdatzearen bitartez eskuratzeko. Kasu horretan funtzionario edo estatutuko langile gisa borondatezko eszedentzian egonen dira.

Osasun Sistema Nazionaletik lekualdatze lehiaketaren bidez Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan sartzen diren langileak funtzionario bihurtu eta Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuan sartzen ahalko dira. Aukera horretaz baliatzeko bi hilabeteko epea izanen dute, lanpostuaz jabetu eta biharamunetik hasita, abenduaren 29ko 717/2003 Foru Dekretuan xedatutakoarekin bat. Foru dekretu horren bidez Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa eta haren erakunde autonomoetako estatutuko langileak eta lan-kontratadun finkoak Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuan sartzeko prozedura arautu zen, Nafarroako Administrazio Publikoetako langileendako neurriei buruzko otsailaren 14ko 4/2003 Foru Legeko 8. artikuluan xedatu bezala.

Nolanahi ere, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko langileendako indarra duten xedapenak aplikatuko zaizkie.

1.6. Deialdi honetan lanpostua eskuratzen duten langile funtzionario, estatutuko edo lan-kontratadun finkoek indarra duten xedapenen arabera lanpostuak jasoko dituzte.

1.7. Izendatutako izangaiek destinoko tokian bizi beharra dute eta, horretarako, udalerrri horretan finkatu beharko dute bizilekua. Administrazioako organo eskudunek destinoa aldatzen ahalko dute.

1.8. Lanaldiaren araubidea zerbitzuaren beharretara egokituko da, eta administrazio organo eskudunek noiznahi alda dezakete. Oinarrizko Osasun Laguntzako Zuzendaritzako, Lizarrako Osasun Barrutiko Oinarrizko Osasun Laguntzako Zuzendariordetzako edo Tuterako Osasun Barrutiko Oinarrizko Osasun Laguntzako Zuzendariordetzako lanpostuak lortzen dituzten izangaien kasuan, dagokien atxikipen eremu ospitale kanpoko larrialdietako laguntza egin beharko dute.

1.9. Euskarari buruzko Foru Legeak definitutako Eremu Euskaldunetan dauden lanpostuetarako lehiatuz gero (uztailaren 30eko 203/2001 Foru Dekretuak zehazten du zein lanpostutara iristeko jakin behar den euskaraz), izangaiek euskaraz behar adina badakitela egiaztatu behar dute. Horretarako, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak ezarritako probak gainditu beharko dituzte edo, bestela, agiri bidez frogatuko dute 1. jakite-maila badutela, Hizkuntza Eskola Ofizialen batean lau kurso edo Nafarroako Gobernuak antolatutako ikastaroetan bederatzitaz gainditu izanaren ziurtagiria aurkeztuz.

1.10. OLT/EDU lanpostua lortzen dutenak dagokion atxikipen eremura organikoki lotuta geldituko da, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan sartu eta bertako lanpostuak betetzea arautzen duen azaroaren 22ko 347/1993 Foru Dekretuko 1. artikuluan ezarritakoaren arabera.

## 2.–Betebeharrak.

2.1. Merezimendu-lehiaketa honetan onartuak izateko, izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean:

2.1.1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantillako langileentzat, araubide juridikoa eta egoera administratiboa edozein dutela ere:

a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen langile funtzionario, estatutuko edo lan-kontratadun finkoa izatea, B maila edo taldekoa.

b) "Osasun arloko diplomadunak" estamentuko eta "Erizaintza" espezialitateko lanpostu batean aritzeko izendatuak izatea (urriaren 20ko 11/1992 Foru Legeak, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen araubide zehatza arautzen duenak, eranski-nean agertzen duen estamentu eta espezialitateetako izendapenen sailkapen indarduna).

### 2.1.2. Osasun Sistema Nazionaleko gainerako langileentzat:

a) Osasun Sistema Nazionaleko plantillako langile finkoa izatea (Insalud-Zuzeneko Kudeaketa eta Lurraldeetako osasun zerbitzuak).

b) "Osasun arloko diplomadunak" estamentuko eta "Erizaintza" espezialitateko lanpostu batean aritzeko izendatuak izatea (urriaren 20ko 11/1992 Foru Legeak, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen araubide zehatza arautzen duenak, eranski-nean agertzen duen estamentu eta espezialitateetako izendapenen sailkapen indarduna).

c) Deitutako lanpostuak bezalako batean jardunean egotea, edo Osasun Sistema Nazionalean lanpostua erreserbatzeko eskubidea izatea.

Jardunean ez beste egoera batean badago, jatorrizko administrazioak ziurtatu beharko du deialdi honetako eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean jardunean hasteko legezko eta erregelamenduzko baldintzak betetzen dituela.

d) Abiapuntuko destinoan urte bat aritu izatea lanpostuaren jabe izanda, deialdi honetako eskaerak aurkezteko ezarritako epea bukatu baino lehen.

2.2. Uztailaren 30eko 203/2001 Foru Dekretuan aipatzen diren euskal eremuko lanpostuak eskuratzeko, behar den euskara-maila frogatzea.

2.3. Izangaiek betebeharrak guztiak agiriaren bidez egiaztatu beharko dituzte eskabidea aurkeztean den unean, eta horien jabe izan beharko dute prozedura osoan lanpostua esleitzen den arte.

2.4. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantillako langileak, lanpostu-erreserbarik gabeko eszedentzia egoeran badaude, jardunera lekualdatze lehiaketa honetan parte hartuz itzul daitezke.

Halaber, beren estamentu eta espezialitateko lanpostu huts bati atxiki eta behin-behineko itzuli direnek nahitaez aurkeztu beharko dute lekualdatze lehiaketa honetara, behin betiko esleipenaren ondorioetarako, eta ezin izanen diote destino horri uko egin.

### 3.-Eskaeak aurkezteko epea eta tokia.

3.1. Lekualdatze lehiaketan parte hartzeko eskabideak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren Erregistroan (Irunlarrea kalea, 39, 31008, Iruña) aurkeztu beharko dira, edo ekainaren 24ko 137/2002 Foru Dekretuan aipatzen diren Nafarroako Gobernuaren erregistro orokorraren bulegoetan (abuztuaren 7ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA, 95. zk.), edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Foru Legearen 38.4 artikuluan adierazitako erregistro eta bulegoetan.

Eskabideak aurkezteko epea hamabost egun naturalekoa izanen da, deialdi hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik hasita.

Eskabideak deialdi honetako ereduari lotuko zaizkio (I. eranskina). Eskabidearekin batera honako agiri hauek aurkeztuko dira:

a) Deialdiaren 2.1.1. eta 2.1.2. puntuetan eskatzen diren betebeharrak egiaztagiriak, jatorrizko agiriak izan edo notario batek edo Administrazioak konpultsatutako kopiak izan.

b) Izangaiek azaltzen dituzten merezimenduen frogagiriak (jatorrizkoak edo notarioak zein Administrazioak konpultsatutako kopiak), deialdi honetan ezarritako baremoaren arabera.

c) Destinoa azkeneko aldiz aldatzeko bidea eman zion deialdia Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen egunera arte lortutako merezimenduak baloratuko zaizkio izangaiei, eta Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko langile gisa hasi zenetik destinoa inoiz aldatu ez bada, izaera hori eskuratzeko ekarri zion deialdia Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen egunera artekoak.

d) Euskal eremuko lanpostuak eskuratzeko, euskarazko jakite-maila deialdi honetako 1,9 adierazten den moduan frogatuko da.

Merezimenduak baremoen atalen arabera ordenatuta aurkeztu beharko dira.

### 3.2. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina da.

### 4.-Izangai onartu eta baztertuen zerrenda.

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariak onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du eta Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara dadila aginduko, ohartaraziz, hurrengo bost egun naturaleko epean baztertuek erreklamazioak egin ditzaketela eta, akatsik baldin badago, haiek zuzendu. Ezarritako epean eskabiderik aurkeztean ez bada, organo eskudunak lehiaketa hutsik gelditu dela adierazteko ebazpena emanen du. Ebazpen hori Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu beharko da.

Erreklamazioak aurkezteko epea bukatu eta horien gainean ebazpena emanda dagoela, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariak onartuen eta baztertuen behin betiko ze-

renda onesteko ebazpena emanen du eta Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzeko aginduko.

Izangai bat ere baztertu ez bada, behin betiko zerrenda zuzenean onetsiko da eta Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko.

### 5.-Epaimahaia.

#### 5.1. Kide hauek osatuko dute lehiaketa honetako epaimahaia:

Mahaiburua: Ana Granados Hualde andrea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Oinarritzko Osasun Laguntzako Erizaintza Zerbitzuko burua.

Ordezko mahaiburua: Teresa Blasco Altuna, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Bideko Ama Birjina Ospitaleko Erizaintzako zuzendaria.

Mahaikidea: Paula Arrarás Paños andrea, langileen ordezkariak izendatutakoa.

Ordezkoa: Joaquín Fernández Velázquez jauna, langileen ordezkariak izendatutakoa.

Mahaikide idazkaria: Miguel Garatea Crelgo jauna, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Oinarritzko Osasun Laguntzako Langileria Zerbitzuko burua.

Ordezkoa: Gabriel Izpura Liberal jauna, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Langileria eta Lan Harremanetako zuzendariordea.

5.2. Epaimahaia ezin izanen da eratu, ezta aritu ere, kideen gehiengo osoa bertan izan gabe.

5.3. Epaimahaiak gehiengo ebatziko ditu deialdi honen arauen interpretazio eta aplikazioaren inguruko arazoak.

5.4. Epaimahaiak aholkulari adituak ekartzen ahalko ditu proba guztietarako nahiz batzuetarako. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetan baizik ez dira ariko eta haietan bakarrik emanen diote laguntza epaimahaiari.

5.5. Epaimahaia nork osatzen duen izangai onartuen eta baztertuen zerrendarekin batera emanen da aditzera.

5.6. Onartu eta baztertutakoen behin betiko zerrendan izangai bakarra aurkeztu bada, deialdia egin duen organoak deialdi honetako 8. araua aplikatuko du. Beraz, ez da beharrezkoa izanen, ez epaimahaia eratzea, ez eta jardutea ere.

### 6.-Merezimenduen kalifikazioa.

6.1. Epaimahaiak izangaiek aurkeztu eta justifikatutako merezimenduak II. eranskineko baremoaren arabera baloratuko ditu. Merezimenduen balorazioa egiteko kontuan hartuko dira bakar-bakarrik iragarki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den eguna artekoak, eta ez dira hartuko geroago lortutakoak.

6.2. Izangaiek merezimendu guztiak agiriaren bitartez alegatu eta egiaztatu beharko dituzte, lekualdatze lehiaketa honetan parte hartzeko eskabidea aurkeztearekin batera. Merezimendu horiek deialdiari erantsi zaion autobaremaziorako agirian adieraziko dira (III. eranskina).

6.3. Euskaraz dakitela proben bidez frogatu nahi duten izangaiei proba horiek egiteko tokia, eguna eta ordua adieraziko zaizkie banan banako gutunen bidez, behar den denborarekin. Izangaiek Nortasun Agiri Nazionala edo epaimahaiak aski duen beste nortasun agiri bat aldean dutela joan beharko dute probetara.

Proba hori egiteko, Nafarroako Gobernuaren Euskara Zerbitzuko teknikariek aholkatuko dute epaimahaia.

6.4. Merezimenduen baremoaren 1. ataleko balorazioan kontuan hartuko da deialdiko lanpostua "Osasun arloko diplomadunak" estamentuan eta "Erizaintza" espezialitatean sailkatu dagoela, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko estamentu eta espezialitateetako izendapenen indarreko sailkapenaren arabera (urriaren 20ko 11/1992 Foru Legea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen araubideari buruzkoa, Eranskina). Balorazioa egitean, betetako lanpostua aipatu eranskinean dauden izenekin bat ez baldin badator, deialdian eskatutako titulazioaren, lanpostua eskuratzeko egindako proben eta eginkizunen aldetik pareko direnei tratamendu bera emanen zaie.

Egindako zerbitzuak frogatzeko, zentroko zuzendariak edo langileen arduradunak emandako ziurtagiriak aurkeztu behar dira, eta bertan nahitaez datu hauek jarri behar dira:

–Lantokia.

–Estamentua edota espezialitatea.

–Zerbitzuen iraupena, behar bezala adierazita hasiera eta bukaera egunak eta guztira zenbat egun diren.

–Zerbitzuak lanaldi partzalean eman baldin badira, honako hau erantsi:

a) Egunean, astean, hilabetean edo urtean egindako orduen kopurua eta emandako zerbitzuei dagokien urteko lanaldia,

b) edo, bestela, ohiko lanaldiaren aldean zein portzentaje osatzen duten.

6.5. Merezimenduen baremoko 2. atalari dagokionez, destinoa azkeneko aldiz aldatzeko bidea eman zion deialdia Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen egunetik hasita lortutako merezimenduak soilik baloratuko zaizkio izangaiari, edo Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko langile gisa hasi zenetik destinoa inoiz aldatu ez badu, izaera hori eskuratzea ekarri zion deialdia Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen egunetik aurrerakoak.

6.6. Epaimahaiak ez du inolaz ere kontuan hartuko alegatu ez den eta agiri bidez egiaztatu ez den merezimendurik, eta ez du emanen merezimenduen atal bakoitzarentzat adierazitako puntuazioa baino altuagorik.

6.7. Izangaiek aurkeztutako agiriak berreskuratzen ahalko dituzte, espresuki eskatuz gero, izendapena bon.ean argitaratu eta bi hilabete igaro ondoko hiru hilabeteko epean, salbu eta izangairen batek errekurtzioa jartzen bada, hala izanez gero agiriak luzaroago gordetzen ahal baitira egiaztapenak eta frogak egiteko. Arestian aipatutako epean izangaiek agiriak berreskuratzen ez baditu, berreskuratzeari uko egin diola ulertuko da eta haien gaineko eskubidea galduko du.

#### 7.-Izangaiei zerrenda, erdietsitako puntuazioaren arabera.

Epaimahaiak lehiatzaile guztien kalifikazioa egingen du eta izangaiei zerrenda argitaratuko du, erdietsitako puntuazio osoarekin, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko iragarki oholean (Irunlarrea, 39). Bi zerrenda jarriko dira, merezimendu lehiaketa honetarako eremu bakoitzeko bat (barnekoa eta nazionala).

Lehiaketa bukatuta, epaimahaiak lehiakideen zerrenda horiek igorriko dizkio Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileari eta hark deialdiaren hasieran zen lanpostu kopurua handituzeko ebazpena eman lezake, hori egitea egokia balitz.

Puntuazioetan berdinketarik badago, Administrazio Publikoetan antzintasun handiena egiaztatzen duen izangaiek izanen du lehentasuna. Hala ere berdinketak irauten bada, izangaia zaharrena lehenetsiko da.

#### 8.-Lanpostu hutsak hautatzea.

Uztailaren 3ko 42/2006 Foru Dekretuak, azaroaren 22ko 347/1993 Foru Dekretua aldatu duenak, hirugarren artikuluan ezartzen duen moduan, honako kasuotan erabiliko da merezimendu lehiaketa bidezko lekualdatzea borondatez mugitzeko sistema gisa:

a) Langileen atxikipen eremu batetik bestera igarotzeko, foru dekretu honen 1. artikuluko bigarren idatz-zatian xedatukoaren arabera.

b) Lanaldi arrunt edo osoa duen lanpostu batetik lanaldi partziala duen lanpostu batera joateko eta alderantziz.

Lehiatzaileek, lehiaketan izandako puntuazioaren arabera aukeratzeko ahalko dituzte lanpostuak. Horretarako, adieraziko zaie toki, egun eta orduan agertu beharko dute, nortasun agiri nazionala aldean dutela.

Ekitaldi horretan, lehenbizi Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren barrerako lekualdatze lehiaketan parte hartzen dutenek aukeratzeko dute, eta lehiaketa hori bukatutakoan, lehiaketa nazionalan parte hartzen dutenek.

Lehiaketa nazionalan parte hartzen dutenek honako agiri hauek eraman beharko dituzte lanpostuak aukeratzeko ekitaldira:

a) Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia konpultsatua, edo izangaiearen nazionalitatea nahiz nortasuna egiaztatzen dituen beste agiri baliokideren batena.

b) Jatorrizko administrazioak emandako ziurtagiria, dagokion administrazio egoera adierazteko.

c) Zinpeko aitortpena, inginkizun publikoetan aritzeko desgaitua edo gabetua ez dagoela eta inongo administrazio publikoren zerbitzuetik ez dela baztertua izan erakusten duena.

d) Zin egin edo hitz ematea, Nafarroako Foru Eraentza errespetatu, Konstituzioari eta Legeei men egin, eta karguari dagozkion eginkizunak zuzen beteko dituela.

Aski justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik, aipatu epean hautua egiten ez duten lehiatzaileek lehiaketan erdietsitako lanpostuan aritzeko eskubide guztiak galduko dituzte.

Borondatez mugitzeko sistemen bidez lortutako destinoei ezin izanen zaie uko egin, uko horren arrazoia ez bada behintzat administrazio publikoak deituta borondatez mugitzeko egiten den prozedura baten ebazpenaren ondorioz lanpostu bat lortu izana.

#### 9.-Lanpostuen esleipena eta jabetza hartzea.

Organo eskudunak, behar den ebazpenaren bitartez, lehiaketan eskuratutako lanpostuak esleituko dizkie lehiatzaileei, bai eta Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eman dadila aginduko ere.

Lehiatzaileek, lanpostuak esleitzen dituen ebazpenaren jakinarazpena jaso edo argitaratu eta hurrengo hamar egun naturaleko epean, euren lanpostuak jabetu beharko dute, deialdi honen xedeko kategorian. Hala ere, izendatutako lehiatzaileak asko badira, edo administrazioaren eragingarritasun arrazoirik badago tartean, deialdia egin duen organoak lanpostuak jabetzeko egun bat jar dezake.

Esleipenaren gainean eragina izan dezakeen errekurtsoren bat aurkeztzen bada, eta horren ondorioz deialdia edo merezimendu lehiaketaren garapena edo ebazpena inpugnatzen bada, jabetza-hartzea ez da irmo bilakatuko, eta errekurtsio horiek administrazio bidean edo administrazioarekiko auzien jurisdikzioan izaten duten ebazpenaren baldintzapean geldituko dira.

#### 10.-Errekurtsoak.

Deialdi honen eta bere arau eta egintzen kontra bidezko da gora jotzeko errekurtsioa paratzea, Lehendakari, Justizia eta Barne kontseilariari zuzendua, errekurtsioaren xede den egintza argitaratu edo jakinarazi eta bihamunetik hasita hilabeteko epean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legeko 57. artikuluko 1 eta 2. c) idatz-zatietan xedaturikoarekin bat.

Epaimahaiaren behin betiko egintzen kontra gora jotzeko errekurtsioa jartzen ahalko da, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileari zuzendua, jakinarazi edo argitaratu eta bihamunetik hasita hilabeteko epean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 57. artikuluko 1. eta 3. idatz-zatiekin bat.

Iruñean, 2008ko apirilaren 3an.-Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailea, José Carlos Garde Celigueta.

### I. ERANSKINA

#### Eskabidea

Eskaera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan ..... izateko ..... lanpostu lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdian parte hartzeko. Deialdia ..... Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, ...(e)ko .....aren .....(e)an.

Norberaren datuak:

Izena eta deiturak: ..... NANA .....

Helbidea: ..... Posta kodea .....

Herria ..... Probintzia .....

Harremanetarako telefonoak .....

Datu administratiboak:

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta haren erakunde autonomoetako plantillako langile finkoak.

Osasun Sistema Nazionaleko plantillako langile finkoa (Insalud-Zuzeneko Kudeaketa eta Lurraldeetako osasun zerbitzuak).

Egoera administratiboa:

Jardunean

Zerbitzu berezietan

Eszedentzia:  Berezia.  Borondatezkoa.  Nahitaezkoa.

Beste bat (adierazi): .....

Lehiaketan abiapuntu duen jabetzapeko lanpostuaren destinoa

Lanpostua: .....

Noiz sartua: .....

Lantokia eta herria: .....

Euskara: (bidezko denean bakarrik).

Euskaraz badakiela frogatzen du (HEOko 4. maila edo 9. urratsa), jatorrizko agiri baten edo kopia konpultsatuen bidez.

Euskara probetara aurkeztu nahi du.

Sinatzeko duenak adierazten du eskatutako baldintza guztiak betetzen dituela eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean eta eskatzen diren baldintzen egiaztagiria aurkeztu, eskabide honen baten.

Eskabide honi erantsitako orri kopurua: (.....) (jarri zenbakiak erantsi diren agiriari)

Iruñean,.....(e)ko .....aren .....(e)an.

(Sinadura)

### II. ERANSKINA

1. atala. Emandako zerbitzuak. Ondokoak baloratuko dira:

1. Deialdiko lanpostuaren estamentu eta espezialitate beretan administrazio publikoetako edo haren erakunde autonomoetako zentroetan egindako zerbitzuak: 1,8 puntu urte bakoitzeko.

2. Beste estamentu eta espezialitate batzuetan administrazio publikoetako edo haren erakunde autonomoetako zentroetan egindako zerbitzuak: 0,50 puntu urte bakoitzeko.

Azpiatal hauetako bakoitzaren puntuazioa proportzionalki kalkulatu da egindako zerbitzualdia urtebetetik behar den baldin bada.

Atal honetako puntuazioa 75 puntu artekoa izanen da.

Bateraezina dira aurreko azpiatalengatik emandako puntuazioak, aldi berekoak direnean; halakoetan, handiena bakarrik kontuan hartuko

da. Deialdia argitaratu ondoren egindako zerbitzuengatik ere ez da punturik jasoko.

Lanpostu baten izena aldatu bada maila edo talde berean baina eginkizunak bere hartan utzita, zerbitzuak zenbatuko dira lehiatzaileak abiapuntuko lanpostuan lan horiek egiten dituela frogatzen denetik.

Baremo honetan aipatutako zerbitzuak urriaren 3ko 464/2001 Foru Aginduaren 2. artikuluan ezarritako arauari segituz zenbatuko dira.

2. atala. Prestakuntza, irakaskuntza, ikerkuntza eta hizkuntzak:

Atal honetan aipatu merezimenduak lehiari dagoen lanpostuarekin zerkusua baldin badute baloratuko dira eta betiere titulazioa edo prestakuntza ekintzak, lanak edo argitalpenak deialdia argitaratu baino lehenago lortu edo egin baldin badira.

1. Erakunde edo zentro publikoek eta unibertsitateek antolatutako prestakuntza jardueretan parte hartzea: 0,1 puntu kreditu akademiko bakoitzeko edo haren baliokide den ordu kopuruko (10 ordu); kopurua txikiagoa bada, proportzioa kalkulatu da. Aurkezten den ziurtagirian eskola-ordu kopurua adierazten ez bada, kreditu batekoak balira bezala puntuatuko dira, eta ikasturte osokoak izan direla adierazten bada, 12 kreditukoak balira bezala. Gehienez ere 15 puntu emanen dira.

Orobat, erakunde antolatzaileari buruz ezarritako baldintza ez bete arren, prestakuntza ekintzak Administrazioak agindu edo homologatu baditu, baloratu egiten dira, bai eta sindikatuek administrazio publikoetako etengabeko prestakuntzarako akordioaren ondorioz antolatutakoak ere.

Deialdiko lanpostuan aritzeko gaitasunik ematen ez duten titulu ofizialak ez dira prestakuntzako merezimenduztat hartuko.

2. Biltzar edo jardunaldietan ponentziak edo berriemateak aurkeztea: nazioartekoak badira, 0,4 puntu; nazionalak badira, 0,2 puntu; eta eskualde edo tokikoak, 0,1 puntu. Gehienez ere 2 puntu emanen dira.

3. Administrazio edo erakunde publiko baten saria edo beka jaso duten ikerlan zientifikoak: 0,75 puntu, nazioartekoa bada; 0,5 puntu, nazionala bada; eta 0,2 puntu, autonomia erkidegokoa bada; gehienez ere 2 puntu.

4. Aldizkari espezializatuaren argitaratutako lanak: 0,4na puntu lehen hiru sinatzaileei, gainerakoei 0,10na puntu; 2 puntu gehienez.

5. Sektore publikoan prestakuntza ekintzak antolatu eta/edo hala-koetan irakasle jardutea: 0,2 puntu kreditu akademiko bakoitzeko edo haren baliokide den ordu kopuru bakoitzeko (10 ordu), edo kasuan kasuko zati proportzionala, ordu kopurua txikiagoa bada; puntu 1 gehienez. Iraupenik adierazten ez duten ziurtagiriak bi ordukotzat hartuko dira.

6. Frantsesez, ingelesez edo alemanez jakitea, ofizialki egiazta-turik, Europar Batasunean erabilera ofizialeko hizkuntzak diren aldetik: 4,85 puntu hizkuntza bakoitzeko. Hizkuntza Eskola Ofizial batek emandako Gaitasun Agiririk edo ofizialki baliokidetzat jotako titulaziorik ez izatera, Hizkuntza Eskola Ofizial batean gauditutako maila bakoitzari ezarri den gehieneko puntuazioaren bosten bat emanen zaio.

3. atala. Euskaraz jakitearen balorazioa:

1. Eremu euskalduneko lanpostuak eskuratzeko, euskaraz jakitea merezimendu kualifikatu gisa baloratu behar denean, frantsesez, ingelesez edo alemanez jakiteagatik lor daitekeen gehieneko puntuazioa baino %10 gehiago ematen ahalko da gehienez euskaraz jakiteagatik.

2. Eremu mistoko lanpostuak eskuratzeko, euskaraz jakitea merezimendu gisa baloratu behar denean, frantsesez, ingelesez edo alemanez jakiteagatik lor daitekeen gehieneko puntuazioa baino %5 gehiago ematen ahalko da gehienez euskaraz jakiteagatik.

3. Bi kasu horietan, Hizkuntza Eskola Ofizial batek emandako gaitasun agiria edo ofizialki balio berekoa den besteren bat ez badu, gehienez lor daitekeen puntuazioaren bostena emanen da Hizkuntza Eskola Ofizial batean gaudituriko maila bakoitzeko eta, Nafarroako Gobernuak antolatutako ikastaroetan, gehieneko puntuazioaren hamabirena, gauditutako urrats bakoitzeko.

III. ERANSKINA

Deialdia: .....

**LEKUALDATZE LEHIAKETA**

LETRA LARRIA ERABILI ETA GARBI IDATZI, LAUKITXO BAKOITZEAN LETRA BAT JARRIZ

| I Z A N G A I A  |               |
|------------------|---------------|
| NANa/IFZ         | LEHEN DEITURA |
| BIGARREN DEITURA | IZENA         |

Baremo 2. ataleko merezimenduak deialdiaren xedeko lanpostuarekin zerkusua baldin badute baloratuko dira bakar-bakarrik. Aurrera egin baino lehen, inprimaki hau egoki betetzeko behean ageri diren jarraibideak irakurri.

LEHIAKETARAKO AURKEZTU DIREN AGIRIEN ZERRENDA

| AGIRI ZKIA.                                | AGIRIAREN IZENA | NORBERAREN BAREMAZIOA |                 |                 |
|--|-----------------|-----------------------|-----------------|-----------------|
|  |                 | 1. idatz-zatia.       | 2. idatz-zatia. | 3. idatz-zatia. |
| 1  |                 |                       |                 |                 |
| 2  |                 |                       |                 |                 |
| 3  |                 |                       |                 |                 |
| 4  |                 |                       |                 |                 |
| 5  |                 |                       |                 |                 |
| 6  |                 |                       |                 |                 |
| 7  |                 |                       |                 |                 |
| 8  |                 |                       |                 |                 |
| 9  |                 |                       |                 |                 |
| 10   |                 |                       |                 |                 |
| Autobaremazioan lortut. puntuak, guztira   |                 |                       |                 |                 |
| Aurkeztutako agirien kopurua, guztira .... |                 |                       |                 |                 |
| Aurkeztutako orrien kopurua, guztira ..... |                 |                       |                 |                 |

Iruñean, .....(e)ko .....aren .....(e)an.

Interesduna,

MAHAIBURUA

OSASUNBIDEA-NAFARROAKO OSASUN ZERBITZUA.

IRUNLARREA KALEA, 39, 31008 IRUÑA.

J A R R A I B I D E A K

1. Zure NANaren zenbakiak 8 zenbaki baino gutxiago baditu, ezkerreko laukitxoetan zeroak jarri. Izen-deiturak ezker-ekzerreko laukitxotik abiatuta idatzi behar dira. Izena edo deitura konposatua bada, lauki huts bat utzi tartean.

2. Agiri guztiak (ziurtagiriak, diplomak, etab.) orriaren eskuinaldeko goialdean zenbakitu behar dira, 1. zenbakitik aurrera. Erreferentzia hori aurkeztutako agirien zerrendan eman beharko da, agiriaren izenarekin eta autobaremazioan ematen zaion puntuazioarekin batera. Autobaremazioa ez da lotzailea izanen epaimahaiarentzat.

3. Agiri honi erantzen zaizkion orri guztiak, eskuinaldeko behealdean zenbakitu beharko dira.

4. Merezimenduak baloratzeko, deialdia Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den eguna arte egindakoak baizik ez dira kontuan hartuko. Geroago egindako merezimenduak ez dira aintzat hartuko.

5. Merezimenduen baremoa deialdi honen eranskinean ageri da.

6. Agiri guztiek jatorrizkoak edo notario edo administrazio bidez konpultsatutako kopiak beharko dute izan.

F0805478

**DEIALDIA, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak apirilaren 7an emandako 33/2008 Ebazpenaren bidez onetsia, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko arkitekto tekniko izateko lanpostu bat oposizio bidez betetzeko.**

Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak apirilaren 7an emandako 33/2008 Ebazpenaren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko arkitekto tekniko izateko lanpostu bat oposizio bidez betetzeko deialdia onetsi zen.

Hautapen prozesua ondoko hauetan xedatutakoari jarraikiz egiten da: Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zena, aipatu estatutua garatu eta burutzeko sarrera Erregelamendua, gainerako aplikazio arauak eta deialdi honetako arauak.

1.-Deialdiaren xedea.

1.1. Deialdi honen xedea arkitekto tekniko baten lanpostua oposizio bidez betetzea da. Lanpostua funtzionario araubidekoa da, B mailakoa. Plantilla organikoan 67712 zenbakia du, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikita dago eta destinoa Oinarrizko Osasun Laguntzan.

1.2. Lanpostuak B mailako lansariak izanen ditu, uztailaren 4ko 158/1984 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Lansarien Behin-behineko

Erregelamenduan eta aplikatu beharreko gainerako xedapenetan ezarritakoari jarraituz.

1.3. Halaber, deialdi honen bidez hautaprobak gainditu bai baina lanposturik lortzen ez duten izangaiekin aldi baterako kontratatuak izateko izangaien zerrenda bat osatuko da, deialdi honetako 9. arauan xedaturikoarekin bat.

## 2.–Betebeharrak.

2.1. Oposizio honetan onartuak izateko, izangaiek, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean eta agiriak aurkezteko epea amaitzen denetik (deialdiaren 7.2 atalean adierazia) lanpostuaren jabetza hartu arte, baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Espainiarra izatea, edo Europar Batasuneko beste estatu batekoa, edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunak direla medio, langileen zirkulazio librea aplikatzen den eremuko estatu batekoa.

Orobat, espainiarren eta Europar Batasuneko beste estatuak edo aipatu nazioarteko itunek ukitutako estatuak herritarren ezkontideek parte hartzen ahal dute, zuzenbidez bereizita ez badaude; halaber, haien ondorengoek eta ezkontidearenek, zuzenbidez bereizita ez badaude, 21 urtetik beherakoak badira, edo gorakoak, haien kontura biziz gero.

b) Hamasei urte beteak izatea eta erretiroa nahitaez hartzeko ezarritako gehieneko adina ez gainditzea.

c) Arkitekto teknikoaren titulua edo baliokidea izatea, edo eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean titulu hori eskuratzeko moduan egotea.

Atzerrian lorturiko titulua badira, homologazioa egiaztatzen duen kredentziala eduki beharko da.

d) Bete behar dituen eginkizunetan aritzeko behar den gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.

e) Eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitu edo gabetuta ez egotea eta administrazio publikoren baten zerbitzutik bereizita ez izatea.

Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek frogatu beharko dute beren estatuko funtzio publikoan sartzeara eragozten dien diziplina zeharpenik edo zigor penalik ez dutela.

## 3.–Eskabideak.

3.1. Deialdian parte hartzeko eskaerak Nafarroako Gobernuoko Erregistro Orokorrean (Karlo III.aren etorbidea, 2, 31002 Iruña) edo Nafarroako Gobernuaren gainerako erregistro bulegoetako edozeinetan (zerrenda 2008ko 14. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, urtarilaren 30ean) aurkeztu beharko dira, edo, bestela, Herri Administrazioaren Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Eskideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan adierazitako bideren bat erabiliz, deialdia Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik hogeita hamar egun naturaleko epean.

Eskaera posta bulego batean aurkeztuz gero, gutun-azal irekian eginen da, postako langileek, ziurtatu aurretik, data eta ziguila jar dituzten.

Eskabideak deialdi honen eranskinean dagoen ereduari lotu behar zaizkio eta, haietan, izangaiek adierazi beharko dute eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela. Eredu hori Nafarroako Gobernuaren edozein erregistro bulegotan dago eskuragarri. Internet bidez ere lortzen ahal da, [www.navarra.es](http://www.navarra.es) helbidean, bai argitaratzen deneko aldizkari ofizialetik abiatuta bai aipu honetatik abiatuta: "Zerbitzuak", "Enplegu publikoa".

3.2. Ezgaitasun aitortua duten lehiatzaileek, ariketak egin ahal izateko denbora edo baliabideetan egokitzapenik behar badute, zilegi izanen dute eskabidean eskatzea, eta hartarako, aparteko orri batean adierazi beharko dute nolako ezgaitasuna duten eta zer egokitzapen eskatzen duten. Horrekin batera, legean arabera ezgaitasunen bat dutela frogatzeko agiriaren kopia konpultsatua ere aurkeztu beharko dute, organo eskudunak emana.

3.3. Hautapen prozesuko ariketa guztiak gainditzen ez dituzten hautagaiekin zerrenda batzuk osatuko dira, ondoren aldi baterako kontratazioak egiteko. Horretarako, parte hartzaileek deialdiko eskabidean berean adierazi beharko dute zein kontratazio zerrendatan sartu nahi duten.

Xede horrekin, parte hartzaileek eskabidean agertzen diren kudeaketa esparruetako bakar bat hautatu beharko dute, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zerrendetan, Nafarroako Mendekotasun Agentziakoetan edo Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren gainerako departamentu (Administrazio erroa) eta erakunde autonomoetan sartzeko. Kudeaketa esparru bat baino gehiago hautatuz gero, edo parte hartzeko eskabidean atal hori betetzen ez bada, Administrazio erroko zerrendetan besterik ez dutela parte hartu nahi ulertuko da.

3.4. Eskabideari, behar bezala bete ondoren, agiri hauek erantsiko zaizkio:

Bat.–Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia, edo izangaiaren nazionalitatea eta nortasuna frogatzen dituen beste agiri baliokideren batena.

Bi.–Espediente formalizatze edo azterketa eskubideetarako 18 euro ordaindu izanaren frogagiria. Azterketa eskubideen tasa ordaintzen ez bada, izangaia baztertu egingen da.

Sistema hauetako bat erabiliz ordaintzen ahalko da tasa hori:

–Behar bezala betetako ordainketa gutunaren bitartez. Sistema horrek Nafarroako Foru Komunitateko banku entitateetan ordaintzeko balio du. Arestian aipatutako webgunean, deialdiaren iragarkian, ordainketa gutunaren eredia dago.

–Banestoko (Banco Español de Crédito) 0030 8124 87 0870002271 kontuan eskudirutan edo bankuko transferentzia bidez ordainduz; horrelakoetan ordainagirian datu hauek jarri beharko dira nahitaez:

- Izangaiaren izen-deiturak.
- NANA/IFZ.
- Ordainketa zein kontutan egiten den, haren zenbakia.
- Kontzeptua: oposizioak.
- Deialdiaren xede den lanpostua.

Honako hauek ez dute tasarik ordaindu beharko:

a) %33ko edo gehiagoko ezgaitasun aitortua dutenek, baldin eta egoera hori organo eskudunak luzaturiko agiriaren fotokopia konpultsatuta egokiaren bidez frogatzen badute.

b) Deialdia argitaratu aurretik hilabete batez edo luzaroago lan-eskatzaile gisa inskribaturik egon diren pertsonak. Salbuespen hori aplikatzeko baldintza izanen da inskribaturik egon diren bitartean eskainitako inolako lan egokiri uko egin ez izana eta lanbide sustapen, prestakuntza edo aldaketarako ekintzetan parte hartzeari uko egin ez izana, justifikaturiko kasuetan izan ezik, eta, horrez gainera, lanbide arteko gutxienerako soldatetik gorakoa den dirusarrerarik ez izatea hilean.

Lan-eskatzailea dela frogatzeko, Enplegu Bulegoak emandako agiria aurkeztu beharko da. Bertan, lan-eskatzaile gisa inskribatu zeneko data agertuko da eta, orobat, adieraziko da inskribaturik egon den bitartean ez diola uko egin handik eskainitako inolako lan egokiri, ez eta lanbide sustapen, prestakuntza edo aldaketarako ekintzetan parte hartzeari ere, justifikaturiko kasuetan izan ezik.

Hilean lanbide arteko gutxienerako soldatetik gorako dirusarrerarik ez duela interesdunaren adierazpenaren bidez frogatuko da. Adierazpen eredu Nafarroako Gobernuoko Informazio Bulegoan eskuratzetan ahaliko da, edo bestela Internet bidez, arestian emandako helbidean.

3.5. Eskabideak aurkezteko epea ezin izanen da luzatu.

3.6. Eskabidean atzematen diren akats materialak edo egitekoak ofizioz edo interesdunak eskaturik zuzentzen ahalko dira, noiznahi ere.

## 4.–Izangaien onarpena eta erreklamazioak.

4.1. Eskaerak aurkezteko epea bukatutakoan, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak ebazpena emanen du, izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onesteko, eta Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara dadila aginduko du.

4.2. Izangai baztertuek hamar egun balioduneko epea izanen dute, behin-behineko zerrenda Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik, erreklamazioak aurkezteko eta, akatsik egin badute, zuzentzeko.

4.3. Erreklamazioetarako epea bukatutakoan eta horiek ebaztuta, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesten duen ebazpena emanen du, eta Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara dadila aginduko.

4.4. Izangaiei egotzirik arrazoiengatik baztertzen direnei ez zaizkie azterketa egiteko eskubideak itzuliko.

## 5.–Epaiahiaia.

5.1. Epaiahiaiak kide hauek izanen ditu:

–Mahaiburua: José Luis Moreno Ochoa jauna, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Administrazio eta Antolaketa zuzendaria.

–Ordezkoa: José María Ayerra Lazcano jauna, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendaria.

–Mahaikidea: Edurne Iriarte Amigot andrea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Obra eta Azpiegitura Zerbitzuko burua.

–Ordezkoa: Javier Hermoso de Mendoza García jauna, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Obra eta Azpiegitura Zerbitzuko arkitekto teknikoa.

–Mahaikidea: Jesús M.<sup>a</sup> Sos Arbizu jauna, Nafarroako Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen Elkargoko Gobernu Batzordeko buruordea.

–Ordezkoa: César García-Fresca Frías jauna, Nafarroako Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen Elkargoko Gobernu Batzordeko kidea.

–Mahaikidea: langileen ordezkari bat, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Langile Batzordeak proposatua.

–Ordezkoa: langileen ordezkari bat, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Langile Batzordeak proposatua.

–Mahaikide idazkaria: Jesús Barace Egaña jauna, Administrazio eta Zerbitzu Orokorreraren Zerbitzuko burua.

–Ordezkoa: Javier Ibáñez López-Bailo jauna, Oinarrizko Osasun Laguntzako Langilearen Kudeaketarako Ataleko burua.

Epaimahaia hautaprobak hasi baino lehen eratu da.

5.2. Epaimahaia ezin izanen da eratu, ezta aritu ere, kideen gehiengo osoa bertan izan gabe.

Kide anitzeko organoaren eraketak eta jardunak balioa izateko, mahaiburuak eta mahaikide idazkariak edo haien ordezkoez bertan egon beharko dute.

5.3. Epaimahaiko kideek ez dute parte hartuko, eta organo dei egileari horren berri emanen diote, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean parte ez hartzeko aipatzen diren egoeretakoren batean baldin badaude.

Izangaiek, halaber, zilegi dute mahaikideak errefusatzeko, egoera horietako bat gertatzen denean.

5.4. Epaimahaia gehiengoz erabakiko ditu deialdiaren oinarriak ulertu eta aplikatzeko moduaren inguruan sortzen diren arazo guztiak.

5.5. Epaimahaia aholkulari adituen laguntza izan dezake proba batzuetan nahiz guztietan. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetan baizik ez dira ariko eta horietan bakarrik emanen diote laguntza epaimahaiari.

6.–Oposizioa nola eginen den.

6.1. Oposizioa 2008ko irailean hasiko da. Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesten duen ebazpenean berean finkatuko dira probak hasteko tokia, eguna eta ordua.

Ondoren, epaimahaia gainerako probak egiteko iragarki jakinaraziko ditu, arazuz egin behar den moduan.

6.2. Oposizioak ariketa hauek izanen ditu:

–Lehen ariketa: teoriko-praktikoa, bi zatitan banatua:

Lehenbizikoa: gai zerrendaren bigarren zatiko gai buruzko berrogeita hamar galderako sorta bati erantzutea. Galdera bakoitzean hiru aukera emanen dira, eta bat bakarria izanen da egokia. Hogeita hamar minutu emanen dira proba hau egiteko. Erantzun okerrak zehatu eginen dira.

Bigarrena: gai zerrendaren bigarren zatiko gai buruz epaimahaia proposatzen dituen kasuak ebazti eta galderei erantzutea, gehienez ere 2 ordu eta 30 minutuz.

–Bigarren ariketa: teorikoa, zozketa bidez aukeratu diren bi gai idatziz azaltzea, gehienez ere 3 orduz: bat gai zerrendaren bigarren zatikoa eta bestea laugarren zatikoa.

–Hirugarren ariketa: teoriko-praktikoa, gai zerrendaren bigarren, hirugarren eta laugarren zatietatik aterata epaimahaia proposatzen dituen kasuak ebaztea edo galderei erantzutea, gehienez ere 5 orduz.

Laugarren ariketa: teorikoa, zozketa bidez aterako diren bi gai idatziz azaldu beharko dira, gehienez ere 3 orduz: bat gai zerrendaren lehen zatikoa eta bestea hirugarren zatikoa.

6.3. Oposizioko ariketen balorazioan 80 puntu eman daitezke gehienez ere, honela banatuta:

–Lehenbizikoa: gehienez 20 puntu. Ariketaren zati bakoitzari 10 puntu ematen ahal zaizkio gehienez.

–Bigarrena: gehienez 20 puntu. Gai bakoitzari 10 puntu ematen ahal zaizkio gehienez.

–Hirugarrena: gehienez 20 puntu.

–Laugarrena: gehienez 20 puntu. Gai bakoitzari 10 puntu ematen ahal zaizkio gehienez.

6.4. Oposizioko ariketak baztergarriak izanen dira. Bazterturik geldituko dira ariketa bakoitzeko gehieneko puntuazioaren erdia, gutxienez, lortzen ez duten izangaia. Halaber, bazterturik geratuko dira lehen, bigarren eta laugarren ariketetan proposatutako gaietan edo zatietan zero puntuko kalifikazioa lortzen dutenak.

6.5. Oposizioko ariketak plika sistemaren bidez eginen dira.

6.6. Ariketak zuzendu ondoren, epaimahaia jendaurrean jarriko du, Nafarroako Gobernuaren iragarki oholean eta ariketa egin den tokian, gairak dituzten izangaia zerrenda, lortutako kalifikazioekin eta, halaber, oposizioko hurrengo ariketa egiteko tokia, eguna eta ordua, gutxienez 48 ordu lehenago. Zerrenda Internet bidez ere kontsultatzen ahalgo da, [www.navarra.es](http://www.navarra.es) helbidean, Zerbitzuen Katalogoan, Enplegu Publikoaren atalean, deialdiari buruz dagoen aiputik abiatuta.

6.7. Ariketa bakoitzerako dei bakarrik eginen da. Izangaiek nortasun agiri nazionala, pasaportea edo gidabaimena eraman beharko

dute. Azterketara agertzen ez direnak edo arestian aipatutako agirieta-koren baten bidez beren nortasuna egiaztatzen ez dutenak oposiziotik baztertuko dira.

6.8. Hautaprobak egiteko, ezgaitasun aitorturen bat dutenentzat bidezkoak diren denbora eta baliabide egokitzapenak egiten dira, eskabidean azaldutakoaren arabera.

7.–Probak gairak dituztenen zerrenda, izendapen proposamena eta agirien aurkezpena.

7.1. Azken ariketaren kalifikazioa bukatuta, epaimahaia Nafarroako Gobernuaren iragarki oholean eta proba egin den tokian argitaratuko du hura gairak dituzten zerrenda, lortutako kalifikazioak adierazita, eta Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzaileari igorriko dizkio oposizioa gairak dituzten zerrenda eta puntuazio handieneko izangaia izendatzeko proposamena, espediente osoarekin batera. Proposamen hori Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da.

Berdinketarik gertatuz gero, hirugarren ariketan puntu gehien lortu dutenen alde ebaztuko da. Eta hala ere berdinduta segitzen badute, lehen, bigarren eta laugarren ariketan lortutako puntuazioak hartuko dira kontuan, ordena horretan.

7.2. Izendapen proposamena Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondoko 30 egun naturaleko epean, proposatutako izangaia Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko Sarrerarako Hautapenaren Zerbitzuan ondoko agiriak aurkeztu beharko ditu, zerbitzu horretan berariazko inprimakiak jaso eta gero:

7.2.1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langile finko ez diren izangaia:

a) Nortasun Agiri Nazionalaren bi fotokopia konpultsatuta, edo izangaia nortasun nazionalitatea eta nortasuna frogatzen dituen beste agiri balio-kideren batenak.

b) Deialdiaren 2.1.c) arauan eskatzen den titularen fotokopia konpultsatuta edo lortzeko eskubideak pagatu direla frogatzen duen gordekinarena; bestela, eskabideak aurkezteko epean titulua eskuratzeko moduan dagoela frogatzen duen ziurtagiria.

c) Laneko Arriskuei Aurrea hartzeko Atalak emandako txostena, interesdunak karguan aritzea eragotziko liokeen eritasun edo akats fisiko edo psikikorik ez duela frogatzeko.

Izangaia ezgaitasunen bat alegatu badu, gainera, ezgaitasuna deialdi lanpostuarekin bateragarria dela dioen frogagiria aurkeztu beharko du, balorazio eta orientazio talde eskudunek lutzatua.

d) Eginkizun publikoetarako ezgaitua edo gabetua ez izatearen eta inongo administrazio publikoren zerbitzuetik berezia ez izanaren zinpeko aitortpena.

Izangaiek Espainiako nazionalitatea ez badute, agiria aurkeztu beharko dute, beren Estatuko Funtzio Publikoan sartzea eragotzen dien diziplina zehapenik edo zigor penalik ez dutela adierazteko.

e) Zin egin edo hitz ematea, Nafarroako Foru Eraentza errespetatu, Konstituzioari eta legeri men egin eta karguari dagozkion eginkizunak zuzen beteko dituela.

Baldin eta proposatutako izangaia deialdi hau egin ez duen Nafarroako beste Administrazio Publikoaren bateko langile finkoa bada, goikoez gain, aurreko administrazio espediente pertsonalean ageri diren inguruabar eta aurrekari guztiak frogatzen dituen ziurtagiria, sarrerari, antzinateari, mailari, egoera administratiobari eta abarri buruzkoa.

7.2.2. Izangaia Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren edo haren erakunde autonomoen zerbitzuko langile finko bada:

a) Deialdiaren 2.1.c) arauan eskatzen den titularen fotokopia konpultsatuta edo lortzeko eskubideak pagatu direla frogatzen duen gordekinarena; bestela, eskabideak aurkezteko epean titulua eskuratzeko moduan dagoela frogatzen duen ziurtagiria.

Izangaia ezgaitasunen bat alegatu badu, gainera, ezgaitasuna deialdi lanpostuarekin bateragarria dela dioen frogagiria aurkeztu beharko du, balorazio eta orientazio talde eskudunek lutzatua.

7.3. Epe horretan, eta behar adina justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik, izangaia ez badiu agiri horiek aurkezten, ezin izanen da izendatu, eta haren ekintza guztiak balio gabetako dira, eskabidean gezurra esateagatik egotzi ahal zaion erantzun beharra ezertan galarazi gabe.

7.4. Aurreko atalean aurreikusitako gertatuz gero, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak probak gairak dituzten zerrendan, 7.1 atalean aipatutakoan, hurrengo den izangaiaekin beteko du hutsunea, eta horrekin ere aurreko ataletan adierazitako moduan jokatu da.

7.5. Baldintzak eta betebeharrak frogatzeko agiriaz gainera, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak besteren bat eskatu nahi izanez gero, proposatzen den izangaia eskatu beharko dio eta horrek deialdi honetako 7.2 arauan ezarritako moduan aurkeztu beharko du.

8.–Izendapena, lanpostuaren esleipena eta jabetza hartzea.

8.1. Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak, ebazpen baten bidez, aurreko arauetan ezarritakoa betetzen duen izangaia Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazio funtzionario izendatuko du, arkitecto teknikoaren lanetarako, eta dagokion lanpostu hutsa esleitu dio.

8.2. Izendapenak eta lanpostuaren jabetza hartzeak nomina eta plantillako funtzionario bilakatuko dute izendatua, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio funtzionarioentzat indarra duten xedapenetan ezarrita dauden eskubide eta betebeharrak dituela. Gizarte Segurantzako araubide orokorrean inskribatu eta idetutako da, araubide horretan aurreikusitakoaren babesean.

Aurrekoa gorabehera, Nafarroako Administrazio Publikoaren Zerbitzuko Langileen Estatutua onetsi zuen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bederatzigarren xedapen gehigarriaren 3. puntuan xedatutakoa aplikatzearen ondorioz, izendatua Nafarroako administrazio publikoaren edozein mutualitatetako eskubide pasiboen araubidekoa bada, bi aukera izanen ditu: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko mutualitatearen segitzea, martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen bidez arauturiko eskubide pasiboen araubidearen babesean, edo Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean sartzea.

8.3. Izendatutako izangaia destinoko herrian bizi beharko du, eta horretarako, udalerrri horretan eduki beharko du bizileku finkoa. Administrazio organo eskudunek destina aldatzen ahalko dute, aplikatzea den araudian ezarritakoarekin bat.

8.4. Lanaldia zerbitzuaren beharretara egokituko da eta noiznahi aldatzen ahalko dute administrazio organo eskudunek, aplikatzea den araudian ezarritakoarekin bat.

8.5. Izendapena Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da eta izangaia izendatuak hilabeteko epean jabetu beharko du bere lanpostuaz, izendapenaren jakinarazpenetik kontatzen hasita.

Aipatu epean eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, izangaia lanpostuaz jabetzen ez bada, Foru Komunitateko Administrazioaren funtzionario izateko eskubide guztiak galduko ditu. Hala bada, 7.4 atalean ezarritakoari jarraikiko zaio.

8.6. Izangaia, funtzionario bilakatu eta lanpostuan batere aritu gabe zuzenean eta berak eskatuta, borondatezko eszedentzia ematen bazaio jabetza hartzearen egunetik beretik, data hartan beste administrazio publiko batean ari delako, dagokion lanpostu hutsa deialdiko 7.4 atalak agintzen duen bezala beteko da.

9.–Aldi baterako kontratuatarako izangaia zerranda.

9.1. Nafarroako Administrazio Publikoetan sartzeko Erregelamenduen 42. artikuluan, lanpostuak aldi baterako betetzeko kudeaketa arauak onetsi zituen Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren azaroaren 14ko 146/2005 Foru Aginduan eta arau honexetan ezarritako prozedurari jarraikiz, aldi baterako kontratazioerako izangaia zerranda hauek sortuko dira:

a) Probak gainditu bai baina lanposturik lortu ez duten izangaia zerranda, bat bera Foru Komunitateko Administrazioko departamentu eta erakunde autonomo guztientzat.

b) Hautapen prozesuko ariketa guztiak gainditu ez dituzten izangaia zerranda, parte hartzeko eskabidean aukeratutako esparruaren arabera.

9.2. Probak gainditu bai baina lanposturik lortu ez duten izangaia zerranda.

Probak gainditu arren lanposturik lortu ez duten izangaiekin Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak zerranda bat osatuko du, ondoren aldi baterako kontratazioak egiteko, deialdi honetako 10. arauan ezarritako prozedurari jarraikiz. Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren azaroaren 14ko 146/2005 Foru Aginduan xedatutako arauen arabera kudeatuko du.

Halaber, zerranda hori Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko eta Nafarroako Mendekotasun Agentziako organo eskudunei igorriko die, esparru bakoitzeko arauari jarraikiz kudea dezaten.

9.3. Hautapen prozesuko ariketa guztiak gainditzeko ez dituzten izangaia zerranda.

Deialdiko hamargarren arauan ezarritako prozedurarekin bat, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak aldi baterako kontratazioak egiteko izangaia zerranda bat osatuko du, deialdiko azken-aurreko ariketa gainditu eta Administrazio Erroko zerranda hautatu duten izangaiekin.

Era berean, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko eta Nafarroako Mendekotasun Agentziako organo eskudunei igorriko die hautapen prozesuko ariketa guztiak gainditu ez eta esparru horietako kontratazio zerrandak aukeratu dituzten zerranda, aldi baterako kontratazioerako, deialdi honetako 11. eta 12. arauetan ezarritako prozedurari jarraikiz.

10.–Administrazio Erroan aldi baterako kontratatze izangaia zerranda osatzeko prozedura.

10.1. Epaimahaiaren espedientea jasota, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez, probak gainditu arren lanposturik gabe gelditu diren izangaia eta deialdian ezarritako azken-aurreko ariketa gainditu eta Administrazio Erroko kontratazio zerranda aukeratu dutenei hamar egun balioduneko epea emanen zaie, ebazpena argitaratu eta biharamunetik hasita, ondoko dokumentazio hau aurkezteko:

Deialdiaren 2.1.c) arauan eskatzen den titularen fotokopia konpultsatua, titulua lortzeko eskubideak pagatu direla frogatzen duen gordekinarena edo sarrera prozesurako eskabideak aurkezteko epean titulua eskuratzeko moduan dagoela frogatzen duen ziurtagiria.

Ebazpen hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da, eta langileen zerrandak Nafarroako Gobernuak iragarki oholean (Karlos III.aren etorbidea, 2, atalondoa, Iruña).

Eskatzen diren agiriak aipatu epean aurkezten ez dituztenak (aski justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik) eta eskatutako baldintzak betetzen ez dituztenak ez dira sartuko aldi baterako kontratuatarako izangaia zerrandan, eta deialdian parte hartzeagatik eskubide guztiak galduko dituzte, betiere, parte hartzeko eskabidea faltsutzeagatik legokiekeen erantzukizuna deusetan ukatu gabe.

10.2. Sarrera prozedurako eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunerako bete beharko dira baldintzak, eta hautaprobek dirauteino eta kontratazioaldiak irauan bitarte bete beharko dira.

10.3. Dokumentazioa aurkezteko epea bukatutik, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez, aldi baterako kontratuatarako izangaia zerranda hauek onetsiko dira eta Nafarroako Gobernuaren iragarki oholean argitaratuko (Karlos III.aren etorbidea, 2, atalondoa, Iruña):

a) Probak gainditu bai baina lanposturik lortu ez duten izangaia zerranda.

b) Deialdiaren azken-aurreko ariketa gainditu bai baina probak gainditu arren lanposturik gabe gelditu diren artean ez dauden eta Administrazio Erroko kontratazio zerrandak hautatu dituzten zerranda.

10.4. Hauze izanen da aldi baterako kontratazioen zerrandaren ordena: oposizioa gainditu bai baina lanposturik lortu ez dutenen kasuan, hautapen prozesuan lortutako puntuazioaren arabera; gainerako izangaia kasuan, gainditutako ariketetan lortutako puntuazioen batura. Berdinketarik dagoenean nor nagusitzen den erabakitzeko, deialdi honetan kasu horietarako ezarritako irizpideak hartuko dira kontuan.

11.–Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan aldi baterako kontratatze izangaia zerranda osatzeko prozedura.

Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak probak gainditu bai baina lanposturik lortu ez dutenen zerrandak eta hautapen prozesuko ariketa guztiak gainditu ez eta esparru horietako kontratazio zerrandak aukeratu dituztenenak igorri ondoren, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko organo eskudunek beren kudeaketa esparruko aldi baterako kontratazioerako izangaia zerrandak onetsiko dituzte, 2001eko urtarrilaren 9ko Akordioan erakunde autonomo horietako osasun zentro eta establezimenduetan aldi baterako langileak hautatzeko ezarritakoarekin bat. Akordio hori 2001eko 101. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, abuztuaren 20an.

Horretarako, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak hamar egun balioduneko epea emanen die interedunei, zentroa hautatu, iraualdi laburreko zerrandetan egon nahi dutela adierazi eta aipatu erakunde autonomoak zehazten dituen gainerako inguruabarrak betetzeko.

Arau horren arabera osatzen diren zerrandak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak kudeatuko ditu, langileak hautatzeko 2001eko urtarrilaren 9ko Akordioan ezarritakoari jarraikiz.

12.–Nafarroako Mendekotasun Agentzian aldi baterako kontratazio izangaia zerranda osatzeko prozedura.

Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak probak gainditu bai baina lanposturik lortu ez dutenen zerrandak eta hautapen prozesuko ariketa guztiak gainditu ez eta esparru horietako kontratazio zerrandak aukeratu dituztenenak igorri ondoren, Nafarroako Mendekotasun Agentziako organo eskudunek beren kudeaketa esparruko aldi baterako kontratazioerako izangaia zerrandak onetsiko dituzte, erakunde autonomo horretan 2000ko urtarrilaren 17ko Akordioan aldi baterako kontratazioerako langile zerranden kudeaketari buruz ezarritakoarekin bat.

Horretarako, Nafarroako Mendekotasun Agentziak hamar egun balioduneko epea emanen die interesdunei, zentroa edo eskualdea hautatu eta aipatu erakunde autonomoak zehazten dituen gainerako inguruabarrak betetzeko.

Arau horren arabera osatzen diren zerrandak Nafarroako Mendekotasun Agentziak kudeatuko ditu, aldi baterako langileen zerrandak kudeatzeko 2000ko urtarrilaren 17ko Erabakian ezarritakoari jarraikiz.

## 13.–Errekurtsoak.

Epaimahaiak ematen dituen egintza eta ebazpenen kontra gora jotzeko errekurtsua paratzen ahalko da, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzaileari zuzendua, errekurtsuaren xede den egintza argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean.

Deialdi honen eta bere arauen kontra eta arauak aplikatzeko egintzen kontra, epaimahaiak hartutako enkontra izan ezik, zilegi izanen da gora jotzeko errekurtsua jartzea, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritu nahi den egintza argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Hori guztia Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 57. artikuluekin bat, eta urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluei jarraikiz.

Iruñean, 2008ko apirilaren 7an.–Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzailea, Ignacio Bandrés Urriza.

## I. ERANSKINA

## Eskabidea

Izena: .....; adinez nagusia; NAN zenbakia (edo horren baliokidea den nortasun agiriarena): .....; sorteguna: .....; sorlekua: .....; nazionalitatea: .....; bizilekua: .....(.....), kalea: .....; posta kodea: .....; telefonoa: .....; laneko telefonoa: .....

Honako hau azaltzen dut:

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko ..... izateko .....lanpostu .....bidez betetzeko deialdian parte hartzeko onartua izatea eskatzen dudala, aipatu txandan (deialdia ..... zenbakiko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, .....egunean).

- Txanda irekia
- Igoera txanda\*
- Ezgaitasunen bat dutenendako txanda\*

Hautaprobak gaintzen ez baditut, lanpostuak behin-behinekoz betetzeko aukeraz baliatu nahi dudala, honako esparrutako batean:

- Administrazio erroa\*
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua\*
- Nafarroako Mendekotasun Agentzia\*

(Esparruetako bakar bat aukeratu daiteke).

Ez dudala karguan aritzea galarazten didan eritasunik edo akats fisikorik nahiz psikikorik.

Indarra duten xedapenetan ezarritako ezintasunik ez dudala.

Ez naizela diziplinako espediente bidez ezin administrazio publikoren zerbitzuetik kanpo utzia izan eta ez nautela eginkizun publikoak betetzeko gaitasunik gabe utzi.

Deialdian eskatzen den titulazioaren jabe naizela.

Azterketa eskubideak ordaindu ditudala deialdian ezarritako moduan eta horren gordekina erantsi dudala, edo erantsitako agirien bidez frogatzen dudala tasa ordaintzetik salbuesita nagoela.

Eskabideak aurkezteko epearen azken egunean baldintza guztiak betetzen ditudala.

Ezgaitasun bat dudanez, orri bereizi batean adierazten ditudan denbora eta baliabide egokitzapenak eskatzen ditudala.

Ezgaitasuna frogatzen duen agiria aurkezten dudala, erakunde eskudun batek emana.

Euskararen gaitasunaren agiria edo ofizialki baliokidea den beste titulu bat aurkezten dudala\*

Euskara maila jakiteko proba egitea eskatzen dudala\*

Frantseseko eta ingeleseko maila frogatzeko probak egitea eskatzen dudala\*

Horrenbestez,

Eskabide hau ontzat hartu eta aipatu deialdian onartua izatea eskatzen dut.

Iruñean, 200..ko .....aren .....(e)an.

(Sinadura)

(\*) Bidezkoa bada.

## II. ERANSKINA

## Gai zerrenda

## Lehen zatia.

1. gaia.–Espainiako 1978ko Konstituzioa: Estatuko aginteak. Koroa. Gorte Nagusiak. Gobernua eta Administrazioa. Botere judiziala Konstituzioan.

2. gaia.–Zuzenbide Publikoaren iturburuak: legeak eta lege motak. Lege dekretuak. Legegintzako foru dekretuak. Nazioarteko itunak.

3. gaia.–Administrazio Zuzenbidearen iturburuak: erregelamendua eta erregelamendu-ahalmena. Erregelamendu motak. Erregelamendu-ahalmenaren mugak eta haren kontrola.

4. gaia.–Administrazio egintza: kontzeptua, motak eta osagaiak. Administrazio egintzen baldintzak, eraginkortasuna, deuseztasuna eta deuseztagarritasuna.

5. gaia.–Administrazio prozedura erkidea: kontzeptua eta izaera. Hasiara, antolamendua, instrukzioa eta bukaera. Administrazioarekiko errekurtsuak: printzipio orokorrak eta motak.

6. gaia.–Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeko Lege Organikoa. Nola egin zen. Oinarritzko printzipioak. Foru Eraentzaren erreforma. Nafarroaren eskumenak.

7. gaia.–Nafarroako Parlamentua edo Gortea: osaera, antolakuntza eta eginkizunak.

8. gaia.–Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzko Foru Legea.

9. gaia.–Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko Foru Legea.

10. gaia.–Nafarroako Foru Komunitateko arartekoa. Comptos Ganbera. Nafarroako Kontseilua.

11. gaia.–Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutua (I): langile motak. Funtzionario publikoen hautapena. Funtzionario izaera eskuratzeko eta galtzea.

12. gaia.–Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutua (II): karrera administratiboa. Administrazio egoerak. Lanpostuak betetzea. Ordainsariak.

13. gaia.–Nafarroako Ogasun Publikoa: egitura eta eginkizunak. Ondarea, baliabideak, aurrekontuak eta kontrola. Araubide juridikoa.

14. gaia.–6/2006 Foru Legea, ekainaren 9koa, Kontratu Publikoari buruzkoa (I): aplikazio eremua. 6/2006 Foru Legearen mendeko kontratuen definizioa. Administrazio Publikoen kontratuen sailkapena. Araubide juridikoa. Kontratuak esleitu, hobetu, sinatu, bete, aldatu, amaitu eta baliogabetzeko arau orokorrak.

15. gaia.–6/2006 Foru Legea, ekainaren 9koa, Kontratu Publikoari buruzkoa (II): Obra kontratua: Proiektua. Kontratuaren exekuzioa. Amaiztea. Lan publikoak emateko kontratua: aurretiko jarduketak, exekuzioa, aldean eskubide eta betebeharrak. Kontzesioaren amaiera.

16. gaia.–6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa: Nafarroako toki entitateen antolaketa eta administrazioa. Administrazioarteko harremanak. Toki entitateen ondasunak.

17. gaia.–Datu pertsonalak babestea (I). Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoa. Xedapen orokorrak. Datuak babestearien printzipioak. Pertsonen eskubideak. Titulartasun publikoko fitxategiak. Administrazio publikoen arau-hausteak.

18. gaia.–Datu pertsonalak babestea (II). Datu pertsonalak dituzten fitxategi automatizatuen segurtasun neurriak buruko erregelamendua. Xedapen orokorrak. Segurtasun neurrien mailak. Arau-hausteak eta zehapenak.

19. gaia.–Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan administrazio elektronikoa ezartzeko apirilaren 4ko 11/2007 Foru Legea.

## Bigarren zatia.

1. gaia.–Azalaren neurketa eraikuntzetan. Azalera erabilgarri itxia. Azalera irekiak, azalera erabilgarrian sartzea. Azalera eraiki pribatua, azalera erabilgarri itxiarekin duen zerikusia. Elementu komunen azalera. Elementu komenekin eraikitako azalera, azalera erabilgarri itxiarekin duen zerikusia. Elementu komunetan izaten den partaidetza koefizientea.

2. gaia.–Ondasun higiezinaren balio, prezio eta kostuei buruzko eza-gutza. Kontzeptua eta motak.

3. gaia.–Ondasun higiezinak merkatuko alderaketa metodoaren bidez baloratzea: kontzeptua eta metodoak.

4. gaia.–Ondasun higiezinak kostuaren metodoaren bidez baloratzea: kontzeptua eta metodoak.

5. gaia.–Ondasun higiezinak errenta metodoaren bidez baloratzea: kontzeptua eta metodoak.

6. gaia.–Lurzoruaren eragin-balioa. Kontzeptua. Lurzoruaren eragin-balioa lortzeko hondar-metodoa. Hondar-balioa zehaztean parte hartzen duten prozesuen kostu eta etekinen azterketa.

7. gaia.–Hardwarea. Informatika sistema baten osagai fisiko nagusiei buruzko oinarritzko ezagutza. Microprozesadoreak; memoriak; portuak; busak. Periferikoak.

8. gaia.–Windows XP. Mahaigaina. Atazen administratzailea. Windowseko arakatzaila. Kontrol panela. Inprimagailuak. "Hasi" botoia. Ataza barra. Erabiltzaile kontuak. Sarean lan egitea.

9. gaia.–Testu-prozesadoreak. Microsoft Word XP: lan eremua; idatzi eta editatzea; testuaren formatua; orriaren diseinua eta konposizioa; estiloak; plantillak; tresnak; taulak; artxiboen administrazioa; eremuekin lan egitea; inprimatzea; makroak (oinarritzko maila).

10. gaia.–Kalkulu orriak. Microsoft Excel XP: oinarritzko kontzeptuak; laneko liburuak; orriak; gelatxoak; gelatxoak eta komandoak hautatzea; datuak sartzea; formulak eta loturak sortzea; funtzioak erabiltzea; kalkulurri bati editatzea; formatuak; grafikoa; inprimatzea; makroak (oinarritzko maila).

11. gaia.–Datu baseak. Microsoft Access XP: funtsak; taulak; kontsultak; formularioak; txostenak; inprimaketa; makroak (oinarritzko maila).

12. gaia.–Internet eta Intranet. Interneten oinarrituriko zerbitzuak. World Wide Web; posta; albiste multzoak; bilagailuak.

13. gaia.–Outlook XP: posta elektronikoa, denbora antolatu eta kudeatzeko tresna. Mezuak; helbide liburuak; agenda; harremanak; eginkizunen plangintza.

14. gaia.–Marrazketa teknikoko programak: Autocad. Oinarritzko kontzeptuak. Agindurik erabilienak. Programa horiek arkitekturan duten erabilgarritasuna.

15. gaia.–Obren aurrekontuetarako programak: Presto. Oinarritzko kontzeptuak. Agindurik erabilienak. Programa horiek arkitekturan duten erabilgarritasuna.

16. gaia.–Sare informatikoak. Sare-zerbitzariak. Lanpostuak. Barne erabilerako sareak (Intranet). Teknologia berriak: Internet. Oinarritzko kontzeptuak.

#### *Hirugarren zatia.*

1. gaia.–Urbanizazio kuotak Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean. Urbanizazio kuotak. Lurraren gaineko kontribuzioa. Hirilurren balio igoeraren gaineko zerga.

2. gaia.–Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legea. Izaera. Kontzeptua. Edukia. Kontsebazioa.

3. gaia.–Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legea. Informazioa eskuratzea. Jabetza Erregistroarekin koordinatzea. Xedapen gehigarriak. Xedapen iragankorrak.

4. gaia.–Hirilurren gaineko Kontribuzioa ordainarazteko Erregelamendua ezartzen duen urriaren 10eko 216/1984 Foru Dekretua: Hirilurreko ondasunen balorazio txostena; prozedura eta edukia.

5. gaia.–Nafarroako hirilurreko ondasunen katastro balioa zehazteko arau teknikoak. Lurzoruaren balioa zehazteko arauak. Eraikinen balioa zehazteko arauak. Hirilurreko ondasunen katastro balioa zehaztea.

6. gaia.–Maiatzaren 17ko 165/1999 Foru Dekretua, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Erregelamendua onesten duena (I). Ondare eskualdaketak: Zergapeko egintza. Subjektu pasiboa. Zerga-oinarria.

7. gaia.–Maiatzaren 17ko 165/1999 Foru Dekretua, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Erregelamendua onesten duena (II). Egintza juridiko dokumentatuak: Zergapeko egintza. Subjektu pasiboa. Zerga-oinarria.

8. gaia.–Maiatzaren 17ko 165/1999 Foru Dekretua, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Erregelamendua onesten duena (III). Balioak egiaztatzea. Peritu tasazio kontrajarria.

9. gaia.–Abenduaren 16ko 250/2002 Legegintzako Foru Dekretua, Oinordekotzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren xedapenen testu bateginari buruzkoa. Xedapen orokorrak. Zergapeko egintza. Salbuespenak. Zergaren subjektu pasibo eta erantzuleak. Zerga-oinarria. Balioak egiaztatzea.

10. gaia.–Nafarroan etxebizitzari babes publikoa emateari buruzko ekainaren 24ko 8/2004 Foru Legea. Etxebizitza babestua. Lortzeko betebeharrak. Eraikuntzaren baldintzak. Babes-araubidearen iraupena. Eskualdaketak. Eroslehentasun eta atzera-eskuratze eskubideak.

11. gaia.–Prezioak berraztertzei buruzko legedi berezia. Prezioen indizeak eta berraztertze moduluak. Formula polinomikoak.

12. gaia.–Maiatzaren 23ko 209/1991 Foru Dekretua, Gizarte Zerbitzuen arloko baimen, arau-hauste eta zehapenei buruzko azaroaren 13ko 9/1990 Foru Legea garatzen duena (I): xedea eta aplikazio espa-

rrua. Eskumenak. Ukitutako jarduketak eta baimenak. Baimenak lortzeko prozedura. Ikuskapena, eskumenak eta eginkizunak. Entitateen erregistroa.

13. gaia.–Maiatzaren 23ko 209/1991 Foru Dekretua, Gizarte Zerbitzuen arloko baimen, arau-hauste eta zehapenei buruzko azaroaren 13ko 9/1990 Foru Legea garatzen duena (II): gizarte zerbitzuen arloetako zerbitzu eta zentron sailkapena. Baldintza orokorrak. Mota bakoitzaren, erabiltzaileen eta berariazko baldintzen definizioa.

14. gaia.–Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea. Xedapen orokorrak. Diru-laguntzak emateko prozedurak. Justifikazioa, egiaztapena, ordainketa, jarraipena eta kontrola.

15. gaia.–Laneko Arriskuei Aurrea Hartzeari buruzko 31/1995 Legea. Xedea eta esparrua. Langileen eta enpresen eskubide eta betebeharrak. Prebentzio zerbitzuak.

16. gaia.–Eraikuntza lanetako segurtasuna eta osasuna. 1627/1997 Errege Dekretua, urriaren 24koa. Segurtasunaren eta osasunaren gaineko azterlanak. Laneko segurtasun eta osasun plangintza. Norbanakoa eta taldea babesteko segurtasun ekipoa, zehaztapenak eta erabilera. Segurtasunaren eta osasunaren gaineko xedapenak laneko ekipoen erabilera. Enpresen jardueren koordinazioa.

17. gaia.–Kirol ekipamenduak: UNE (AENOR) arauak: Jokalekue-tako ekipoa. Gimnastikarako ekipoa. Entrenamendurako ekipoa. Alpinismo eta eskaladako ekipoa.

18. gaia.–15/2001 Foru Legea, uztailaren 5koa, Nafarroako Kirolari buruzkoa: Xedea eta printzipio orokorrak. antolaketa administratiboa eta eskumenak. Erabilera publikoko kirol instalazioak. Kirol jardueren plangintza.

19. gaia.–Araubide orokorreko ikasketak ematen dituzten ikastetxeen gutxienerako betebeharrak.

20. gaia.–Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legea. Hirigintzako lizentziak: Kontzeptua. Lizentzia behar duten egintzak. Eskumena eta prozedura. Eraginkortasuna. Iraungipena.

21. gaia.–14/2005 Foru Legea, azaroaren 22koa, Nafarroako Kultur Ondareari buruzkoa. Xedapen orokorrak. Ondasunen sailkapena. Ondasun higiezinaren babesa.

#### *Laugarren zatia.*

1. gaia.–Eraikinetako suteen kontrako babesa: CPI-96. Xedea, esparrua eta araubidea. Konpartimentazioa, okupazioa eta hustea: baldintza orokorrak. Seinalizazioa. Eraikuntza elementuen ezaugarriak, egonkortasuna eta erresistentzia. Materialen ezaugarriak eta baldintzak. Babeserako instalazioak: baldintza orokorrak.

2. gaia.–Nafarroako Foru Komunitateko kirol ekipamenduak erabiltzerakoan hartu beharreko segurtasun neurriak: uztailaren 15eko 272/1996 Foru Dekretua.

3. gaia.–Kirol instalazioen araudia (NIDE) (I): baldintza orokorrak: arau eta xedapen orokorrak. Plangintzaren eta egoeraren baldintzak. Eraikuntza baldintzak; sarrera-itzeerarako eta segurtasunerako baldintzak.

4. gaia.–Kirol instalazioen araudia (NIDE) (II): harmailak. Kirolerako zoruak eta ingurumenari buruzko irizpideak. Neurriak eta joko eremuak. Zelai txikiak. Aldagelak. Zelai handiak. Kirol ekipamendua. Interesa duten beste arau batzuk.

5. gaia.–Oztopo fisikoak. Ekainaren 29ko 154/1989 Foru Dekretua, uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legea garatu eta aplikatzeko erregelamendua onesten duena. Xedea. Aplikazio eremua. Ibilbide motak, eskakizun mailak. Sinbologia. Erreserbak.

6. gaia.–Obra baten antolaketa. Denboraren eta kostuen kontrola. Gantt-en diagramak. Pert-denboren sistemak. Aurreikuspenak betetzeko probabilitateak. Pertt-kostuen eta C.P.M. sistemak.

7. gaia.–Lur erauzketak eta indusketak zimentazioak egiteko. Tipologiak. Obra horien kontrola eta ikuskapena. Eremuko eta laborategiko saiakuntzak lurzoruen mekanikan. Neurketa eta balorazioa.

8. gaia.–Egiturak. Tipologiak. Hormigoï armatuzko egiturak: obra horien kontrola eta ikuskapena, araudia, neurketa eta balorazioa.

9. gaia.–Zur zerratuzko egiturak. Propietateak. Kalkuluko faktoreak. Erantzuna suaren aurrean. Prebentziozko babesa.

10. gaia.–Estalkiak. Motak. Obra horien kontrola eta ikuskapena. Araudia. Neurketa eta balorazioa.

11. gaia.–Fatxaden itxierak eta trenkada multzoak. Motak. Obra horien kontrola eta ikuskapena. Araudia. Neurketa eta balorazioa.

12. gaia.–Barne estaldurak. Motak. Obra horien kontrola eta ikuskapena. Araudia. Neurketa eta balorazioa.

13. gaia.–Isolamendu termiko eta akustikoa etxebizitza eraikinetan. Araudia. Bete beharreko baldintzak. Kontrola eta ikuskapena.

14. gaia.–Kanpoko eta barneko arrotz lanak. Motak. Obra horien kontrola eta ikuskapena. Araudia. Neurketa eta balorazioa.

15. gaia.–Iturgintza eta saneamenduko instalazioak, berokuntzakoak eta ur beroarenak. Motak. Kontrola eta ikuskapena. Araudia. Neurketa eta balorazioa.

16. gaia.–Argindar eta igogailuko instalazioak. Araudia. Kontrola eta ikuskapena. Instalazioen segurtasuna.

17. gaia.–Aldamioak, eskora-oholtzak eta apeoak. Planteamendua, exekuzioaren kontrola eta segurtasun neurriak.

18. gaia.–Hezetasunak eraikinetan: motak, jatorria, ondorioak eta atzemateko modua. Jarduketa proposamenak.

19. gaia.–Eraikin historikoen zainketa eta mantentze-lanak. Kontzeptua. Parte hartzen duten eragileak. Kategoriak. Eginkizunen identifikazioa. Mantentze programak: osagaiak. Aplikatzekoak diren arauak.

20. gaia.–Zurezko egituren diagnostikoa. Helburuak. Aldez aurreko informazioa, egiturazko elementuen ikuskapena, prospekzioak, egituraren egiaztapena.

21. gaia.–Adreiluzko fabrikaren hondamena motak eta zergatikoak: materialak, ura, eragile biologikoak, atmosferaren kutsadura, tentsioen pilaketa, azaleko ur-biltegiak, gizakien eragina.

22. gaia.–Harrizko fabrikaren hondamena. Alterazio motak. Alterazio eragile eta mekanismoak: ura, atmosferaren kutsatzaileak, gatz disolbagarriak, organismo bizidunak, bestelakoak.

23. gaia.–Kare estaldurak. Materialak: karea, harea, ura, gehigarriak. Teknikak: dosifikazioa eta exekuzioa. Zarpituak, emokadurak eta iztukuak.

Arlo guztietako gaiak deialdia hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen egunean indarra zuen legediari jarraituko diote.

F0805434

**DEIALDIA, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak apirilaren 7an emandako 34/2008 Ebazpenaren bidez onetsia, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko bide, ubide eta portuetako ingeniari izateko lanpostu bat oposizio bidez betetzekoa.**

Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak apirilaren 7an emandako 34/2008 Ebazpenaren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko bide, ubide eta portuetako ingeniari lanpostu bat oposizio bidez betetzeko deialdia onetsi zen.

Hautapen prozesua ondoko hauetan xedatutakoari jarraikiz eginen da: Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko Langileen Estatuaren Testu Bategina, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zena, aipatu estatutua garatu eta burutzeko Sarrera Erregelamendua, gainerako aplikazio arauak eta deialdi honetako arauak.

1.–Deialdiaren xedea

1.1. Deialdi honen xedea oposizio bidez bide, ubide eta portuetako ingeniari lanpostu bat betetzea da. Lanpostua funtzionario araubidekoa da, A mailakoa. Plantilla organikoan 5422 zenbakia du, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari atxikita dago eta Iruñean aritzekoa da.

1.2. Lanpostuak A mailarako oro har ezarrita dauden lansariak izanen ditu, uztailaren 4ko 158/1984 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Lansari Behin-behineko Erregelamenduan eta aplikatu beharreko gainerako xedapenetan ezarritakoari jarraikiz.

1.3. Halaber, deialdi honen bidez hautaprobak gainditu bai baina lanposturik lortzen ez duten izangaiekin aldi baterako kontratatuak izateko izangaien zerrenda bat osatuko da, deialdi honetako 9. arauan xedaturikoarekin bat.

2.–Betebeharrak

2.1. Oposizio honetan onartuak izateko, izangaiek, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean eta agiriak aurkezteko epea amaitzen denetik (deialdiaren 7.2 atalean adierazia) lanpostuaren jabetza hartu arte, baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Espainiarra izatea, edo Europar Batasuneko beste estatu batekoa, edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunak direla medio, langileen zirkulazio librea aplikatzen den eremuko estatu batekoa.

Orobat, espainiarren eta Europar Batasuneko beste estatuak edo aipatu nazioarteko itunek ukitutako estatuetako herritarren ezkontideek parte hartzen ahal dute, zuzenbidez bereizita ez badaude; halaber, haien ondorengoek eta ezkontidearenek, zuzenbidez bereizita ez badaude, 21 urteik beherakoak badira, edo gorakoak, haien kontura biziz gero.

b) Hamasei urte beteak izatea eta erretiroa nahitaez hartzeko ezarritako gehieneko adina ez izatea.

c) Bide, ubide eta portuetako ingeniariaren titulua edo baliokidea izatea, edo eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean titulu hori eskuratzeko moduan egotea.

Atzerrian lorturiko titulua badira, homologazioa egiaztatzen duen kredituziala eduki beharko da.

d) Bete behar dituen eginkizunetan aritzeko adinako gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.

e) Eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitu edo gabetua ez egotea eta administrazio publikoren baten zerbitzutik bereizita ez izatea.

Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek ez dute izanzen beren estatuko funtzio publikoan sartzeko eragozten dien diziplina zehapenik edo zigor penalik.

f) B motako ibilgailuak gidatzeko baimena izatea.

3.–Eskabideak.

3.1. Deialdian parte hartzeko eskaerak Nafarroako Gobernuako Erregistro Orokorrean (Karlos III.aren etorbidea, 2, 31002 Iruña) edo erregistro horretako beste edozein bulegotan (zerrenda 2008ko 14. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, urtarrilaren 30ean) aurkeztu beharko dira, edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan adierazitako bideren bat erabiliz, deialdia Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik hogeita hamar egun naturaleko epean.

Eskaera posta bulego batean aurkeztuz gero, gutun-azal irekian eginen da, postako langileek, ziurtatu aurretik, data eta zigilua jar ditzaten.

Eskabideak deialdi honen eranskinean dagoen ereduari lotu behar zaizkio eta, haietan, izangaiek adierazi beharko dute eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela. Eredu hori Nafarroako Gobernuaren edozein erregistro bulegotan dago eskuragarri. Internet bidez ere lortzen ahal da, [www.navarra.es](http://www.navarra.es) helbidean, bai argitaratzen deneko aldizkari ofizialek abiatuta bai aipu honetatik abiatuta: "Zerbitzuak", "Enplegu publikoa".

3.2. Ezgaitasun aitortua duten lehiatzaileek, ariketak egin ahal izateko denbora edo baliabideetan egokitzapenik behar badute, zilegi izanzen dute eskabidean eskatzea, eta hartarako, aparteko orri batean adierazi beharko dute nolako ezgaitasuna duten eta zer egokitzapen eskatzen duten. Horrekin batera, legean arabera ezgaitasunen bat dutela frogatzeko agiriaren kopia konpultsatua ere aurkeztu beharko dute, organo eskudunak emana.

3.3. Eskabideari, behar bezala bete ondoren, agiri hauek erantsiko zaizkio:

Bat.–Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia, edo izangaiaren hiritartasuna eta nortasuna egiaztatzen dituen beste agiri baliokideren batena.

Bi.–Espedientea formalizatzeko eta azterketa eskubideetarako 25 euro ordaindu izanaren ziurtagiria. Azterketa eskubideen tasa ordainitzen ez bada, izangaia baztertu eginen da.

Sistema hauetako bat erabiliz ordaintzen ahalko da tasa hori:

–Behar bezala betetako ordainketa-gutunaren bitartez, Nafarroako Foru Komunitateko banku entitateetan ordaintzeko. Arestian aipatutako webgunean, deialdiaren iragarkian, ordainketa-gutunaren ereduak dago.

–Banestoko (Banco Español de Crédito) 00308124 87 0870002271 kontuan eskudirutan edo bankuko transferentzia bidez ordainduz; horrelakoetan ordainagirian datu hauek jarri beharko dira nahitaez:

- Izangaiaren izen-deiturak.
- NANA/IFZ.
- Ordainketa zein kontutan egiten den, haren zenbakia.
- Kontzeptua: oposizioak.
- Deialdiaren xede den lanpostua.

Honako hauek ez dute tasarik ordaindu beharko:

a) %33ko edo gehiagoko ezgaitasun aitortua dutela frogatzen duten pertsonak, organo eskudunak luzaturiko jatorrizko agiriaren edo behar bezala konpultsatutako fotokopieren bidez.

b) Hautaprobaren deialdia egin aurretik hilabete batez edo luzaroago lan-eskatzaille gisa inskribaturik egon diren pertsonak. Salbuespen hori aplikatzeko baldintza izanen da inskribaturik egon diren bitartean eskaintako inolako lan egokiri uko egin ez izana eta lanbide sustapen, prestakuntza edo aldaketarako ekintzetan parte hartzeari uko egin ez izana, justifikaturiko kasuetan izan ezik, eta, horrez gainera, lanbide arteko gutxieneko soldatari gorrakoa den dirusarrerarik ez izatea hilabetero.

Lan-eskatzaillea dela frogatzeko, Enplegu Bulegoak emandako agiria aurkeztu beharko da. Bertan, lan-eskatzaille gisa inskribatu zeneko data agertuko da eta, orobat, adieraziko da inskribaturik egon den bitartean ez diola uko egin handik eskaintako inolako lan egokiri, ez eta lanbide sustapen, prestakuntza edo aldaketarako ekintzetan parte hartzeari ere, justifikaturiko kasuetan izan ezik.

Hilabetero lanbide arteko gutxieneko soldatetik gorako dirusarrerarik ez duela interesdunaren adierazpenaren bidez frogatuko da. Adierazpen eredu Nafarroako Gobernuko Informazio Bulegoan eskuratzen ahalgo da, edo bestela Internet bidez, arestian emandako helbidean.

3.4. Eskabideak aurkezteko epea ezin izanen da luzatu.

3.5. Eskabidean atzematen diren akats materialak edo egitezkoak ofizioz edo interesdunak eskaturik zuzentzen ahalgo dira, noiznahi ere.

4.–Izangaiei onarpena eta erreklamazioak.

4.1. Eskaerak aurkezteko epea bukatutik, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak ebazpena emanen du, izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onesteko, eta Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara dadila aginduko du.

4.2. Izangai baztertuek hamar egun balioduneko epea izanen dute, behin-behineko zerrenda Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik, erreklamazioak aurkezteko eta, akatsik egin badute, zuzentzeko.

4.3. Erreklamazioetarako epea bukatutakoan eta horiek ebatzita, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesten duen ebazpena emanen du, eta Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara dadila aginduko.

4.4. Izangaiei egotziriko arrazoiengatik baztertzen direnei ez zaizkie azterketa egiteko eskubideak itzuliko.

5.–Epaimahaia

5.1. Epaimahaiak kide hauek izanen ditu:

–Mahaiburua: Cristina Presmanes Zataráin andrea, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko Proiektu, Trenbide eta Lan Hidraulikoaren Zerbitzuko zuzendaria.

–Ordezkoa: José Francisco López García jauna, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko Proiektu, Trenbide eta Lan Hidraulikoaren Ataleko burua.

–Mahaikidea: Jesús González Albero jauna, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko Bide eta Eraikuntza Zerbitzuko zuzendaria.

–Ordezkoa: Estela Moso Sarasa andrea, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko Bide eta Eraikuntza Zerbitzuko Kontzesio Obren Ataleko burua.

–Mahaikidea: Jesús Usechi Santamaría jauna, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko Obren I. Ataleko burua.

–Ordezkoa: María Carmen González Martínez andrea, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko Garraioko Azpiegiturak Kudeatzeko Ataleko burua.

–Mahaikidea: langileen ordezkari bat, Nafarroako Foru Komunitateko Administraziooko Langile Batzordeak proposatua.

–Ordezkoa: langileen ordezkari bat, Nafarroako Foru Komunitateko Administraziooko Langile Batzordeak proposatua.

–Mahaikide idazkaria: Maite Ezkurra Mata andrea, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko Araubide Juridikoaren Ataleko burua.

–Ordezkoa: Martín Orradre Artieda jauna, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko idazkari tekniko nagusia.

Epaimahaia hautaprobak hasi baino lehen eratu da.

5.2. Epaimahaia ezin izanen da eratu, ezta aritu ere, kideen gehiengo osoa bertan izan gabe.

Organo kolegiatuaren eraketak eta jardunak balio izateko, mahai-buruak eta mahaikide idazkariak edo haien ordezkoez bertan egon beharko dute.

5.3. Epaimahaiko kideek ez dute parte hartuko, eta organo dei egileari horren berri emanen diote, Herri Administrazioaren Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean parte ez hartzeko aipatzen diren egoeretakoren batean baldin badaude.

Izangaiek, halaber, zilegi dute mahaikideak errefusatzeari, egoera horietako bat gertatzen denean.

5.4. Epaimahaiak gehiengo erabakiko ditu deialdiaren oinarriak ulertu eta aplikatzeko moduaren inguruan sortzen diren arazo guztiak.

5.5. Epaimahaiak aholkulari adituen laguntza izan dezake proba batzuetan nahiz guztietan. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetan baizik ez dira ariko eta horietan bakarrik emanen diote laguntza epaimahaiari.

6.–Oposizioaren nondik norakoak

6.1. Oposizioa 2008ko urrian hasiko da. Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesten duen ebazpenean berean finkatuko dira probak hasteko tokia, eguna eta ordua.

Ondoren, epaimahaiak gainerako probak egiteko iragarkiak jakinaraziko ditu, arauz egin behar den moduan.

6.2. Oposizioak ariketa hauek izanen ditu:

–Lehen ariketa: praktikoa, gai zerrendako II., III. eta IV. zatietako gaiekin lotuta proposatuko bi kasu idatziz garatu beharko dira, gehienez ere bost orduan.

–Bigarren ariketa: teorikoa. Gehienez ere 4 orduz bi gai idatziz azaldu beharko dira. Zozketaz aukeratuko dira, gai zerrendako III. zatitik bata eta IV. zatitik bestea.

–Hirugarren ariketa: teorikoa. Gehienez ere 4 orduz bi gai idatziz azaldu beharko dira. Zozketaz aukeratuko dira, gai zerrendako I. zatitik bata eta II. zatitik bestea.

Epaimahaiak eskubidea du oposizioko proba bakoitzean hautagaiei ariketak jendaurrean irakurrarazteko. Halaber, epaimahaiak ariketa horien edukiei buruzko azalpenak eska ditzake, edo horri buruzko galderak egin.

6.3. Oposizioko ariketen balorazioan 100 puntu eman daitezke gehienez ere, honela banatuak:

–Lehen ariketa: gehienez 40 puntu. Kasu bakoitzak 20 puntu izanen ditu gehienez.

–Bigarren ariketa: gehienez 30 puntu. Gai bakoitzean gehienez 15 puntuko balorazioa ematen ahal da.

–Hirugarren ariketa: gehienez 30 puntu. Gai bakoitzean gehienez 15 puntuko balorazioa ematen ahal da.

6.4. Oposizioko ariketak baztergarriak izanen dira. Gutxienez ere ariketa bakoitzak daukan gehiengo puntuazioaren erdia lortzen ez duten izangaiek baztertu egingen dira, baita gai edo kasu praktikoetako batean punturik jasotzen ez dutenak ere. Era berean, baztertu egingen dira hirugarren ariketan bigarren zatiko gaiari dagokion puntuazioaren erdia lortzen ez duten izangaiek.

6.5. Ariketak zuzendu ondoren, epaimahaiak jendaurrean jarriko du, Nafarroako Gobernuaren iragarki oholean eta ariketa egin den tokian, gaitu duten izangaiei zerrenda, lortutako kalifikazioekin eta, halaber, oposizioaren hurrengo proba edo ariketa egiteko tokia, eguna eta ordua, gutxienez 48 ordu lehenago. Zerrenda Interneten bidez ere kontsultatzen ahalgo da, [www.navarra.es](http://www.navarra.es) helbidean, Zerbitzuen Katalogoan, Enplegu Publikoaren atalean, deialdiari buruz dagoen aiputik abiatuta.

6.6. Ariketa bakoitzerako dei bakarria egingen da. Hartara nortasun agiri nazionala edo baliokidea, pasaporte, gidabaimena edo epaimahaiak baliozkotzat jotzen duen beste nortasun agiri bat aldean dutela agertu beharko dute izangaiek. Azterketara agertzen ez direnak edo nor diren adierazitako moduan frogatzen ez dutenak oposiziotik baztertuko dira.

6.7. Hautaprobak egiteko, ezgaitasun aitorturen bat dutenentzat bidezkoak diren denbora eta baliabide egokitzapenak egingen dira, eskabidean azalduetakoaren arabera.

7.–Probak gaitu dituztenen zerrenda, izendapen proposamena eta agirien aurkezpena.

7.1. Azken ariketaren kalifikazioa bukatuta, epaimahaiak Nafarroako Gobernuaren iragarki-oholean eta proba egin den tokian argitaratu du hura gaitu dutenen zerrenda, lortutako kalifikazioak adierazita, eta Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzaileari igorriko dizkio oposizioa gaituzten dutenen zerrenda eta puntuazio handieneko izangaia izendatzeko proposamena, espediente osoarekin batera. Proposamen hori Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da.

Berdinketarik gertatuz gero, lehenengo ariketan puntu gehien lortu dutenen alde joko da. Eta hala ere berdin dute segitzen badute, bigarren eta hirugarren ariketetan lortutako puntuazioak hartuko dira kontuan, hurrenez hurren.

7.2. Izendapen proposamena Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondoko 30 egun naturaleko epean, proposatutako izangaiek inprimaki berariazko batzuk jaso, eta honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko Sarrerarako Hautapenaren Zerbitzuan:

7.2.1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langile finko ez diren izangaiek:

a) Nortasun Agiri Nazionalaren bi fotokopia konpultsatuta, edo izangaiaren nazionalitatea eta nortasuna frogatzen dituen beste agiri balio-kideren batenak.

b) Deialdiaren 2.1.c) arauan eskatzen den titularen fotokopia konpultsatuta edo lortzeko eskubideak pagatu direla frogatzen duen gordekinarena; bestela, eskabideak aurkezteko epean titulua eskuratzeko moduan dagoela frogatzen duen ziurtagiria.

c) B motako ibilgailuak gidatzeko baimenaren kopia konpultsatuta.

d) Laneko Arriskuei Aurrea hartzeko Atalak emandako txostena, interesdunak karguan aritzea eragotziko liokeen eritasun edo akats fisiko edo psikikorik ez duela frogatzeko.

Izangaia ezgaitasunen bat alegatu badu, gainera, ezgaitasuna deialdiko lanpostuarekin bateragarria dela dioen frogagiria aurkeztu beharko du, balorazio eta orientazio talde eskudunek luzatua.

e) Eginkizun publikoetarako ezgaitua edo gabetua ez izatearen eta inongo administrazio publikoren zerbitzutik bereizita ez izanaren zinpeko aitortpena.

Izangaiek Espainiako nazionalitatea ez badute, agiria aurkeztu beharko dute, beren Estatuko Funtzio Publikoan sartzeari eragozten dien diziplina zehapenik edo zigor penalik ez dutela adierazteko.

f) Zin egin edo hitz ematea, Nafarroako Foru Eraentza errespetatu, Konstituzioari eta legeei men egin eta karguari dagozkion eginkizunak zuzen beteko dituela.

Baldin eta izangaia bada deialdi hau egin ez duen Nafarroako beste Administrazio Publikoren bateko langile finkoa, goikoez gain, aurreko administrazio espediente pertsonalean ageri diren inguruabar eta aurrekari guztiak frogatzen dituen ziurtagiria, sarrera, antzinatasun, maila, egoera administratibo eta abarri buruzkoa.

7.2.2. Izangaia Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren edo haren erakunde autonomoen zerbitzuko langile finkoa bada:

a) Deialdiaren 2.1.c) arauan eskatzen den titularen fotokopia konpultsatua edo lortzeko eskubideak pagatu direla frogatzen duen gordekinarena; bestela, eskabideak aurkezteko epean titulua eskuratzeko moduan dagoela frogatzen duen ziurtagiria.

b) B motako ibilgailuak gidatzeko baimenaren kopia konpultsatua.

Izangaia ezgaitasunen bat alegatu badu, gainera, ezgaitasuna deialdiko lanpostuarekin bateragarria dela dioen frogagiria aurkeztu beharko du, balorazio eta orientazio talde eskudunek luzatua.

7.3. Epe horretan, eta behar adina justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik, izangaia ez baditu agiri horiek aurkeztu, ezin izanen da izendatu, eta haren ekintza guztiak balio gabetako dira, eskabidean gezurra esateagatik egotzen ahal zaion erantzun beharra ezertan galazari gabe.

7.4. Arestiko atalean aurreikusitakoa gertatuz gero, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari nagusiak probak gainditu dituzten zerrandan, 7.1 atalean aipatutakoan, hurrengo den izangaiaekin beteko du, eta horrekin ere arestiko ataletan adierazitako moduan jokatu da.

7.5. Deialdi honen xede diren lanpostuetarako izendatzeko baldintzak eta betebeharrak frogatzeko nahitaezko agiriez gainera, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak besteren bat eskatu nahi izanez gero, proposatzen den izangaia eskatu beharko dio, eta horrek deialdi honen 7.2 arauan ezarritako moduan ekarri beharko du.

8.–Izendapena, lanpostuaren esleipena eta jabetza hartzea.

8.1. Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak, ebazpen baten bitartez, arestiko arauetan ezarritakoa betetzen duen izangaia Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioaren funtzionario izendatuko du, bide, ubide eta portuetako ingeniari lanetan aritzeko, eta dagokion lanpostu hutsa esleitu dio.

8.2. Izendapenak eta lanpostuaren jabetza hartzeak nomina eta plantillako funtzionario bilakatuko dute izendatua, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio funtzionarioentzat indarra duten xedapenetan ezarrita dauden eskubide eta betebeharrak aurkeztu dituela. Gizarte Segurantzako araubide orokorrean inskribatu eta kidetuko da, araubide horretan aurreikusitakoaren babesean.

Arestikoa gorabehera, Nafarroako Administrazio Publikoaren Zerbitzuko Langileen Estatutua onetsi zuen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bederatzigarren xedapen gehigarriaren 3. puntuan xedatutakoa aplikatzearen ondorioz, izendatua Nafarroako administrazio publikoaren edozein bahituretaketako eskubide pasiboan araubideko bada, bi aukera izanen ditu: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko bahituretaren segitzea, martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen bidez arauturiko eskubide pasiboan araubidearen babespean, edo Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean sartzeari.

8.3. Izendatutako izangaia destinoko herrian bizi beharko du, eta horretarako, udalerriri horretan eduki beharko du bizileku finkoa. Administrazio organo eskudunek destinoa aldatzen ahaliko dute, aplikatzeko den arautegian ezarritakoarekin bat.

8.4. Lanaldia zerbitzuaren beharretara egokituko da eta noiznahi aldatzen ahaliko dute administrazio organo eskudunek, aplikatzeko den araudian ezarritakoarekin bat.

8.5. Izendapena Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da eta izangaia izendatutako hilabeteko epean jabetu beharko du bere lanpostuaz, izendapenaren jakinarazpenetik kontatzen hasita.

Aipatu epean eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, izangaia lanpostuaz jabetzen ez bada, Foru Komunitateko Administrazioaren funtzionario izateko eskubide guztiak galduko ditu. Hala bada, 7.4 atalean ezarritako jarraikiko zaio.

8.6. Izangaia, funtzionario bilakatu eta lanpostuan batera aritu gabe zuzenean eta berak eskatuta, borondatezko eszedentzia ematen bazaio jabetza hartzearen egunetik beretik, data hartan beste administrazio publiko batean ari delako, dagokion lanpostu hutsa deialdiko 7.4 atalak agintzen duen bezala beteko da.

9.–Aldi baterako kontratuetarako izangaia zerranda.

9.1. Nafarroako Administrazio Publikoan sartzeko Erregelamenduen 42. artikuluan, lanpostuak aldi baterako betetzeko kudeaketa arauak onetsi zituen Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren azaroaren 14ko 146/2005 Foru Aginduan eta arau honexetan ezarritako prozedurari jarraikiz, aldi baterako kontratazio izangaia zerranda hauek sortuko dira:

a) Probak gainditu bai baina lanposturik lortu ez duten izangaia zerranda.

b) Hautapen prozesuaren ariketa guztiak gainditu ez dituzten izangaia zerranda.

9.2. Epaimahaiaren espedientea jasota, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez, hautapen prozesua gaindituta ere lanposturik gabe gelditu diren izangaiei eta deialdian ezarritako azkenurreko ariketa gainditu dutenei hamar egun balioduneko epea emanen zaie, ebazpena argitaratu eta biharamunetik hasita, ondoko dokumentazio hau aurkezteko:

a) Deialdiaren 2.1.c) arauan eskatzen den titularen fotokopia konpultsatua, titulua lortzeko eskubideak pagatu direla frogatzen duen gordekinarena edo sarrera prozesurako eskabideak aurkezteko epean titulua eskuratzeko moduan dagoela frogatzen duen ziurtagiria.

b) B motako ibilgailuak gidatzeko baimenaren kopia konpultsatua.

Ebazpena Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da, eta langileen zerrandak Nafarroako Gobernuak iragarki-oholean (Karlos III.aren etorbidea, 2, atalondoa, Iruña).

Eskatzen diren agiriak aipatu epean aurkeztu ez dituztenak (aski justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik) eta eskatutako baldintzak betetzen ez dituztenak ez dira sartuko aldi baterako kontratuetarako izangaia zerrandan, eta deialdian parte hartzeagatik eskubide guztiak galduko dituzte, betiere, parte hartzeko eskabidea faltsutzeagatik legokiekeen erantzukizuna deusetan ukatu gabe.

9.3. Sarrera prozedurako eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunerako bete beharko dira baldintzak, eta hautapenak dirauteraino eta kontratazioaldiak iraun bitarte bete beharko dira.

9.4. Dokumentazioa aurkezteko epea bukatutik, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez, aldi baterako kontratuetarako izangaia zerranda hauek onetsiko dira eta Nafarroako Gobernuaren iragarki-oholean argitaratuko (Karlos III.aren etorbidea, 2, atalondoa, Iruña):

a) Probak gainditu bai baina lanposturik lortu ez duten izangaia zerranda.

b) Deialdiaren azkenurreko ariketa gainditu bai baina lanposturik gabeko gaindituen zerrandan ez dauden zerranda.

9.5. Hauxe izanen da aldi baterako kontratazio zerrandaren ordena: oposizioa gainditu bai baina lanposturik lortu ez dutenen kasuan, hautapen prozesuan lortutako puntuazioaren arabera; gainerako izangaia kasuan, gainditutako ariketetan lortutako puntuazioen batura. Berdinketarik dagoenean nor nagusitzen den erabakitzeko, deialdi honetan kasu horietarako ezarritako irizpideak hartuko dira kontuan.

10.–Errekurtsoak.

Epaimahaiak ematen dituen egintza eta ebazpenen kontra gora jotzeko errekurtsua paratzen ahaliko da, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzaileari zuzendua, errekurtsuaren xede den egintza argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean.

Deialdi honen eta bere arauen kontra eta arauak aplikatzeko egintzen kontra, epaimahaiak hartutako kontra izan ezik, zilegi izanen da gora jotzeko errekurtsua jartzea, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritu nahi den egintza argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik kontatuta.

Hori guztia Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 57. artikuluekin bat, eta urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluei jarraikiz.

Iruñean, 2008ko apirilaren 7an.–Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzailea, Ignacio Bandrés Urriza.

## I. ERANSKINA

*Eskabidea*

Izena ..... adinez nagusia; NAN zenbakia (edo horren baliokidea den nortasun agiriarena) ..... sorteguna ..... sorlekua ..... nazionalitatea ..... bizilekua .....(.....), kalea ..... posta kodea ..... telefona ..... laneko telefona .....

Honako hau azaltzen dut:

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko ..... izateko .....lanpostu .....bidez betetzeko deialdian parte hartzeko onartua izatea eskatzen dudala, aipatu txandan (deialdia ..... zenbakiko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, .....egunean).

- Txanda irekia
- Igoera txanda\*
- Ezgaitasunen bat dutenendako txanda\*

Hautaprobak gainditzen ez baditut, lanpostuak behin-behinekoz betetzeko aukeraz baliatu nahi dudala, honako esparruetako batean:

- Administrazio erroa\*
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua\*
- Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua\* (Esparruetako bakar bat aukeratu daiteke).

Ez dudala karguan aritzea galarazten didan eritasunik edo akats fisikorik nahiz psikikorik.

Indarra duten xedapenetan ezarritako ezintasunik ez dudala.

Ez naizela diziplinako espediente bidez ezain administrazio publikoren zerbitzutik kanpo utzia izan eta ez nautela eginkizun publikoak betetzeko gaitasunik gabe utzi.

Deialdian eskatzen den titulazioaren jabe naizela.

Azterketa eskubideak ordaindu ditudala deialdian ezarritako moduan eta horren gordekina erantsi dudala, edo erantsitako agirien bidez frogatzen dudala tasa ordaintzetik salbuetsita nagoela.

Eskabideak aurkezteko epearen azken egunean beharkizun guztiak betetzen ditudala.

Ezgaitua naizelako, orri bereizi batean adierazten ditudan denbora eta baliabide egokitzapenak eskatzen ditudala.

Ezgaitasuna frogatzen duen agiria aurkezten dudala, erakunde eskudun batek emana.

Euskararen gaitasunaren agiria edo ofizialki baliokidea den beste titulu bat aurkezten dudala\*

Euskara maila jakiteko proba egitea eskatzen dudala\*

Frantseseko eta ingelesko nahikotasun frogak egitea eskatzen dudala\*

Horrenbestez,

Eskabide hau ontzat hartu eta aipatu deialdian onartua izatea eskatzen dut.

Iruñean, 200..ko .....aren .....(e)an.

(Sinadura)

NAFARROAKO GOBERNUA. LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE DEPARTAMENTUA. FUNTZIO PUBLIKOAREN ZUZENDARITZA NAGUSIA.

(\*) Bidezkoa bada.

## II. ERANSKINA

*Gai zerrenda**I. zatia.*

1. gaia.-Espainiako 1978ko Konstituzioa: Estatuko aginteak. Koroa. Gorte Nagusiak. Gobernu eta Administrazioa. Botere judiziala Konstituzioan.

2. gaia.-Zuzenbide Publikoaren iturburuak: legeak eta lege motak. Dekretu legeak. Legegintzako foru dekretuak. Nazioarteko itunak.

3. gaia.-Administrazio Zuzenbidearen iturburuak: erregelamendua eta erregelamendu-ahalmena. Erregelamendu motak. Erregelamendu-ahalmenaren mugak eta haren kontrola.

4. gaia.-Administrazio egintza (I): kontzeptua, motak eta osagaiak.

5. gaia.-Administrazio egintza (II): Administrazio egintzen baldintzak, eraginkortasuna, deuseztasuna eta deuseztagarritasuna.

6. gaia.-Administrazio prozedura erkidea (I): kontzeptua eta izaera. Hasiera, antolamendua, instrukzioa eta bukaera.

7. gaia.-Administrazio prozedura erkidea (II): Administrazioarekiko errekurtsioak: printzipio orokorrak eta motak.

8. gaia.-Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoa: prestakuntza prozesua. Izaera eta esanahia. Atariko tituluak.

9. gaia.-Nafarroako Parlamentua edo Gortek: osaera, antolakuntza eta eginkizunak.

10. gaia.-Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzko Foru Legea.

11. gaia.-Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko Foru Legea.

12. gaia.-Nafarroako Foru Komunitateko arartekoa. Comptos Ganbera. Nafarroako Kontseilua.

13. gaia.-Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutua (I): langile motak. Funtzionario publikoen hautapena. Funtzionario izaera eskuratzea eta galtzea.

14. gaia.-Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutua (II): karrera administratiboa. Administrazio egoerak. Lanpostuak betetzea. Ordainsariak.

15. gaia.-Nafarroako Ogasun Publikoa: Nafarroako Ogasun Publikoaren eskubide eta betebeharrak. Nafarroako aurrekontu orokorrak: edukia eta onespina; gastuen sailkapen ekonomikoa; beteaztea eta likidazioa.

16. gaia.-Nafarroako Administrazio Publikoen kontratuak: araubide juridikoa. Administrazio kontratuak: kontzeptua eta motak. Kontratuak esleitu, hobetu, sinatu, bete, aldatu eta iraungitzeko arau orokorrak.

17. gaia.-Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan administrazio elektronikoa ezartzeko apirilaren 4ko 11/2007 Foru Legea.

*II. zatia.*

1. gaia.-Lurraldearen antolamendua. Kokagunea eta garapen ekonomikoa. Gunearen antolaketa: herrialdeak eta eskualdeak. Biziguneen eta ekoizpen eremuen egitura, harremanak eta menpekotasunak.

2. gaia.-Lurralderako politikak eta administrazioen koordinazioa. Oinagiturak lurraldearen giltzarriak diren aldetik. Plangintza eta planeamendua. Lurraldearen antolamendua eta garraioa batera planifikatzea. Trafiko sareak eta lurraldearen erabilerak ebaluatzeko ereduak. Mugikortasunerako planak.

3. gaia.-Nafarroa: egitura fisikoa eta geografikoa. Haren natur baliabideak eta gune babestuak. Hirietako lurralde egitura.

4. gaia.-Ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioak. Xedeak. Eragina ebaluatzeko irizpide eta oinarriak. Ingurumenaren gaineko eraginaren azterlanak egiteko metodo eta ereduak. Indarra duen arautegia.

5. gaia.-Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek ingurumenean esku hartzeko moduak.

6. gaia.-Lurraldearen antolamenduko tresnak. Nafarroako lurralde estrategia. Lurralde antolatzeke planak. Lurralde ekintzarako plan gidariak eta udalez gaindiko plan eta proiektu sektorialak: kontzeptua, edukia eta tramitazioa.

7. gaia.-Nafarroako Lurralde Estrategiarako proiektua. Lurraldea garatzeko ereduaren definizioa. Estrategiak, jarraibideak eta neurriak.

8. gaia.-Udalen hirigintza planeamendua. Hirigintza antolatzeke zehaztapenak. Udalen plan orokorra: xedea, motak, edukia eta izapida-keta.

9. gaia.-Garapenerako planeamendua; plan partziala, plan berezia, sektorizazio plana, xehetasun azterlan, katalogoak eta ordentzantzak: kontzeptua, edukia eta tramitazioa.

10. gaia.-Lurzoruaren hirigintza-araubidea: lurzoruaren sailkapena eta kalifikazioa. Lurzoruaren jabeen eskubide eta eginbeharrak. Lurzoru urbanizazioneko araubidea.

11. gaia.-Informazio geografikorako sistemak. Definizioa. Informazio geografikorako sistema baten osagaiak. Eredu kartografikoa. Motak. Erabilerak.

12. gaia.-Lurraldeari buruzko informazio sistemak. Informazio geografikorako sistema batekiko ezberdintasunak. Ezarpena. SITNA: ezaugarriak eta eginkizunak.

13. gaia.-Burdinbideen sektoreari buruzko legea. Espainiako burdinbide sarearen berritzea. Oinarriko ildoak. Jarduketak Nafarroan.

14. gaia.-Burdinbide-pasaguneak kentzea. Arauak. Babes motak. Haren egoera Nafarroan.

15. gaia.-Garraioen Liburu Zuria. Jarraibideak. Burdinbide arloko jarduketak nagusiak.

16. gaia.-Bidea. Atalak. Eginkizunak. Ezaugarriak. Geometria. Tradurari buruzko arautegia (bidea eta plataforma).

17. gaia.-Segurtasuna eta osasuna herri lanen sektorean. Indarra duen araudia. Eraikuntza lanetako segurtasunaren eta osasunaren azterlanak. Helburua, edukia. Laneko segurtasun eta osasun plangintza.

18. gaia.-Obra lineal bat eraikitzeke proiektua prestatzeko agindu teknikoaren agirien egitura eta edukia.

19. gaia.-Azterlan informatiboa: garraio-oinagitura baten azterlan informatiboa prestatzeko egin beharreko lanen zerrenda.

20. gaia.–Obra lineal bat eraikitzeko proiektuaren drainatze azterlan. Irizpideak. Drainatze motak.

21. gaia.–Obra lineal bat eraikitzeko proiektu baten azterlan geologikoa eta geoteknikoa. Kanpainia geoteknikoa: ezarri eta emaitzak aurkeztea.

22. gaia.–Obra lineal bat eraikitzeko proiektu batean oinegiturak kalkulatzeko. Azterlan geoteknikoa. Tipologiaren kalkulua. Agiriak.

23. gaia.–Obra lineal bat eraikitzeko proiektu batean tunelak kalkulatzeko. Trazadura. Eredu sekzioa. Geologia eta geoteknia. Eraikuntza sistema. Zerbitzu sareak.

24. gaia.–Obra lineal bat eraikitzeko proiektu batean trazadura geometrikoaren, lur mugimenduaren eta zoladuren azterlan.

25. gaia.–Mapagintza eta topografia proiektuak prestatzean. Obra lineal bat eraikitzeko proiektu batean azterlan klimatologikoa eta hidrولوجikoa.

26. gaia.–Errepide berrietako segurtasunaren auditoretza. Betebeharrak. Errepideetako segurtasunaren auditoretzak egiteko aldiak.

27. gaia.–Abian diren errepideetako segurtasunaren auditoretza. Kontzeptua. Egiteko egoera. Prozesua. Aintzaketat hartu beharreko kontuak.

28. gaia.–5/2007 Foru Legea, martxoaren 23koa, Nafarroako Errepideei buruzkoa: horren egitura eta edukien azterketa.

### III. zatia.

1. gaia.–Trafikoaren azterketa. Aforoak. Inkestak. Trinkotasunaren azterketak.

2. gaia.–Errepideen ezaugarri geometrikoak. Trazadura aztertzeko oinarriko datuak. Trazadura oinplanoan eta aurretiko bistan.

3. gaia.–Nafarroan eta Espainian eskuratzen ahal diren mapak. Motak. Eskalak.

4. gaia.–Lotune bat proiektatzeko datuak. Motak. Proiektu irizpideak. Osagaiak.

5. gaia.–Errepideetako trazadurari buruzko oraingo arauak. Zeharkako sekzioa. Errepidearen oinplano eta aurretiko bistaren arteko koordinazioa. Erosotasunari eta segurtasunari buruzko arazoak.

6. gaia.–Bidegurutzak. Definizioa eta funtzionamendua. Sailkapena. Proiektu irizpideak.

7. gaia.–Lastertasunaren eta trinkotasunaren gaineko azterlanak. Gaitasuna eta zerbitzu mailak etengabeko zirkulazioan. Trafikoaren bestelako azterketak.

8. gaia.–Bidegurutze motak. Osagaiak: adarrak, oinezkoen babesguneak, azelerazio eta desazelerazio bideak, erdibiztaile irekiak.

9. gaia.–Lotuneak. Definizioa eta osagaiak: Adarrak. Egiturak. Bide biltzaile eta banatzaileak.

10. gaia.–Azterlan geologiko eta geoteknikoak. Deskripzioa, helburua eta ezaugarriak. Landa-lanetako azterketa geologikoak. Materialen iturriak.

11. gaia.–Higadura. Ezpondak. Drainatze motak eta diseinua.

12.–Zelaitzeak: aurretiazko ekintzak. Erauzi, kargatu eta garraiatzea. Eraikuntza.

13. gaia.–Azterlan geologiko eta geoteknikoak egiteko ikerketa metodoak.

14. gaia.–Azterlan hidrogeologikoak eta drainatzeari buruzkoak. Gainazaleko uraren husketa.

15. gaia.–Zelaitzeen kalitatearen kontrola. Bukatu eta birfintzea. Higaduren kontrako babes. Masa diagrama. Arauak eta zehaztapenak.

16. gaia.–Errepideetako tunelak. Proiektu irizpideak. Zaindu eta mantentzea.

17. gaia.–Zoladura malguak. Proiektu irizpideak. Egituraren azterketa. Granulu-geruzak.

18. gaia.–Zoladurak: granulu-geruzak. Geruza egonkortuak eta oinarri tratatuak.

19. gaia.–Azaleko tratamenduak. Erabiltzen diren materialak. Materialei buruzko arau eta zehaztapenak. Eraikuntza.

20. gaia.–Nahasketa bituminosoak. Erabiltzen diren materialak. Materialei buruzko arau eta zehaztapenak. Eraikuntza.

21. gaia.–Zoladura latzak. Proiektu irizpideak. Egituraren azterketa. Erabiltzen diren materialak.

22. gaia.–Hormigoizko zoladurak. Materialei buruzko arau eta zehaztapenak. Eraikuntza.

23. gaia.–Obren zuzendaritza. Kalitatearen, diruaren, epeen, segurtasun eta osasunaren eta ingurumenaren gaineko eraginaren adierazpenetako zehaztapenen kontrola aurretiazko fasean begiratzeko prozedura eta antolaketa.

24. gaia.–Errepideetako tunelak egitea. Instalazio sarea.

25. gaia.–Arrisku indizeak. Motak. Istripuen azterketak: istripu ugariako tartekak eta arriskutsuak izan litezkeenak.

26. gaia.–Abian diren errepideetako segurtasunaren neurketak. Jarduketan azterketa orokorra. Jarduteko lehentasunak.

27. gaia.–Errepidearen zainketa eta ustiaketa. Jarduera multzoak. Planak, programak eta jarduketak.

28. gaia.–Obra kontrolatu eta burutzeko teknikak. Kontrol sistemen antolaketa. Egin beharreko jarduerak.

29. gaia.–Osagai lagungarriak: argiztapena. Babeserako osagaiak. Zerbitzu osagarriak. Informazioa.

30. gaia.–Oinegitura. Fabriketako obra eta metalezkoak. Sustapen Ministerioaren jarraibideak.

31. gaia.–Zainketa metodoen antolakuntza. Sistemen orotariko eskema. Negu aldeko erabilgarritasuna.

32. gaia.–Seinale bertikalak, errepideetako markak, baliztate seinaleak.

33. gaia.–Hormigoiztatzeko instalazioak. Obra hormigoia kontrolatzea. Gehigarriak. Juntak eta txertoak. Auskultazioa.

34. gaia.–Kalitatearen kontrol estatistikoa. Obra kontrolatzeko laborategiak. Kalitatea harreraren. Erabiltzeko arauak.

35. araua.–Obra burutzeko fasea eta azken fasea: kalitatearen, diruaren, epeen, segurtasun eta osasunaren eta ingurumenaren gaineko eraginaren adierazpenetako zehaztapenen kontrola begiratzeko obretako zuzendaritzaren prozedura eta antolaketa.

36. gaia.–Autobideen kudeaketa eta finantzaketa. Kudeatu eta finantzatzeko ereduak. Kontzesio sistema Espainiako errepideetan.

37. gaia.–Obren programazioa. Gantt-en grafikoa. Pert metodoa. Bide kritikoa.

### IV. atala.

1. gaia.–Eguzki erradiazioa. Tenperatura eta intsolazioa. Eguratseko presioa. Hezetasuna. Eguratseko perturbazioak. Euriaren sorrera. Euri tasen aldakortasuna. Araubide plubiometrikoak. Batez besteko euri tasen legeak. Ura elur gisa erortzea. Euri artifiziala.

2. gaia.–Lurruntzea. Kontzeptua eta faktoreak. Transpirazioa: kontzeptua, faktoreak eta neurketa. Ebaotranspirazioa, egiazko eta balizko ebaotranspirazioak.

3. gaia.–Urtaroak. Neurtzeko tresnak. Erradiazioa, tenperatura, intsolazioa, presioa, hezetasuna, haizea, elurra eta euria neurtzea. Behatoki sareak.

4. gaia.–Aforoak ur ibilbideetan. Limnometroak edo eskalak. Garaierak eta emariak doitzea. Limnografoak. Motak. Zuzeneko aforoak motak.

5. gaia.–Hidrograma. Hidrogramaren forma eta osagaiak. Hidrogramaren forman eragina duten faktoreak. Agortze kurba.

6. gaia.–Erregulazio obra hidraulikoak. Ura lur gainean hartzea. Presak. Urtegiak.

7. gaia.–Aforoko estazioak. Motak. Tokiak. Estazio sare bat ezartzea. Aforoetako datuak: tratamendua, datuak osatzeko metodoak.

8. gaia.–Ura lur azpian hartzea. Putzuak: kontzeptuak eta motak. Zundaketak, galeriak.

9. gaia.–Ibaien ibilbideen babes. Ura bideratzeko teknikak. Ibai-ibilbideak zuzendu eta erregulatzeko. Uholdeen kontrako babes.

10. gaia.–Ekologia. Ekosistemen batasuna. Populazioa eta komunitatea. Energiaren fluxua eta gaien zikloa: kate trofikoak. Aniztasuna eta egonkortasuna. Endekatze eta ordezte ekologikoak. Gizakiak eta ekosistema. Ekosistema gizatiartuak: naturgunearen gaineko eragina.

11. gaia.–Urei buruzko Legea. Oinarriak. Egitura. Garatzeko erregelamenduak.

12. gaia.–Uholdeak. Gehieneko emariak alde aurretik zehaztea. Zuzeneko metodoak. Enpirikoak, estatistikoak eta hidrولوجikoak. Laminazioa kalkulatzeko metodo hidrولوجikoak.

13. gaia.–Uraren administrazioaren antolamendua Espainian. Mailak.

14. gaia.–Ubideak. Estaldura dutenak eta ez dutenak, faktoreak. Ubidearen tamainaren, edukieraren eta babesaren aldaketa.

15. gaia.–Lehortea. Lehortek kontrolatu eta aurreikustea. Ur baliabideak gehitzeko teknikak.

16. gaia.–Urak hartzen ahal dituen eremuen antolaketa eta planeamendu berriko eremuetan onartzen ahal diren lur erabilerak, Uraren Liburu Zuriaren arabera (CEDEX).

17. gaia.–Plan hidrولوجiko baten prestakuntza. Baliabideak. Uraren eskaria. Kontsumoa. Hirietako, nekazaritzako, industrietako, argindarreko, ekologikoak, jolasetako eta abarretako eskaria. Geroko aurreikuspenak. Hautabideen azalpena.

18. gaia.–Lur azpiko ura Nafarroan. Ur balantzea. Unitate hidrogeologikoak eta akuifero nagusiak.

19. gaia.–Ur konfederazio eta komisariak. Erabiltzaileen batasunak. Eboko eta Iparraldeko arroetako plan hidrologikoak Nafarroan.

20. gaia.–Lur azpiko uraren kalitatea eta kutsadura Nafarroan. Kutsatzen ahal diren akuiferoak. Akuiferoak babesteko neurriak.

21. gaia.–Plan hidrologiko baten prestakuntza. Etapak. Helburuen azalpena. Datuen inbentarioa. Baliabideak.

22. gaia.–Ubideak. Estaltzea. Estaltzeko juntak. Lur igeltsudunetako ubideak. Ubidearen drainatzea. Ubideko obra bereziak. Nafarroako Ubidea.

23. gaia.–Uren kutsadura. Arazteko prozesuak: prozesu motak eta prozesuko faseak.

Oharra: arlo guztietako gaiak deialdia hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu egunean zegoen legedi indardunari jarraituko diote.

F0805412

**DEIALDIA, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak martxoaren 31ko 1014/2008 Ebazpenaren bitartez onetsia, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko herri lanetako ingeniari tekniko izateko 9 lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko.**

Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak, martxoaren 31ko 1014/2008 Ebazpenaren bitartez, deialdia onetsi zuen, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko herri lanetako ingeniari tekniko izateko 9 lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko.

Lehiaketa arau hauek gobernatu dute: Nafarroako administrazio publikoan zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuak, hura garatu eta betearazteko azaroaren 6ko 215/285 Foru Dekretuaren bidez onetsiriko lanpostuak betetzeko Erregelamenduak (martxoaren 14ko 59/2005 Foru Dekretuak aldatua), Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak merezimenduen baremoei buruz emaniko abuztuaren 12ko 130/1998 Foru Aginduak, aplikatu beharreko gainerako arauak eta deialdiaren honako arau hauek.

#### ARAUAK

##### 1.–Xedea.

Adituzera ematen da deialdia eginen dela herri lanetako ingeniari tekniko izateko 9 lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko. Hona hemen lanpostuak:

• 7 lanpostu Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko Herri Lan Zuzendaritza Nagusian:

–3 lanpostuk destinoa Iruñean, plantilla organikoan 6945, 7964 eta 7966 zenbakiak.

–Lanpostu 1ek destinoa Lizarran, plantilla organikoan 7963 zenbakiak.

–2 lanpostuk destinoa Tuteran, plantilla organikoan 1918 eta 7965 zenbakiak.

–Lanpostu 1ek destinoa Burlatan, plantilla organikoan 7716 zenbakiak.

–Lanpostu 1 Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko Garraio Zuzendaritza Nagusian. Destinoa Iruñean eta plantilla organikoan 4027 zenbakiak.

–Lanpostu 1 Toki Administrazio Departamentuko Toki Administrazio Zuzendaritza Nagusian. Destinoa Iruñean eta plantilla organikoan 3987 zenbakiak.

Lanpostu hutsak hautatzeko 10. arauan aipatzen den egintzan, lanpostu horien orde besterik ez eskaintzen ahalko dira, hain zuzen ere, organo eskudunek zerbitzuaren beharren arabera sarturiko aldaketen ondorioz hutsik gelditzen direnak.

##### 2.–Lanpostu hutsen kopurua handitzea.

2.1. Deialdi honetako lanpostuen kopurua handitzen ahalko da, epaimahaiak deialdia egin duen organoari lehiatzaileen zerrenda, lorturiko puntuen hurrenkeraren arabera, igortzen dion egunean hutsik dauden lanpostuak gehituta.

2.2. Lehiaketa honetan beteko diren lanpostuak ondokoak izanen dira: deialdian bertan hasieratik eskainiak eta, hala badagokio, aurreko lehenaldia aipatzen duen kopuru handitzearen ondoriozkoak, baita lehiaketan beste lanpostu bat lortzen duten lehiatzaileek hutsik uzten dituztenak ere.

2.3. Aurrekoa gorabehera, izangaiek lekualdatze lehiaketetan lanpostua lortuta hutsik uzten dituzten lanpostuak ez dira eskainiko "iraungitze" lanpostuak baldin badira.

2.4. Lehiatzaileen batek lehiaketa honetan lanpostua erdietsi eta bere lanpostuaren izena deialdiko lanpostuarena ez bezalakoa baldin

bada, izendapenean izen berria hartuko du lanpostu berriaz jabetzen den unetik. Orobat, dagokionean, lehiaketaren ondorioz hutsik gelditu eta berriz lehiatzaileei eskaintzen zaizkien lanpostuen izena aldatu egingen da.

##### 3.–Betebeharrak.

3.1. Indarra duen araudian xedatutakoaren arabera, lekuz aldatzeko lehiaketa honetan parte hartu ahal izateko, ondoko baldintzak bete beharko dira, eskabideak aurkezteko epearen azken egunean eta lanpostu hutsak aukeratu eta esleitutako lanpostuaz jabetu bitartean:

a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren edo haren erakunde autonomoen zerbitzuko langile finkoa izatea, egoera administrazioa edozein dela ere.

b) B maila edo taldekoa izatea.

c) Herri lanetako ingeniari tekniko lanpostu baterako izendatu izana.

e) B motako ibilgailuak gidatzeko baimena izatea.

3.2. Zerbitzu, atal, bulego edo unitate parekaturen bateko burutzaren bat betetzen ari diren funtzionarioek zilegi izanen dute lekualdatze lehiaketan parte hartzea, baldin eta deialdi honetako baldintzak betetzen badituzte. Prozedura honetan esleituriko lanpostuaz jabetzek berarekin dakar zerbitzuko zuzendari izateari edo atal nahiz bulegoburu edo horiei parekatutako unitateko buru izateari utzi beharra.

3.3. Borondatezko eszedentzian edo nahitaezko eszedentzian urtebete eman duten funtzionarioek zilegi izanen dute lehiaketan parte hartzea, baldin eta deialdiak eskatzen dituen betebeharrak betetzen badituzte; horrela, berriz sartuko dira jarduneko zerbitzuan eta lanpostu bat behin betikoz esleitu zaie.

3.4. Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren zortzigarren xedapen gehigarrian xedatutakoari jarraikiz, deialdiaren baldintzak betetzen dituzten Nafarroako Parlamentuko funtzionarioek ere parte hartzen ahalko dute lekualdatze lehiaketa honetan.

##### 4.–Ordainsariak.

Lekuz aldatzen diren langileek indarra duten xedapenek esleitzen dizkieten lansariak jasoko dituzte.

##### 5.–Eskaberak aurkezteko epea eta tokia.

5.1. Deialdian parte hartzeko eskaerak Nafarroako Gobernuaren Erregistro Orokorrean (Karlos III.aren etorbidea, 2, atalondoa, 31002 Iruña) edo Nafarroako Gobernuaren gainerako erregistro bulegoetako edozeinetan (zerrenda 2008ko 14. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, urtarrilaren 30ean) aurkeztu beharko dira, edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan adierazitako bideren bat erabiliz, deialdia Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik hamabost egun naturaleko epean.

Eskaera posta bulego batean aurkeztuz gero, gutun-azal irekian eginen da, postako langileek, ziurtatu aurretik, data eta ziguila jarritzen.

5.2. Eskabideak deialdi honen eranskinean dagoen ereduari lotu behar zaizkio eta, haietan, izangaiek adierazi beharko dute eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela. Eredu hori Nafarroako Gobernuaren edozein erregistro bulegotan dago eskuragarri. Internet bidez ere lortzen ahal da, [www.navarra.es](http://www.navarra.es) helbidean, bai argitaratzen deneko aldizkari ofizialetik abiatuta bai aipu honetatik abiatuta: "Zerbitzuak", "Enplegu publikoa".

##### 5.3. Eskabidearekin batera ondoko agiriak aurkeztuko dira:

a) Deialdi honetan ezarritako baremoaren arabera alegatzen diren merezimendu guztien egiaztatutako jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatua, salbu eta Administrazio Publikoetan emandako zerbitzuen egiaztaturik, horiek zuzenean igorriko baitizkio epaimahaiari deialdia egin duen organoak.

Izangaiek merezimenduak, behar bezala zerrendatuak, alegatu eta frogatuko dituzte baremoko puntuazio eskemari jarraikiz.

b) B motako ibilgailuak gidatzeko baimenaren kopia konpultsatua.

Izangaiek merezimenduak, behar bezala zerrendatuak, alegatu eta frogatuko dituzte baremoko puntuazio eskemari jarraikiz.

##### 5.4. Eskabideak aurkezteko epea ezin izanen da luzatu.

6.–Onartuen behin-behineko zerrenda, erreklamazioak eta behin betiko zerrenda.

6.1. Eskabideak aurkezteko epea amaiturik, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du eta Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara dadila aginduko, ohartaraziz, hurrengo bost egun naturaleko epean baztertuek erreklamazioak egin ditzaketela eta, akatsik baldin badago, haiek zuzendu.

6.2. Ezarritako epean eskabiderik aurkeztzen ez bada, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak lehiaketa bete gabe gelditu dela deklaratu.

tzeko ebazpena emanen du. Ebazpen hori Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu beharko da.

6.3. Lehiatzaile bazterturik ez bada, zuzenean onetsiko da behin betiko zerrenda, eta Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko.

6.4. Erreklamazioak egiteko epea bukatu eta haiek ebatzitakoan, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak ebazpena emanen du onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesteko, eta Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzeko aginduko du.

7.–Epaimahaiko kideak.

7.1. Honako hauek osatuko dute epaimahaia:

–Mahaiburua: Angel Luis Rivas Sánchez jauna, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko Zainketa Zerbitzuko zuzendaria.

Ordezkoa: Juan Francisco Serrano Medrano jauna, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko Zainketa Ataleko burua.

–Mahaikideak:

1. Administrazio Erroko Langileen Batzordearen ordezkari bat, batzordeak berak proposatua.

Ordezkoa: Administrazio Erroko Langileen Batzordearen ordezkari bat, batzordeak berak proposatua.

2. Maite Ezkurra Mata andrea, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko Araubide Juridikoaren Ataleko burua, idazkari lanetan ere arituko dena.

Ordezkoa: María Rosario Loitegui Biurrun andrea, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko Garraioen Araubide Juridikoaren Ataleko burua.

7.2. Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratu ondoko bost eguneko epean eratu da epaimahaia.

7.3. Epaimahaia gehiengoaz erabakiko ditu deialdiaren arauak aplikatzeko moduz sortzen diren arazo guztiak.

7.4. Administrazio prozeduraren arauetan aipaturiko arazoaren bat gertatzen denean, epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote, eta horren berri eman deialdia egin duen organoari. Izangaiek, halaber, zilegi dute mahaikideak errefusatzeko, egoera horietako bat gertatzen denean.

8.–Merezimenduen kalifikazioa.

8.1. Deialdiko 5.3 arauan agindutakoaren arabera, merezimendu guztiak agiri bidez alegatu eta frogatuko ditu izangai bakoitzak lekualdatze lehiaketa honetan parte hartzeko eskabidea aurkeztean, jatorrizko agiriak edo kopia konpultsatuek erabiliz. Salbuespen bakarria Administrazio Publikoetan egindako zerbitzuak izanen dira, organo dei-egileak epaimahaiari zuzenean igorriko baititzio frogagiriak.

8.2. Alegatu eta frogaturiko merezimenduak deialdi honen II. eranskinean azaldu baremoari jarraikiz kalifikatu eta puntuatuko ditu epaimahaia.

8.3. Epaimahaia ezin izanen du inolaz ere kontuan hartu alegatu gabeko eta agirien bidez frogatu gabeko merezimendurik, ezta atal bakoitzerako baremoan aipatzen den gehieneko puntuazioa baino altuagorik eman ere.

8.4. Izangaiek lehiaketan guztira lortzen dituzten puntuetan berdinketarik bada, administrazio publikoaren zerbitzuan antzinasunik handiena dutenen alde joko da. Hala ere berdinduta segitzen badute, lehiatzaile adinez zaharrenari emanen zaio lehentasuna.

8.5. Epaimahaia azalpenak eta datu osagarriak eskatzen ahal ditu, lehiatzaileek alegatu eta frogaturiko merezimenduen gainean.

8.6. Merezimenduen kalifikazioa bukatu ondoren, epaimahaia argitara emanen du Nafarroako Gobernuak iragarki oholean lehiatzaile bakoitzak lortutako puntuazioa, eta bost egun balioduneko epea ezarriko du merezimenduen balorazioaren gainean eskubideko jotzen duten guztia alega dezaten.

9.–Izangaieraren zerrenda, erdietsitako puntuazioaren arabera.

Aurkeztutako erreklamazioak ebatzitakoan, epaimahaia behin betiko puntuazioak argitaratu ditu Nafarroako Gobernuaren iragarki oholean, eta lehiatzaileen zerrenda, lortutako puntuazioaren arabera ordenaturik, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiari igorriko dio espediente osoarekin batera, behar izanez gero, hasierako lanpostuen kopurua handitzeari buruzko ebazpena eman dezaten.

10.–Lanpostu hutsak hautatzea.

10.1. Lehiatzaileek lanpostu hutsak lorturiko puntuazioaren arabera aukeratzen ahal zituzte; horretarako, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak ekitaldi baterako deia egingen du.

Lanpostu hutsak aukeratzeko ekitaldirako deialdia Nafarroako Gobernuak iragarki oholean paratuko den idazkian zabalduko da, baita Interneten ere, hemen: [www.navarra.es](http://www.navarra.es), "Zerbitzuak", "Enplegu publikoa", deialdiari buruzko oharra.

Lanpostuak betetzeko Erregelamenduan xedaturikoarekin bat, izangaiek ezin izanen dute hautatu beraiek atxikitako zuzendaritza nagi-

siko, erakunde autonomoko edo zuzendaritza nagusi baten menpe ez dagoen beheragoko unitate organikoko lanpostu hutsik, salbu eta udalerrria, zentroa edo lanaldi arrunt edo partzialeko araubidea aldatzen bada, erregelamendu horretako 8.3. artikuluko b), c) eta d) idatz-zatietan xedatu bezala.

10.2. Behar bezala arrazoituriko ezinbesteko kasuetan salbu, lanpostua aukeratzen ez duten lehiatzaileek lehiaketaren xedeko lanpostu hutsak betetzeko eskubide guztiak galduko dituzte.

11.–Esleipena eta lanpostuaren jabetza hartzea.

11.1. Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak, ebazpen bidez, dagozkien lanpostuak esleitu ditzkie izangaiei eta hori Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara dadila aginduko du.

11.2. Lehiatzaileek esleipenari buruzko ebazpena jakinarazi eta hamar egun naturaleko epean jabetu beharko dute lanpostuaz, non eta deialdia egin duen organoak jabetza hartzeko beste data bat ezartzen ez duen ebazpen horretan.

12.–Aurkeztutako dokumentazioa.

12.1. Hautagaiek, baldin eta erreklamazio edo errekurtsorik jartzen ez bada, aurkeztu dituzten agiriak berreskuratu ahal izanen dituzte, halaxe eskatu ondotik. Agiriak berreskuratzeko eskabidea hiru hilabeteko epean aurkez daiteke, lanpostuak esleitzeko ebazpena Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta beste hiru hilabeterean buruan.

12.2. Aurreko atalean ezarritako epea agiriak eraman gabe bukatzen bada, ulertuko da izangaiek uko egin diola agiriak eskuratzeari eta horretarako eskubidea galduko du eta agiriak suntsituko dira.

12.3. Erreklamazio edo errekurtsoren bat aurkeztu baldin bada, agiri horiek gorde egingen dira, ikuskatu eta aztertzeko. Agiri horiek berreskuratzen ahal dira erreklamazioaren edo errekurtsoren tramitazioak horretarako aukera ematen duenean.

13.–Errekurtsioak.

Epaimahaia ematen dituen egintza eta ebazpenen kontra gora jotzeko errekurtsioa paratzen ahal da Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiari zuzenduta, errekurtsioaren xede den egintza argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean.

Deialdi honen eta bere arauen kontra eta arauak aplikatzeko egingen kontrako, epaimahaia hartutakoan kontra izan ezik, zilegi izanen da gora jotzeko errekurtsioa jartzea, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritu nahi den egintza argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik kontatuta.

Hori guztia Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 57. artikuluekin bat, eta urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutako Herri Administrazioaren Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluei jarraikiz.

Iruñean, 2008ko martxoaren 31n.–Funtzio Publikoaren zuzendari nagusia, Gregorio Eguilaz Gogorza.

## I. ERANSKINA

### Eskabide eredua

Eskaera, .....izateko ..... lanpostu lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdian parte hartzeko. Deialdia zk.ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen,.....(e)ko .....aren .....(e)an.

1.–Norberaren datuak.

Deiturak eta izena: .....

Jaiotze eguna eta tokia: ..... NANA .....

Helbidea: ..... P.K. ....

Etxeko telefonoa: ..... Lantokiko telefonoa: .....

2.–Datu administratiboak.

a) Zer lanpostutarako izendatu zuten: .....

Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioko funtzionarioa.

Estatutik Nafarroako Foru Komunitatera transferitutako funtzionarioa.

Gizarte Segurantzatik Nafarroako Foru Komunitatera transferitutako estatutupeko langilea.

Lan-kontratudun finkoa.

Nafarroako Parlamentuko funtzionarioa.

b) Administrazio egoera

Jardunean.

Zerbitzu berezietan.

Eszedentzia berezian.

Borondatezko eszedentzian.

Nahitaezko eszedentzian.

(X batez markatu behar den kontzeptua)

c) Egungo destinoa:

Lanpostua: .....

Jabetza hartzearen eguna: .....

Departamentua: .....

Zerbitzua: .....

Atala: .....

Bulegoa: .....

Erakunde autonomoa: .....

d) Zein maila edo taldetakoa den: .....

3.–Nik, izenpetzaileak, adierazten dut eskabideak aurkezteko azken egunean eskaturiko baldintza guztiak betetzen ditudala.

4.–Eskabidearekin batera, deialdian parte hartzeko eskatzen diren agiriak eta alegatu dituan merezimenduen egiaztagiriak aurkeztu ditut, .....(e)tik ..... (e)ra numeratuak baremoko puntuazio eskemari jarraituz.

5.– Adierazten dut euskararen gaitasuna frogatzeko proba egin nahi dudala\*.

6.– Adierazten dut frantses eta ingeles maila frogatzeko proba egin nahi dudala\*.

Horrenbestez,

Eskatzen dut deialdi honetan onar nazatela.

Iruñean,.....(e)ko .....aren .....(e)an.  
(Sinadura)

(\* ) Bidezkoa bada.

FUNTZIO PUBLIKOAREN ZUZENDARI NAGUSIA.

## II. ERANSKINA

### *Merezimenduak baloratzeko baremoa*

a) Administrazio Publikoetan emandako zerbitzuak

Administrazio publikoetan emandako zerbitzuen balorazioa egiteko, puntu bat emanen zaio, urteko, deialdia argitaratzen den egunean onetsitako antzinasunari.

Oharrak:

1. Urteen kopurua osoa ez bada, zerbitzuan egindako aldiari proportzioan dagokion puntuazioa emanen da.

2. a) atalari dagokion puntuazioa gehienez ere 30 puntu izanen da.

3. Deialdia argitaratu ondoan egindako zerbitzuak ez dira baloratuko.

4. Funtzionarioa zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian egon bada edo unitate organiko bateko buru edo zuzendari lanetan aritu, egoera horietan sartu aurretik zuen lanpostuan egindako zerbitzuak bezala kontatuko dira.

b) Prestakuntza, irakaskuntza eta ikerketa:

1) Erakunde edo zentro publikoek eta unibertsitateek antolatutako prestakuntza ekintzetan parte hartzea: 0,10 puntu, kreditu akademiko edo horren baliokide bakoitzeko (10 eskola ordu), eta gehienez ere 7 puntu.

Oharrak:

1. Baloratu beharreko ikastaroetan, eskola orduen zatikiak hainbanatuko dira.

2. Eskola orduen kopurua agertzen ez duten ziurtagiriei kreditu bateko balorazioa emanen zaie.

3. Ikasturte bateko iraupena agertzen duten ziurtagiriei 12 kreditu balorazioa emanen zaie.

4. Erakunde antolatzaileari buruzko betebeharrak betetzen ez badituzte ere, Administrazioak agindurik edo oniritziarik eginak diren prestakuntza ekintzetan parte hartzea puntuazio berarekin baloratuko da. Horien artean, espresuki, sindikatuek Administrazio Publikoetako Eten-gabeko Prestakuntzarako Itunaren barruan antolatutako sartuko dira.

5. Titulu akademiko bat eskuratzeko ikasketak, hala unibertsitatekoak nola unibertsitatez kanpokoak, ez dira atal honetan baloratuko.

2) Biltzar edo jardunaldietan txostenak edo komunikazioak aurkeztea, beka edo saria jaso duten zientzia edo ikerketa lanak egitea eta aldizkari espezializatueta lanak argitaratzea: 2 puntu, gehienez ere, epaimahaiak baloratu beharrekoak, kontuan hartuz lana edo jarduera bakarka edo taldean egin den eta biltzarrek edo argitalpenak herri, eskualde, nazio edo nazioarteko maila duen.

3) Sektore publikoan prestakuntza ekintzak antolatu eta/edo hala-koetan irakasle jardutea: gehienez ere, puntu bat. Epaimahaiak baloratuko du, haien iraupenaren arabera.

Oharrak b) atal osorako:

1. Atal honetan aipatutako merezimenduak deialdiko lanpostuarekin ikustekorik izanez gero soilik baloratuko dira.

2. Baremoaren b) ataleko puntuazioa 10 puntukoa da, gehienez.

Puntuazio erantsia hizkuntzak jakiteagatik.

–Frantsesa, ingelesa edo alemana jakiteagatik, Europar Batasuneko lan hizkuntzak diren aldetik, hizkuntza horietako bakoitzeko 2 puntu gehienez.

Ondorio horietarako, Hizkuntza Eskola Ofizial batek emandako gaitasun agiria edo ofizialki baliokidea den titulua edukiz gero, aurreko ataletan adierazten den gehienezko puntuazioa emanen da.

Halako titulaziorik ez dutenei, Hizkuntza Eskola Ofizial batean gainditutako maila bakoitzagatik gehienez eman daitekeen puntuazioaren 1/5 emanen zaie.

Izangai bakoitzak hiru hizkuntza horietatik zenbat dakien baloratzeko, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak espresuki antolatutako azterketak egin ahal ditu; bost zailtasun maila izanen dira, eta hizkuntza bakoitzari ematen ahal zaion gehienezko balorazioaren 1/5 bat emanen zaio maila bakoitzari.

F0805433

**DEIALDIA, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak martxoaren 31ko 1032/2008 Ebazpenaren bitartez onetsia, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko zaintzaile izateko 36 lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko. Horietatik 15 lan araubideko lanpostuak dira, asteburuetarako lanaldi partzialeko kontratuarekin.**

Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak martxoaren 31n emandako 1032/2008 Ebazpenaren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko zaintzaile izateko 36 lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdia onetsi da. Horietatik 15 lan araubideko lanpostuak dira, asteburuetarako lanaldi partzialeko kontratuarekin.

Lehiaketa arau hauek gobernaturako dute: Nafarroako administrazio publikoaren zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuak, hura garatu eta beteazazeko azaroaren 6ko 215/285 Foru Dekretuaren bidez onetsiriko lanpostuak betetzeko Erregelamenduak (martxoaren 14ko 59/2005 Foru Dekretuak aldatua), Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak merezimenduen baremoei buruz emaniko abuztuaren 12ko 130/1998 Foru Aginduak, aplikatu beharreko gainerako arauak eta deialdiaren honako arau hauek.

## ARAUAK

1.–Xedea.

Aditzaera ematen da zaintzaileen 36 lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdia egin dela. Hona hemen lanpostuak:

▪ 10 lanpostu Hezkuntza Departamentuko Berariazko Programen Bulegoari atxikiak, destino hauekin:

–1 Tafallako eskualdean, 35652 zenbakia.

–1 Nafarroako eskualdean, euskarazko 1. jakite mailarekin, 35656 zenbakia.

–3 Iruñeko eskualdean, 35750, 35751 eta 35752 zenbakiak.

–4 Tuterako eskualdean, 35754, 35768, 37423 eta 37424 zenbakiak.

–1 Elizondoko eskualdean, euskarazko 1. jakite mailarekin, 35771 zenbakia.

▪ 26 lanpostu Nafarroako Mendekotasun Agentziako San José Zentroan, destinoa Iruñean, 11 lanpostu funtzionarioen araubidekoak, plantillako 3233, 3238, 3245, 3246, 3252, 3256, 3264, 3270, 8023, 8024 eta 8025 zenbakiak; eta 15 lanpostu lan araubidekoak, asteburuetarako lanaldi partzialeko kontratuarekin, plantillako 3219, 3223, 3239, 3241, 3247, 3272, 3284, 3286, 7721, 7722, 8026, 8027, 8028, 8029 eta 8030 zenbakiak.

Lanpostu hutsak hautatzeko 10. arauan aipatzen den egintzan, lanpostu horien ordez beste batzuk eskaintzen ahalko dira, hain zuzen ere, organo eskudunek zerbitzuaren beharren arabera sarturiko aldaketan ondorioz hutsik gelditzen direnak.

2.–Lanpostu hutsen kopurua handitzea.

2.1. Deialdi honetako lanpostuen kopurua handitzen ahalko da, epaimahaiak deialdia egin duen organoari lehiatzaileen zerrenda, lorturiko puntuen hurrenkeraren arabera, igortzen dion egunean hutsik dauden lanpostuak gehituta.

2.2. Lehiaketa honetan beteko diren lanpostuak ondokoak izanen dira: deialdian bertan hasieratik eskainiak eta, hala badagokio, aurreko lerroaldeak aipatzen duen kopuru handitzearen ondoriozkoak, baita lehiaketan beste lanpostu bat lortzen duten lehiatzaileek hutsik uzten dituztenak ere.

2.3. Aurrekoa gorabehera, izangaiek lekualdatze lehiaketetan lanpostua lortuta hutsik uzten dituzten lanpostuak ez dira eskainiko "iraungitze" lanpostuak baldin badira.

2.4. Lehiatzaileen batek lehiaketa honetan lanpostua erdietsi eta bere lanpostuaren izena deialdiko lanpostuarena ez bezalakoa baldin bada, izendapenean izen berria hartuko du lanpostu berriaz jabetzen den unetik. Orobat, dagokionean, lehiaketaren ondorioz hutsik gelditu eta berriz lehiatzaileei eskaintzen zaizkien lanpostuen izena aldatu egingen da.

### 3.-Betebeharrak.

3.1. Indarra duen araudian xedatutakoaren arabera, lekuz aldatzeko lehiaketa honetan parte hartu ahal izateko, ondoko baldintzak bete beharko dira, eskabideak aurkezteko epearen azken egunean eta lanpostu hutsak aukeratu eta esleitutako lanpostuaz jabetu bitartean:

a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren edo haren erakunde autonomoen zerbitzuko langile finkoa izatea, egoera administratiboa edozein dela ere.

b) D maila edo taldekoa izatea.

c) Zaintzaile lanpostu baterako izendatu izana.

d) Hizkuntza Eskola Ofizial batean euskarazko lau ikasmaita edo, bestela, Nafarroako Gobernuak antolatutako ikastaroetan bederatz "urrats" gaindituak izatea, edo behar bezalako hizkuntza maila frogatzeko proba bat gainditzea, hizkuntza hori jakitea betebeharrak duten lanpostuetara aurkeztu nahi izanez gero.

3.2. Zerbitzu, atal, bulego edo unitate parekatuen bateko burutzaren bat betetzen ari diren funtzionarioek zilegi izanen dute lekualdatze lehiaketan parte hartzea, baldin eta deialdi honetako baldintzak betetzen badituzte. Prozedura honetan esleituriko lanpostuaz jabetzeak berarekin dakar zerbitzuko zuzendari izateari edo atal nahiz bulegoburu edo horiei parekatutako unitateko buru izateari utzi beharra.

3.3. Borondatezko eszedentzian edo nahitaezko eszedentzian urtebete eman duten funtzionarioek zilegi izanen dute lehiaketan parte hartzea, baldin eta deialdiak eskatzen dituen betebeharrak betetzen badituzte; horrela, berriz sartuko dira jarduneko zerbitzuan eta lanpostu bat behin betikoz esleitu zaien.

3.4. Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren zortzigarren xedapen gehigarrian xedatutakoari jarraikiz, deialdiaren baldintzak betetzen dituzten Nafarroako Parlamentuko funtzionarioek ere parte hartzen ahalko dute lekualdatze lehiaketa honetan.

### 4.-Ordainsariak.

Lekuz aldatzen diren langileek indarra duten xedapenek esleitzen dizkieten lansariak jasoko dituzte.

### 5.-Eskaberak aurkezteko epea eta tokia.

5.1. Deialdian parte hartzeko eskaerak Nafarroako Gobernuaren Erregistro Orokorrean (Karlo III.aren etorbidea, 2, atalondoa, 31002 Iruña) edo Nafarroako Gobernuaren gainerako erregistro bulegoetako edozeinetan (zerrenda 2008ko 14. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, urtarrilaren 30ean) aurkeztu beharko dira, edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan adierazitako bideren bat erabiliz, deialdia Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik hamabost egun naturaleko epean.

Eskaera posta bulego batean aurkeztuz gero, gutun-azal irekian egingen da, postako langileek, ziurtatu aurretik, data eta ziguila jarritzen.

5.2. Eskabideak deialdi honen eranskinean dagoen ereduari lotu behar zaizkio eta, haietan, izangaiek adierazi beharko dute eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela. Eredu hori Nafarroako Gobernuaren edozein erregistro bulegotan dago eskuragarri. Internet bidez ere lortzen ahal da, [www.navarra.es](http://www.navarra.es) helbidean, bai argitaratzen deneko aldizkari ofizialetik abiatuta bai aipu honetatik abiatuta: "Zerbitzuak", "Enplegu publikoa".

5.3. Eskabidearekin batera, deialdi honetan ezarritako baremoaren arabera alegatzen diren merezimendu guztien frogagiriak aurkeztuko dituzte, jatorrizkoak edo behar bezala konpultsatutako fotokopiak, salbu eta Administrazio Publikoetan emandako zerbitzuen egiaztagiriak, horiek zuzenean igorriko baitizkio epaimahaiari deialdia egin duen organoak.

Izangaiek merezimenduak, behar bezala zerrendatuak, alegatu eta frogatuko dituzte baremoko puntuazio eskemari jarraikiz.

5.4. Eskabideak aurkezteko epea ezin izanen da luzatu.

6.-Onartuen behin-behineko zerrenda, erreklamazioak eta behin betiko zerrenda.

6.1. Eskabideak aurkezteko epea amaiturik, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du eta Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu dadila aginduko, ohartaraziz, hurrengo bost egun naturaleko epean baztertuek

erreklamazioak egin ditzaketela eta, akatsik baldin badago, haiek zuzendu.

6.2. Ezarritako epean eskabiderik aurkezten ez bada, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak lehiaketa bete gabe gelditu dela deklaratzeko ebazpena emanen du. Ebazpen hori Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu beharko da.

6.3. Lehiatzaile baztertirik ez bada, zuzenean onetsiko da behin betiko zerrenda, eta Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko.

6.4. Erreklamazioak egiteko epea bukatu eta haiek ebatzitakoan, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak ebazpena emanen du onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesteko, eta Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzeko aginduko du.

### 7.-Epaimahaiko kideak.

7.1. Honako hauek osatuko dute epaimahaia:

–Mahaiburua: Mikel San Cristóbal Resano jauna, Nafarroako Mendekotasun Agentziako San José Zentroko zuzendaria.

Ordezkoa: Carmen Aguirre Hernández andrea, Nafarroako Mendekotasun Agentziako Mendekotasun Egoerretarako Prestazioen zuzendariordea.

–Mahaikideak:

1. Administrazio Erroko Langileen Batzordearen ordezkari bat, batzordeak berak proposatua.

Ordezkoa: Administrazio Erroko Langileen Batzordearen ordezkari bat, batzordeak berak proposatua.

2. Isidora Roldán Arróniz andrea, Hezkuntza Departamentuko Bereziazko Programen Bulegoko burua, idazkari lana ere egingen duena.

Ordezkoa: Rita Maeztu Rodrigo andrea, Hezkuntza Departamentuko Hezkuntza Premia Berezien Ataleko burua.

7.2. Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratu ondoko bost eguneko epean eratu da epaimahaia.

7.3. Epaimahaia gehiengoz erabakiko ditu deialdiaren arauak aplikatzeko moduz sortzen diren arazo guztiak.

7.4. Administrazio prozeduraren arauetan aipaturiko arazoaren bat gertatzen denean, epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote, eta horren berri eman deialdia egin duen organoari. Izangaiek, halaber, zilegi dute mahaikideak errefusatzeko, egoera horietako bat gertatzen denean.

### 8.-Merezimenduen kalifikazioa.

8.1. Deialdiko 5.3 arauan agindutakoaren arabera, merezimendu guztiak agiri bidez alegatu eta frogatuko ditu izangai bakoitzak lekualdatze lehiaketa honetan parte hartzeko eskabidea aurkeztean, jatorrizko agiriak edo kopia konpultsatutak erabiliz. Salbuespen bakarria Administrazio Publikoetan egindako zerbitzuak izanen dira, organo dei-egileak epaimahaiari zuzenean igorriko baitizkio frogagiriak.

8.2. Alegatu eta frogaturiko merezimenduak deialdi honen II. eranskinean azaldu baremoari jarraikiz kalifikatu eta puntuatuko ditu epaimahaia.

8.3. Epaimahaia ezin izanen du inolaz ere kontuan hartu alegatu gabeko eta agirien bidez frogatu gabeko merezimendurik, ezta atal bakoitzerako baremoan aipatzen den gehieneko puntuazioa baino altuagorik eman ere.

8.4. Izangaiek lehiaketan guztira lortzen dituzten puntuetan berdinketarik bada, administrazio publikoaren zerbitzuan antzinasunetik handiena dutenen alde joko da. Hala ere berdinduta segitzen badute, lehiatzaile adinez zaharrenari emanen zaio lehentasuna.

8.5. Epaimahaia azalpenak eta datu osagarriak eskatzen ahal ditu, lehiatzaileek alegatu eta frogaturiko merezimenduen gainean.

8.6. Merezimenduen kalifikazioa bukatu ondoren, epaimahaia argitaratu emanen du Nafarroako Gobernuaren iragarki ohelean lehiatzaile bakoitzak lortutako puntuazioa, eta bost egun baliorduneko epea ezarriko du merezimenduen balorazioaren gainean eskubideko jotzen duten guztia alega dezaten.

### 9.-Izangaien zerrenda, erdietsitako puntuazioaren arabera.

Aurkeztutako erreklamazioak ebatzitakoan, epaimahaia behin betiko puntuazioak argitaratuko ditu Nafarroako Gobernuaren iragarki ohelean, eta lehiatzaileen zerrenda, lortutako puntuazioaren arabera ordenaturik, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiari igorriko dio espediente osoarekin batera, behar izanez gero, hasierako lanpostuen kopurua handitzeari buruzko ebazpena eman dezan.

### 10.-Lanpostu hutsak hautatzea.

10.1. Lehiatzaileek lanpostu hutsak lorturiko puntuazioaren arabera aukeratzeko ahalko dituzte; horretarako, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak ekitaldi baterako deia egingen du.

Lanpostu hutsak aukeratzeko ekitaldirako deialdia Nafarroako Gobernuaren iragarki ohelean paratuko den idazkian zabalduko da, baita Interneten ere, hemen: [www.navarra.es](http://www.navarra.es), "Zerbitzuak", "Enplegu publikoa", deialdiari buruzko oharra.

Lanpostuak betetzeko Erregelamenduan xedaturikoarekin bat, izangaiek ezin izanen dute hautatu beraiek atxikitako zuzendaritza nagusiko, erakunde autonomoko edo zuzendaritza nagusi baten menpe ez dagoen beheragoko unitate organikoko lanpostu hutsik, salbu eta udal-lerria, zentroa edo lanaldi arrunt edo partzialeko araubidea aldatzen bada, erregelamendu horretako 8.3. artikuluko b), c) eta d) idatz-zatietan xedatu bezala.

10.2. Behar bezala arrazoituriko ezinbesteko kasuetan salbu, lanpostua aukeratzeko ez dute lehiatzaileek lehiaketaren xedeko lanpostu hutsak betetzeko eskubide guztiak galduko dituzte.

11.–Esleipena eta lanpostuaren jabetza hartzea.

11.1. Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak, ebazpen bidez, dagozkien lanpostuak esleituko dizkie izangaiei eta hori Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu dadila aginduko du.

11.2. Lehiatzaileek esleipenari buruzko ebazpena jakinarazi eta hamar egun naturaleko epean jabetu beharko dute lanpostuaz, non eta deialdia egin duen organoak jabetza hartzeko beste data bat ezartzen ez duen ebazpen horretan.

12.–Aurkeztutako dokumentazioa.

12.1. Hautagaiek, baldin eta erreklamazio edo errekurtsorik jartzen ez bada, aurkeztu dituzten agiriak berreskuratu ahal izanen dituzte, halaxe eskatu ondotik. Agiriak berreskuratzeko eskabidea hiru hilabeteko epean aurkez daiteke, lanpostuak esleitzeko ebazpena Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta beste hiru hilabeteren buruan.

12.2. Aurreko atalean ezarritako epea agiriak eraman gabe bukatzen bada, ulertuko da izangaiek uko egin diola agiriak eskuratzeari eta horretarako eskubidea galduko du eta agiriak suntsituko dira.

12.3. Erreklamazio edo errekurtsoren bat aurkeztu baldin bada, agiri horiek gorde egingen dira, ikuskatu eta aztertzeko. Agiri horiek berreskuratzen ahal dira erreklamazioaren edo errekurtsoren tramitazioak horretarako aukera ematen duenean.

13.–Errekurtsuak.

Epaimahaiak ematen dituen egintza eta ebazpenen kontra gora jotzeko errekurtsuak paratzen ahal da Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiari zuzenduta, errekurtsuaren xede den egintza argitaratu edo jakinarazi eta bihamunetik hilabeteko epean.

Deialdi honen eta bere arauen kontra eta arauak aplikatzeko egintzen kontra, epaimahaiak hartutako enpresa kontratuetan, zilegi izanen da gora jotzeko errekurtsuak jartzea, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritu nahi den egintza argitaratu edo jakinarazi eta bihamunetik kontaktatu.

Hori guztia Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 57. artikuluekin bat, eta urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluei jarraikiz.

Iruñean, 2008ko martxoaren 31n.–Funtzio Publikoaren zuzendari nagusia, Gregorio Eguilaz Gogorza.

## I. ERANSKINA

### Eskaide eredu

Eskaera, ..... izateko ..... lanpostu lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdian parte hartzeko. Deialdia .....zk.ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, .....(e)ko .....aren .....(e)an.

1.–Norberaren datuak.

Deiturak eta izena: .....

Jaiotze eguna eta tokia: ..... NANA .....

Helbidea: ..... P.K. ....

Etxeko telefonoa: ..... Lantokiko telefonoa: .....

2.–Datu administratiboak.

a) Zer lanpostutarako izendatu zuten: .....

Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioako funtzionarioa.

Estatutik Nafarroako Foru Komunitatera transferitutako funtzionarioa.

Gizarte Segurantzatik Nafarroako Foru Komunitatera transferitutako estatutupeko langilea.

Lan-kontratudun finkoa.

Nafarroako Parlamentuko funtzionarioa.

b) Administrazio egoera

Jardunean.

Zerbitzu berezietan.

Eszedentzia berezian.

Borondatezko eszedentzian.

Nahitaezko eszedentzian.

(X batez markatu behar den kontzeptua)

c) Egungo destinoa:

Lanpostua: .....

Jabetza hartzearen eguna: .....

Departamentua: .....

Zerbitzua: .....

Atala: .....

Bulegoa: .....

Erakunde autonomoa: .....

d) Zein maila edo taldetako den: .....

3.–Nik, izenpetzaileak, adierazten dut eskabideak aurkezteko azken egunean eskaturiko baldintza guztiak betetzen ditudala.

4.–Eskabidearekin batera, deialdian parte hartzeko eskatzen diren agiriak eta alegatu ditudan merezimenduen egiaztagiriak aurkeztu ditut, .....(e)tik ..... (e)ra numeratuak baremoko puntuazio eskemari jarraikiz.

5.–Adierazten dut euskarazko gaitasuna neurtzeko proba egin nahi dudala\*.

6.–Adierazten dut frantses eta ingeles maila neurtzeko proba egin nahi dudala\*.

Horrenbestez,

Eskatzen dut deialdi honetan onar nazatela.

Iruñean,.....(e)ko .....aren .....(e)an.

(Sinadura)

(\*) Bidezkoa bada.

## FUNTZIO PUBLIKOAREN ZUZENDARI NAGUSIA.

### II. ERANSKINA

#### Merezimenduak baloratzeko baremoa

a) Administrazio Publikoetan emandako zerbitzuak

Administrazio publikoetan emandako zerbitzuen balorazioa egiteko, puntu bat emanen zaio, urteko, deialdia argitaratzen den egunean onetsitako antzinasunari.

Oharrak:

1. Urteen kopurua osoa ez bada, zerbitzuan egindako aldiari proportzioan dagokion puntuazioa emanen da.

2. a) atalari dagokion puntuazioa gehienez ere 30 puntu izanen da.

3. Deialdia argitaratu ondoan egindako zerbitzuak ez dira baloratuko.

4. Funtzionarioa zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian egon bada edo unitate organiko bateko buru edo zuzendari lanetan aritu, egoera horietan sartu aurretik zuen lanpostuan egindako zerbitzuak bezala kontaktuko dira.

b) Prestakuntza, irakaskuntza eta ikerketa

1) Erakunde edo zentro publikoek eta unibertsitateek antolatutako prestakuntza ekintzetan parte hartzea: 0,10 puntu, kreditu akademiko edo horren baliokide bakoitzeko (10 eskola ordu), eta gehienez ere 7 puntu.

Oharrak:

1. Baloratu beharreko ikastaroetan, eskola orduen zatikiak hainbanatuko dira.

2. Eskola orduen kopurua agertzen ez duten ziurtagiriei kreditu bateko balorazioa emanen zaie.

3. Ikasturte bateko iraupena agertzen duten ziurtagiriei 12 kredituko balorazioa emanen zaie.

4. Erakunde antolatzaileari buruzko betebeharrak betetzen ez baituzte ere, Administrazioak agindurik edo oniritziarik eginak diren prestakuntza ekintzetan parte hartzea puntuazio berarekin baloratuko da. Horien artean, espresuki, sindikatuek Administrazio Publikoetako Eten-gabeko Prestakuntzarako Itunen barruan antolatutako sartuko dira.

5. Titulu akademiko bat eskuratzeko ikasketak, hala unibertsitatekoak nola unibertsitate kanpokoak, ez dira atal honetan baloratuko.

2) Biltzar edo jardunaldietan txostenak edo komunikazioak aurkeztea, beka edo saria jaso duten zientzia edo ikerketa lanak egitea eta aldizkari espezializatueta lanak argitaratzea: 2 puntu, gehienez ere, epaimahaiak baloratu beharrekoak, kontuan hartuz lana edo jardura bakarka edo taldean eginga den eta biltzarrek edo argitalpenak herri, eskualde, nazio edo nazioarteko maila duen.

3) Sektore publikoan prestakuntza ekintzak antolatu eta/edo hala-koetan irakasle jardutea: gehienez ere, puntu bat. Epaimahaiak baloratu du, haien iraupearen arabera.

Oharra b) atal osorako:

1. Atal honetan aipatutako merezimenduak deialdiko lanpostuarekin ikustekorik izanez gero soilik baloratuko dira.

2. Baremoaren b) ataleko puntuazioa 10 puntuko da, gehienez.

Puntuazio erantsia hizkuntzak jakiteagatik.

–Frantsesa, ingelesa edo alemana jakiteagatik, Europar Batasuneko lan hizkuntzak diren aldetik, hizkuntza horietako bakoitzeko 2 puntu gehienez.

–Euskaraz jakiteagatik: destinoa eremu euskaldunean duten lanpostuetarako 2,20 puntu gehienez, plantilla organikoan euskara jakitea nahitaezkoztat hartu ez bada, eta destinoa eremu mistoan dutenentarako 2,10 puntu gehienez, plantilla organikoaren arabera lanpostu horretan aritzeko euskaraz jakitea merezimendu gisa baloratzen baldin bada.

Ondorio horietarako, Hizkuntza Eskola Ofizial batek emandako gaitasun agiria edo ofizialki balioakidea den titulua edukiz gero, aurreko ataletan adierazten den gehieneko puntuazioa emanen da.

Titulurik eduki ezik, Hizkuntza Eskola Ofizialean gainditutako maila bakoitzagatik gehieneko puntuazioaren bosten bat emanen da eta, euskararen kasuan, Nafarroako Gobernuak antolatutako ikastaroetan gainditutako urrats bakoitzeko 1/12 emanen da.

Izangai bakoitzak lau hizkuntza horietan zer dakien baloratzeko, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak antolatutako azterketak egiten ahal ditu; bost zailtasun maila izanen dira, eta hizkuntza bakoitzari ematen ahal zaion gehieneko balorazioaren bosten bat emanen zaio maila bakoitzari.

F0805432

## 1.3. BESTELAKO XEDAPENAK

### 1.3.1. Lurraldearen antolamendua eta hirigintza

**519/2008 EBAZPENA, martxoaren 31koa, Lurraldearen Antolamendua eta Etxebizitza zuzendari nagusiak emana, Lurraldearen Antolamendua eta Etxebizitza kontseilariak otsailaren 12an emandako 28/2008 Foru Agindua Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratua dadila xedatzen duena. Foru agindu horren bidez behin betikoz onetsi da Cascanteko Udal Plana Calchetas alderdian (AR-7) aldatzeko espediente, Residencial Tudela, S.L.k sustatua.**

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendua eta Etxebizitza kontseilariak, otsailaren 12an emandako 28/2008 Foru Aginduaren bidez, behin betikoz onetsi du Cascanteko Udal Plana Calchetas alderdian (AR-7) aldatzeko espediente, Residencial Tudela, S.L.k sustatua, baina Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzeko baldintza bat ezarri du, hots, foru agindu hartan berean adierazitako zuzenketak biltzen dituen aldatetaren testu batekin bat aurkeztea.

Eskatutako testu bategina aurkeztu denez, eta kontuan hartuz Lurraldearen Antolamendua eta Hirigintza Zerbitzuaren adostasun txostena, bidezko da behin betiko onespenerari buruzko foru agindu hura argitaratzea.

Lurraldearen Antolamendua eta Etxebizitza Departamentuaren egitura organikoa ezarri zuen irailaren 3ko 127/2007 Foru Dekretuaren bidez eskuratu ditudan ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

1. Ingurumen, Lurraldearen Antolamendua eta Etxebizitza kontseilariak otsailaren 12an emandako 28/2008 Foru Agindua Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratua dadila agintzea. Horren bidez, behin betikoz onetsi da Cascanteko Udal Plana Calchetas alderdian (AR-7) aldatzeko espediente, Residencial Tudela S.L.k sustatua. Haren testu osoa ebazpen honen eranskinean ageri da.

2. Ebazpen honek ez du administrazio bidea agortzen, eta espedientearen interesa dutenez, administrazio publikoak izan ezik, haren kontra gora jotzeko errekurtsioa jartzen ahal dute, Lurraldearen Antolamendua eta Etxebizitza kontseilariari zuzendua, hilabeteko epean.

Administrazio publikoek zilegi dute administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jartzea, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, bi hilabeteko epean. Horrek ez du alde batera uzten Nafarroako Gobernuan alde aurreko errekerimendua egin ahal izatea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan aurreikusitako moduan eta epean.

Epeak ebazpen hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean hasiko dira.

3. Ebazpen hau Cascanteko Udalari eta Residencial Tudela, S.L.ri igortzea eta Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2008ko martxoaren 31n.–Lurraldearen Antolamendua eta Etxebizitza zuzendari nagusia, Jesús Javier Ascunce Elizaga.

ERANSKINA

"28/2008 FORU AGINDUA, otsailaren 12koa, Lurraldearen Antolamendua eta Etxebizitza kontseilariak emana, Cascanteko Udal Plana Calchetas alderdian (AR-7) aldatzeko espediente, Residencial Tudela, S.L.k sustatua, behin betikoz onesten duena.

Cascanteko Udalak idazpuruan azaltzen den espediente aurkeztu du Lurraldearen Antolamendua eta Etxebizitza Departamentuan, behin betikoz onets dadin.

Aurkezturiko agiriak eta Lurraldearen Antolamendua eta Hirigintza Zerbitzuaren txostena ikusirik, bidezko da behin betikoz onestea.

Lurraldearen Antolamendua eta Etxebizitza Departamentuaren egitura organikoa ezarri zuen irailaren 3ko 127/2007 Foru Dekretuaren bidez eskuratu ditudan ahalmenak erabiliz,

AGINDU DUT:

1. Behin betikoz onestea Cascanteko Udal Plana Calchetas alderdian (AR-7) aldatzeko espediente, Residencial Tudela S.L.k sustatua.

2. Foru agindu hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ahal izateko testu bategina aurkeztu behar da eta testu horretan, espedientearen tramitazioan sartutako aldaketek gainera, zuzenketa hauek jaso:

A.–Egiturazko determinazioen zerrenda zehatza (35/02 FLko 3.3 X.I.), foru lege horren 49.2 artikuluko b eta c puntuei dagokienez.

B.–S.1 eta S.2 sektoreen mugaketa grafiko zehatza lurzatiaren kartografian eta kartografia topografikoan, AR-7 eremua eta eremu horretatik kanpoko sistema orokorrak (ubidea, autobidea eta errepidea) seinatuz, eta S.2 sektorerako sarreraren planeamendua eta kudeaketa zehaztea.

3. Foru agindu honek ez duela administrazio bidea agortzen adieraztea. Interesdunek, administrazio publikoek izan ezik, legezko tasun kontrola onesteko egintza honen kontra gora jotzeko errekurtsioa jartzen ahal dute, Nafarroako Gobernuari zuzendua, hilabeteko epean. Eta onetsitako hirigintza araudiaren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jartzen ahal dute, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, bi hilabeteko epean.

Administrazio publikoek zilegi dute administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jartzea, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, bi hilabeteko epean. Horrek ez du alde batera uzten Nafarroako Gobernuan alde aurreko errekerimendua egin ahal izatea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan aurreikusitako moduan eta epean.

Epe horiek foru agindu honen jakinarazpena egin edo, bestela, Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik aurrera hasiko dira kontatzen.

4. Foru agindu hau Cascanteko Udalari eta Residencial Tudela, S.L.ri jakinaraztea eta Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2008ko otsailaren 12an.–Lurraldearen Antolamendua eta Etxebizitza kontseilaria, José Carlos Esparza Sáez.

F0804848

### 1.3.3. Nahitaezko desjabetzeak

**ERABAKIA, 2008ko apirilaren 7koa, Nafarroako Gobernuak hartua, "Erriberriko mendebaldeko hondakin uren hodia eta ponpaketa" izeneko proiektuaren lanek ukitutako ondasun eta eskubideen okupazioa presakoa dela adierazten duena, nahitaez desjabetzeko.**

Toki Administrazioiko zuzendari nagusiak, otsailaren 4ko 24/2008 Ebazpenaren bidez, aipatutako proiektua eta ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrean jarri zituen hamabost egunez.

Jendaurrean egoteko epea bukatuta eta interesdunek alegaziorik aurkeztu ez dutenez, Toki Administrazioiko zuzendari nagusiak martxoaren 17an emandako 338/2008 Ebazpenaren bidez, behin betiko onetsi zen aipatutako proiektua.

Proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen okupazioa presakoa da funtsezkoa delako saneamenduko eta arazketako instalazio egokiak azkar egitzea, berehala konpontzeko egungo hondakin ur landugabeen isurtzeak sortzen dituen osasun eta ingurumen arazoak Erriberrin.

Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Toki Azpiegiturak, S.A. (Nilsa) enpresak alegatutako arrazoiak ikusita eta aurrekontuan balio justua

ordaintzeko behar adina diru-izendapena dagoela egiaztatuta, bidezko-tzat jo du desjabetzeak ukitutako ondasun eta eskubideen okupazioa presakoa dela adieraztea.

Horrenbestez, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 57 b) artikulua eta Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikulua emandako ahalmenak erabiliz, Nafarroako Gobernuak, Toki Administrazioari kontseilariak proposatuta,

ERABAKI DU:

1. "Erriberriko mendebaldeko hondakin uren hodia eta ponpaketa" izeneko proiektuaren lanek ukitutako ondasun eta eskubideen okupazioa presakoa dela adieraztea.

2. Erabaki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea, argitaratzen den egunetik ondorioak sortzeko, eta aditza ematea erabaki honek administrazio bidea agortzen duela eta haren aurka, aukeran, berraztertze errekurtsoa jartzen ahal dela, Nafarroako Gobernuari zuzendua, Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean edo, bestela, zuzenean, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko auzien salan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Administrazio publikoek, berraztertze errekurtsoaren ordez, alde aurretik errekerimendua egin dezakete, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan ezarritako moduan eta epean.

3. Erabaki hau "Nafarroako Toki Azpiegiturak, S.A." (Nilsa) enpresari jakinaraztea.

Iruñean, 2008ko apirilaren 7an.–Nafarroako Gobernuak kontseilari eta idazkaria, *Javier Caballero Martínez*.

F0805377

### 1.3.4. Dirulaguntzak eta bekak

**45/2008 FORU AGINDUA, martxoaren 14koa, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilariak emana, establezimendu turistikoek kalitate turistikoaren "Q" ziurtagiria lortzeko eta mantentzeko laguntzen 2008ko deialdia onesten duena.**

Nafarroako turismo sektoreak erabiltzaileendako zerbitzuetan kalitate maila handia eskaini beharra bizi du azken aldi honetan.

Alde horretatik, Foru Komunitatearen helburu nagusietako bat da zerbitzuen kalitatea handitzen lagunduko duten ekintzak ahalbidetu eta bultzatzea, horretarako sektoreko enpresaburuekin batera lan eginez. Horregatik, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak enpresaburuek arlo horretan egin dituzten jarduketarako diru-laguntzak eman ditu azken urteotan, bai inbertsioak egiteko, bai ziurtagiriak eman edo sustapena egiteko.

Aurten beste jarduketa batzuetarako diru-laguntzak emanez bultzatuko den lan ildo hori bat dator Turismoko Idazkaritza Nagusiak segitzen duenarekin, eta denek batera lan egitearen alde agertzen jarraitzen du, horrela Nafarroako establezimendu turistikoek kalitate maila handia lor dezaten. Q arauak UNE arau bihurtzeak ere laguntzen du horretan, arrakastaz ekin baitzaio horri turismoaren esparruan.

Hala bada, beharrezkoa da Q markaren ezarpena bultzatzen eta horretarako laguntza ematen jarraitzea. Alde horretatik, kalitate turistikoaren "Q" ziurtagiria lortzeko eta mantentzeko laguntzari eusten zaio eta, ematen den laguntza hobetzearren, deialdi honek zabaldu egin du diruz lagundutako jarduketaren esparrua, hain zuzen ere markaren erabilerari eta horrekiko atxikipenari, laguntza teknikoari eta marka berritzeko laguntzari lotutako alderdiak sartuz. Hori guztia lagungarria izanen da Nafarroako turismoaren irudi orokorra hobetzeko, kalitateko destino gisa hedatuko baita, enpresaburuen laguntzarekin eta kalitatearen kudeaketarako ereduak eta gaur egungoak erabiliz.

Deialdi hau lehiarik gabeko konkurrentzia bidez ebatziko da, izan ere, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, erregistratutako eskaera guztiak aztertu eta erabakiko da zein eskabidek betetzen dituzten deialdiko irizpideak eta zeinek ez. Gero, diru-laguntzetarako erabiltzen den gehieneko zenbatekoa diru-laguntzaren onuradunen artean hainbanatuko da. Horren xedea da ahalik eta enpresa kopuru handienak burutzea ziurtagiria lortzeko prozesua eta, ziurtagiria lortu ondoren, horri eustea aurrerago ere. Orain arteko esperientziak erakutsi digu badirela oraindik enpresa batzuk lan ildo horren alde egin, kudeaketa hobetzeko bide den aldetik, baina prozesua burutzera iristen ez direnak. Laguntza hau, hainbanaketa txiki bat egon ala ez, hasitako prozesua burutzeko pizgarria da.

Horrenbestez, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren egitura organikoa ezarri zuen irailaren 3ko 126/2007 Foru Dekretuaren 2.2 artikulua ematen dizkidan eskurantzak erabiliz,

AGINDU DUT:

1.–Turismoaren arloko ETEek kalitate turistikoaren "Q" ziurtagiria lortu eta mantentzeko laguntzen 2008ko deialdia onestea, bai eta deialdiaren oinarri arau-emaileak ere. Foru agindu honen eranskinean daude.

2.–Diru-laguntza horietarako gehienez ere 37.000,00 euroko gastua baimentzea, 2008ko gastuen aurrekontuko "Kalitatearen "Q" marka lortzeko ETEentzako laguntzak" izeneko A10001 A1120 4709 432302 kontusailaren kargura.

3.–Foru agindu hau eta bere eranskina Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

Foru agindu honen aurka gora jotzeko errekurtsoa jartzen ahal da, Nafarroako Gobernuari zuzendua, jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean.

Foru agindu hau Turismoko Produktuak Antolatua eta Garatzeko Zerbitzuari, Kudeaketa Ekonomikoaren Bulegoari, Kontu Hartzaitza Delegatuari jakinaraztea eta Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALERA igortzea, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2008ko martxoaren 14an.–Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria, *Juan Ramón Corpas Mauleón*.

ERANSKINA

*Turismoaren arloko ETEek Nafarroan dituzten establezimenduen kalitate turistikoaren "Q" ziurtagiria lortzeko eta mantentzeko laguntzen 2008ko deialdiaren arauak*

1.–Xedea.

Deialdi honen bidez Nafarroako establezimendu turistikoek kalitate turistikoaren "Q" ziurtagiriak lortu eta mantentzea bultzatu nahi da.

2.–Aurrekontuko dotazioa eta laguntzak emateko prozedura.

2008ko gastuen aurrekontuan xede horretarako kontusail bat dago, 37.000 eurokoa, "Kalitatearen Qa lortzeko ETEentzako laguntzak" izeneko (A10001 A1120 4709 432302 kontusaila).

Diru-laguntza eskaerak deialdi honi esleitutako kontusaila dirua gaintzen badute, diru-laguntza kopuruak hainbanatu egingen dira, dagoen diruari egokitzeko.

3.–Onuradunak.

Foru agindu honetan azaltzen diren laguntzak eskuratzen ahal dituzte turismoko enpresa txiki eta ertainek (aurrerantzean turismoko ETEak), baldin eta eskabideak aurkezteko epea bukatzen den unean establezimendu turistiko arautu gisa erregistratuta badaude Turismoko Erregistro Ofizialean. Enpresa horiek deialdi honen indarraldian guxtienez egon beharko dute inskribatuta.

ETE bat zer den argitu nahi izanez gero, mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen definizioari buruz Europako Batzordeak 2003ko maiatzaren 6an emandako Gomendioa eta hori ordeztu edo aldatzen duten xedapenak hartuko dira kontuan.

4.–Laguntzen barruan sartzen diren jarduketak eta erreferentzia aldia.

Deialdi honen bidez laguntza ematen da ICTEK bultzatzen duen kalitate turistikoaren Q markaren ziurtagiria ezarri, lortu eta berritzea egin behar den gastu arrunterako eta, zehazki, honako hauetarako:

a) Markari atxikitze kuota.

b) Aholkularitzako laguntza teknikoa (kanpoko, presentziala eta on line), hurrengo atalean aipatzen diren ezarpen eta/edo berrikuntzetarako (kontzeptu honetatik kanpo gelditzen dira azken urteotan ICTE Delegazioaren laguntza teknikoa jaso duten establezimenduen, delegazio horrek emandako eta sustapenerako laguntzak emateko kontuan hartutako zerrenden arabera).

c) Ziurtapenerako kanpoko auditoriaren gastuak (edo ziurtapena jasoa duten establezimenduen Q/UNE arau berriaren arabera ziurtagiria emateko auditoriakoak) eta bigarren, hirugarren edo laugarren aldiz berritzea auditoriakoak.

d) Zein urtetarako berritu nahi den, urte horretan marka erabiltzeko eskubidearen kuota.

Ondorio horietarako, 2007ko azaroaren 1etik 2008ko urriaren 31ra arte fakturatutako gastuak, denbora horretan auditatu eta ziurtatutako establezimenduen dagozkienak, honen barruan sartzen dira.

5.–Laguntzen zenbatekoa.

Laguntzak itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak izanen dira:

a) Atxikitze kuota: gastuaren %50 arte.

b) Kanpoko aholkularien laguntza teknikoa: gastuaren %70, baina diru-laguntza hau gehienez:

–4.000,00 euro ziurtagiria lortzeko laguntzagarri.

–2.000,00 euro ziurtagiria berritzea eta arau berriaren arabera ziurtagiriak lortzeko laguntzagarri.

c) Auditoriak: gastuaren %70 arte ziurtagiria lortzeko auditoriaren gastuagatik, eta %50 ziurtagiria bigarren, hirugarren edo laugarren aldiz berritzeko auditoriak eta ziurtagiria baduten establezimenduei Q/UNE arau berriaren arabera ziurtagiria emateko auditoriak direnean.

d) Marka erabiltzeko eskubidearen kuota: gastuaren %50 arte.

Laguntza hauek ez dituzte hartzen auditorearen eta kanpoko aholkularien egonaldi, mantenu eta joan-etorriko dieten gastuak.

Diru-laguntza kalkulaterakoan Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZa) zenbatekoa kenduko da.

6.-Araubide juridikoa.

Laguntza mota hau Europako Batzordeak 2006ko abenduaren 15ean eman zuen 1998/2006 EE Erregelamenduaren babespean ezarritzen da. Erregelamendu horrek "de minimis" laguntzei buruzko EEaren Ituneko 87. eta 88. artikuluen aplikazioa ukitzen du. Hortaz, enpresa onuradunak horrelako diru-laguntzen bidez gehienez ere 200.000 euro jasotzen ahalko ditu hiru urteko epean. Horretarako, enpresak Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuari jakinarazi beharko dio "de minimis" laguntzarik jaso ote duen aurreko hiru zergal-dietan.

7.-Laguntzen bateragarritasuna.

Laguntza hauek bateragarriak dira Nafarroako Gobernuak beste departamentu batzuek edo beste administrazio publikoek xede eta helburu bererako ematen ahal duten beste edozein laguntzarekin. Dena dela, jasotako diru-laguntza guztien zenbatekoa diruz lagundutako jardueren kostua baino handiagoa bada, behar den zenbatekoa kenduko zaio diru-laguntzari.

8.-Epeak, eskaerak eta agiriak aurkeztea.

Eskaerak Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 32/192 Legearen 38. artikuluan aurreikusitako moduan aurkeztu beharko dira.

Mezularitza zerbitzu pribatuak eta atzerriko posta zerbitzuak eskabideak aurkezteko onartuko dira, baldin eta agiriak deialdietan ezarritako epean eta moduan erregistratzen badira Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko erregistro lagungarrian edo Nafarroako Gobernuak beste edozein erregistroan.

Eskaera aurkezteko epea hilabetekoa da, deialdi hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik hasita. Eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Identifikazio fiskaleko kodea.

b) Entitatearen legezko ordezkararen aitorten idazkia, azkeneko hiru urteetan -aurten goa barne- Administrazio honetako beste batek Europar Batasuneko "de minimis" arauari jarraikiz emandako laguntzen berri ematen duena.

c) Erantzukizunpeko aitortpena, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. idatz-zatietan aurreikusitako egoera debekatu batean ere ez dagoela dioena.

d) ICTEren ziurtagiria, Espainiako Kalitate Turistikoaren Sistemari atxikita dagoela frogatzeko.

e) Aurrekontua, kontzeptuen arabera zehaztua.

Agiriak aurkeztean komeni da ingurumenaren arloko praktika egoikiak kontuan hartzea, baliabideen zentzuzko erabileran laguntzeko, esate baterako paper birziklatu eta klororik gabe zuritua erabiltzea eta orriak bi aldeetatik inprimatu edo fotokopiatzea.

9.-Eskaeren tramitazioa.

Turismoko Produktuak Antolatu eta Garatzeko Zerbitzuak eskaerak aztertuko ditu eta aurkeztutako dokumentazioa osorik ez badago, interesdunari eskatuko dio akatsak zuzen ditazala, errekerimendua jakinarazi eta hamar egun naturalerako epean; horrekin batera, adieraziko zaio horrela egiten ez badu eskaerari uko egiten diola ulertuko dela.

Eskaerak aztertutakoan, Turismoko Produktuak Antolatu eta Garatzeko Zerbitzuak ebazpen proposamena aurkeztuko du, Turismo zuzendari nagusiak deialdia ebatz dezan. Ebazpena interesdunari jakinaraziko zaio, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legean ezarritakoaren arabera.

Deialdia ebazteko hiru hilabeteko epea izanen da gehienez, eskaerak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo egunetik aitzina. Epe hori jakinarazpena egin gabe bukatzen bada, eskaera baztertu egin dela ulertu beharko da.

10.-Gastua justifikatzea eta laguntzak ematea.

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak onetsitako diru-laguntza ordainketa bakar batean emanen da, ondoko hauek aurkeztu eta gero: laguntzak justifikatzeko eskabide orri formalizatua eta gastuen fakturak (jatorrizkoa eta kopia edo kopia konpultsatua) eta bankuko ordainagiriak eta, hala denean, kalitateko "Q" marka (1) lortu izanaren ziurtagiria, Espainiako Kalitate Turistikoaren Institutuak (ICTE) edo erakunde eskudunak luzatua edo ziurtagiria berritzeko auditoria pasatu izanarena.

Agiri horiek 2008ko azaroaren 15erako aurkeztu beharko dira.

11.-Onuradunen betebeharrak.

Hona hemen laguntza hauen onuradunen betebeharrak:

a) 2008ko azaroaren 30a baino lehen egindako gastuak justifikatzea fakturak aurkeztuz (jatorrizkoa eta kopia edo kopia konpultsatua) eta horien ordainketa frogatzen duten agiriak, fakturazio betebeharrak arautzen dituen Erregelamendua onesten duen maiatzaren 17ko 205/2004 Foru Dekretuaren arabera.

b) Diruz lagundutako jarduera ez bada deialdian ezarritako epean egiten, onuradunak horren berri eman beharko dio Turismoko Produktuak Antolatu eta Garatzeko Zerbitzuari 2008ko abuztuaren 30a baino lehen. Ez bada hala egiten, onuradunak ezin izanen du hurrengo deialdietan kontzeptu horretarako laguntzarik eskatu.

c) Idatzizko kontratua aurkeztea azpikontraturatuak jarduera 60.000 eurotik gorakoa denean.

d) Laguntzen deialdi honekin zerikusia duten eta Turismoaren Sektorea Sustatu eta Antolatzeko Zerbitzura igortzen diren jakinarazpen eta/edo agiri guztiak zerbitzu horretara zuzendutako eskabide orriaren bidez egin beharko dira eta Erregistro Publikoan aurkeztu.

e) Zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekikoak eguneratuta izatea.

f) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 9. artikuluan aipatutako gainerako betebeharrak.

g) Gastua Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak diruz lagundu duela aditzera eman beharko da eta, sustapenerako materialean, halakorik eginez gero, Foru Komunitateko marka turistikoa jarri beharko da, Turismo Zuzendaritza Nagusiko irudiaren eskuliburuan ezarritako arauari jarraikiz.

12.-Diru-laguntzen publikitateak.

Deialdi honen bidez emandako diru-laguntzak eta haien onuradunak Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren webgunean eta departamentuak argitaratzen dituen buletin turistikoetan agertuko dira.

13.-Diru-laguntza itzultzeko arrazoiak.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 35. artikuluan eta deialdi honetan aurreikusitako kasuetan itzuli beharko dira jasotako diru-laguntzak.

14.-Errekurtsioak.

Deialdi honen eta bere arauen kontra gora jotzeko errekurtsioa paratzen ahalko da, Nafarroako Gobernuari zuzendua, eta deialdiaren berriazko edo uestezko ebazpenaren aurka, berriz, gora jotzeko errekurtsioa, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariari zuzendua. Bi errekurtsio hauek deialdia eta ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hilabeteko epean jarri beharko dira, hurrenez hurren.

(1) Ziurtatze batzordearen atzerapen administratiboaren ondorioz enpresa batek ez badu ziurtagiria deialdi honetan ezarritako epean lortzen, auditoriako txostena kontuan hartzen ahalko da salbuespenez, baldin eta alde orotan adostasuna ematen bada.

F0804658

**57/2008 FORU AGINDUA, apirilaren 8koa, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilariak emana, elkarteek, toki entitateek eta partzuergoek turismo garapenerako jarduerentzako 2008. urterako laguntzen deialdia onesten duena.**

Nafarroako toki erakundeek, turismoko partzuergoek eta turismoa sustatzeko helburua duten elkarteek zeregin garrantzitsua daukate turismoko sektorea indartzean, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Turismo Zuzendaritza Nagusiaren lana osatzen eta aberasten duten aldetik.

Laguntzen deialdi honen bitartez, sektore publikoak turismoko inguruan dituen ekimenak bultzatu eta sustatu nahi dira, edo bisitariak erakartzeko aurreko urteetan hasitako jarduerak sendotu. Horretarako, 2007ko urriaren 1etik 2008ko irailaren 30era bitartean egiten diren jarduerak onartuko dira edo, multzo gisa aurkeztuagatik, beren jardueren gutxienez %75 epe horretan egiten dituzten proiektuak.

Oro har, elkarten kalitatea sustatu nahi da, bai eta elkarten, partzuergoen eta toki erakundeen egintzen dinamizatzailerak, koordinatzaileak eta antolatzaileak ere. Helburua ahaleginak bateratzea da, eskaintza tokietan eta denboran dibertsifikatzen duten jarduketan plan orokorren bidez, Turismo Zuzendaritza Nagusiaren jarduketak eragingarriagoak izan daitezkeen.

Deialdi hau lehiazki gabeko konkurrentzia bidez ebatziko da, izan ere, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, erregistratutako eskaera guztiak aztertu eta erabakiko da zein eskabidek betetzen dituzten deialdiko irizpideak eta zeinek ez. Gero, dirulaguntzetarako erabiltzen den gehienezko zenbatekoa dirulaguntzaren onuradunen artean hainbanatuko da. Hau horrela da deialdian dauden jarduera guztiak egitea

garrantzitsuz jotzen delako, eta zenbat eta gehiago egin orduan eta hobe izanen dela uste delako. Esperientziari esker badakigu honelako jarduerak, diruz lagundu ezean, ez direla egiten, elkartek, partzuergoek edo toki entitateek ez dutelako diru nahikorik. Baina laguntza emateko aukerarik badago, hasiera batean deialdian ezarri dena baino txikiagoa izanik ere, jarduerak burutu ohi dira.

Horrenbestez, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren egitura organikoa ezarri zuen irailaren 3ko 126/2007 Foru Dekretuaren 2.2 artikulua ematen dizkidan eskurantzak erabiliz,

#### AGINDU DUT:

1.-Elkartek, toki entitateek eta partzuergoek egiten dituzten turismo garapenerako jarduerantzako 2008. urterako laguntzen deialdia eta bere arauak onestea. Arauak foru agindu honen eranskinean ageri dira.

2.-Deialdi honetarako gastua baimentzea, ondoko zenbateko hauetan, eta 2008ko gastuen aurrekontuko kontusail hauen kontura:

–"Elkarteentzako laguntzak turismoa sustatzeko".-A10001 A1120 4819 432300 kontusaila. Zenbatekoa: 328.900,00 euro.

–"Elkarteentzako eta partzuergoentzako laguntzak turismoa sustatzeko".-A10001 A1120 4609 432300 kontusaila. Zenbatekoa: 630.000,00 euro.

3.-Foru agindu hau eta bere eranskina Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

Foru agindu honen aurka gora jotzeko errekurtsoa jartzen ahal da, Nafarroako Gobernuari zuzendua, jakinarazi eta biharamunetik hilabete epean.

Foru agindu hau Turismoko Produktuak Antolatu eta Garatzeko Zerbitzuari, Kudeaketa Ekonomikoaren Bulegoari eta Ogasun Departamentu departamentu hartan duen Kontu-Hartzailetza Delegatuari jakinaraziko zaie, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2008ko apirilaren 8an.-Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria, *Juan Ramón Corpas Mauleón*.

#### ERANSKINA

*Elkartek, toki entitateek eta partzuergoek 2008an egiten dituzten turismo garapenerako jarduerantzako laguntzen deialdiaren arauak*

1.-Xedea, laguntzaren zenbatekoa eta onuradunak.

Deialdi honen laguntzak izanen dira elkartek, toki erakundeek eta partzuergo turistikoek 2007ko urriaren 1etik 2008ko irailaren 30era bitarte kalitatearen, prestakuntzaren, produktuen sorkuntzaren, ekitaldien antolaketan eta koordinazioaren arloan egindako jardueratarako. Multzo gisa aurkeztu eta gutxienez bere jardueren %75 epe horretan egiten dituzten proiektuak ere onartuko dira.

1.1. Turismo elkarreentzako laguntzak

Deialdi honetako gehieneko zenbatekoa 328.900,00 eurokoa da eta 2008ko gastu aurrekontuko "Elkarreentzako laguntzak turismoa sustatzeko" izeneko A10001 A1120 4819 432300 kontusailaren kargura finantzatu da. Zenbateko hori handitzen ahal da, deialdi honen beste atala eta programa berean sartutako beste deialdiak ebatzi ondoren gelditzen diren zenbatekoen bidez, beti ere aurkeztutako eskaeren arabera.

1.1.1. Onuradunak.

Egoitza Nafarroan duten elkartek, eskaerak aurkezteko epea bukatzen den unean Nafarroako Turismo Erregistroan behar bezala izena emanda daudenak eta deialdi honek indarra duen bitartean inskribatuta jarraitzen dutenak.

1.1.2. Xedea.

a) Kalitatearen arloko jarduerak

a.1) Espainiako Kalitate Turistikoaren Institutua Nafarroan ordezkatzeko duten elkarreentzako jarduerak, baldin eta ordezkartzak hitzarmen baten bitartez ezarritako eginkizunak betetzen baditu eta, gutxienez, honako alderdiak garatzen baditu:

–Kalitatearen Sistemari buruzko gaietan lana egiten duten enpresak aholkatu eta laguntzea.

–Kalitatearen Planean parte hartzen duten enpresei sistemak ezartzeko, ziurtaopenetarako, hobekuntza planetarako, eta abarretako aholku ematea.

–Turismo Zuzendaritza Nagusiak kalitatearen arloan egiten duen lana laguntzea.

–Baldin badago, SGTaren Transferentzia Teknologikoaren Plana koordinatzea.

–Enpresa berriak biltzeko jarduerak. Horretarako, eta proposatutako jardueren artean, jasota gelditu beharko du Nafarroako eskualde desberdinetan gutxienez bi aurkezpen jardunaldi egin direla.

a.2) Espainiako Kalitate Turistikoaren Institutua Nafarroan ordezkatzeko duten elkarreentzako jarduerak, Nafarroako leku desberdinetan kalitatearen arloan gutxienez bi prestakuntza ikastaro koordinatu eta anto-

laktzea. Prestakuntza ikastaroen aurrekontua bakoitza bere aldetik egiten ahalgo da.

a.3) Espainiako Kalitate Turistikoaren Institutua Nafarroan ordezkatzeko duten elkarreentzako jarduerak, Kalitate Turistikoaren Arau bat ezartzeko ari diren eta 2008. urtean ziurtatzen duten institutuari atxikitako establezimendu eta enpresei laguntza teknikoak emateko. Atal honetan aurreko deialdietan parte hartu duten establezimenduak sartuko dira.

a.4) Praktika Egokietarako Eskuliburua ezartzen ari diren eta 2008. urtean dagokien diploma lortuko duten establezimenduen eta enpresen aholkularitza teknikoak.

a.5) Espainiako eremuan homologatutako ingurumen kalitatearen gutuna ezartzea: ingurumen ziurtagiria eta etiketa ekologikoa.

Atal honetan ondoko gastu hauek izanen dira laguntza jasotzeko modukoak: teknikariak kontratatzea, kontratatzen diren teknikarien edo bestelako teknikariak kalitate sistemengatik jarduketarako joateko dieta eta kilometroen gastuak, betiere horietara joateko arrazoiak badaude, eta gai horretan teknikari propioak trebatzeko dauden gastuak.

Kanpoko aholkularitza kontratatuz gero, kontratatutako enpresaren faktura baizik ez da onartuko laguntza emateko.

b) Beharrezko diagnostikatzea eta prestakuntzako jarduerak antolatzea, alderdi tekniko eta profesionalean hobetzeko eta gaitzeko, eta irisgarritasun edo ingurumen neurriak (energia berriagarriak) ezagutzeko eta aplikatzeko turismoaren sektorean, baldin eta Turismoko Zuzendaritza Nagusiak antolatzen dituen edukiekin bat ez badatoz. Prestakuntza bidaiek ere jaso dezakete diru-laguntza, baldin eta prestakuntza ikastaro oso baten parte badira; programa aurkeztu beharko da betiere. Bidaieren kontzeptu gisa, dirulaguntzarako gastu bezala, ikastaro osoaren aurrekontuaren %50 onartuko da gehienez.

Aurreikusten diren prestakuntza ikastaroen egitaraua Turismoko Produktuak Antolatu eta Garatzeko Zerbitzuari emanen zaio 15 egun lehenago gutxienez.

c) Turismoko produktua diseinatu eta artikulatzeko edo sendotzeko jarduerak.

Deialdi honi dagokionez, turismoko produktutzat joko da toki bateko baliabideei balioa ematea, betiere elkarren artean osagarriak diren elementu eta/edo zerbitzuen multzo bat baldin bada, erakarmen berezia badu eta turismoa erakartzeko ahalmena, betiere jarduketek inbertsioa handitzen ez badute.

d) Nazio mailako interes turistikodun gisa deklaratu edo deklaratzeko prozesuan dauden jai eta ospakizun kulturalak antolatzea.

e) Antzinako jarduera tradizionalekin zerikusia duten festa eta ospakizun kulturalak antolatzea, edo nafar gastronomia bultzatzen dutenak. Ekitaldia egiten den udalerriarekin edo ekitaldia sustatzen duen elkarreentzako zerikusia izan behar du ospakizunaren gai nagusiak. eskualde horietara jende asko erakartzeko gaitasuna dutela frogatu beharko dute.

Aurreko bi atal horietan ondoko gastu hauek izanen dira laguntza jasotzeko modukoak: jarduketa antolatzekoak eta, horrelakorik bada, doako publizitatea sor dezaketen hizlarien edo gonbidatu berezien (kartzetari, idazle eta abarren) dietak (herri otorduak eta instituzionalak ez dira onartuko, ez eta kontzertuak edo gaueko dantzaldiak ere). Gai nagusizat herriko edo eskualdeko berezko produktu gastronomiko bat duten jarduketetan, laguntza jasotzeko moduko gastutzat hartuko dira sustatzen den lehengaiak, Nafarroan produzitua, eta hura landu eta prestatzeko behar diren oinarriko osagaiak.

Deialdi honetan ez dira sartuko herrietako festak, erromeriak, ibarreko festak eta gisakoak.

1.1.3. Laguntzaren zenbatekoa.

Funts galdurako diru-laguntza:

a) kontzeptua. Kalitatea: gehienez ere onetsitako aurrekontuaren %70, gehienezko diru-laguntza:

a.1) 16.800,00 euro.

a.2) 4.200,00 euro.

a.3) 1.400,00 euro.

a.4) 560 euro.

a.5) 8.400,00 euro.

b) kontzeptua. Prestakuntza: gehienez ere onetsitako aurrekontuaren %70.

c) kontzeptua. Turismo produktuaren sorrera: gehienez ere onetsitako aurrekontuaren %70.

d) kontzeptua. Interes turistikodun gisa deklaratu edo deklaratzeko gutxienez ere onetsitako aurrekontuaren %80.

e) kontzeptua. Festa eta ospakizun kulturalak: gehienez ere onetsitako aurrekontuaren %70.

Laguntzen muga: Oro har, diru-laguntzen muga 33.000,00 eurokoa izanen da deialdi honen a) puntuari dagokionez, b) puntuari dagokionez, eta 50.000,00 eurokoa b), c), d) eta e) puntuari dagokionez.

nentzako eta Turismoko Marketinaren Zerbitzuaren "Turismoa sustatzeko jarduerak" izeneko deialdiari dagokien jarduerantzako.

## 1.2. Toki erakundeetako eta partzuergo turistikoetarako laguntzak.

Deialdi honetako gehieneko zenbatekoa 630.000 eurokoa da eta 2008ko gastu aurrekontuko "Toki entitateentzako eta partzuergo turistikoentzako laguntzak turismoa sustatzeko" izeneko A10001 A1120 4609 432300 kontusailaren kargura finantzatu da. Zenbateko hori handitzen ahalko da, deialdi honen beste atala eta programa berean sartutako beste deialdiak ebatzi ondoren gelditzen diren zenbatekoen bidez, beti ere aurkeztutako eskaeren arabera.

### 1.2.1. Onuradunak.

Laguntzen onuradunak izaten ahalko dira egoitza Nafarroan duten eta eskaerak aurkezteko epea bukatzen den unean Nafarroako Turismo Erregistroan behar bezala izena emanda dauden eta deialdi honek indarra duen bitartean inskribatuta jarraitzen dutenak Nafarroako Toki Entitateak eta Partzuergo Turistikoak. Partzuergo Turistikoak Toki Entitateek eta irabazi-asmorik gabeko elkarteek osatutakoak izan beharko dute eta beren jarduketara eremuan turismoa garatzea izan beharko dute xede.

### 1.2.2. Laguntzaren xedea.

Laguntza jasoko dute ondoko atalen inguruan garatzen diren proiektuek:

#### a) Kalitatearen arloko jarduerak:

a.1) Praktika Egokietarako Eskuliburua ezartzen ari diren eta 2008. urtean dagokien diploma lortuko duten establezimenduen eta enpresen aholkularitza teknikoak.

a.2) Kalitate Planetarako aholkularitza, bai produktuetan, bai helburuetan.

a.3) Espainiako eremuan homologatutako ingurumen kalitatearen gutuna ezartzea: ingurumen ziurtagiria eta etiketa ekologikoa.

Atal honetan ondoko gastu hauek izanen dira laguntza jasotzeko modukoak: teknikariak kontratatzea, kontratatzen diren teknikarien edo bestelako teknikariak kalitate sistemengatik inguruko jarduketarako joateko dieta eta kilometroen gastuak, betiere horietara joateko arazoak badaude, eta gai horretan teknikari propioak trebatzeko dauden gastuak.

Kanpoko aholkularitza kontratatuz gero, kontratatutako enpresaren faktura baizik ez da onartuko laguntza emateko.

b) Beharrianak diagnostikatzea eta prestakuntzako jarduerak antolatzea, alderdi tekniko eta profesionalean hobetzeko eta gaitzeko, eta irisgarritasun edo ingurumen neurriak (energia berriztagarriak) ezagutzeko eta aplikatzeko turismoaren sektorean, baldin eta Turismoko Zuzendaritza Nagusiak antolatzen dituenen edukiekin bat ez badatoz. Prestakuntza bidaiek ere jaso dezakete diru-laguntza, baldin eta prestakuntza ikastaro oso baten parte badira; programa aurkeztu beharko da betiere. Bidaia-entitate kontzeptu gisa, dirulaguntzarako gastu bezala, ikastaro osoaren aurrekontuaren %50 onartuko da gehienez.

Atal honetan partzuergoak besterik ez dira diruz lagunduko. Horretarako, prestakuntza ikastaroen egitaraua Turismoko Produktuak Antolatzea eta Garatzeko Zerbitzuari aurkeztu beharko zaizkio 15 egun lehenago gutxienez.

c) Turismoko produktua diseinatu eta artikulatzeko edo sendotzeko jarduerak.

Deialdi honi dagokionez, turismoko produktutzat joko da toki bateko baliabideei balioa ematea, betiere elkarren artean osagarriak diren elementu eta/edo zerbitzuen multzo bat baldin bada, erakarmen berezia badu eta turismoa erakartzeko ahalmena, betiere jarduketek inbertsioa handitzen ez badute.

d) Nazio mailako interes turistikodun gisa deklaratu edo deklaratzeko prozesuan dauden jai eta ospakizun kulturalak antolatzea.

e) Festa edo ekitaldi tematikoak edo nafarroako gastronomia bultzatzen dutenak antolatzea, helburu turistiko argia dutenak. Eskualde horretara jende asko erakartzeko gaitasuna dutela frogatu beharko dute.

Deialdi honetan ez dira sartuko herrietako festak, erromeriak, ibarreko festak eta gisakoak, herrian edo udalerrian ohi direnak.

Aurreko bi atal horietan ondoko gastu hauek izanen dira laguntza jasotzeko modukoak: jarduketara antolatzeak eta, horrelakorik bada, doako publikitatearen sor dezaketen hizlarien edo gonbidatu berezien (kazetari, idazle eta abarren) dietak (herri otorduak eta instituzionalak ez dira onartuko, ez eta kontzertuak edo gaueko dantzaldiak ere). Gai nagusizat herriko edo eskualdeko berezko produktu gastronomiko bat duten jarduketetan, laguntza jasotzeko moduko gastutzat hartuko dira sustatzen den lehengaiak, Nafarroan produzitua, eta hura landu eta prestatzeko behar diren oinarriko osagaiak.

f) Turismo eragileen kontratazioa:

f.1) Partzuergoak laguntzeko eragile turistikoak, bisita gidatuak eta monumentuak irekitzeko.

f.2) Partzuergo turistiko berriak sortzea aurreikusita duten udalak laguntzeko eragile turistikoak.

Bigarren kontzeptu honetarako eskabidea 5.000 biztanle baino gehiago dituzten 8 udalek ordeztuta egin beharko da gutxienez. Beti ere partzuergoak Turismon erregistrotzeko eskabidea egin eta horretarako behar den dokumentazioa entregatu beharko da, deialdi honen justifikazio epea bukatu baino lehen.

Kontratua eta ordainketa (langile propioak badira, nominaren ordainketa, eta enpresa baten bidez kontratatzen badira, fakturaren ordainketa) entitate eskatzaileak egin beharko ditu.

Deialditik baztertu da eragileen eskaera.

#### g) Partzuergoen kudeatzailetza kontratatzea

Kontzeptu honetan langileen gastuak izanen dira diru-laguntza jaso dezaketen bakarrak.

#### 1.2.3. Laguntzaren zenbatekoa

Funts galdurako diru-laguntza:

a) kontzeptua. Gehienez ere onetsitako aurrekontuaren %70, gehienezko diru-laguntza:

a.1) 560,00 euro.

a.2) 14.000,00 euro.

a.3) 8.400,00 euro.

b) kontzeptua. Prestakuntza: gehienez ere onetsitako aurrekontuaren %70.

c) kontzeptua. Turismo produktuaren sorrera: gehienez ere onetsitako aurrekontuaren %70.

d) kontzeptua. Interes turistikodun gisa deklaratuak ospakizunak: gehienez ere onetsitako aurrekontuaren %80.

e) kontzeptua. Festak edo ekitaldi tematikoak:

–Partzuergoek edo 5 udal edo gehiagoko batasunek antolatutako eta justifikatutako ekitaldiak, bakoitzak gutxienez %10eko parte-hartzea izanik (gutxienez 3 ekitaldi urtean toki eta egun desberdinetan): onartutako aurrekontuaren %80eko gehienez.

–Udalek banaka antolatutako eta justifikatutako ekitaldiak: %20 gehienez.

f) kontzeptua. Turismo eragileen kontratazioa:

f.1) Bisita gidatuak egitea: gehienez ere onetsitako aurrekontuaren %40, urtean 2.000,00 euroko gehienezko diru-laguntza edo zati proportzionala.

f.2) Udalak laguntzea: gehienez ere onetsitako aurrekontuaren %70, urtean 16.000,00 euroko gehienezko diru-laguntza edo zati proportzionala.

g) kontzeptua. Partzuergoen kudeatzailetza kontratatzea: gehienez ere onetsitako aurrekontuaren %70, urtean gehienezko diru-laguntza hauekin:

–Deialdi honetan agertzen diren jardueretatik gutxienez 7 egiten dituzten (kudeatzailetza izan ezik) eta 50.000,00 euroko aurrekontua duten partzuergoentzako, urtean 26.000,00 euroko diru-laguntza edo zati proportzionala

–Jarduerak eta/edo aurrekontua ez badira aurreko puntuan aipatutako zenbatekoetara heltzen, 18.000,00 euroko diru-laguntza edo zati proportzionala.

#### 2.–Eskaerak aurkeztea.

##### 2.1. Eskabideen aurkezpena.

Eskaerak Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 32/192 Legearen 38. artikuluan aurreikusitako moduan aurkeztu beharko dira.

Mezularitza zerbitzu pribatuak eta atzerriko posta zerbitzuak eskabideak aurkezteko onartuko dira agiriak deialdietan ezarritako epean eta moduan erregistrotzeko direnean eta Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko erregistro osagarrian edo Nafarroako Gobernuko beste edozein erregistrotzeko erregistrotzeko direnean.

##### 2.2. Entitate eskatzailea.

Proiektu bakoitzeko eskabide bat aurkeztuko du proiektua garatzeko asmoa duen entitateak.

Proiektua zenbait entitatek batera garatu behar dutenean aukera hauek izanen dira:

a) Proiektuaren exekuzioa bere gain hartzen duenak aurkeztea eskaera; halakoetan, sortzen diren gastuak exekuzioa bere gain hartzen duen entitatek ordainduko ditu. Halaber, eskabidean azalduko da zatien arteko lankidetzaren erara artikulatuko den, bai eta horien legezko ordezkarien sinadura ere.

b) Proiektua garatuko duten entitateek eskabidea batera aurkezte; bakoitzaren partaidetza zehaztuko da eta legezko ordezkarien sinadura jarriko. Halako kasuetan entitate parte hartzaile bakoitzari emanen zaio dirua, bere partaidetzaren proportzioan; gastuen frogagiritan ordaintzaile gisa agertu beharko du entitateak.

### 2.3. Eskabideak aurkezteko epea.

Diru-laguntza eskabideak deialdia Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik hilabeteko epean aurkezten ahalko dira.

### 2.4. Agiriak.

Eskaera beteko da horretarako propio eratutako formularioa betetz. Formularioa eskura dago Turismoko Produktuak Antolatu eta Garatzeko Zerbitzuan eta Interneteko helbide honetan:

[www.navarra.es/home-es/Catalogo+de+servicios/Ayudas/](http://www.navarra.es/home-es/Catalogo+de+servicios/Ayudas/)

Eskabideari ondoko agiriak erantsiko zaizkio:

#### a) Entitateari edo entitateei dagokien dokumentazioa

–Identifikazio Fiskaleko Kodea

–Turismoko erregistroan ageri diren datuak aldatu badira, ordezkaria nor den frogatzen duen ziurtagiria aurkeztu behar da. Menpekotasun organikoa frogatu behar da, eta eskatzailea dirulaguntzaren jasotzaile izendatu behar da.

–Erantzukizunpeko aitortpena, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 13 artikuluko 2. eta 3. idatz-zatietan aurreikusitako egoera debekatu batean ere ez dagoela dioena.

#### b) Proiektuari buruzko dokumentazioa:

Proiektuaren azalpen memoria, honako hau bilduko duena:

–Jarduerak eta horiek zein tokitan egingen diren.

–Kontzeptuen araberako gastuen aurrekontu xehaketa. Proiektuan ekintza bat baino gehiago dagoenean, bakoitzaren kostua azalduko da.

–Gastuen aurrekontu zehaztua entitate eskatzaile bakoitzerako; adieraziko dira entitate bakoitzak bere gain hartzen dituen ekintzak, bai eta gastuetako zein parte-hartze duen ere, kostua eta mota zehaztuta.

–Bisita gidatuak egiteko turismo eragileak kontratatuzko eskabideetan irekiera eta bisiten egitaraua aurkeztuko da eskabidearekin batera.

–Partzuergo turistikoak sortzen laguntzeko eragileentzako eskabideen kasuan, toki entitate sustatzaileen arteko "Akordioa" aurkeztu beharko da.

–"Kalitatea" kontzepturako eskabideen kasuan honako hau aurkeztu beharko da: kontratatutako langileek edo enpresak egin beharreko egingizunen memoria, langile horien izena eta/edo datuak zehaztuta. Halaber, egin beharreko jardunaldi eta/edo ikastaroen aurreikuspena aurkeztu beharko da, kasua bada, eta "Banakako laguntza" kontzepturako diru-laguntza eskatzen bada, ziurtagia 2008rako aurreikusita duten establezimenduen zerrenda aurkeztu beharko da.

–Kudeatzailetzarako laguntzak: kudeatzailetzak egin beharreko egingizunen memoria aurkeztu beharko da eta, kasua bada, deialdia indarrean dagoen denboraldirako aurrekusi diren jarduera zehaztuta.

#### c) Proiektuak egoki definitzeko behar diren beste agiri batzuk.

d) Beste entitate batzuek edo partikularrek proiektu bererako emandako laguntzen zenbatekoari buruzko aitortpena aurkeztu beharko du eskatzaileak; horretarako dirurik ez badago horren berri eman beharko du.

### 3.–Tramitazioa.

Turismoko Produktuak Antolatu eta Garatzeko Zerbitzuak eskabideak aztertuko ditu eta aurkeztutako dokumentazioa osorik ez badago, interesdunari eskatuko dio akatsak zuzen ditzala, errekerimendua jakinarazi eta hamar egun naturaleko epean; horrekin batera, adieraziko zaio horrela egiten ez bada eskaerari uko egiten diola ulertuko dela.

Eskaerak aztertuta, dagozkien zenbatekoak zehaztuko dira eta informazio hori Nafarroako Gobernuaren web gunean argitaratuko da 10 egunez, interesdunek, jaso beharreko laguntzekin proiektuak ezin direla bideratu uste badute, eskaerari uko egiten diotela jakinarazi dezaten.

Epe hori bukatutakoan, Turismoko Produktuak Antolatu eta Garatzeko Zerbitzuak ebazpen proposamena aurkeztuko du, Turismo zuzendari nagusiak deialdia ebatz dezan. Ebazpena interesdunari jakinaraziko zaio, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legean ezarritakoaren arabera.

Eman beharreko laguntza guztien diru-zenbatekoa aurrekontuko kredituak baino handiagoa bada, laguntzen hainbanatze lineala egingen da.

Deialdia ebazteko hiru hilabeteko epea izanen da gehienez, eskaerak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo egunetik aitzina. Epe hori betetzen bada jakinarazpena egin gabe, eskaera baztertu dela ulertu beharko da.

### 4.–Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak.

Diru-laguntza jaso dezakete proiektuaren garapenarekin zuzeneko lotura duten kanpoko gastu guztiek, hots, hirugarrenek fakturatuek eta, beraz, ez dute diru-laguntza jasoko bertako langileei dagozkien gastuek (kalitatea, kudeaketa eta turismo eragileak izan ezik) eta entitatearen ohiko funtzionamenduko gastuek, ibilgetua amortizatuzko dotazioak barne (ez da gehikuntzarik aplikatuko barne kostu gisa).

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZa) zenbatekoa kenduko da horrek eragina duen kasuetan.

### 5.–Ematea eta ordaintzea.

Laguntzak onartzearekin batera, %70eko aurrerakina ordainduko da. Aurrerakina 60.000 euro baino gehiago denean, berme bat ezarriko da.

Diru-laguntzaren xedea bete dela frogatzen duten agiriak 2008ko urriaren 31 baino lehen aurkeztu beharko ditu onuradunak. Gainera, gastuen eta diru-sarrerren zerrenda eta eginiko jardueren ordainagiriak ere eman beharko dira.

Baldin eta aurkeztutako dokumentazioak egiaztatzen badu proiektuaren %75 baino gutxiago burutu dela horretarako arrazoirik izan gabe, proiektuak kontzesiorako arrazoa galdu duela ulertuko da eta ofizioz deuseztatuko da laguntza; ordaindutako aurrerakina itzultzeko eskaera tramitatuko da Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean ezarritakoarekin bat, salbu eta burututako portzentajeak proiektuaren helburua aldarazten ez badu."

### 6.–Onuradunen betebeharrak.

6.1. Deialdi honetan ezarritako epearen barruan, egin diren gastuak justifikatu behar dira. Horretarako, nominak eta langileen gastuak eta fakturak aurkeztu behar dira (originala eta kopia edo kopia konpultsatua), fakturako kontzeptuak beraien sozietatearen xedea duten pertsona fisiko edo juridikoek eginak. Ordainketa egin dela frogatzen duten banku-agiriak ere aurkeztu behar dira, fakturazioko betebeharrak arautzen dituen araudia onesten duen maiatzaren 17ko 205/2004 Foru Dekretuaren arabera, bidezkoa bada. Frogagiri horiei zenbakizko segida jarri beharko zaie eta, horiekin batera, Turismoko Produktuak Antolatu eta Garatzeko Zerbitzuak emandako formularioa aurkeztu beharko da. Bertan zehatz-mehatz adieraziko dira diru-laguntzen xede diren proiektuak.

6.2. Diruz lagundutako jarduera ez bada deialdian ezarritako epean egiten, onuradunak horren berri eman beharko dio Turismoko Produktuak Antolatu eta Garatzeko Zerbitzuari 2008ko abuztuaren 30a baino lehen. Ez bada hala egiten, onuradunak ezin izanen du hurrengo deialdietan kontzeptu horretarako laguntzarik eskatu.

6.3. Diruz lagundutako jardueraren bitartez lortutako sarrerak eta azkenean jasotako diru-laguntzak aitortzea edo, kasua bada, sarrera eta diru-laguntza eza.

6.4. Idatzizko kontratua azpikontrataturiko jarduera 60.000 eurotik gorakoa denean.

6.5. Diruz lagundutako jardueren memoria eta aurrekusiako helburuen betetze maila baloratuko duen azken balorazioa aurkeztea.

Espainiako Kalitate Turistikoaren Institutuaren lurraldeko ordezkari-tzarako laguntzen kasuan, epearen eta Nafarroako SCTE sektoreen egoeraren balorazio txostena aurkeztu beharko da, Turismoko Produktuak Antolatu eta Garatzeko Zerbitzuari atal honetako jarduerari buruzko egoki juzgatzen dituen iradokizunekin.

6.6. Laguntza jasotzen duen jardueraren inguruko informazio guztietan Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza duela azaldu beharko da. Jarduera honetarako sortzen diren euskarri guztietan Nafarroako ikur turistikoa erabili beharko da, Turismoko Marketinaren Zerbitzuak ezarritako irizpideei jarraikiz.

6.7. Deialdi honen xede diren proiektuei buruzko argitalpenak (proiektuen parte direnak) Nafarroari buruzko irudi bakarra zabaltzeko Turismoko Zuzendaritza Nagusiak ezartzen dituen jarraibideen arabera egin beharko dira.

6.8. Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 9. artikuluan aipatutako gainerako betebeharrak.

6.9. Laguntzen deialdi honekin zerikusia duten eta Turismoko Produktuak Antolatu eta Garatzeko Zerbitzura igortzen diren jakinarazpen eta/edo agiri guztiak zerbitzu horretara zuzendutako eskabide-orriaren bidez egin beharko dira eta Erregistro Publikoan aurkeztu.

6.10. Zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekiko betebeharrak ordainduta izatea.

### 7.–Emandako diru-laguntzen publizitatea.

Deialdi honen bidez emandako dirulaguntzak eta haien onuradunak Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren web-orrian eta departamentuak argitaratzen diren buletin turistikoetan agertuko dira.

## 8.-Diru-laguntza itzultzeko arrazoiak.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 35. artikuluan eta deialdi honetan aurreikusitako kasuetan itzuli beharko dira jasotako dirulaguntzak.

## 9.-Laguntzen bateragarritasuna.

Deialdi honetako laguntzak bateragarriak dira Nafarroako Gobernu-ko beste departamentu batzuek eta beste administrazio publikoek, xede eta helburu bererako, ematen ahal duten beste edozein laguntza-rekin.

Onuradunak hartutako laguntzen eta sarreraren zenbateko osoa jardueren kostua baino handiagoa baldin bada, deialdiko laguntzaren zenbatekoa gutxituko da, jardueraren kostua gainditzen duen zenbatekoan.

## 10.-Errekurtsoak.

Deialdi honen eta bere oinarrien aurka, espedienteko interesdunek (administrazio publikoak ez badira) gora jotzeko errekurtsua jartzen ahalgo dute Nafarroako Gobernuari zuzendua, hilabete epean, jakinarazpenaren ondoko egunetik hasita. Administrazio publikoek, berriz, administrazioarekiko auzi errekurtsua egin dezakete, Nafarroako Justiziako Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabete epean, jakinarazpenaren ondoko egunetik hasita. Halaber, Nafarroako Gobernuaren aurrean errekerimendua egin daiteke alde zuzenetik, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan ezarri modu eta epean".

F0805411

**59/2008 FORU AGINDUA, apirilaren 8koa, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariak emana, elkarteek, toki entitateek eta partzuergoek 2008. urtean turismoa sustatzeko egiten dituzten jardueri laguntzeko deialdia onesten duena.**

Nafarroako toki entitateek, partzuergoek eta turismoa garatu eta sustatzea helburu duten elkarteek zeregin garrantzitsua betetzen dute turismoaren sektorea indartzen, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Turismo Zuzendaritza Nagusiaren lana osatzen eta aberasten baitute.

Laguntzeko deialdi honen bidez, sektore publikoak eta pribatuak bide horretan beren gain hartzen dituzten ekimenak sustatu nahi dira, edo bisitariak erakartzen dituzten jarduketak, aurreko urteetan abiatuak, sendotu. Hartara, 2007ko urriaren 1etik 2008ko irailaren 30era bitartean egiten diren jarduketak onartuko dira. Proiektu bakar gisa aurkeztu diren proiektuak ere onartuko dira, baldin eta beren jarduketaren %75 edo gehiago aipatu denboraldiaren barnean egiten badituzte.

Oro har, kalitateko turismoa sustatzeko aholkularitza lana bultzatzen da, partzuergoan, toki entitateetan eta turismo elkarteetan produktuak merkaturatu eta sustatzeko estrategiei babesa emanez, elkarren osagarri diren jarduerak desberdinak sustengatuz. Helburua ahaleginak bateratzea da, eskaintza espazioan eta denboran areagotzeko proposamen orokorren bidez Turismo Zuzendaritza Nagusiaren jarduketak eraginkorrago bihurtzeko.

Deialdi hau lehia gisa ebatziko da. Izan ere, eskaerak aurkezteko epea bukatutakoan, erregistratu diren eskaera guztiak aztertzen dira, eta deialdian finkatutako irizpideak zeintzuek betetzen dituzten eta zeintzuek betetzen ez dituzten erabakitzen da, baina ez norgehiagokaren terminoetan. Aitzitik, banaketa-formula hauze izanen da: diru-laguntza jasotzen duten guztien artean dirulaguntzetarako dagoen diru-zenbateko osoa hainbatatuko da. Hau horrela da deialdian dauden jarduerak guztiak egitea garrantzitsutzat jotzen delako, eta zenbat eta gehiago egin orduan eta hobe izanen dela uste delako. Esperientziari esker badakigu honelako jarduerak, diruz lagundu ezean, ez direla egiten, elkarteek, partzuergoek edo toki entitateek ez dutelako diru nahikorik. Baina laguntza emateko aukerarik badago, hasiera batean deialdian ezarri dena baino txikiagoa izanik ere, jarduerak burutu ohi dira.

Horrenbestez, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen irailaren 3ko 126/2007 Foru Dekretuaren 2.2 artikuluan ematen ditzkidan eskurantzak erabiliz,

## AGINDU DUT:

1.-Elkarte, toki entitate eta partzuergoek 2008. urtean egiten dituzten sustapen jardueretarako laguntza emateko deialdia onestea, bai eta deialdia arautuko duten oinarriak ere. Horiek foru agindu honen eranskinean bildu dira.

2.-Deialdi horretarako gastua baimentzea ondoren ematen diren gehieneko zenbatekoetan eta 2008ko gastuen aurrekontuko kontusail hauen kargura:

-"Ekimen pribaturako laguntzak turismoa garatu eta sustatzeko". A10002 A1200 4709 432300 kontusaila. Zenbatekoa: 253.000,00 euro.

-"Toki entitate eta partzuergoentzako laguntzak turismoa garatu eta sustatzeko". Kontusaila: A10002 A1200 4609 432302. Zenbatekoa: 137.000,00 euro.

3.-Foru agindu hau eta bere eranskina Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN.

Foru agindu honen aurka gora jotzeko errekurtsua jartzen ahal da, Nafarroako Gobernuari zuzendua, jakinarazi eta biharamunetik hilabete epean.

Foru agindu hau honakooi jakinaraziko zaie behar diren ondorioak izan ditzan: Turismoko Produktuak Antolatua eta Garatzeko Zerbitzuari, Turismoko Marketinaren Zerbitzuari, Kudeaketa Ekonomikoaren Bulegoari eta Departamentuan Ekonomia eta Ogasunekoak duen kontuhartzailezta delegatuari.

Iruñean, 2008ko apirilaren 8an.-Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria, *Juan Ramón Corpas Mauleón*.

## ERANSKINA

*Elkarteek, toki entitateek eta administrazio partzuergoek 2008. urtean egiten dituzten sustapen jardueri laguntzeko deialdiaren oinarriak*

1.-Xedea, laguntzaren zenbatekoa eta onuradunak.

Deialdi honetako laguntzak turismoa sustatzeko ondoko jarduerak hauek dira, baldin eta 2007ko urriaren 1etik 2008ko irailaren 30era bitartean egiten badira, edo proiektu bakar gisa aurkeztu diren proiektuetarako, baldin eta jarduketaren %75 edo gehiago aipatutako denboraldian egiten badira.

1.1. Turismoko elkarteentzako laguntzak.

Deialdi honetako gehieneko zenbatekoa 253.000 euro izanen da, eta 2008ko gastuen aurrekontutik ordainduko da, "Ekimen pribaturako laguntzak turismoa garatu eta sustatzeko" izeneko A10002 A1200 4709 432300 kontusailaren kargura.

Aurrekoari beste diru kopuru batzuk gehitu ahalko zaizkio, deialdi honetako beste atala eta programa bereko beste deialdi batzuk ebatzi ondoren geratzen diren soberakinak, aurkezten diren eskabideen arabera.

1.1.1. Onuradunak.

Helbidea Nafarroan duten elkarteak, eskaerak aurkezteko epea bukatzen den unean (eta gutxienez deialdi honen indarraldia dirauen bitartean) Nafarroako Turismo Erregistroan behar bezala inskribaturik daudenak.

1.1.2. Xedea.

Nafarroa helburu turistiko gisa sustatzen eta saltzen lagunduko duten produktuak merkaturatzeko eta sustatzeko estrategiak abian jartzeko jarduketak:

a) Erreserba bulegoak kontratatzea edo abian jartzea.

Laguntzaren zenbatekoa: itzuli beharrik gabeko diru-laguntza, onartutako aurrekontuaren %70erainokoa, eta gehienez 12.000 euroko aurrekontua.

b) Turismoko azoka eta aurkezpen ekitaldietara joatea.

b.1. Maila nazionalako azoka, kontratazio poltsa eta aurkezpenak, Turismo Zuzendaritza Nagusia haietara joaten baldin bada.

Atal honetan bidaia, ostatu eta mantenu gastuetarako diru-laguntza ematen zaie (pertsona bat eguneko) Turismo Zuzendaritza Nagusiko Turismoko Marketinaren Zerbitzuak 2008an azoka eta sustapen ekitaldietara joateko egindako planaren barnean dauden estatu mailako azoka eta ekitaldietan parte hartzen dutenei.

Laguntzaren zenbatekoa: itzuli beharrik gabeko diru-laguntza, 110 euro pertsona bakoitzeko eta eguneko.

b.2. Estatu mailako turismo azokak, kontratazio poltsak eta aurkezpenak, Turismo Zuzendaritza Nagusia joaten ez denean eta espaziorik eskaintzen ez duenean, baldin eta Turismoko Marketinaren Zerbitzuak aldeko txostena egiten badu. Zerbitzu horrek lan planari buruzko adostasun txostena egiten du eta euskarri desberdinetan turismoko marka aplikatzeko jarraibideak ematen ditu. Nafarroako markaren aplikazioarekin eta bertako argitalpen eta elementuen banaketarekin zerkusia duten alderdiak aztertu eta baloratuko dira.

Atal honetan diru-laguntza ematen da tokia alokatzeko, standa jartzeko, materialak garraiatzeko, azokarako kontratatzen diren langileei lansariak ordaintzeko, baita bidaietarako, ostaturako eta mantenuerako ere (2 pertsona eguneko).

Laguntzaren zenbatekoa: itzuli beharrik gabeko diru-laguntza, aurkezten den aurrekontuaren %70 gehienez, salbu eta garraio, ostatu eta mantenu gastuak; horietarako 110 euro ematen dira pertsona eta eguneko.

b.3. Nazioarteko azokak, kontratazio poltsak eta aurkezpenak, Turismo Zuzendaritza Nagusia haietara joaten baldin bada, Turismoko Marketinaren Zerbitzuak azoka eta sustapen ekitaldietan parte hartzeko

2008rako egindako planaren barnean. Zerbitzu horrek adostasun txostenaren eginen dio aurkeztutako lan planari.

Atal honetan diru-laguntza emanen da azokarako kontratatzen diren langileei lansariak ordaintzeko, baita bidaietarako, ostaturako eta mantenturako ere (persona bat eguneko).

Laguntzaren zenbatekoa: itzuli beharrik gabeko diru-laguntza, gehienez ere langilearen ordainsarien %70 (garraioa, ostaturako eta mantentura sartu gabe), eta 180 euro pertsona eta egun bakoitzeko garraiorako, ostaturako eta mantenturako.

b.4. Nazioarteko turismo azokak, kontratazio poltsak eta aurkezpenak, Turismo Zuzendaritza Nagusia joaten ez denean, baldin eta Turismo Marketinaren Zerbitzuak aldeko txostena egiten badu, aurkeztutako lan planari erreparatuta. Zerbitzu horrek jarraibideak emanen ditu turismo marka euskari desberdinetan aplikatzeko. Nafarroako markaren aplikazioarekin eta bertako argitalpen eta elementuen banaketarekin zerikusia duten alderdiak aztertu eta baloratuko dira.

Atal honetan diru-laguntza emanen da tokia alokatzeko, standa jartzeko, materialak garraiatzeko, azokarako kontratatzen diren langileei lansariak ordaintzeko, baita bidaietarako, ostaturako eta mantenturako ere (2 pertsona azoka bakoitzeko).

Laguntzaren zenbatekoa: itzuli beharrik gabeko diru-laguntza, tokia alokatu, standa jarri eta 2 langileri ordaintzeko aurrekontuaren %70, gehienez (garraioa, ostaturako eta mantentura sartu gabe), eta 180 euro pertsona eta egun bakoitzeko garraiorako, ostaturako eta mantenturako.

c) Zabalkunderako materialak atzerriko hizkuntzetan.

Turismo arloko nazioarteko azoka, kontratazio poltsa edo aurkezpenetan parte hartzen denean banatuko diren materialak.

Liburuxkak, katalogoak, bideoak eta webetako sustapen elementuak sartuko dira atal honetan, betiere Nafarroako Gobernuak gai bera jorratzen duen materialik ez badu. Marketinaren Zerbitzuak aldeko txostena egiten du dena delako elementuari edo argitalpen nahiz euskarrien planari buruz, eta horiek berariaz ezarritako turismo marka diseinatu eta aplikatzeko jarraibideei lotuko zaizkie. Nafarroako markaren aplikazioarekin eta Nafarroa sustatzeko argitalpen eta elementuen banaketarekin zerikusia duten alderdiei buruz ere txostena eta balorazioa egiten dira.

Laguntzaren zenbatekoa: itzuli beharrik gabeko diru-laguntza, elkartekideen ekarpenak estaltzen ez duen kostuaren %50, gehienez ere.

d) Publizitate ekintzak.

Ekintza eta haren hartzaileak eta helburuak justifikatu behar dira. Turismo Marketinaren Zerbitzuaren adostasun txostena behar da.

Laguntzaren zenbatekoa: itzuli beharrik gabeko diru-laguntza, onartutako aurrekontuaren %50erainokoa, eta gehienez ere 6.000 euroko aurrekontua.

e) Web orriak sortu, eraberritu edo hobetzea, gehienez 12.000 euroko aurrekontuarekin.

Turismo Marketinaren Zerbitzuak adostasun txostena egiten du eta zerbitzu horrek marka gauzatu eta aplikatzeko emandako gidalerroei jarraituko zaie. Web orriak gutxienez 5 urte iraunen du indarrean, eta banner esteka ezarriko da Nafarroako turismo [www.turismonavarra.es](http://www.turismonavarra.es) web orri ofizialarekin, hau ere 5 urterako gutxienez.

Laguntzaren zenbatekoa: itzuli beharrik gabeko diru-laguntza, onartutako aurrekontuaren %50 gehienez, ezarritako muga gainditu gabe.

f) Sektorearen irudia indartzeko ekintzak eta kanpainak.

Turismo Marketinaren Zerbitzuak adostasun txostena egiten du, aurkeztutako lan planaren arabera, eta zerbitzu horrek marka gauzatu eta aplikatzeko emandako gidalerroei jarraituko zaie. Ekintza horiek bat etorriko dira turismo marketinaren plan integralarekin. Nafarroako markaren aplikazioarekin eta bertako argitalpen eta elementuen banaketarekin zerikusia duten alderdiak aztertu eta baloratuko dira.

Laguntzaren zenbatekoa: itzuli beharrik gabeko diru-laguntza, onartutako aurrekontuaren %50erainokoa, eta gehienez ere 12.000 euroko aurrekontua.

1.1.3. Laguntzaren zenbatekoa.

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza, aurreko puntuetan adierazitako muga eta oharrekin.

Elkarte berak ezin izanen du 50.000 euro baino gehiago jaso, Marketinaren Zerbitzuaren deialdi honetako jarduketarako laguntzak eta Turismo Produktuak Antolatu eta Garatzeko Zerbitzuak turismoaren garapenera laguntzeko egindako deialdian jaso ditzakeen beste laguntzak baturik. Deialdi horretako kalitate ataleko laguntzak salbuetsiko dira.

1.2. Laguntzak toki entitateentzat eta turismo partzuergoentzat.

Deialdi honetako gehieneko zenbatekoa 137.000 euro izanen da, eta 2008ko gastuen aurrekontutik ordainduko da, "Toki entitate eta partzuergoentzako laguntzak turismoa garatu eta sustatzeko" izeneko A10002 A1200 4609 432302 kontusailaren kargura.

Aurrekoari beste diru kopuru batzuk gehitu ahalko zaizkie, deialdi honetako beste atala ebatzi ondoren geratzen diren soberakinak, hain zuzen ere.

1.2.1. Onuradunak.

Laguntza hauek jasotzen ahalko dituzte Nafarroako toki entitateek eta helbidea Nafarroan duten turismo partzuergoek, baldin eta Nafarroako Turismo Erregistroan behar bezala erregistraturik badaude eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean.

1.2.2. Xedea.

a) Turismo sustapenaren euskarriak.

a.1. Argitalpenak egitea, interes turistikoak duten gertakari eta jardueren programen berri emateko sustapenaren eremuan.

Argitalpenak edo argitalpen planak Turismo Marketinaren Zerbitzuaren adostasun txostena beharko du, eta emandako jarraibideei atxikiko zaie, markaren diseinuari eta ezarpenari dagokienez. Nahitaez agertu beharko da marka turistikoa.

Laguntzaren zenbatekoa: itzuli beharrik gabeko diru-laguntza, onartutako aurrekontuaren %50erainokoa, eta gehienez 6.000 euroko aurrekontua.

a.2. Sustapena egin nahi den eremuan turismo produktuak eskaintzeko web orriak sortzea, hobetzea edo haien edukia gehitzea.

Gehienez ere 12.000 euroko aurrekontua.

Beti ere, formatuak Turismo Marketinaren Zerbitzuak ezarritako ildoei jarraituko die, gutxienez 5 urte iraunen du indarrean, eta banner esteka ezarriko da Nafarroako turismo [www.turismonavarra.es](http://www.turismonavarra.es) web orri ofizialarekin, hau ere 5 urterako gutxienez.

Aurreko bi kontzeptu horien artean (a.1 eta a.2), partzuergo edo 3 udalek edo gehiagok, %10eko partaidetzarekin gutxienez, antolatutako proiektuei soilik emanen zaie diru-laguntza.

Laguntzaren zenbatekoa: Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza, onartutako aurrekontuaren %50erainokoa.

b) Turismoa sustatzeko ekintzak.

b.1. Turismo azoka edo aurkezpenetan parte hartzea hurbileko merkatuetan (Euskadi, Errioxa, Aragoi eta Frantziako hego-mendebaldea), Turismo Marketinaren Zerbitzuak horietan parte hartzen ez duenean 2008ko azoka eta sustapen ekitaldietarako bere planaren barnean.

Zerbitzu horrek lan planari buruzko adostasun txostena egiten du eta euskarri desberdinetan turismo marka aplikatzeko jarraibideak emanen ditu. Nahitaez ezarri beharko da marka turistikoa.

Atal honetan diru-laguntza emanen da tokia alokatzeko, standa jartzeko, materialak garraiatzeko eta egun bakoitzeko 2 pertsonaren ordainsariak, bidaiak, ostaturako eta mantentura ordaintzeko.

Laguntzaren zenbatekoa: itzuli beharrik gabeko diru-laguntza, onartutako aurrekontuaren %70 gehienez, salbu eta garraio, ostaturako eta mantentura sartu gabe; horietarako 110 euro emanen dira pertsona eta eguneko, estatuko azoketan, eta 180 euro pertsona eta eguneko, nazioarteko azoketan.

b.2. Estatu mailako turismo azoka edo aurkezpenetara joatea, Turismo Marketinaren Zerbitzuak parte hartzen duenean.

Atal honetan, egun bakoitzeko 2 pertsonaren bidaiak, ostaturako eta mantentura gastuetarako diru-laguntza emanen da.

Laguntzaren zenbatekoa: itzuli beharrik gabeko diru-laguntza, 110 euro pertsona eta eguneko, bidaiak, ostaturako eta mantentura gastuetarako.

c) Turismo informazioa eta dinamizazioa.

Turismo dinamizazio eta informazio zerbitzua ezartzea herri batean edo turismo eskaintza bateratua duten herri batzuetan. Azpiegitura egokia duten partzuergo eta toki entitateek turismo informazioaren arloko lankidetzara gune bat jarri ahal izanen dute abian, eta Turismo Marketinaren Zerbitzuak ezarriko dizkio lanerako ildoak: irekiera, ordutegia, markaren aplikazioa, euskarrien banaketa, estatistiken bilketa eta kontrola, sareko funtzionamendua eta beste batzuk.

Langileen kostua finantzatu da baldin eta gutxienez 3 hilabeteko kontratua egiten bada, lanaldi osoarekin. Kontratua eta ordainketa (langile propioak badira, nominaren ordainketa, eta laguntza teknikoak kontratatzen bada, fakturaren ordainketa) entitate eskatzaileak egin beharko ditu.

Laguntzaren zenbatekoa: itzuli beharrik gabeko diru-laguntza, onartutako aurrekontuaren %40erainokoa, eta gehienez ere 6.200 euro urtean, lanaldi osoarekin.

d) Sentsibilizazio ekintzak.

Bisitariari edo sektoreari eta tokian tokiko biztanleei zuzendutako ekintzen plana prestatuko da praktika onak hobetzeko, kultura eta natura baliaideak zaintzeko, abegi ona egiteko, turismoa eta zonak onartu eta errespetatzeko eta abarretarako.

Laguntzaren zenbatekoa: itzuli beharrik gabeko diru-laguntza, onartutako aurrekontuaren %50erainokoa.

### 1.2.3. Laguntzaren zenbatekoa.

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza, aurreko puntuetan adierazitako muga eta oharrekin.

#### 2.-Eskabideak aurkeztea.

##### 2.1. Eskabideak aurkeztea.

Eskabideak Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Erregistroan aurkezten ahal dira (Navarrería kalea, 39, beheko solairua, 31001 Iruña), edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 32/192 Legearen 38.a) artikuluan ezarritako tokietako edozeinetan.

Eskabideak aurkezteko bitartekotzat onartuko dira mezulari zerbitzu pribatuak eta atzerriko posta zerbitzuak, baldin eta dokumentazioa deialdietan ezarritako epean eta moduan erregistratzen bada eta, halaber, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Erregistroan edo Nafarroako Gobernuak beste edozein erregistratzen bada.

##### 2.2. Entitate eskatzailea.

Proiektu bakoitzeko eskabide bat aurkeztuko du proiektua gauzatzeko asmoa duen entitateak. Eragiketa plan bereko hainbat proiektu badaude laguntzetarako deialdi honetan parte hartzeko moduan, denak batera eta eskabide berean aurkeztu ahal izanen dira.

Proiektua zenbait entitatek batera garatu behar dutenean aukera hauek izanen dira:

a) Proiektua gauzatea bere gain hartzen duenak aurkeztea eskabidea; halakoetan, proiektuaren gauzapena bere gain hartzen duen entitateak ordainduko ditu sortzen diren gastuak. Halaber, aldean lan-kidetzak nola antolatuko den adieraziko da, eta entitateen legezko ordezkarien sinadura jarriko da.

b) Proiektua garatuko duten entitateek eskabidea batera aurkeztea; bakoitzaren partaidetza zehaztuko da eta legezko ordezkarien sinadura jarriko da. Halako kasuetan entitate parte-hartzaile bakoitzari emanen zaio dirua, bere partaidetzaren proportzioan; gastuen frogagrietan ordaintzaile gisa agertu beharko du entitateak.

##### 2.3. Epea.

Laguntzetarako eskaerak aurkezteko hilabeteko epea dago, deialdia Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik aitzina.

##### 2.4. Agiriak.

Eskabidea beteko da horretarako propio eraturako inprimakia betetz. Delako inprimakia eskura dago Turismoko Marketinaren Zerbitzuan eta Nafarroako Gobernuaren web orrian, helbide honetan: [www.navarra.es/home/es/Catalogo+de+servicios/Ayudas/](http://www.navarra.es/home/es/Catalogo+de+servicios/Ayudas/)

Eskabideari ondoko agiriak erantsiko zaizkio:

-Entitateari edo entitateei buruzko dokumentazioa.

▪ Identifikazio fiskaleko zenbakia.

▪ Turismoko erregistroan ageri diren datuak aldatu badira, ordezkaria nor den frogatzen duen ziurtagiria aurkeztu behar da. Mendekotasun organiko frogatu behar da, eta eskatzailea diru-laguntzaren jasotzaile izendatu.

▪ Erantzukizuneko aitortpena, norberak Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeko 13. artikuluan ezarritako debekuetatik bat bera ere ez duela agertzeko.

▪ Nafarroako Turismo Erregistroan inskribaturik dauden enpresa edo establezimendu elkartuen zerrenda.

-Proiektuari buruzko dokumentazioa.

▪ Proiektua azaltzeko memoria, ondokoak bilduko dituena: proiektua zein ekintzak osatzen duten eta non gauzatu den, gastuen aurrekontu zehatza, eta entitate eskatzaile bakoitzaren gastuen aurrekontua; adieraziko dira entitate bakoitzak bere gain hartzen dituen ekintzak, bai eta gastuetatik dagokion parte ere, kostua eta mota zehaztuta.

Turismoko dinamizazio eta informazio zerbitzua ezartzeko laguntzak eskatzen direnean ondokoak aurkeztu beharko dira: eragiketa plana, non zehatz azalduko baitira diru-laguntzaren bidez kontratatuko diren pertsonen eginkizunak; sinatutako kontratuaren kopia, ordainsariak, lokalaren deskripzioa eta kokapena, informazio gunearen funtzionamendu plana eta ekipamendua, etab. Oinarri hauetan adierazten den moduan, turismoko dinamizazio eta informazio gune hori Turismoko Marketinaren Zerbitzuak berriaz ezarritako jarraibideei lotuko zaie.

##### 3.-Tramitazioa.

Turismoko Marketinaren Zerbitzuak eskabideak aztertuko ditu eta aurkeztutako dokumentazioa osorik ez badago, interesdunari eskatuko dio akatsak zuzen ditzala hamar egun baldiduneko epean, errekerimendu hori jakinarazten zaionetik hasita; adieraziko zaio horrela egiten ez badu eskaerari uko egiten diola ulertuko dela.

Eskabideak aztertu ondoren, dirulaguntzen zenbatekoak zehaztuko dira, eta informazio hori Nafarroako Gobernuaren web orrian jarriko da 10 egunez. Hartara interesdunek laguntzen proposamenak aztertu eta eskaera bertan behera utzi nahi badute hala adierazi ahal izanen dute.

Epe hori bukatutakoan, Turismoko Marketinaren Zerbitzuak ebazpen proposamena egiten du, eta Turismo zuzendari nagusiak deialdia ebatziko. Ebazpena interesdunari jakinaraziko zaio, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legeak ezarritako moduan.

Eman beharreko laguntzen zenbatekoa aurrekontuko kredituak baino handiagoa bada, laguntzen hainbanatze lineala egiten da.

Deialdia ebatzeko hiru hilabeteko epea izanen da gehienez, eskabideak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo egunetik aitzina. Epe hori betetzen bada jakinarazpenik egin gabe, eskaera ez dela onartu ulertuko da.

##### 4.-Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak.

diru-laguntza jaso dezakete proiektuaren garapenarekin zuzeneko lotura duten kanpoko gastu guztiek, hots, hirugarrenek fakturatuek. Beraz, ez dute diru-laguntzarik jasoko barneko langileei dagozkien gastuek (turismoko dinamizazioa eta informazioa izan ezik) ezta entitatearen ohiko funtzionamenduko gastuek ere, ibilgetua amortizatzeko dotazioak barne (ez da gehikuntzarik aplikatuko barne kostu gisa).

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zenbatekoa kenduko da, jasanarazi behar den kasuetan.

##### 5.-Diru-laguntza onartzea eta ordaintzea.

Laguntzak onartzearekin batera %70eko aurrerakina ordainduko da. Aurrerakina 60.000 euro baino gehiagokoa denean, bermea ezarriko da. diru-laguntzaren xedea bete dela frogatzen duten agiriak 2008ko urriaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dituzte onuradunek. Gainera, gastuen eta diru-sarreraren zerrenda eta eginiko jardueren ordainagiriak ere eman beharko dituzte.

Baldin eta aurkeztutako dokumentazioak frogatzen badu proiektuaren %75 edo gehiago gauzatu dela, diru-laguntza zehaztuko da egiazki egindako gastuari egokitzeko; gelditzen dena ordainduko da eta aurrerakina ordaindutat joko da.

Baldin eta aurkeztutako dokumentazioak frogatzen badu proiektuaren %75 baino gutxiago gauzatu dela horretarako bidezko arrazoirik izan gabe, proiektuak kontzesiorako arrazoa galdu duela ulertuko da eta ofizios deuseztatuko da laguntza; ordaindutako aurrerakina itzultzeko eskaera tramitatuko da Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean ezarritako irarrituz, salbu eta burututako portzentajeak proiektuaren helburua aldarazten ez badu.

##### 6.-Onuradunen betebeharrak.

a) Egindako gastuak frogatzea deialdi honetan ezarri den epean. Hartara, Fakturazio betebeharrak buruzko Erregelamendua onesten duen maiatzaren 17ko 205/2004 Foru Dekretuan xedatutako eran luzatutako fakturak aurkeztu behar dira. Gainera, faktura horiek ordaindu izana frogatu behar da. Frogagiri horietan elkarren segidako zenbakiak jarri beharko dira eta, horiekin batera, Turismoko Marketinaren Zerbitzuak emandako inprimakia aurkeztu. Bertan dirulaguntzen xede diren proiektuak zehatz-mehatz identifikatuko dira.

b) diru-laguntzaren xede den jardueraren bidez izandako diru-sarrerak, beste entitate batzuei eskatutako diru-laguntzak eta azkenean emandako aitortzea, baita beste kontzeptu batzuegatiko diru-sarrerak ere, edo, hala denean, diru-sarrerarik eza.

c) diru-laguntzaren xede izandako gasturen bat 12.000 eurotik gorakoa denean, ekipamendu ondasunen horniduraren edo aholkularitza eta laguntza enpresen zerbitzuen kasuan, administrazio publiko ez diren onuradunek frogatu beharko dute hornitzailea eraginkortasun eta ekonomia irizpideei jarraituz hautatu dutela, gutxienez hiru aurrekontu eskatu ondoren.

d) Laguntzen xedeko jardueren memoria aurkeztea eta, hala dagozkionean, diruz lagundu den materialaren ale bat edo sortutako nahiz aldatutako web orriaren helbidea ematea. Betiere, diru-laguntza eskatzen duenaren erantzukizuna izanen da diru-laguntza jaso duten euskarrien bidez sustatzen diren turismoko establezimendu guztiak (erreserba bulegoa, web orria, argitalpenak, iragarkiak...) Turismo Erregistroan behar bezala izena emanik egotea eta argitaratzen diren datuak zuzenak izatea. Baldintza hori betetzen ez bada, emandako diru-laguntza kendu ahal izanen da.

Turismoko dinamizazio eta informazio zerbitzua ezartzen den kasuetan, Turismoko Marketinaren Zerbitzuak adierazten dituen txosten eta memoriak aurkeztuko dituzte onuradunek, eta Nafarroako Informazio Turistikoaren Sarean sartuko dira.

Turismoko azoka edo aurkezpenetan parte hartzen dutenek, berriz, zehatz azalduko dute zein pertsona edo enpresa joan diren entitatearen izenean, eta lan plana aurkeztuko dute. Laguntza teknikoaren fakturak, garrario txartelak eta ostatu eta jatetxeen fakturak aurkeztuko dira.

e) Laguntza jasotzen duen jardueraren inguruko informazio guztietan Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza duela azaltzea. Jarduera horretarako egiten diren euskarri guztietan Nafarroako marka turistikoak jarri behar da, Turismoko Marketinaren Zerbitzuak ezarritako irizpideei jarraituz.

f) Deialdi honen xede diren proiektuei lotutako euskarri eta argitalpenak, proiektuen atal direnak, Nafarroaren irudi sendo eta bakarra zabaltzeko asmoz Turismo Zuzendaritza Nagusiak ezarritako jarraibideei lotu behar zaizkie.

g) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean ezarritako gainerako betebeharrak.

h) Laguntzen deialdi honekin zerikusia duten eta Turismo Marketinaren Zerbitzura igortzen diren jakinarazpen edo/eta agiri guztiak zerbitzu horretara zuzendutako eskaera-orriaren bidez egin beharko dira eta erregistro publikoan aurkeztu.

i) Zerga arloko betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eguneratuak izatea.

7.–Emandako laguntzen publizitatea.

Deialdi hau aplikatuz ematen diren laguntzak eta onuradunen izenak Nafarroako Gobernuaren eta Vianako Printzea Erakunde-Kultura eta Turismo Departamentuaren web orrian eta departamentu horrek argitaratzen dituen turismoko aldizkarietan argitaratuko dira.

8.–diru-laguntza itzultzeko arrazoiak.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeko 35. artikuluan eta deialdi honetan ezarritako kasuetan, jasotako diru-laguntza osoa edo zati bat itzuli beharko da.

9.–Laguntzen bateragarritasuna.

Deialdi honen xede diren laguntzak bateragarriak dira beste administrazio publiko batzuek xede eta helburu bererako eman dezaketen beste edozein laguntzarekin, deialdi honetako 1.1.3 atalean elkarreentzat ezarritakoa deusestean galarazi gabe.

Onuradunak hartutako laguntzen zenbateko osoa jardueren kostua baino handiagoa bada, deialdi honetako laguntzak murriztu egingen dira jardueraren kostutik gorako zenbatekoan.

Dena den, deialdi honetan ezarritako laguntzak, programa europarrekin batera finantzatutakoak, ez dira bateragarriak beste administrazio publikoek (horiek ere programa europarrekin batera finantzatutakoak direnean) xede eta helburu bererako ematen ahal dituztenekin.

10.–Deialdi honen eta oinarri hauen kontrako errekurtsioak.

Espedientearen interesa dutenek, administrazio publiko ez badira, gora jotzeko errekurtsioa jartzen ahaliko dute Nafarroako Gobernuari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazpenaren ondoko egunetik aurrera. Administrazio publikoek, berriz, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jar dezakete, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Sailari zuzendua, bi hilabeteko epean, jakinarazpenaren ondoko egunetik aurrera. Halaber, Nafarroako Gobernuari zuzendutako errekerimendua egin daiteke alde aurretik, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan ezarritako moduan eta epean.

F0805410

**1220/2008 EBAZPENA, apirilaren 9koa, Enpresa zuzendari nagusiak emana, Interneteko banda zabaleko konexiorako diru-laguntzen 2008. urteko deialdia onesten duena.**

Nafarroako Gobernuaren lehenengo helburuetako bat informazioaren gizarteari loturiko funtsezko zerbitzuak eskuratzea da, Nafarroako Foru Komunitatean bizi den herritar batek ere ez ditzan murrizturik izan bere jarduteko aukerak eta gaitasuna, beste erkidego batzuetan edo gure Komunitateko beste eskualde batzuetan bizi diren herritarren aldean.

Zerbitzu horiek ematen dituzten kanaletako bat Internet da, eta berau eskuratzen lagunduz parean jar daitezke, alderdi askotan, gure lurraldeko toki urrunenetan bizi diren herritarrak eta zerbitzuak zuzenean eskuratzeke moduan diren munduko beste edozein tokitan bizi direnak.

Nafarroako Gobernuak 2008ko martxoaren 10ean hartutako Erabakiaren bidez, baimena eman zen Interneteko banda zabaleko konexiorako diru-laguntzak emateko banakako ebaluazio araubidean, azaroaren 9ko Dirulaguntzei buruzko 11/2005 Foru Legearen 17.1 artikuluan xedatutakoarekin bat.

Adierazitakoarekin bat, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 22.1 artikulua ematen dizkidan eskurantzak erabiliz,

EBATZI DUT:

1. Interneteko banda zabaleko konexiorako diru-laguntzen 2008. urteko deialdia onestea.

2. Diru-laguntza horiek emateko oinarriak onestea. Oinarri horiek ebazpen honen eranskinean ageri dira.

3. 599.960 euroko gastua baimentzea, ebazpen honetatik sortutako konpromisoetarako, 2008ko Gastuen Aurrekontuko 840002-81220-4809-467902 kontusailaren kontura ("Interneteko banda zabaleko konexioa sustatzeko laguntzak"). Deialdi honen ID diru-laguntzen biltokian 943 da.

4. Ebazpen hau eta bere eranskina Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

Ebazpen honek ez dio administrazio bideari amaiera ematen. Espedientearen interesa dutenek gora jotzeko errekurtsioa jar dezakete ebazpen honen kontra, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuko kontseilariari zuzendua, argitara eman eta biharamunetik hasita hilabeteko epean.

Iruñean, 2008ko apirilaren 9an.–Enpresa zuzendari nagusia, Be-goña Urien Angulo.

ERANSKINA

*Interneteko banda zabaleko konexiorako diru-laguntzen 2008. urteko deialdiaren oinarriak*

1. oinarria.–Xedea.

Oinarri hauen xedea da Nafarroako Foru Komunitateko herritarrendako Interneteko banda zabaleko konexiorako diru-laguntzak arautzea.

Diru-laguntza hauen xedea da Nafarroako herritarrei erraztasunak ematea informazioaren gizartearen zerbitzuak eskuratzeko.

2. oinarria.–Entitate laguntzaileak.

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuak lankidetzak hitzarmen bat izenpetuko du telekomunikazioetako operadoreekin, zeinek, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 10. artikuluan ezarrita dagoen moduan, diru-laguntza hauek kudeatzeko entitate laguntzaile gisa jardunen baitute, eta herritarrak izanen dira, berriz, aurreikusitako etekin ekonomikoaren hartzailak bakarrik.

Gaituriko telekomunikazio operadore guztiak askatasun osoz diru-laguntza hauen entitate laguntzaile bihurtu ahal dira, hala nahi badute eta hitzarmen hori izenpetzen badute, eta hala dela argitaratzen da deialdi honen bidez. Hitzarmena gehienez ere hilabeteko epean izenpetu beharko da diru-laguntzen deialdia Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik hasita.

3. oinarria.–Diru-laguntzen xede den jarduera eta zenbatekoa.

1. Baldintza hauek betetzen dituen jarduera izanen da diru-laguntzaren xede:

–Diruz lagundu beharreko jarduera Interneteko konexioa da, ADSL, modem kablea, edo irratia erabiliz, edo GPRS/UM/HSPDA bidezko tarifa finkoaren modalitateetako batez baliatuz.

–RTB edo aurreko paragrafoan ageri ez diren beste sistemen bidezko konexioetarako ez da diru-laguntzarik ematen.

–2008ko martxoaren 10etik abenduaren 31ra bitarte, biak barne, egindako konexioei ematen zaie diru-laguntza, edo diru-laguntzarako aurreikusi den aurrekontuko diru-kopurua amaitu arte, lehenago amaitzen bada.

–Etxebizitza bakoitzeko konexio bat baizik ez da diruz lagunduko.

–Onuradunak nahi duen operadorea hautatu ahaliko du bigarren oinarriak aipatzen duen lankidetzak hitzarmena izenpetzen dutenen artean.

2. Diru-laguntzaren zenbatekoa 40 eurokoa izanen da, BEZ barne. Zenbateko hori onuradunek kontratatutako telefonoako operadoreari eginiko lehen ordainketei kenduko zaie, diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa osatu arte, kontzeptu hauengatik:

–Konexioaren altaren kuota.

–Instalazio kuota.

–Kasuan kasuko modemaren edo egokitzailearen kostua.

–Hileko kuota.

Diru-laguntza hau berezia izanen da eta enpresa operadoreen beste eskaintza batzuei gehitu ahaliko zaizkie, adibidez, doako altaren kuota eta modemen gainekoei.

4. oinarria.–Onuradunak.

Onuraduna izateko, beharkizun hauek bete beharko dira:

–Pertsona fisikoa izatea.

–ADSL, modem kablea, edo irratia erabiliz, edo GPRS/UM/HSPDA bidezko tarifa finkoaren modalitateetako batez baliatuz, alta eskatzeko Interneteko konexioan, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuarekin bigarren oinarriari aipatzen den hitzarmena izenpetu duten operadoreetako edozeinekin kontratua eginez.

–Aurreko puntuan aipatzen den alta kontratatzekeo helbideak, eta operadoreak deskontuak barne hartzen dituzten fakturak igortzekoak, Nafarroako Foru Komunitatean egon beharko du.

5. oinarria.–Diru-laguntzak emateko irizpide objektiboak

Diru-laguntza hau banakako ebaluazioaren bidez ematen da. Beraz, eskaerak aurkeztu ziren ordenari jarraikiz tramitatu eta ebatziko dira, aurrekontuetan horretarako kreditua den bitartean.

Esandakoari dagokionez, aurkezteko ordena izanen da lankidetzak hitzarmena izenpetzen duen operadore bakoitzak ezarritako prozeduren bidez zerbitzua kontratatzekeo datari dagokiona.

6. oinarria.–Diru-laguntza emateko prozedura.

Diru-laguntzak emateko prozedura hauxe izanen da:

1. Interesdunek zerbitzuaren kontratazioa eskatuko dute Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuarekin lankidetzaz hitzarmena izenpetzen duen operadore bakoitzak ezarritako prozeduren bidez. Operadoreek kontratazioarako bide eskusiboak ezarri ahal izanen dituzte, deialdi honek aipatzen dituen deskontuak aplikatzeko, betiere behar bezala iragartzen badituzte. Diru-laguntzaren eskaera une horretan aurkeztu dela ulertuko da, tramitera onartzeko beste agiririk aurkeztu beharrik gabe.

Eskaerak berarekin dakar onuradunak baimena ematea zerbitzurako kontratatu duen operadoreak Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuari diru-laguntza kudeatzeko behar diren datu pertsonalak jakinarazteko: izen-abizenak, NANA, telefono zenbakia, helbidea, herria, posta kodea eta zerbitzua eskatu zen eguna.

Eskabide honekin batera emandako datuen tratamendua Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta aplikatzekoak diren gainerako legeetan xedatutakoari lotuko zaio. Datuak sartzeko, zuzentzeko eta ezabatze prozedurak Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuan egiten dira, betiere aipatutako legeriari jarraikiz.

2. Operadoreak jarduketa hauek egiten ditu:

–Eskatzaileak oinarri hauetan diru-laguntzaren onuraduna izateko zehazten diren baldintzak betetzen dituela egiaztatzea.

–Instalazioa egin dela egiaztatzeko aldez aurretik behar diren jarduketak egitea.

–Onuradunari diru-laguntzaren zenbatekoa adinako deskontua aplikatzea (40 euro) dagokion fakturan (edo fakturretan), kontzeptu independente gisa adierazita, "Nafarroako Gobernuaren laguntzarako kanpaina interneteko konexiorako" izenarekin, eta aipatutako zenbatekoarekin.

Diru-laguntza honi dagokion deskontua gehienez ere hiru hilabeteko epean egin beharko da zerbitzuan alta ematen den egunetik.

–Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuari hileroko jakinarazte zerbitzua/produktua eskatu dutenei diru-laguntzaren zenbatekoarekin aplikatu dizkien deskontuen zerrenda. Horretarako erabili den prozedurak aukera eman du operadoreak arreta orokorrerako duen plataformaz baliatzeko, berez dituen abantailekin, bai eta laguntzen irizpideekin bat datorren fakturazio berezia aplikatzeko ere.

Operadoreak berak egiten du jakinarazpen hori, zein den ere telefoniako operadorearen taldearen barruan zerbitzua/produktua hornitzen duen enpresa.

3. Enpresa zuzendari nagusiak, operadore bakoitzaren hileko jakinarazpenak ikusirik, ebazpen bidez onetsiko du onuradunari diru-laguntza ematea eta operadoreei ordainduko dizkie egindako deskontuei dagozkien diru kopuruak. Ebazpen hau Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren web orrian argitaratuz jakinaraziko da.

Banakako ebaluazioaren araubidean emandako diru-laguntza denez, aurrekontuko dirua amaitzen bada, Enpresa zuzendari nagusiak ebazpen bat eman du deialdia amaitutzat emateko. Ebazpena Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren web orrian argitaratuko da, eta hitzarmena izenpetu duten operadoreei igorriko zaie, behar diren ondorioak izan ditzan.

7. oinarria.–Onuradunaren betebeharrak eta haiek ez betetzearen ondorioak.

Diru-laguntzaren onuradunek, Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 9. artikuluan ezarritako betebeharrak orokorrez gain, betebeharrak berriazko hauek ere bete beharko dituzte:

1. Zerbitzuan sartzeko erabiltzaile izena eta pasa-hitz pertsonal bat beharko dira. Datu horiek eskualdaezinak dira. Bere pasa-hitza isilpean gordetzeko ardua erabiltzailearena da.

2. Sarbide gakoa galdu edo lapurtuz gero, erabiltzaileak horren berri emanen dio zerbitzuaren hornitzaileari ahalik eta azkarren, baimendu gabekorik sar ez dadin; erabiltzailearen kargura izanen dira ordura arte bere kontuari aplikatu ahal zaizkion kontsumoak eta erabilerak.

3. Laguntzen hartzaileek modu egokian erabili beharko dute zerbitzua. Erabilera desegokia da sarbide mailak hausteko ahalegina egitea, datuak modu okerrean manipulatzeko, mezuen bidalketa masibo eta indiskriminatua, jabetza intelektualak edo bestelako legezko eskubideek babestutako datuak edo informazioak kopiatu edo esportatzea eta legez kanpoko beste edozein erabilera.

Diru-laguntzak emateko ebazpenetan, oinarri hauetan edo Dirulaguntzei buruzko Foru Legean ezarritako betebeharrak betetzen ez bada, onarturiko diru-laguntza itzuli egin beharko da, foru lege hartako 35. artikuluan xedaturikoarekin bat.

Halaber, eginbeharren bat hein batean ez betetzeak emaniko diru-laguntzaren zatia, kasuan kasukoa, itzuli beharra ekar dezake.

8. oinarria.–Dirulaguntzen bateragarritasuna.

Deialdi honen diru-laguntzak bateragarriak dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, beste administrazio publiko batzuek, beste erakunde publiko nahiz pribatuek edo Espainiako nahiz atzerriko partikularrek emandako beste laguntza batzuekin.

Diru-laguntza hau berezia izanen da eta enpresa operadoreen beste eskaintza batzuei gehitu ahalko zaizkie, adibidez, doako altaren kuota eta modemen gaineko.

9. oinarria.–Oinarrien aurkako errekurtsoa.

Oinarri hauen aurka gora jotzeko errekurtsoa jar dezakete interesdunek, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariari zuzendua, argitaratu eta biharamunetik hilabeteko epean.

10. oinarria.–Emandako dirulaguntzen publizitatea.

Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 15. artikuluan xedatutakoarekin bat, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Zerbitzuak Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren web orrian jendaurrean jarriko ditu emandako diru-laguntzak, ondokoak zehaztuta: deialdia, laguntza aurrekontuko zein programari eta kredituri egotziko zaie, onuradunak, emandako diru kopurua eta diru-laguntzaren helburua.

F0805694

### 1.3.6. Beste batzuk

**85/2008 EBAZPENA, martxoaren 27koa, Ikuskapenaren eta Zerbitzuen zuzendari nagusiak emana, Iruñeko "Ursulinas" ikastetxe pribatuaren baimena aldatzen duena, titulartasuna aldatzea-gatik.**

Espedientea instruitu da, Pilar Martínez Martínezek, "Ursulinas de Jesús" kongregazioaren izenean, entitate lagatzailea baita, eta José Garcés Tapiak, "Aoiç Uno" kooperatibaren izenean, entitate lagapen-hartzailea baita, ikastetxearen titulartasuna aldatzeko aurkeztu duten baimen eskaera dela-eta.

Uztailaren 6ko 251/1992 Foru Dekretuak araubide orokorreko irakaskuntza ez-unibertsitarioak Nafarroako Foru Komunitatean emateko baimena izateko prozedura ezartzen du.

Horrenbestez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 22.1 d) artikulua eman dizkidan ahalmenak erabiliz, eta Ikastetxeen, Ikasketetarako Laguntzen eta Azterlan Ekonomikoen Zerbitzuak proposaturik,

EBATZI DUT:

1. Iruñeko "Ursulinas" ikastetxe pribatuaren (ikastetxearen kodea: 31004974) baimena aldatzea, titulartasuna aldatzeagatik: "Ursulinas de Jesús" kongregazioak ikastetxearen titular izateari utzi, eta "Aoiç Uno" kooperatiba izanen da titular berria, 2008ko irailaren 1etik aurrera.

2. Titular berriak subrogatuak izanen ditu indarra duen legerian ezarritako eskubide, betebeharrak eta kargak, ikastetxeak bere gain hartuak, eta, bereziki, ikastetxe itundua izatetik datozkionak.

3. Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa jar daiteke, Hezkuntza Departamentuko kontseilariari zuzendua, jakinarazi eta, biharamunetik, hilabeteko epean.

4. Ebazpen hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da.

5. Ebazpen hau igortzea ikastetxearen titularrei (zaharrari eta berriari), Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuari, Ikastetxeen eta Ikasketetarako Laguntzen Zerbitzuari, Ikastetxeen eta haien Finantzaketaren Atalari, Informazioa Kudeatzeko Bulegoari, Hezkuntza Itunen Bulegoari, Itunpeko eta Diruz Lagundutako Ikastetxeen Nomina Bulegoari, Kudeaketa Ekonomikoaren Bulegoari eta Ikastetxeak Baimendu eta Erregistratzeko Bulegoari.

Iruñean, 2008ko martxoaren 27an.–Ikuskapenaren eta Zerbitzuen zuzendari nagusia, Francisco Javier Esparza Sánchez.

F0804958

**614/2008 EBAZPENA, martxoaren 26koa, Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiak emana, Antonio Iriarte Esparza jaunak Kasedako udal mugapean (San Isidro del Pinar) sustatu duen zeri gizendegiari Ingurumen baimen integratua eman eta proiektu horrek ingurumenean duen eragina adierazten duena.**

Instalazio hori Kutsaduraren aurkako aurreneurri eta kontrol integratuei buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen I. eranskineko 9.3.b) epigrafean jasota dago, "Hegaztien edo zerrien hazkuntza intentsiborako instalazioak, 30 kg-tik gorako gizentzeko zerrientzat 2.000 toki baino gehiago dituztenak" izenean. Horren ondorioz, Ingurumen baimen integratuaren araubidearen menpe dago.

Era berean, Ingurumena babesteko esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legearen 2B eranskineko 9.1 c) epigrafean dago jasota, "Hegaztien edo behi nahiz zeri aziendaren hazkuntza intentsiborako instalazioak, 30 kg-tik gorako hazteko zerrientzat 2.000 toki

baino gehiago dituztenak" izenekoan. Horren ondorioz, Ingurumen baimen integratuaren araubidearen menpe dago.

Bestaldetik, instalazioa sarturik dago ingurumenaren gaineko eraginarenean ebaluazioari buruzko ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintzako Errege Dekretua aldatzen duen maiatzaren 8ko 6/2001 Legearen I. eranskineko 1. taldeko e) atalean.

Ingurumena babesteko esku hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Legean xedaturikoarekin bat tramitatu da espediente, eta halaxe eman zaio adostasun txostena. Ingurumen baimen integratua emateko prozesuan sartu dira martxoaren 8ko 6/2001 Legean aurreikusitako diren ingurumen ebaluazioaren arloko jarduketak. Lege horren bidez ingurumen eraginaren ebaluazioari buruzko ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintzako Errege Dekretua aldatu zen.

Ebazpen honen IV. eranskinean, orain arte egin den tramitazio administratiboaren laburpena ageri da. V. eranskinak, berriz, jendaurrean egoteko aldiak aurkeztutako alegazioak eta bakoitzari eman zaion erantzuna biltzen ditu.

Ingurumena babesteko esku hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legearen bidez eskuratu ditudan ahalmenak erabiliz,

#### AGINDU DUT:

1. Ingurumen baimen integratua ematea Kasedako 52. poligonoko 24. eta 21. lurzatietan (San Isidro del Pinar) dagoen zerri gizendegiari. Ustiategi horren titularrak Antonio Iriarte Esparza da.

2. Instalazio proiektuak ingurumenean duen eragina adieraztea. Proiektua bideragarritzat jotzen da ingurumenaren arlotik.

3. Instalazio horri lurzoru inguruzazteazinean aritzeko baimena ematea, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legean xedaturikoaren arabera.

4. Jarduera Ingurumen baimen integratua eskatzeko oinarritzko proiektuan eta 0005/06 (AAI) espediente administratiboko agiri osagarrietan aipatzen diren baldintzei jarraituz garatzea eta betiere ebazpen honen II. eta III. eranskinetan aipatzen diren neurriak betetz.

5. Ingurumen baimen integratuak zortzi urteko indarraldia du. Iraungi baino gutxienez ere hamar hilabete lehenago, titularrak baimena berritzeko eskatu beharko du, Ingurumena babesteko esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legea garatzeko Erregelamenduaren 30. artikuluko administrazio prozedurarekin bat. Erregelamendu hori abenduaren 28ko 93/2006 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen.

6. Jarduera edonola ere aldatzeko, titularrak aldeztu aurretik Ingurumenaren eta Uraren Zuzendaritza Nagusiari jakinarazi beharko dio. Arrazoiak emanda, adierazi beharko du aldaketa funtsezkoa den ala ez, Ingurumena babesteko esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritakoaren arabera.

7. Instalazioa Nafarroako Hondakin Arriskugarrien Sortzaile Txikien Erregistroan inskribatzea PP/1722/NA/2007 zenbakiarekin, 312/1993 Foru Dekretuan ezarritakoarekin bat. Hondakin arriskugarriak sortzen dituen jarduera A102 (3) da (zerri ustiategi), Hondakin toxiko eta arriskugarriak buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarritzko Legea betearazteko Erregelamenduaren I. eranskineko 6. taularen arabera. Erregelamendu hori uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen. Sortzen ahal diren hondakin arriskugarriak Ingurumen baimen integratuaren III. eranskinean ageri dira. Hondakin arriskugarriak sortzean egiten diren aldaketak jakinarazi egin beharko dira, erregistrazteko eta, bidezkoa bada, aipatu III. eranskinean sartzeko.

8. Nekazaritzako instalazio horretan simaurrak sortu eta kudeatzeko plana onetsi da (IV. eranskina).

9. Ebazpen hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

10. Adieraztea ebazpen honek ez duela administrazio bidea agortzen eta espedientearen interesa dutenek, administrazio publikoek izan ezik, horren kontra gora jotzeko errekurtsioa jartzen ahal dutela, Nafarroako Gobernuari zuzendua, hilabeteko epean.

Administrazio publikoek zilegi dute administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jartzea, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, bi hilabeteko epean. Horrek ez du alde batera uzten Nafarroako Gobernuan aldeztu aurreko errekerimendua egin ahal izatea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan ezarritako moduan eta epean.

Epe horiek ebazpen honen jakinarazpena egin edo, bestela, Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta bihamunetik aurrera hasiko dira kontatzen.

11. Ebazpen hau jakinaraztea Antonio Iriarte Esparzari, Kasedako Udalarari eta Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuari eta Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzuari, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2008ko martxoaren 26an.-Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusia, Andrés Eciolaza Carballo.

F0804993

#### **668/2008 EBAZPENA, martxoaren 31koa, Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiak emana, Ingurumen baimen integratua ematen duena Biurrun-Arrizabalagako udal mugapeko irin fabrika baterako. Jardueraren titularrak Guria, S.A. da.**

2006ko azaroaren 8an, Guria, S.A.k Ingurumen baimen integratua eskatu zion Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari, Biurrun-Arrizabalagan duen instalazio industrialerako.

Eginda dagoen instalazio hori Kutsaduraren aurkako aurreneurri eta kontrol integratuei buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Foru Legearen I. eranskineko 9.1.b.2) epigrafean dago jasota, "Nekazaritzako Elikagai Industrien eta Nekazaritzako Ustiategiak. Landareetatik ateratako lehengaiak tratatuz eta eraldatuz elikagaiak fabrikatzen dituzten instalazioak, produktu bukatuak ekoizteko ahalmena egunean 300 tonatik gorakoa badute (hiru hilabeteko batez besteko balioa)" izenekoan. Horren ondorioz, Ingurumen baimen integratuaren araubidearen menpe dago.

Era berean, Ingurumena babesteko esku hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legearen 2A eranskineko 2. epigrafean dago jasota, hots, "Animalia eta landare produktuak ontziratzeko industria instalazioak. Animalietatik ateratako lehengaiak, esnea izan ezik, erabiltzen dituzten instalazioak, produktu bukatuak ekoizteko ahalmena egunean 75 tonatik gorakoa badute; edo landareetatik ateratako lehengaiak erabiltzen dituztenak, produktu bukatuak ekoizteko ahalmena egunean 300 tonatik gorakoa badute (hiru hilabeteko batez besteko balioak)" izenekoan. Horren ondorioz, Ingurumen baimen integratuaren araubidearen menpe dago.

Aurkeztutako proiektuaren arabera, oraingo instalazioa handituko da, eta horrek aldaketa nabarmena ekarriko du, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 10. artikuluko irizpideen arabera.

Ingurumen baimen integratuan ageri den handitzearen ondorioz emisioak eta natur baliabideen erabilera nabarmen handituko ez direnez, 4/2005 Foru Legearen 3.D eranskinarekin bat, Ingurumen Departamentuak erabaki du proiektuak ez duela Ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluaziorik behar (2007ko 4. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA, urtarrilaren 8koa).

Baimen honen barnean dago isurketak Tiebas ibaira botatzeko baimena, Uren Legearen testuategina onesten duen uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuko hamargarren xedapen gehigarriarekin bat; horri begira, Ebroko Ur Konfederazioak egindako txostenean edukia erantsi da.

Industria establezimendua ez dago ekainaren 16ko 1254/1999 Errege Dekretuaren aplikazio eremuan. Dekretu horrek istripu larriek sortzen dituzten arriskuak kontrolatzeko neurriak onetsi zituen, gai arriskugarriak tarteko diren kasuetarako.

Egin den tramitazio administratiboaren laburpena ageri da foru agindu honen V. eranskinean. Instalazioaren titularrak Ingurumen baimen integratuaren proposamenaren aurkako alegazioak aurkeztu ditu interesdunaren entzundaldian. IV. eranskinean aurkeztutako alegazioak jaso dira.

Ingurumen arloko eskumenak Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiari, Biodibertsitatea Zaintzeko Zerbitzuko zuzendariari eta Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuko zuzendariari eskuordetzen dizkien urriaren 10eko 426/2007 Foru Dekretuaren bidez eskuratu ditudan ahalmenak erabiliz,

#### AGINDU DUT:

1. Ingurumen baimen integratua ematea Biurrun-Arrizabalagako udal mugapeko irin fabrika baterako. Jardueraren titularrak Guria, S.A. da.

2. Jarduera hori Ingurumen baimen integratuaren eskaeraren oinarritzko proiektuan eta 936/06 espediente administratiboko gainerako agiritan aipatzen diren baldintzei jarraituz garatu beharko da, betiere foru agindu honen II., III. eta IV. eranskinetako neurriak betetz.

3. Ingurumen baimen integratuak zortzi urteko indarraldia du. Iraungi baino gutxienez ere hamar hilabete lehenago, titularrak baimena berritzeko eskatu beharko du, Ingurumena babesteko esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legea garatzeko Erregelamenduaren 30. artikuluan xedaturikoarekin bat. Erregelamendu hori abenduaren 28ko 93/2006 Foru Dekretuak onetsi zuen.

4. Ebroko Ur Konfederazioak Ingurumen baimen integratua aldatzeko prozedurari ekiteko eskatzen ahal du txosten baten bidez, legetan aipatzen diren kasuetan (uztailaren 1eko 16/2002 Legeko 26. artikulua eta uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren 104. artikulua). Halaber, hondakin urak isurtzeko ezarritako baldintzak behin eta berriro bete ezik, isurtzeko baimena kentzeko arrazoiak izan da, Ur Jabari Publikoari buruzko Erregelamenduaren 263. eta 264. artikuluetan ezarritako prozedurarekin bat.

5. Jarduera edonola ere aldatzeko, titularrak aldeztu aurretik Ingurumenaren eta Uraren Zuzendaritza Nagusiari jakinarazi beharko dio. Arrazoiak emanda, adierazi beharko du aldaketa funtsezkoa den edo

ez, Ingurumena babesteko esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritakoaren arabera.

6. Nafarroako Hondakin Toxiko eta Arriskugarrien Sortzaile Txikien Erregistroan duen inskripzioa bere horretan uztea, PP/680/NA/2005 zenbakia hain zuzen, urriaren 13ko 312/1993 Foru Dekretuan xedatutakoarekin bat. Hondakin arriskugarriak sortzen dituen jarduera A110 da, hots, nekazaritzako elikagaien industria, animalia eta landare produktuak, hondakin toxiko eta arriskugarriei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko Erregelamenduaren I. eranskineko 6. taularen arabera. Erregelamendu hori uztailearen 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen. Sortzen diren hondakin arriskugarriak Ingurumen baimen integratuaren III. eranskinean ageri dira.

7. Hondakin arriskutsuak ahalik eta gehien gutxitzeko plana onestea, ekainaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat. Planeko neurriak titularrak aurkeztutako dokumentazioan sartu dira.

8. 2008ko apirilaren 30 baino lehenago, titularrak eginda dauden instalazioak hein batean irekitzeko baimena eskatu beharko du. Hein batean irekitzeko baimena eta irekitzeko azken baimena, handitzea gauzatzen denean eta neurri zuzentzaileak hartzen direnean, ondo koetan xedatutakoari jarraikiz eskatu beharko dira: 4/2005 Foru Legea garatzeko Erregelamenduaren 40. artikulua eta foru agindu honen II. eranskinean ezartzen diren baldintzak. Aipatutako erregelamendua abenduaren 28ko 93/2006 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen.

9. Departamentu honek araudi sektorial aplikagarriaren ondorioz baimen honen xede den jarduera edo instalazioari emandako baimenak eta gainerako administrazio egintzak indarrik gabe uztea, betiere foru agindu honetan haiei buruz espresuki egindako adierazpena badago.

10. Foru agindu hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ematea.

11. Adieraztea foru agindu honek ez duela administrazio bidea agortzen eta espedientearen interesa dutenek, administrazio publikoak izan ezik, haren kontra gora jotzeko errekurtsioa jartzen ahal dutela, Nafarroako Gobernuari zuzendua, hilabeteko epean.

12. Administrazio publikoek zilegi dute administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jartzea, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, bi hilabeteko epean. Horrek ez du alde batera uzten Nafarroako Gobernuan alde aurreko errekerimendua egin ahal izatea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailearen 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan ezarritako moduan eta epean.

13. Epe horiek foru agindu honen jakinarazpena egin edo, bestela, Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik aurrera hasiko dira kontatzen.

14. Foru agindu hau jakinaraztea Guria, S.A.ri, Biurrun-Arrizabala-lagako Udalarari, Ebroko Ur Konfederazioari, Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuari eta Nafarroako Larrialdietako Agentziako Herri Babeserako Zuzendaritzari, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2008ko martxoaren 31n.-Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusia, Andrés Eciolaza Carballo.

Oharra: Ebazpen honetan aipatzen diren eranskinak interesdunen eskura daude, Ingurumenaren eta Uraren Zuzendaritza Nagusiaren bulegoetan, Iruñeko Armada etorbideko 2ko behean (8. solairua, Ingurumenaren Integratioko Zerbitzua) eta Nafarroako Gobernuko web atarian, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren sailean, "Ingurumen baimenak" kontsultan atalean.

F0804972

**669/2008 EBAZPENEA, martxoaren 31koa, Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiak emana, Ingurumen baimen integratua ematen duena Bargotako udal mugapeko zerri ustiategi baterako (zerri haztegi mistoa, ugalketarako zerramak, eta 20 kg-ko zerrikumeak hazi eta 100 kg arteko gizentzea). Jardueraren titularrak Kaldias Etxaldea da.**

Eginda dagoen instalazio hori Kutsaduraren aurkako aurreneurri eta kontrol integratuei buruzko uztailearen 1eko 16/2002 Legearen I. eranskineko 9.3.d) epigrafean jasota dago eta, horrenbestez, Ingurumen baimen integratuaren araubidearen menpe dago.

Halaber, instalazioa Ingurumena babesteko esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legearen 2B eranskineko 9.1.e) epigrafean jasota dago, "Zerri ustiategi mistoak, c) eta d) ataletan azaltzen diren kokalekuen proportzioaren parekoak" izenekoa. Abenduaren 28ko 93/2006 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Erregelamenduaren

arabera, 2B eranskineko 9.1.e) epigrafean sartuta dago, "Zerri ustiategi mistoak, hasierako gizendegia barne, azienda larriko 240 unitate baliokidetik gorako edukiera badute" izenekoa. Horren ondorioz, Ingurumen baimen integratuaren araubidearen menpe dago.

Espedientearen Ingurumena babesteko esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legean adierazitakoari jarraikiz tramitatu da, bertan agindutako txostenak prestatuak.

Egin den tramitazio administratioboaren laburpena ebazpen honen V. eranskinean dago.

Ingurumenaren arloko eskumenak Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiari, Biodibertsitatea Zaintzeko Zerbitzuko zuzendariari eta Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuko zuzendariari eskuordetzen dizkien urriaren 10eko 426/2007 Foru Aginduaren bidez eskuratu titudan ahalmenak erabiliz,

#### EBATZI DUT:

1. Ingurumen baimen integratua ematea Bargotako udal mugapeko 2. poligonoko 934. eta 2696. lurzatieta dagoen zerri ustiategi mistorako (ugalketarako zerramak) eta 2. poligonoko 2948. lurzatioko ustiategiarako (gizendegia). Jardueraren titularrak Kaldias Etxaldea da.

2. Instalazio horri lurzoru urbanizaezinean aritzeko baimena ematea, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 28ko 35/2002 Foru Legean xedaturikoaren arabera.

3. Jarduera hori Ingurumen baimen integratuaren eskaeraren oinarrizko proiektuan eta 13/07 (AAI) espediente administratioboko gainerrako agiritan aipatzen diren baldintzei jarraikiz garatu beharko da, betiere ebazpen honen II., III. eta IV. eranskinetako neurriak betez.

4. Ingurumen baimen integratuak zortzi urteko indarraldia du. Iraungi baino gutxienez ere hamar hilabete lehenago, titularrak baimena berritzeko eskatu beharko du, Ingurumena babesteko esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legea garatzeko Erregelamenduaren 30. artikuluan xedatutakoarekin bat. Erregelamendu hori abenduaren 28ko 93/2006 Foru Dekretuak onetsi zuen.

5. Jarduera edonola ere aldatzeko, titularrak alde aurretik Ingurumen Zuzendaritza Nagusiari jakinarazi beharko dio. Arrazoiak emanda, adierazi beharko du aldaketa funtsezkoa, nabarmena edo garrantzirik gabea den, Ingurumena babesteko esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legea garatzeko Erregelamenduan xedatutakoarekin bat.

6. Instalazioa Nafarroako Hondakin Arriskugarrien Sortzaile Txikien Erregistroan inskribatzea PP/1781/NA/2007 zenbakiarekin, 312/1993 Foru Dekretuan ezarritakoarekin bat. Hondakin arriskugarriak sortzen dituen jarduera A102 (3) da (zerri ustiategi), Hondakin toxiko eta arriskugarriei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko Erregelamenduaren I. eranskineko 6. taularen arabera. Erregelamendu hori uztailearen 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen. Sortzen ahal diren hondakin arriskugarriak Ingurumen baimen integratuaren III. eranskinean ageri dira.

7. Abeltzaintzako instalazio horretan simaurrak sortu eta kudeatzeko plana onetsi da, IV. eranskinean azaltzen dena.

8. 2008ko maiatzaren 1a baino lehen, titularrak irekitzeko baimena eskatu beharko du, martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legea garatzeko Erregelamenduaren 40. artikuluan eta ebazpen honen II. eranskinean ezartzen diren baldintzetan xedatutakoarekin bat. Aipatutako erregelamendua abenduaren 28ko 93/2006 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen.

9. Departamentu honek araudi sektorial aplikagarriaren ondorioz baimenaren xede den jarduera edo instalaziorako emandako baimenak eta gainerako administrazio egintzak indarrik gabe uztea, betiere ebazpen honetan haiei buruz espresuki egindako adierazpena badago.

10. Ebazpen hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

11. Adieraztea ebazpen honek ez duela administrazio bidea agortzen eta espedientearen interesa dutenek, administrazio publikoek izan ezik, horren kontra gora jotzeko errekurtsioa jartzen ahal dutela, Nafarroako Gobernuari zuzendua, hilabeteko epean.

Administrazio publikoek zilegi dute administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jartzea, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, bi hilabeteko epean. Horrek ez du alde batera uzten Nafarroako Gobernuan alde aurreko errekerimendua egin ahal izatea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailearen 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan ezarritako moduan eta epean.

Epe horiek ebazpen honen jakinarazpena egin edo, bestela, Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik aurrera hasiko dira kontatzen.

12. Ebazpen hau jakinaraztea Kaldias Etxaldeari, Bargotako Udalarari eta Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuari eta Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzuari, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2008ko martxoaren 31n.-Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusia, Andrés Eciolaza Carballo.

Oharra: Ebazpen honetan aipatzen diren eranskinak interesdunen eskura daude, Ingurumenaren eta Uraren Zuzendaritza Nagusiaren bulegoetan, Iruñeko Armada etorbideko 2ko behean (8. solairua, Ingurumenaren Integrazioko Zerbitzua) eta Nafarroako Gobernuaren web atarian, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren sailean, "Ingurumen baimenak" kontsulten atalean.

F0804969

**670/2008 EBAZPENA, martxoaren 31koa, Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiak emana, Ingurumen baimen integratua ematen duena Caparrosoko udal mugapeko zerri ustiategi baten jarduerarako (gizendegia). Jardueraren titularrak David Fuente Aranaz da.**

Eginda dagoen instalazio hori Kutsaduraren aurkako aurreneurri eta kontrol integratuei buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen I. eranskineko 9.3.b) epigrafean jasota dago, "Hegaztien edo zerrien hazkuntza intentsiborako instalazioak, 30 kg-tik gorako gizontzeko zerrirentzat 2.000 toki baino gehiago dituztenak" izenekoan. Horren ondorioz, Ingurumen baimen integratuaren araubidearen menpe dago.

Halaber, instalazio hori Ingurumena babesteko esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legearen 2B eranskineko 9.1 c) epigrafean dago jasota, "Hegaztien edo behi nahiz zerri aziendaren hazkuntza intentsiborako instalazioak, 30 kg-tik gorako hazteko zerrirentzat 2.000 toki baino gehiago dituztenak" izenekoan. Horren ondorioz, Ingurumen baimen integratuaren araubidearen menpe dago.

Espedientea Ingurumena babesteko esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legean adierazitakoari jarraikiz tramitatu da, bertan agindutako txostenak prestatuak.

Egin den tramitazio administratiboaren laburpena ebazpen honen V. eranskinean dago.

Ingurumenaren arloko eskumenak Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiari, Biodibertsitatea Zaintzeko Zerbitzuko zuzendariari eta Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuko zuzendariari eskuordetzen dizkien urriaren 10eko 426/2007 Foru Aginduaren bidez eskuratu ditudan ahalmenak erabiliz,

#### EBATZI DUT:

1. Ingurumen baimen integratua ematea Caparrosoko udal mugapean, 4. poligonoko 258. lurzatian, dagoen zerri ustiategi baterako. Ustiategiaren titularrak David Fuente Aranaz da.

2. Instalazio horri lurzoru urbanizazinean aritzeko baimena ematea, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legean xedaturikoaren arabera.

3. Jarduera hori Ingurumen baimen integratuaren eskaeraren oinarritzko proiektuan eta 1052/06 (AAI) espediente administratiboko gainerako agiritan aipatzen diren baldintzei jarraikiz garatu beharko da, betiere ebazpen honen II., III. eta IV. eranskinetako neurriak betez.

4. Ingurumen baimen integratuak zortzi urteko indarraldia du. Iraungi baino gutxienez ere hamar hilabete lehenago, titularrak baimena berritzeko eskatu beharko du, Ingurumena babesteko esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legea garatzeko Erregelamenduen 30. artikuluan xedatutakoarekin bat. Erregelamendu hori abenduaren 28ko 93/2006 Foru Dekretuak onetsi zuen.

5. Jarduera edonola ere aldatzeko, titularrak alde aurretik Ingurumenaren eta Uraren Zuzendaritza Nagusiari jakinarazi beharko dio. Arrazoiak emanda, adierazi beharko du aldageta funtsezkoa, nabarmena edo garrantzirik gabea den, Ingurumena babesteko esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legea garatzeko Erregelamenduan xedatutakoarekin bat.

6. Instalazioa Nafarroako Hondakin Arriskugarrien Sortzaile Txikien Erregistroan inskribatzea PP/1780/NA/2007 zenbakiarekin, 312/1993 Foru Dekretuan ezarritakoarekin bat. Hondakin arriskugarriak sortzen dituen jardura A102 (3) da (zerri ustiategiak), Hondakin toxiko eta arriskugarriak buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarritzko Legea betearazteko Erregelamenduen I. eranskineko 6. taularen arabera.

Erregelamendu hori uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen. Sortzen ahal diren hondakin arriskugarriak Ingurumen baimen integratuaren III. eranskinean ageri dira. Hondakin arriskugarriak sortzean egiten diren aldagetak jakinarazi egin beharko dira, erregratzeak eta, bidezkoa bada, aipatu III. eranskinean sartzeko.

7. Abeltzaintzako instalazio horretan simaurrak sortu eta kudeatzeko plana onetsi da, IV. eranskinean azaltzen dena.

8. 2008ko maiatzaren 1a baino lehen, titularrak irekitzeko baimena eskatu beharko du, martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legea garatzeko Erregelamenduen 40. artikuluan eta ebazpen honen II. eranskinean ezartzen diren baldintzetan xedatutakoarekin bat. Aipatutako erregelamendua abenduaren 28ko 93/2006 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen.

9. Departamentu honek araudi sektorial aplikagarriaren ondorioz baimenaren xede den jarduera edo instalaziorako emandako baimenak eta gainerako administrazio egintzak indarririk gabe uztea, betiere ebazpen honetan haiei buruz espresuki egindako adierazpena badago.

10. Ebazpen hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

11. Adieraztea ebazpen honek ez duela administrazio bidea agortzen eta espedientean interesa dutenek, administrazio publikoek izan ezik, horren kontra gora jotzeko errekurtsoa jartzen ahal dutela, Nafarroako Gobernuari zuzendua, hilabeteko epean.

Administrazio publikoek zilegi dute administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzea, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, bi hilabeteko epean. Horrek ez du alde batera uzten Nafarroako Gobernuan alde aurreko errekerimendua egin ahal izatea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan ezarritako moduan eta epean.

Epe horiek ebazpen honen jakinarazpena egin edo, bestela, Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik aurrera hasiko dira kontatzen.

12. Ebazpen hau jakinaraztea David Fuente Aranazi, Caparrosoko Udalarari, Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuari eta Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuko Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzuari, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2008ko martxoaren 31n.-Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusia, Andrés Eciolaza Carballo.

Oharra: Ebazpen honetan aipatzen diren eranskinak interesdunen eskura daude, Ingurumenaren eta Uraren Zuzendaritza Nagusiaren bulegoetan, Iruñeko Armada etorbideko 2ko behean (8. solairua, Ingurumenaren Integrazioko Zerbitzua) eta Nafarroako Gobernuaren web atarian, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren sailean, "Ingurumen baimenak" kontsulten atalean.

F0804977

#### **LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE DEPARTAMETUA.** **Iragarkia.**

Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak, maiatzaren 21eko 1670/2007 Ebazpenaren bitartez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko administraziole edo administrari-ofizial izateko 20 lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdiko epaimahaiak lekualdatze-lehiaketan emandako behin betiko emaitzen aurka. Horren berri ematen zaie interesdun guztiei, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 112. eta 59. artikuluei jarraituz, iragarki hau argitaratu eta biharamunetik gehienez ere hamar egun balioduneko epean, alegazioak egin ditzaten Erregistro Orokorrean aurkeztuta (Nafarroako Jauregia, Karlos III.aren etorbidea, 2, Iruña).

Miren Agurte Navarraz Arozarena, Fabiola Ochoa Baztarrica, Angel Izco Tejada, Natividad Fernández Marcilla, Irene Isabel Ayesa Gorraiz, Belén Villar Isabella, Amaya Sesma Vallés, María Teresa López de Aguilera Bravo eta Raquel Alfaro Iralde jaun-andreek gora jotzeko errekurtsoak jarri dituzte deialdiko epaimahaiak lekualdatze-lehiaketan emandako behin betiko emaitzen aurka. Horren berri ematen zaie interesdun guztiei, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 112. eta 59. artikuluei jarraituz, iragarki hau argitaratu eta biharamunetik gehienez ere hamar egun balioduneko epean, alegazioak egin ditzaten Erregistro Orokorrean aurkeztuta (Nafarroako Jauregia, Karlos III.aren etorbidea, 2, Iruña).

Aurkeztutako errekurtsoen kopia interesdunen eskura dago Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiko Araubide Juridikoaren Atalean (Karlos III.aren etorbidea, 2-2. solairua, Iruña).

Iruñean, 2008ko apirilaren 17an.-Funtzio Publikoaren zuzendari nagusia, Gregorio Eguilaz Gogorza.

F0805989

## II. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

### 2.1. ORDENANTZAK ETA BESTELAKO XEDAPEN OROKORRAK

#### ANTSOAIN

##### Antsoainen Herritarren Partaidetza arautzen duen udal ordenantza. Behin betiko onespena

Antsoaingo Udalak, 2008ko urtarrilaren 30ean egin osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen Antsoainen Herritarren Partaidetza arautzen duen udal ordenantza. Hura 2008ko 24. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, otsailaren 22an.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 21. artikuluari jarraikiz, eta jendaurrean egoteko epea inork alegaziorik aurkeztu gabe iraganik, behin betikoz onetsi da Antsoainen Herritarren Partaidetza arautzen duen udal ordenantza. Ondotik haren testu osoa eransten da.

Antsoainen, 2008ko martxoaren 31n.–Alkatea, Antonio Gila Gila.

#### HERRITARREN PARTAIDETZAREN UDAL ORDENANTZA

*Sarrera*

##### *Zioen azalpena.*

Herritarren Partaidetzaren Erregelamendu honen bidez Antsoaingo Udalak formalizatu egin nahi du herritarren entitateek, elkarte mugimenduak eta Udalak berak elkarren arteko harremanetan azken urteetan bizi izan duten esperientzia. Herritarren proposamenak udal arlo guztietako eguneroko lanean aintzat hartzeko asmo irmoa duela agertu nahi du.

Erregelamendu honen bitartez partaidetzarako bide egonkorak ezarri nahi dira, horrela elkarte, entitate, kolektibo eta norbanakoek erabakiak hartzen parte hartu ahal dezaten. Aldi berean gardentasuna bermatu nahi da udal kudeaketan, eta herritarren beharrak hobeki ase. Gizarte sare antolatuari, herritarren interesak eta kezak adierazten dituen plataforma artikulatu hurbilena denez, funtsezko eginkizuna dagokio toki erakundeen mailako demokrazia eta partaidetza areagotzeko bidean.

Borondate politiko hori gauzatzeko, Herritarren Elkarte eta Entitateen Udal Erregistroa sortu da orobat, Antsoaingo lurraldean diharduten entitate irabazi asmorik gabeko guztiak bildu behar dituen erakundea. Gisa hartara, herrian diren elkarten benetako egoera ezagutu nahi da, gogoeta egiteko eta gizarte sare antolatua eta modernoa sendotzen lagunduko dutenildoak definitzeko, gizarte sare horrek bide berriak bilatu behar baititu eta hobeki egokitu behar baitaio gaurko herritarrek axola dieten arazoetan parte hartu eta jarduteko duten interesari.

#### ATARIKO TITULUA

*Xedapen orokorrak*

##### *Oinarriko araudia.*

Erregelamendu honek xedea du Antsoaingo herritarrek eta udalerriko herritarren elkarteek udal jardueran parte hartzeko bitarteko, modu eta prozedurak arautzea, Toki Araubideak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 1, 4.1.a) eta 69. artikulutik 72.enera bitartekoetan aurreikusitakoari jarraikiz, Tokiko gobernu modernizatzeke neurrien gaineko abenduaren 16ko 57/2003 Legeak eman zion idazketa berrian. Aipatu artikuluez gain xedapen hauek ere oinarritu dute Erregelamendu hau:

a) Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 92. artikulutik 96.era bitartekoak eta 318.1 artikulua.

b) Toki Entitateen Esparruko Herri Kontsultak arautzen dituen azaroaren 21eko 27/2002 Foru Legea.

c) Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35 eta 37. artikuluetan bereziki, herritarren eskubideez aritzen direnak administrazio publikoen jardueraz den bezainbatean.

Erregelamendu honek indarra izanzen du partaidetzari buruzko egungo araudiak dirauen bitartean eta, aldiz, aldatu beharko da hura aldatuz gero.

1. artikulua. Xedea.

Erregelamendu honen xedea da Antsoaingo bizilagunek eta herritarren elkarte zein entitateek udal kudeaketan parte hartzeko eta informazioa jasotzeko moduak, bitartekoak eta prozedurak arautzea, bai eta herritarrek benetan parte har dezaten eta administrazioa herritarrengana hurbil dadin sortuko diren organoen antolaketa, eskumenak eta funtzionamendua ere.

2. artikulua. Helburuak.

Antsoaingo Udalak, erregelamendu honen bidez, ondoko helburuak lortu nahi ditu:

1. Antsoaingo bizilagun guztien eskubideen erabilera hobetzea.
2. Bere jarduera, zerbitzu, proiektu eta programei buruz ahalik eta informazio zabalena ematea.
3. Bizilagunek eta entitateek udal kudeaketan parte har dezaten sustatzea eta horretarako bideak jartzea, Udaleko ordezkaritza organoek erabakiak hartzeko duten ahalmena ukatu gabe.
4. Herritarren eta udalerriko sektore guztien artean parte hartzeko eta komunikaziorako bideak eta moduak sor daitezen sustatu eta erraztea.
5. Herrian elkarte bizitza sustatzea.
6. Onura publikoko ekimenen garapena sustatu eta lehenestea, egungo arazoak konpontzeko.
7. Bizikidetzaren solidario eta orekatua sustatzea, herriaren intereseko afera publikoen gaineko alternatiben lehia irekian.

3. artikulua. Aplikazio eremua.

Araudi hau Antsoaingo Udal Erroldan inskribaturik dauden bizilagun guztiei aplikatuko zaie, bai eta herritarren elkarteei ere, egoitza soziala edota jarduera eremua Antsoainen badute eta Herritarren Elkarte eta Entitateen Antsoaingo Udal Erregistroan inskribaturik badaude.

Halaber aplikagarria izanzen da aurreko idatz-zatian aipatu ez diren herritarrentzat, beren eskaerak modu arrazoituaren egiten badituzte.

#### I. TITULUA

##### *Informazioa eta publizitatea*

4. artikulua. Informazioa izateko eskubidea.

Udalak Antsoaingo bizilagunei bermatuko die udal eskumen eta zerbitzuen kudeaketaren gaineko informazioa jasotzeko eskubidea, betiere Konstituzioaren 105. artikuluko b) letran aipatzen diren mugen barnean, indarra duten legezko xedapenetan eta araudi honetan ezarritzen denaren arabera.

5. artikulua. Hedabideak.

1.–Udalaren erabaki, arau eta, oro har, jarduketak modu egoki eta errazenean emanen dira aditzera, bizilagun guztiek haien berri jakin dezaten eta uler ditzaten.

Udalak, herritarrei bere kudeaketaren gaineko informazioa emateko, hedabideetara joko du, argitalpenak, liburuxkak eta bandoak argitaratuko ditu, kartelak, publizitate hesiak, iragarki oholak eta informazio panelak paratuko ditu, bideoak emanen ditu, informazio ekitaldiak antolatuko ditu eta beharrezkotzat jotzen diren gainerako bitartekoak erabiliko ditu. Gainera, bizilagun eta entitateen iritzia jakiteko, informazio kanpainak, eztabaidak, batzarrak, bilerak, kontsultak, inkestak eta iritzizundaketak egiten ahalko ditu.

2.–Halaber, Herritarren Elkarte eta Entitateen Antsoaingo Udal Erregistroan inskribaturiko elkarte eta entitateek, Udalarari idatziz eskatuz gero, udal organoen erabaki eta ebazpenak jasotzen ahalko dituzte, horien edukia eragina badu kasuan kasuko entitatearen xede sozialarekin zerikusia duten gaietan edo entitateari interesatzen zaizkion gaietan.

3.–Elkarte horiek interesatzen zaizkien gaiei buruzko udal argitalpenak ere jasotzen ahalko dituzte, hala eskatuz gero.

4.–Udalak, dokumentazioa igortzeko egiten zaizkion eskaeren kopuruaren arabera, dokumentazioa inskribaturiko elkarte interesatuen eskura jartzeko argitalpen sistemak antolatzen ahalko ditu.

6. artikulua. Osoko bilkuren deialdiak.

Osoko bilkuretarako deialdiak aditzera emateko, Herriko Etxeko iragarki oholean jarriko dira ikusgai eta herritarri informazioa emateko 012 Infolocal zerbitzua erabiliko da. Gainera, Herritarren Elkarte eta Entitateen Antsoaingo Udal Erregistroan inskribaturik dauden elkarte eta entitateei ere jakinaraziko zaie, hala eskatzen badute, bilkurako zerrendan haien xede sozialarekin zerikusia duen edo interesatzen zaizen gairen bat egonez gero.

7. artikulua. Informazio batzordeetan parte hartzeko deialdiak.

1.–Tokiko Gobernu Batzarraren bilkurak ez dira jendaurrekoak, ezta informazio batzordeenak ere. Hala ere, Herritarren elkarte eta entitateen Udal Erregistroan inskribaturik dauden herritarren elkarte edo entitateen ordezkariek eta norbanakoak joaten ahalko dira azken horien bilkuretarara, kasuan kasuko informazio batzordeko gehiengoak baimendu edo gonbidatu baditu.

Informazio batzorde batean adierazpen bat egin nahi badute beren elkarteke xedeekin ikusteko duen gairen baten gainean, baimena eskatu beharko diote batzordeburuari.

Batzordeak eta, salbuespenetan, batzordeburuak baimendurik, delako bizilagunak edo delako elkarteak bere iritzia ematen ahalko du, gehienez ere hiru ordezkariren bitartez, aitzinetik adierazten zaion denboran. Elkartearen estatutuen arabera legezko ordezkaria izanena da mintzatzeko den kidea. Nolanahi ere, ordezkari hori egiaztatu beharko da.

Batzordeburuak, aztergaiaren arabera, Udaleko kideen eztabaidak atea itxita egitea erabakitzen ahalko du.

2.–Parte hartze horrek ez ditu inola ere ukatuko informazio batzordeetako kideek erabakiak hartzeko dituzten ahalmenak, araudi aplikagarrian ezarritakoak.

8. artikulua. Udalaren jarduketan gaineko informazioa.

Herritarren Elkarte eta Entitateen Antsoingo Udal Erregistroan inskribaturiko elkarte eta entitateek eta bizilagunek, idatziz eta arrazoiak emanda, informazioa eskatzen ahalko dute Udalaren jarduketaz eta horien aurrekarietaz eta, oro har, udal zerbitzu eta jarduerak guztiez. Udal erabakien eta horien aurrekarietaz kopiak eta ziurtagiriak eskuratzen ahalko dituzte, indarra duen araudiak horretarako aukera ematen duen guztietan, non eta informazio hori eskura ez dagoen Udal honen webgunean.

9. artikulua. Informazioaren teknologiak.

Antsoingo Udalak informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera interaktibo sustatuko du, bizilagunekiko harremanak eta parte hartzea errazteko, agiriak aurkezteko eta administrazio tramiteak, inkestak eta herritarrekiko kontsultak egiteko, haiek arautzen dituen foru legearen esparruan.

## II. TITULUA

### *Herritarrek udal organoetan parte hartzea*

10. artikulua. Osoko bilkuran parte hartzea.

1. Bizilagunek, bakarka nahiz taldean, edo Herritarren Elkarte eta Entitateen Antsoingo Udal Erregistroan inskribaturiko elkarte edo entitateek osoko bilkuran zerbait adierazi nahi dutenean zerrendako gairen bati buruz, betiere gai horren administrazio tramiteetan interesdun gisa esku hartu badute, Alkatezari eskaera eginen diote bilkuren eguna baino 10 egun baliodun lehenago, gutxienez. Hartan zehaztuko dute zer gairen gainean mintzatu nahi duten, eta erran nahi dutenaren laburpena eskainiko dute.

2. Eledunen Batzordearen oniritziaren ondotik Alkatezak baimena emanda, ordezkari bakar baten bidez, bere iritzia agertzen ahalko du, gai zerrendan sarturiko proposamenaren irakurketaren, eztabaidaren eta bozketaren aitzin Alkatezak gehienez ere zehaztuko duen denboran.

Gai zerrendako puntu batera etorrita jendea mintzatu ahal izateko, alkateak etenaldi bat eginen du eta adierazpena burutu ondoan jarraipena emanen zaio bilkurari.

Izaera orokorra ez duten mozioak direnean, botoa emateko eskubidea duten bizilagunek proposatzen ahalko dute Udala osoko bilkuran gai batez ari dadin, bi bide erabilita:

1. Udal talde baten bitartez, mozio gisara.

2. Bizilagunen %10en sinaduren abalarekin, beranduenez osoko bilkura egin baino 10 egun baliodun lehenago aurkeztuta.

Elkarte edo entitatearen izenean osoko bilkuran mintzatzeko ahalak dira hura legez ordezkatzeko dutenak, haren estatutuen arabera, edo berariaz horretarako izendatutako bertze edonor. Betiere, ordezkari frogatu beharko da. Bizilagun talde batek osoko bilkuran mintzatzeko eskatzen duenean, eskaera orrian lehenbizi sinatzen duena izanena da taldearen ordezkaria.

11. artikulua. Galdera txanda osoko bilkuran.

1. Antsoingo bizilagunek, beren kabuz, eta Herritarren Elkarte eta Entitateen Antsoingo Udal Erregistroan inskribaturiko elkarte eta entitateen ordezkariak, alkateari galderak egiten ahalko dizkiote herriaren intereseko gai zehatzen gainean, behin bilkura buruturik, eskaerak eta galderak egiteko tenorean. Alkateak Udaleko edozein kideri ahalmena ematen ahalko dio galdera horiei erantzuteko.

2. Bilkura bakoitzean 2 aldiz mintzatzeko aukera izanena da; Alkatezaren lana izanena da eztabaida kudeatu eta zuzentzea.

3. Udal taldeek beren jarrera agertzen ahalko dute laburki, galde-eskeen txandan. Informazio eskaera izanez gero, erantzuna idatziz eman beharko da 15 egun balioduneko epean. Horrek ez du galaraziko berehalako erantzuna ematea.

12. artikulua. Bertzelako erakundeetan parte hartzea.

Antsoingo Udalaren menpeko patronatu, fundazio eta bertze erakunde autonomo edo erakunde aholku emaile batzuen oraingo edo gero estatutuetan arautzen ahalko da herritarren parte hartzea, haien jarduerari eta gobernu organoetara dagokienez.

## III. TITULUA

### *Herritarren ekimena*

13. artikulua. Kontzeptua.

Herritarren ekimena parte hartzeko modu bat da. Hitzarmen bidez, herritarrek Udalarekin lankidetzan aritzen dira haren eskumeneko eta interes publikoko jarduerak jakin bat egin dadin, eta horretarako baliabide ekonomikoak, ondasunak, eskubideak edo pertsonen lana jartzen dituzte.

14. artikulua. Prozedura.

1. Udal hauteskundeetan botoa emateko eskubidea duten bizilagunak herri ekimenaz baliatzen ahal dira, legeek ezarritako ildotik, erabaki edo jarduketa proposamenak edo xedapen orokorretarako proiektuak aurkeztuz udal eskumeneko gaietan.

2. Ekimena jaso ondoan, departamentu egokiak txostena emanen du hilabete iragan baino lehen.

3. Emandako txostena ikusirik, Udalak hilabeteko epean ebartziko du, txostena emateko epea burutu eta biharamunetik hasita.

4. Udalak, bere erabakia hartzeko, kontuan hartuko du batez ere ekimenaren xedearen interes publikoa eta herritarrek egiten dituzten ekarpenak.

## IV. TITULUA

### *Herritarrei kontsulta egitea*

15. artikulua. Esparrua.

Udalak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 71. artikuluan, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 96. artikuluan eta toki esparruko herri kontsultak arautzen dituen urriaren 28ko 27/2002 Foru Legearen ezarritakoari jarraituz, herri kontsulta egiten ahalko du, herritarrentzat garrantzi handikoak diren udal eskumeneko gai lokaletan, toki ogasunari buruzkoetan izan ezik.

16. artikulua. Gutxieneko bermeak.

Herri kontsultak betiere baldintza hauek beteko ditu:

1. Zentsaturik dauden herritar guztien eskubidea kontsultatuak izateko.

2. Kontsultagai diren aukeren berri izateko eskubidea, idatziz nahiz irudi bidez ahalik eta informazio gehien jasoz.

3. Eztabaidaguneak eskaini behar dira proposamen guztiak azaldu eta entzuteko.

17. artikulua. Prozedura.

1. Udalari dagokio bere eskumeneko gaietan herri kontsulta egiteko behar diren tramiteak egitea.

2. Halaber herri kontsulta egiteko eskatzen ahalko da, herritarren ekimenez sustaturiko erabakiak hartu ondoan, udalerriko hauteskunde eroldan dauden herritarren %10ek, gutxienez, horretarako eskaera kolektibo sinatzen badute.

Titulu honetan aurreikusirik ez dagoen orotan, Nafarroako Foru Komunitateko legerian xedatuari jarraituko zaio, edo bertzenaz, Estatu-koari.

## V. TITULUA

### *Baliabide publikoen erabilera eta Udalaren dirulaguntzak*

18. artikulua. Udalaren lokalak erabiltzea.

1. Udalak, ahal duen heinean, udalerriko lokal publikoak eta bertze baliabide batzuk erabiltzen utziko die Herritarren Elkarte eta Entitateen Antsoingo Udal Erregistroan inskribaturik dauden elkarte eta entitateei.

2. Eskaerak idatziz eginen dira eta Antsoingo Udalaren erregistro orokorrean aurkeztuko. Baimena emateko tenorean kontuan hartuko dira programatutako jarduerak, erabilgarri dauden tokiak, langileak eta ordutegiak, eta eskatutako baliabideak kudeatzeko ardura duten unitateek finkatzen dituzten irizpideak.

19. artikulua. Prestakuntza jarduerak.

Herritarren Elkarte eta Entitateen Antsoingo Udal Erregistroan inskribaturik dauden elkarteek parte hartzen ahalko dute Antsoingo Udalak elkartegintza sustatzeko bultzatzen dituen prestakuntza ekintzetan.

20. artikulua. Elkarteen jardueretarako dirulaguntzak.

1. Udalak jardueretarako dirulaguntzak emanen dizkie herriko bizilagunen interes orokor edo sektorialak defendatzen dituzten elkartei, baldin eta Herritarren Elkarte eta Entitateen Antsoingo Udal Erregistroan inskribaturik badaude edo inskripzioa eskatu badute, eta kasu bakoitzean dirulaguntzak emateko onesten diren oinarrietan ezarritakoa betetzen badute. Betiere, Udalak bere baliabideak aski diren neurrian emanen du dirulaguntza.

2. Udalak helburu horretarako kontusail bat ezarriko du bere aurrekontuetan.

3. Herritarren elkarte edo entitateendako laguntzen banaketan kasu bakoitzerako onesten diren oinarrietako arauak beteko dira, eta kontuan hartuko dira haien ordezkartasun maila, xedearen interes edo onura publikoa, ahalmen ekonomikoa, autonomia, eta bertze entitate publiko edo pribatu batzuek ematen dizkieten laguntzak.

21. artikulua. Dirulaguntzak eskatzeko eredia.

Herritarren Elkarte eta Entitateen Antsoaingo Udal Erregistroan inskribaturik dauden elkarte eta entitateek Udalari laguntza ekonomikoa eskatzen ahal duete, araudi honetan eta herritarren interes orokor edo sektorialen defentsarako diru-laguntzak emateko kasuan kasuko oinarrietan ezarritako baldintzak betez gero. Honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Laguntzen xede diren jardueren programazio arrunta.
- Jardueretarako aurrekusten den diru sarrera eta gastuen aurrekontua.
- Aurreko urteko jardueri buruzko memoria.
- Aurreko urtean Udaletik jasotako dirulaguntzen erabileraren egiaztagiria, lehendik aurkeztu ez bada.
- Bertzelako instituzio edo erakunde publiko nahiz pribatuetatik jaso diren diru-laguntzen ziurtagiria.
- Nafarroako Ogasun Publikoaren eta Antsoaingo Udalaren ziurtagiria, zergak ordainduak dituela adierazten duena.
- Deialdi bakoitzeko dirulaguntzak arautzeko oinarrietan eskatzen diren gainerako agiriak.

22. artikulua. Diru-laguntzen justifikazioa.

1. Herritarren elkarte eta entitateek diru-laguntzak hartzen badituzte, frogatu beharko dute hartutako dirua dirulaguntzaren xederako erabili dutela, kasuan kasuko dirulaguntza arautzen duen oinarrian ezarritako moduan eta halabereko epeetan.

2. Hori frogatu ezean, hartutako diru kopuruak Antsoaingo Udalari itzuli beharko dizkiote eta diru-laguntza gehiago izateko eskubidea galduko dute.

## VI. TITULUA

### *Herritarren elkarte eta entitateen udal erregistroa*

23. artikulua. Xede eta ezaugarriak.

1.-Herritarren Elkarte eta Entitateen Udal Erregistroaren xedea da Udalari bide ematea udalerrian diren entitateen kopurua, motak, xedeak, ordezkartza eta eragina ezagutzeko, hiriko elkarte sarea sendotzen lagunduko duen udal politika egokia antolatze aldera.

2.-Herritarren Elkarte eta Entitateen Udal Erregistroak ez du loturirik Elkartearen Erregistro Orokorrekin. Beraz, entitate edo erakunde bat bigarren horretan inskribatzeak ez du erran nahi lehenengoan inskribatzen denik, eta alderantziz.

3.-Herritarren Elkarte eta Entitateen Udal Erregistroko datuak nor-nahik ikus ditzake.

24. artikulua. Erregistroan inskribatzea.

Erregistroan inskribatzen ahalgo dira irabazteko asmorik gabeko herritarren elkarte eta entitateak, baldin eta haien xedea udalerrian interes orokor edo sektorialak defendatu, sustatu edo hobetzea bada; batez ere, auzoen elkarteak, aita eta amen elkarteak, kultura, kirol eta josteta elkarteak, gazteen elkarteak, sindikatu, enpresa eta lanbide elkarteak, eta Antsoaingo lurralde eremuan diharduten gisako entitate guztiak.

25. artikulua. Inskribatzeko prozedura.

Inskripzioa egin nahi duten herritarren elkarte eta entitateek eskaera aurkeztu beharko dute Antsoaingo Udalaren Erregistro Orokorrean, ondoko agiriak erantsita:

- Estatutuen kopia eta elkartearen eratze dataren ziurtagiria.
  - Elkartearen Erregistro Orokorreko eta bertzelako erregistro publikoetako inskripzio zenbakiak.
  - Zuzendaritza karguetan dauden pertsonak izendatzeko onetsi eta batzarretako aktetan jaso ziren erabakien hitzez hitzeko ziurtagiriak, kargudunen izenekin.
  - Helbidea.
  - Urteko aurrekontua.
  - Urte horretako jardueren egitaraua.
  - Bazkide kopuruaren ziurtagiria.
26. artikulua. Inskribatzeko eskaeraren gaineko ebazpena.

Antsoaingo Udaleko Idazkaritza orokorrak behar diren egiaztapenak eginen ditu elkarteak inskribatzeko; erregistroa eskatzen denetik hasi eta hamabortz egun balioduneko epean inskripzio zenbakia jakinarazi beharko dio elkarte interesdunari.

Epe hori eteten ahalgo da, elkarteari agiri gehiago eskatu behar bazaizkio hasieran aurkeztutakoez gainera. Elkarteak, ematen zaion

epean, eskatutako datuak aurkezten ez baditu, inskribatzeko asmoa bertan behera utzi duela ulertuko da.

Arestian aipatutako hamabortz egun balioduneko epean elkarte eskatzailearen inskribatzeko eskaerari erantzuten ez bazaio, inskripzioa egintzat joko da, baldin eta elkarteak aitzineko artikuluan eskatzen diren agiriak aurkeztuak baditu.

27. artikulua. Interes edo onura publikoaren deklarazioa.

1. Elkarte inskribatuek udalerrian interes edo onura publikoko elkarte deklaratu ditazela eskatzen ahalgo dute, baldin eta haien xede soziala eta egiten dituzten jarduerak altruistak eta udal eskumenean osagarriak badira. Udalak, osoko bilkuran, erabakiko du deklarazio hori eman edo ukatzea, zerbitzu tekniko eskudunek txostena egin ondoren. Deklarazio hori beharrezkoa izanen da ezartzen ahal diren onurak lortzeko. Izan daitezkeen onurak aplikatzeko den araudiaren eta kasuan kasuko ordenantzen arabera izanen dira.

2. Hona elkarteak udalerrian onura publikokoak deklaratuak izateko prozedura eta tramitazioarako behar diren agiriak:

- Eskabidea, alkate udalburuari zuzendua.
- Izendapen hori onartzeko bidea ematen diren arrazoen azalpena.
- Udalbatzako idazkariak luzaturiko ziurtagiria, Herritarren Elkarte eta Entitateen Udal Erregistroko inskripzio datuak jasotzen dituen.
- Entitateko lehendakari eta idazkariaren zinpeko aitortpena, udalerrian onura publikoa eskatzeko tenoreko kide kopurua egiaztatzen duena.
- Eskabidearen aitazin urtean egindako jarduketaren memoria.
- Inskripzio zenbakiaren ziurtagiria, Nafarroako Gobernuko Elkartearen Erregistroan.
- Espedientea baloratzeko beharrezkotzat jotzen den bertze edozein agiri.

28. artikulua. Herritarren elkarte eta entitate inskribatuen betebeharrak.

1. Herritarren elkarte eta entitate inskribatuek Herritarren Elkarte eta Entitateen Antsoaingo Udal Erregistroan jakinarazi beharko dituzte beren inskripzio datuen aldaketa guztiak, gertatzen diren egunetik hasi eta hilabeteko epean.

2. Urtean behin, urtarrilean, erregistroa kudeatzeko ardura duen unitateak eskatuta, herritarren elkarte eta entitateek, memoria labur baten bidez, urteko jardueren programa eta aurrekontua aurkeztuko dituzte. Halaber, eskatzen zaizkien erregistro-datu eguneratu guztiak emanen dituzte.

3. Herritarren elkarte eta entitateek erantzukizuna izanen dute udal instalazioen erabilerarengatik eta haietan eragiten ahal dituzten kalteengatik.

4. Betebehar horiek bete ezean, behar den espedientea tramitatu ondotik, herritarren elkarte edo entitatea erregistrotik kentzen ahalgo da. Horrek erregelamendu honetan jasotako eskubideak galtzea ekarriko du.

## XEDAPEN IRAGANKORRAK

### *Xedapen iragankor bakarra*

Erregelamendu hau argitaratzen den egunean Antsoaingo udal mugapean jardunean izan eta Herritarren Partaidetzari buruzko Erregelamenduan aitortutako eskubideak dituzten herritarren elkarte eta entitateek inskripzioa eskatu beharko dute sei hilabeteko epean, erregelamendu hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunetik hasita. Epe hori iraganik, inskribatu gabe daudenek ordura arte izandako eskubideak galduko dituzte.

## XEDAPEN GEHIGARRIAK

### *Xedapen gehigarri bakarra*

Herritarren Partaidetzarako Kontseilua sortzen ahalgo da, Udalaren ekimenez edo eremu sektorial nahiz orokorreko herritarren entitateek hala eskatuz gero, beren partaidetza beharren arabera.

## AZKEN XEDAPENA

Erregelamendu honek indarra hartuko du hamabortz egun iraganik behin betiko onspenaren erabakia eta testu osoa Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen direnetik hasita.

L0804772

## ARANGUREN

### **Entremutilvas sektoreko plan partzialeko aldaketa. Behin betiko onspena**

Aranguren ibarreko Udalak, 2008ko apirilaren 1ean egin osoko bilkuran, behin betiko onspena erabaki zuen Entremutilvas sektoreko plan partzialeko aldaketa, testu hau duena:

- "Lorategiko nahitaezko lerrokadura" "lorategiko gehieneko lerrokadura" izanen da.

b) Zabor esparruak kokatzeko eremuak, Eraikuntzaren Kode Teknikoan erabakitakoak, ez dira gehieneko lerrokadurez mugatuko.

c) Lurzati bakoitzeko sekzio tipoan, sotoko solairuen kopurua aurreikusitakoa baino handiagoa izatera, ez dira kontuan hartuko hirigintza aprobetxamenduen kontsumoan.

Nahitaez egin behar dira teilatu-hegalak eraikinen inguru guztian. Teilatu-hegala 90 cm bederen aterako da. Ez da zilegi estalkiak estaltzen dituen karelik egitea.

Argitara ematen da, orok jakin dezan.

Mutiloabeitin, 2008ko apirilaren 2an.–Alkatea, Manuel Romero Pardo.

L0804974

## AIEGI

### Ordenantza, Edukiontzia erabilera arautzen duena. Hasierako onespena

Aiegiko Udalak, 2008ko apirilaren 1ean egin osoko bilkura arruntan, ondotik hitzez hitz ematen den erabakia hartu zuen, legez ezarritako quoruma zuela:

1. Hasiera batean onestea Aiegiko Udalaren edukiontzia erabilera arautzen duen ordenantza, obra-hondakinak bota ahal izateko; horigintza Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

2. Onetsitako ordenantza jendaurrean egonen da hilabetez, Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Udalaren iragarki-oholean argitaratu ondoan, bizilagunek eta interesdunek espedienteaz azter dezaten eta erreklamazio, kexa edo oharrak aurkez ditzaten.

3. Aiegiko Udalak osoko bilkuran onetsiko du behin betikoz ordenantza hau, erreklamazioak, kexak edo oharrak ebaztearekin batera.

Aiegin, 2008ko apirilaren 4an.–Alkate udalburua, José Artiz Segura.

L0805213

## AZAGRA

### Eraikuntzari buruzko ordenantzako aldaketa. Behin betiko onespena

Azagrako Udalak, 2008ko urtarrilaren 31n egin osoko bilkuran, erabaki zuen behin betiko onestea Udal Planeko Eraikuntzari buruzko ordenantzaren 12. artikuluko aldaketa, honelaxe geldituko baita.

12. artikulua. "Zilegi dira teilatupe zelaisuak nahiz maldatsuak.

Estalki maldatsuen kasuan, gehienez ere %45eko maldan onartuko da."

Aditzera ematen da Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 81. artikuluan aurreikusitako ondorioak izan ditzan, eta ohartarazten da ezen erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezten ahal dela jurisdikzio horretako dagokion organoari zuzendua, bi hilabete epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita, edo, alde zuzenetik eta aukeran, bi hauetako bat:

–Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabete epean, errekurritutako erabakia jakinarazi edo argitaratzen denetik aitzina.

–Berraztertze errekurtsoa, egintza gauzatu duen organoari berari zuzendua, hilabete epean errekurritutako erabakia jakinarazi edo argitaratzen denetik aitzina.

Azagran, 2008ko martxoaren 20an.–Alkatea, María Antonia Berisa Sánchez.

L0804795

## AZAGRA

### Hirigintzako araudi partikularreko aldaketa. Behin betiko onespena

Azagrako Udalak, 2008ko urtarrilaren 31n egin osoko bilkuran, erabaki zuen behin betiko onestea Udal Planeko Hirigintzako araudiaren 1. artikuluko aldaketa, honelaxe geldituko baita:

1. artikulua. U.C. 1.

"Diseinu arkitektonikoa.

Altueren araubidea: Finkatu egiten dira gaur egun daudenak. Halarik ere, edozein oruberan eta/edo eraikuntzaren gainean guttienez eraikin bat egin daiteke BS+2 motakoa, eta 10 metroko altuera izan duena, betiere neurtuta espaloaren sestratik teilatu hegalaren beheko zatiraino. Arau honetatik kanpo geldituko dira halako orubeak eta/edo eraikinak, etxe-sailtan bilduak daudenak eta lerrokadura zuzen eta nabariak ditzutenak. Inork ere ezin izanen du bere altuera aldatu. Hori egiteko, multzoka eta hirigintzako tramitazioa aurkeztu ondoren egin behar da.

Halako tipo beretsuko eraikin multzoak badira, eraikitze diseinu eta ezaugarri homogeenak edo berdintsuak ditzutenak, ezin izanen

dira aldatu ez hasierako altuera ez eta solairu kopurua, hortaz, ez zaie baimenik emanen multzo arkitektoniko horien ezaugarriak alda ditzaketan jarduketak egin nahi izanez gero.

Nolanahi ere, lurtzation barrenean baimentzen diren eraikinen altuera gehienez ere izanen da eraikin nagusiarena berarena."

Aditzera ematen da Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 81. artikuluan aurreikusitako ondorioak izan ditzan, eta ohartarazten da ezen erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezten ahal dela jurisdikzio horretako dagokion organoari zuzendua, bi hilabete epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita, edo, alde zuzenetik eta aukeran, bi hauetako bat:

–Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabete epean, errekurritutako erabakia jakinarazi edo argitaratzen denetik aitzina.

–Berraztertze errekurtsoa, egintza gauzatu duen organo berari zuzendua, hilabete epean, errekurritutako erabakia jakinarazi edo argitaratzen denetik aitzina.

Azagran, 2008ko martxoaren 20an.–Alkatea, María Antonia Berisa Sánchez.

L0804796

## BERRIOBEITI

### Berriobetiko Udalaren kirol instalazioen barne araubidearen erregelamendua. Behin betiko onespena

Berriobetiko Udalak, 2008ko urtarrilaren 8an egin osoko bilkuran, erabaki zuen hasiera batean onestea Berriobetiko Udalaren kirol instalazioen barne araubidearen erregelamendua (2008ko 21. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN eman zen argitara, otsailaren 15ean).

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluari jarraikiz, maiatzaren 31ko 15/2002 Foru Legeak aldatu baitzuen, eta jendaurrean egoteko epea inork alegaziorik aurkeztu gabe iraganik, berau behin betikoz onetsi eta argitaratzeko agindu da, behar diren ondorioak izan ditzan. Berriobetiko Udalaren kirol instalazioetako barne araubidearen erregelamenduari tarifen eranskina erantsita, aldatu egin da udal igerilekuak eta instalazio osagarriak erabiltzeko prezio publikoa arautzen duen Ordenantza (17. zenbakikoa), indarrean jarraituko baitu erregelamendu honi kontra egiten ez dion guztiari dagokionez. Era berean, gaurkotu egin da aipatu ordenantza horretako tarifen eranskina.

Berriobeitin, 2008ko martxoaren 27an.–Alkatea, José María Irisarri Ollacarizqueta.

### BERRIOBEITIKO UDALAREN KIROL INSTALAZIOEN BARNE ARAUBIDEAREN ERREGELAMENDUA

#### I. KAPITULUA

##### Xedapen orokorrak

1. artikulua. Erregelamendu honen xedea da Berriobetiko Udalaren kirol instalazioen erabilera arautzea, Berriobeitin baitaude, Berriobetiko Udalaren jabetzakakoak.

Udalaren kirol instalazioak dira, bai kirolgunea, bertan sartzen baitira igerileku klimatizatuak, hidromasajea, jacuzzia, erlaxazio eremua, sauna lehorra, lurrin bainua, terma, muskulazio gela, aldagelak, kanpoko lotategia, kanpoko igerilekuak eta kirol pista, bai kirola praktikatzeko erabiltzen diren gainerako tokiak, jarduera ludikoetarako eta oro har gorpuzte lantzeko direnak, bai gaur egun daudenak bai etorkizunean zabalitzen ahal diren egungo eremuak.

Horien barnean sartuko dira, baita ere, aipatutako jardueren loturik eta hor esan diren instalazioetan kokaturik dauden ondasun higigarriak, instalazioak eta zerbitzuak.

2. artikulua. Instalazio horiek erabiltzen ahalko dituzte, aurreko artikuluan aipatu diren jarduerak praktikatzeko, Udalak espres zehazten dituen baldintzak betetzen dituzten herritar guztiek.

3. artikulua. Instalazio bakoitza erabiltzen ahalko da harentzat aurreikusitako xede diren edo hari dagozkion kirolak praktikatu eta jarduerak egiteko.

4. artikulua. Udalaren kirol instalazioetan kartela paratuko da, Jarraipen Batzordeak onetsia, erabiltzaileak ongi ikusteko moduko tokian, ondokoak azaltzeko:

–Instalazioko zerbitzuak erabiltzeagatik ordaindu beharreko prezioa.

–Jardueraren ordutegia.

–Erabiltzaile kopurua, edukiera eta ezaugarri tekniko aipagarrienak.

–Egiten diren zerbitzuak edo programak.

Kontsultatu ahal izateko eskura dagoen tokiren batean utziko da Erregelamendu honen ale bat.

## II. KAPITULUA

*Instalazioak ireki eta ixteko ordutegiak*

5. artikulua. Berribeiteko Udalaren kirol instalazioak urte osoan egonen dira irekiak, urtean 15 eguneko gutxieneko epean izan ezik, ura guztiz garbitu eta berritzeko, erabilera kolektiboko igerilekuen baldintza tekniko-sanitarioak ezartzen dituen maiatzaren 19ko 123/2003 Foru Dekretuak ezarri bezala.

Gainera, Berribeiteko Udalaren kirol instalazioak itxirik egonen dira abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean eta 6an. Abenduaren 24an, 31n eta urtarrilaren 5ean, arau gisa instalazioak goizez egonek dira irekiak, eta itxiak arratsaldez.

Udalak zehaztuko du instalazioak noiz egonen diren itxita (jaiegunitan, mantentze lanak egiteko...) eta zer ordutan irekiko diren jendearentzat.

Berribeiteko Udalak hemengo egutegi eta ordutegiak aldatu ahaliko ditu hala behar duenean eta kirol instalazioetan kirol, kultur edo gizarte ekitaldiak antolatzen direnean.

Berribeiteko Udalaren kirol instalazioetara abonatuak kirol instalazioak itxiak dauden aldietan udalak onetsitako tasak ordaindu beharko dituzte.

## III. KAPITULUA

*Abonatuak*

6. artikulua. Abonatu izateko, pertsona batek inskripzioa eskatu behar du, hura onartu behar diote, eduki behar du kreditazio txartela, eta Udalak finkatzen dituen kuoten ordainketa eguneratua izan behar du.

Kreditazio txartela duten abonatuak instalazioetan libreki sartzen ahaliko dira, eta antolatzen diren jardueretan finkatzen diren deskontuez baliatzeko eskubidea izanen dute.

Kreditazio txartela galduz gero diru kopuru bat ordaindu beharko da.

7. artikulua. Abonatu motak:

7.1. Mota hauek ezarri dira:

A mota: 6 urtetik beheiteko haurrak.

B mota: 6 eta 15 urte bitarteko haurrak.

C mota: 16 urtetik goitiko helduak.

D mota: 65 urtetik goitikoak, erretiratuak eta pentsiodunak.

7.2. Udalak, Kudeaketa Batzordeak proposatuta, unean uneko kuotak finkatuko ditu, abonatuak ordain ditzaten.

7.3. A motako abonatuak ez dute kuotarik ordaindu beharko. Edozein modura guraso edo tutoreek lagunduta sartu beharko dute.

7.4. Soilik gutxienez 65 urte dituzten erretiratuak sartuko dira D motaren barranean betiere beren egoera hori egiaztatzen duen ziurtagiri ofiziala (administrazio publiko batek egina) aurkezten baldin badute.

D motako pentsioduntzat hartuko dira elbarritasuna %65koa edo handiagoa dutela egiaztatzen dutenak, ziurtagiri ofizialaren bidez (administrazio publiko batek egina).

Baztertuak izanen dira 65 urte baino gehiago ez dituzten erretiratu eta pentsiodunak.

7.5. Berribeiteko Udalaren kirol instalazioen abonatu izan nahi duten guztiek sarrerako diru kopuru bat ordaindu beharko dute.

Sarrerako diru kopurua ordaindutakoan hasiko zaizkie ordainagiriak bidaltzen, kirol instalazioan aurkeztu beharreko dokumentazioa noiz aurkezten duten kontuan hartu gabe.

Baja hartzen duen abonatuak ezin izanen du zenbateko hori itzultzeko eskatu. Berriz ere abonatu izan nahi badu, beste behin ordaindu beharko du goian aipatutako diru-kopurua, eta baja hartu zuenean instalaziotik igorri zitzaizkion ordainagiriak ordainduta eduki beharko ditu.

Berribeiteko Udalak abonatuak erakartzeko sustapen kanpainak ezarri ahaliko ditu, deskontuekin eta baita hasierako sarrera kuota kenduz ere. Azken kasu honetan ordaintzeko betebeharraren hasiera data instalazioaren harreralekuan agiriak aurkezten diren unean hasiko da.

8. artikulua. Hilaren 20 baino lehen edo 20an berean alta hartzen duten abonatuak hileko prezio osoa ordainduko dute. Hilaren 21etik aitzina alta hartzen dutenak hurrengo hilean hasiko dira kuota ordaintzen.

Urteko abonamendurako ezarritako dauden ordainketa moduak (hila-beteko, hiruhileko, sei-hileko edo urteko kuota) banku igorpenaren bidez egiten dira, abonatuak ematen duen kontu zenbakira zuzenean; kuota ordaintzeko bestelako modurik ez dagoenez, kontu zenbaki bat eman behar da, bertara egiteko banku igorpenak.

9. artikulua. Kuotak ordaintzen ez badira instalazioen harreralekutik ohar telefoniko bat egiten da. Ez ordaintzea gertatu eta 7 egun igarota ate birakaria automatikoki blokeatuko da, itzultako ordainagiria ordaindu arte abonatuari sarrera eragotziz. Ordainketari Udalak onetsitako duen itzulketa komisio bat gehituko zaio.

Ordaintzeko ordainagiriaren gauzatzea, dagokien gehikuntzarekin, dirutan ordainduko da instalazioaren harreralekuan.

Bi ordainagiri jarraian itzuli edo ez ordaintzea nahitaezko bajaren arrazoi izanen da.

Aurreko paragrafoa aplikaturik abonatuari baja eman ondotik, berriz ere alta hartu nahi badu kuoten ordainketa eguneratu beharko du eta beste behin ordaindu beharko du sarrerako diru kopurua.

10. artikulua. Baja nahi duen abonatuak idatziz eman beharko die bere nahiaren berri instalazioetako administrariari, horretarako baja-inprimakia bete beharko du.

Baja jakinarazi beharko du ordainagiria pagatzeko egunaren aurreko hilabeteko 20a baino lehen. Baja gertatzen bada tasa kobratzeko egunaren ondotik, ez da tasa itzultzeko eskubiderik izanen.

Txartela galdu, lapurtu edo hondatuz gero, horren berri eman beharko zaio berehala instalazioak kudeatzen dituen entitateari.

Txartel berria egiteko, diru kopuru bat ordaindu beharko da, Udalak zehaztuko duena.

11. artikulua. Udalak mugatzen ahaliko du abonatuaren kopurua, instalazioen erabilera ahalik eta egokiena izan dadin.

12. artikulua. Abonatu karneta pertsonala eta besterenduezina da. Beste inork erabiliz gero zehapena ekarriko du.

13. artikulua. Abonatuak honako eskubide hauek dituzte:

13.1. Instalazioetan libreki sartzea, abonatu txartela erakutsita, jendearentzat irekita dauden egun eta orduetan.

13.2. Instalazioak erabili ahal izatea, Udalak kirol eremu bakoitzetarako onesten duen araudiari jarraituz.

13.3. Kirol ikastaroetan izena emateko lehentasuna izatea abonatu gabeen aldean.

13.4. Udalak kasu bakoitzean onesten dituen deskontuak izatea kirol instalazioetan antolatzen diren jardueretarako.

13.5. Egoki iruditzen zaizkien erreklamazioak eta iradokizunak egitea instalazioen funtzionamenduaren gainean.

13.6. Instalazioetako abonatuak erabiltzen ahal dute soilik muskulazio gela, gainontzeko abonatuak (hilabeteko abonamendua, eguneko sarrera, etab.) ezin baitute erabili.

14. artikulua. Abonatuak beharturik daude aitzinxeago erabiltzailentzat, oro har, ezartzen diren obligazioak betetzera.

## IV. KAPITULUA

*Abonaturik ez dauden pertsonak*

15. artikulua. Abonatu ez direnak soilik hurrengo moduan sartu ahaliko dira kirol instalazioetara:

–Hilabeteko abonamenduaren bidez.

–Kirol ikastaroren batean izena emanda.

–Eguneroko sarrera erosita.

15.1. Eguneko sarrerak edo hilabeteko abonamenduak eskubidea ematen die abonaturik ez dauden pertsonei igerilekua eta kirol instalazioak erabiltzeko, muskulazio sala izan ezik.

"Eguneroko sarreraren" kasuan lanegun eta jaiegunen prezioak desberdinak izanen dira. Instalazioak egun osoan erabiltzen ahaliko dira; kirol instalaziotik ateraz gero, berriz sartu ahal izateko eguneko sarreraren erosketaren ordainagiria erakutsi beharko da.

Abonaturik ez dauden pertsonak soilik abonatuendako diren kirol eremuetara sartzea instalazioko langileek ohartarazpena egitea ekarriko du, eta arau-hauste bera aldi gehiagotan eginez gero, instalaziora sartzea ukatuko zaie, eta abonaturik ez dagoen pertsonak egindako ordainketa itzultzeko eskubideak galduko ditu.

15.2. Kirol ikastaroetan izena eman delako eta instalaziora sartzeak, aipatu ikastaroetara sartzeko eskubidea ematen du soilik. Instalazioak ezin izanen dira beste edozein jardueretarako erabili. Ezin izanen da instalazioan sartu jarduera hasi baina 15 minutu lehenago. Itteera jarduera bukatu eta hurrengo 20 minutuetan egin beharko da. Instalazioetatik ateratzea gehiago luzatzen bada bertako langileek ohartarazpena egiten dute, eta arau-hauste bera aldi gehiagotan eginez gero, baja ematen zaie dagokien jardueran, eta hartan jarraitzeko eta kuota itzultzeko eskubideak galduko dituzte abonaturik ez dauden pertsonak.

Udalak finkatuko ditu abonaturik ez dauden pertsonak jardueretan izena emateko kuotak. Kuota desberdinak ezarriko dira abonaturik eta abonatu gabe dauden pertsonendako. Aurrekoa ezertan galarazi gabe, abonaturiko pertsonak lehentasuna izanen dute ikastaroetan izena emateko abonaturik gabeko pertsonen aurrean.

Berribeiteko Udalak bestelako sarbideak ezartzen ahaliko ditu, bai eta erregelamendu honetan ezarritakoak aldatzen ahal ere.

Halaber, baldintza bereziak ezartzen ahaliko ditu kirol klubentzat, ezintasunen bat duten bizilagunentzat eta biztanleriako beste sektore batzuentzat, egoki iruditzen bazaio.

16. artikulua. Abonaturik gabeko pertsonendako sarbide modu desberdinen orokortasunak.

16.1. Abonaturik ez dauden pertsonak aukeratutako sarbidearen eta adin mailaren arabera kuota oraindu beharko dituzte (eguneko sarrera, hilabeteko abonamendua). Adin maila hauek urterako abonaturiko pertsonetarako ezarritakoekin bat datoz.

16.2. Ordainketak eskudirutan egingen dira instalazioetara sartzean, ordainketak ezinen dira helbideratu. Ordainketa egin eta gero dirua ez da itzuliko.

16.3. Eremuak alokatzeko abonaturiko pertsonen lehentasuna izanen dute.

16.4. Abonaturik ez dauden pertsonen egoki iruditzen zaizkien erreklamazioak eta iradokizunak egin ditzakete instalazioen funtzionamenduaren gainean.

## V. KAPITULUA

### *Instalazioen erabilerari buruzko araudia*

17. artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak:

Betebehar hauek izanen dituzte:

17.1. Instalazioak eta zerbitzuak egoki eta zuzen erabiltzea.

17.2. Gainerako abonatu edo erabiltzaileei behar den errespetua gordetzea, bizikidetasun egokirako behar den jokabidea erabiliz.

17.3. Garaiz ordaintzea ezarritako kuota eta ordu erreserbak, aldeztatik ematen direnak.

17.4. Onartu eta betetzea instalazioen erabilerari buruz ematen diren arau eta argibide guztiak.

17.5. Kudeaketa eta jarraipen batzordeak proposaturik Udalak ezartzen dituen zehapenak betetzea.

17.6. Udalaren kirol instalazioen barranean, pertsona helduek arduratu beharko dute beren ardurapean dituzten adingabeen segurtasunaz.

17.7. Erabiltzaile adindunek erantzun beharko dute, baldin eta beren kargura dituzten adingabeek erregelamenduko arauak betetzen ez badituzte edo bertan zehazturiko arau-hausterik egiten badute.

17.8. Erabiltzaileek onartu beharko dituzte instalazioetan gertatzen diren objektu pertsonalen galerak, baldin eta desagertu edo hondatzen badira.

17.9. Udalaren kirol instalazioen erabiltzaileek zehatz-mehatz bete beharko dute ezarritako ordutegia, aldeztatik kalkulatu zenbat denbora eman beharko duten dutzatzen eta aldageletan, ixteko ordua inola ere ez gaundituzko.

17.10. Erabiltzaileek erantzun beharko dute, baldin eta Udalaren kirol instalazioetan ematen duten denboran asmo txarrez edo zaborke-riaz kalte edo galerarik eragiten badiete instalazioei edo hirugarrenei.

17.11. Kreditazio txartela aurkeztea Udalaren kirol instalazioetara sartzean, eta instalazioko langileek eskatzen dietenean. Udalaren kirol instalazioetara sartzeko kreditazio txartela ez aurkeztea administrazio-ko langileek bertara sartzeko debekua ezartzea ekarriko du.

17.12. Higiene arrazoia direla eta, debeku da erabat bizarra egitea, depilatzea, pedikura, manikura eta gisako jarduerak egitea.

17.13. Debeku da jatea eta erretzea kirol instalazio guztian, horretarako egokitutako guneetan izan ezik.

18. artikulua. Zerbitzugunea.

18.1. Zerbitzugunea esaten zaion aldean sartzen dira harrera-lekua, takillak, dutxak, zerbitzuak, kanpoko solariuma eta botikina.

18.2. Erabiltzaileek lagunduko dute instalazioa garbi egon dadin, langileei kasu eginez, eta instalazioko txoko guztietan dauden pape-ronziak eta hautsontziak erabiliz.

Debekatua da Udal kirol instalazioetan erretzea, solariumean izan ezik.

18.3. Erabiltzaileek errespetatu eta zaindu beharko dituzte altzarriak, bankuak, lorategiak, arbolak, etab.

18.4. Erabiltzaileek errespetatu beharko dituzte instalazioko ordutegiak, kasu eginez horretarako langileek egiten dizkieten oharrei.

18.5. Erabiltzaileek behar diren jokabidea eta egokitasuna agertu beharko dute, gainerako abonatuak errespetatu behar baituzte, hala jendetasunean nola kiroltasunean.

18.6. Jantzitegi zerbitzua takillen eremuan bakarrik izanen da. Udal kirol instalazioen erabiltzaileek takillak erabiltzea derrigorrezkoa izanen da, kirol eremuak erabiltzen dituzten bitartean pertxak eta bankuak libre uzteko.

18.7. Erabiltzaileek eskura izanen dute botikin zerbitzua, langile espezializatuen ardurapean (igerilekuetako bainu ordutegiaren barranean).

18.8. Higienea dela-eta, txankletak erabili beharko dira aldageletan eta dutxen aldean.

18.9. Patin, bizikleta, aulkitxo, gurdi edo antzekoak aldegele eremuan sartzeko debekatua dago. Hauendako egokia den eremua prestatuko da.

19. artikulua. Igerilekua.

Erabiltzaileek igerilekuak (barneko klimatizatu eta jolaseko eta haurrentzako igerileku estaligabeak) erabiliko dituzte bainatzeko, igeri egiteko nahiz, kasua bada, lehiaketak egiteko, betiere igerilekuan ongi zehazturik bakoitzari dagokion aldea.

Igerilekuetan, soroslea da (eta instalazioko gainerako langileak) haien funtzionamenduaren gaineko arduradun nagusia, eta betearazi beharko ditu Udalak ematen dituen arauak, instalazioak zentzuz erabiltzeko eta igerilari guztien segurtasuna zaintzeko bestexederik gabe.

Sorosleek aginpidea dute instalazioak gaizki erabiltzen dituztenei kargu hartu eta, azken neurri gisa, igerilekutik bidaltzeko, baldin eta bazterrak nahasten, ekipamendua gaizki erabiltzen eta erabiltzaileen osotasun fisikoarentzat arriskutsuak baldin badira.

Sorosleen eginkizuna eta beharkizuna da igerilekuko erabiltzaile guztien segurtasuna zaintzea; 18 urtetik beheratik haurren gurasoak edo legezko tutoreak dira beren seme-alaben arduradun nagusiak (berezi igeri egiten ez badakite).

Kirol instalazioetako langileek ahalmena dute portaera gaitzesgarria duten erabiltzaileei ohartarazteko (edo instalaziotik bidaltzeko), baldin eta gainerako erabiltzaileenganako errespetua gordetzen ez badute.

19.1. Urgunea, sarbidea eta egonaldia.

Erabiltzailea ez da kaleko arropa eta oinetakoekin igerilekura sartzen ahal.

Uretara sartu aitzin derrigorrezkoa da dutzatzea.

Derrigorrez erabili behar dira bainuko txanoa eta txankletak igerileku klimatizatuan, ez ordea kanpokoetan.

Debekatutako dago laster, jauzi edo bultza egitea, edo gainerako erabiltzaileentzat molestia edo arriskutsua izaten ahal den beste zernahi, eta oro har gainerako erabiltzaileak eragatzen ahal dituen edozein gauza. Orobat, ez da jaten ahal ez igerilekuaren eremuan ez hondartzan, ezta beirazko edo ezpaltzen ahal den bestelako zernahi erabiltzen ahal ere.

Debekatua da uretara buruz behera jauzi egitea barneko nahiz kanpoko igerilekuetan.

Debekatutako daude baloiak, koltxonetak edo gainerako erabiltzaileak molestatzen ahal dituzten bestelako gauzak (hegatsak, urperako betaurrekoak, etab.); onartzen dira, ordea, igeri egiteko betaurrekoak; salbu eta kirol instalazioan antolatzen diren aisialdiko jarduerak edo ikastaro bereziarako egun jakinetan. Igerilekuko langileek erabakiko dute erabiltzaileei aisialdiko erabilerarako uretako materiala utzi edo ez, une horretan igerilekuan ematen den egoera bereziaren arabera (erabiltzaile kopurua, material beharra, etab.).

Debeku da aulkia, etzaulkiak eta horrelakoak sartzeko.

Debeku da erabat listu egitea, pixa egitea eta, oro har, uraren kalitatea txartzen ahal duen edozein gauza.

19.2. Bainu aldea.

Erabiltzaileak erabiliiko ditu beste xede batzuetarako mugaturik ez dauden parteak (ikastaroak, entrenamendua ...).

Bakar-bakarrik erabiltzen ahaliko dute ikastaroetarako ematen den materiala (taulak, flotatzeko mahukak, ikasteko materiala ...), izena eman dutenek eta ikastaroetan soilik.

Debeku da igerilekuko kortxoetatik zintzilikatzea edo haiei lotzea.

Bainu librean ari direnek ez diete kargu hartzen ahaliko, ezta bulka edo inola traba egiten ahaliko ere, ikastaroren bat edo instalazioen kudeatzaileek antolatutako jardueraren bat egiten ari direnei.

Debeku da beirazko ontziak, ezpaletan zatitu daitezkeenak edo hausten direnak eta erabiltzaileei kalte egin diezaiaketenak sartzeko. Era berean debeku da barneko nahiz kanpoko igerilekuetan jatea eta edatea.

19.3. Ikastaroak eta entrenamendua.

Instalazioak kudeatzen dituen entitateak programaturiko jardueraren batean izena eman dutenek kasu egingen diete monitoreek emandako aholku eta aginduei, jardueren gainean edo instalazioak erabiltzeko moduari, eta errespetatuko dituzte erregelamendu hau eta indarra duen araudia.

20. artikulua. Spa eta erlaxazio eremua.

20.1. Spa eta erlaxazio eremuaren baitan sartzen dira ur ohe eta zurrustaz hornituriko hidromasaje igerilekua, jacuzzia, hala nola lurrin bainua, sauna, erromatar terma, izotz iturria, dutxa nebulizatzailea, ziklonikoa eta etzaulki termikoak.

20.2. Eremu hauen erabilpena 14 urtetik goitikoendako mugatua da; sauna, terma eta lurrin bainua izan ezik, hauetan sartzeko 16 izan beharko dira gutxienez.

20.3. Eremu bakoitzaren egonaldirako gehieneko denborak ezarriko dira, nahitaez bete beharrekoak.

20.4. Eremu guztietan panel batzuk paratuko dira, erabileraren gaineko aholkuak emateko, nahitaez bete beharrekoak.

20.5. Higieneagatik, nahitaezkoa da txankletekin sartzeari eremu horietan, baita esku-oihala erabiltzea ere. Debeku da eremu horietara bizkar-zorro, poltsa edo kaleko arropekin sartzeari.

20.6. Debeku da erabat edozein osagarri manipulatzeari; tenperatura, sondak, harriak, etab. Zalantza edo argibide kasuan instalazioko langileengana jo beharko da.

20.7. Debeku da erabat etzaulkiak erabili baino lehen erreserbatazea. Esku-oihala nahitaez erabili behar da.

20.8. Debeku da Spa eta erlaxazio eremuetan bizarra egitea, jatea eta ondarrak sortzen dituen edozein egintza.

20.9. Debeku da Spa eta erlaxazio eremuetara liburu, aldizkari edo paperak sartzeari.

20.10. Instalazioko zuzendaritzak osasun azterketa egitea gomendatzen die erabiltzaile guztiei, kirol eremu horiek erabiltzea osasunaren aldetik komeni zaien ala ez jakin dezaten.

21. artikulua. Muskulazio gela.

21.1. Abonatuak baizik ez dira sartzen ahalgo muskulazio gelara; beraz, instalaziora abonaturik ez daudenek ez dute kirol eremu hori erabiltzen ahalgo.

21.2. Muskulazio gelara sartu ahal izateko ikastaro bat egin behar da, monitore bat egonda, gutxienez ere 4 saio izanen dituen (ordu erdi bat saio, gutxienez ere).

21.3. Gelara sartzeko tasa bat ordaindu beharko da. Udalak onetsiko du aipatu tasa. Tasa horrek bidea ematen du gela osoa libreki erabiltzeko. Monitore bat egonen da, entrenamendurako plan bereziak prestatuko dituen.

21.4. Ikastaroa bukatuta erabiltzaileek gela erabili ahalgo dute instalazioa irekita dagoen ordutegi osoan.

21.5. 16 urtetik behekoek debeku dute gelara sartzeari. 16tik 18 urte bitartekoek, zerbitzu hau erabili nahi badute, aitak, amak edo tutoreak baimena idatzirik emanda egin beharko dute nahitaez. Arau hori ez betetzeak zehapena ekarriko du eta han egotearen ondorioak haien guraso edo legezko tutoreen gain izanen dira.

21.6. Salbuespen gisa, eta entrenatzailea duten talde antolatuen kasuetan, muskulazio aretoa erabili ahalgo dute betiere beren klubaren eta aita, ama edo tutoreen ardurapean.

21.7. Muskulazio gelako monitoreak eta instalazioaren ardura duten langileek aginpidea dute instalazioak gaizki erabiltzen dituztenei kargu hartzeko eta, azken neurri gisa, handik bidaltzeko, baldin eta bazterrak nahasten badituzte, makineria gaizki erabiltzen badute eta erabiltzaileen osotasun fisikorako arriskuak baldin badira.

21.8. Muskulazio gelara sartzeko, nahitaezkoa izanen da kirolerako arropa eta oinetakoak janzea, kaletik ekartzen direnak erantzita.

21.9. Garbitasunagatik eta gainerako erabiltzaileenganako errespetuagatik, esku-oihala eraman beharko da aparatuak erabiltzen direnerako.

21.10. Muskulazio gelaren erabiltzaileek, pisuak altxatzen aritu ondoan, pisuak beren lekuan utziko dituzte, gela txukun egon dadin.

22. artikulua. Aldagelak eta guztiendako eremuak.

22.1. Duten eremuan txankletak erabiltzea derrigorrezkoa da.

22.2. Takilla bakoitzeko giltzak egunero itzuli beharko dira, saio bakoitza bukatuta.

22.3. Norberaren garbiketarako, aldagelen aldea baizik ez da erabiliko.

22.4. Aldageletan debeku da bizarra egitea.

22.5. Aldageletan eta guztiendako eremuetan debeku da elikagaiak edo gozokiak sartzeari, baita jatea ere, horretarako diren eremuetan izan ezik.

22.6. Debeku da aulkitxoak, bizikletak, monopatinak edo gisakoak sartzeari aldagelen barnean.

22.7. Debeku da lasterka egitea, jostatzea, oihu egitea edo gainerako erabiltzaileei traba egiten ahal dien edozer.

22.8. Erabiltzaile guztiek instalazioko langileek erabilerari dela-eta egiten dituzten oharrak bete beharko dituzte.

23. artikulua. Kirol pista.

23.1. Kirol pista erabiltzea doakoa eta erreserbarik gabekoa izanen da.

23.2. Debeku da beirazko ontziak, ezpaletan zatitu daitezkeenak edo hausten direnak eta erabiltzaileei kalte egin diezaietenak sartzeari.

Era berean debeku da barneko nahiz kanpoko igerilekuetan jatea eta edatea.

23.3. Udako igerilekuen ordutegian kirol pista abonatuak erabiliko dute solik.

## VI. KAPITULUA

### Kirol ikastaroak

24. artikulua. Kirol ikastaroetan izena emateko abonatuak lehen-tasuna izanen dute gainontzeko erabiltzaileen aurrean. Horregatik, lehenbiziko abonatuentzako zerrendak irekiko dira, eta gero, tokirik baldin badago, abonatuak ez direnei ere izena emateko aukera eskainiko zaie.

25. artikulua. Udalak finkatuko ditu kirol ikastaroetan parte hartzeko ordaindu beharreko prezioak.

26. artikulua. Kirol ikastaro guztietan, jarduera bakoitzeko gehieneko izen emate kopurua finkatuko da; beraz, kupo hori betez gero, ezin izanen da pertsona gehiago hartu.

27. artikulua. Halaber, ikastaro guztietan izen emate kopuru gutxienekoa ere finkatuko da (instalazioko zuzendaritzak baloratu beharko du), haren azpitik ikastaroak deuseztatuko baitira.

28. artikulua. Kirol ikastaro batean izena eman ondoan, ez da inola ere berreskuratzen ahalgo ordaindutako diru-kopurua (ikastaroak hasiz gero), baldin eta jarduera aurreikusitako bezala egiten bada.

29. artikulua. Jarduera guztietan begiratuko da erabiltzaileak joaten ote diren kirol ikastaroetara, eta bakarrik baja ematen ahalgo zaio jarduera jakin batean inoiz agertzen ez denari. Neurri hori hala dago jarria, jardueretan dagokeen itxaron zerrendari bide emateko aukera izateko.

30. artikulua. Ez da inola ere onartuko egunez eta ordutegiz aldatzea, nahiz eta kirol jarduera bera izan; beraz, erabiltzaileak ezin izanen dira taldez aldatu, instalazioko zuzendaritzak kirol jardueretan zehazten dituen salbuespenak izan ezik.

## VII. KAPITULUA

### Arau-hausteak eta zehapenak

31. artikulua. Berriobetiko Udalarik dagokio abonatu edo erabiltzaileendako zehapen neurriak hartzea, erregelamendu honen konplimentua eta instalazioaren barreneko udal ondasunak begiratu beharrez.

32. artikulua. Instalazioetako enplegatuek ahalmena dute erabiltzaileei ahoz kargu hartzeko edo instalaziotik egozteko, edo abonatuak karneta kentzeko, ahozko kargu hartzeari kasurik egiten ez dietenean, arau-hausleari geroago ezar dakiokkeen zehapena ukatu gabe.

33. artikulua. Zehapenera iristeko prozedura:

Erregelamendu honetako edozein arau ez betetzeak berarekin ekar dezake karneta kendu eta, badaezpadako neurri gisa, instalaziotik egozteak; hori instalazioko edozein enplegatuek edo horretarako ahalmena duenak egiten dezake.

Kiroldegiko Kudeatzaileak txosten bat eta arau-hauslearen datuak igorriko ditu Udalera, bidezko zehapen neurriak har ditzan erregelamendu honetan oinarrituta. Zehapen horiek arau-hausleari jakinaraziko zaizkio. Ematen diren ebazpenen aurka, egungo legerian oro har ezarritako errekurtsoak aurkezten ahalgo dira, eta errekurtsoak ebatzi arte, instalazioaz baliatzeko aukera aldi baterako edo betiko galdu duen erabiltzailea ezin izanen da sartu.

34. artikulua. Barne araubidearen erregelamenduan eta kirol eremuen araudi berariazkoen eranskinetan agertzen diren arauak betetzen ez badira, arau-hausteak egiten da; horrek atal honetan aurreikusten diren zehapenak ezartzea ekarriko du.

Arau-hausteak arinak, larriak eta oso larriak arin daitezke.

35. artikulua. Arau-hauste arinak dira:

1. Kirol eremu bakoitzaren araudi berariazkoa ez errespetatzea.
2. Kirol instalazioak erabiltzea erreserbako egun eta/edo orduetatik kanpo.
3. Kirol instalazioak erabiltzea abonatu izan gabe, salbu eta eguneko sarrera edo baimen espresu puntuala badute, kirol ikastaro batean izena emanda egon edo instalazioak erabiltzen dituzten klub edo taldeetako batekoak badira.
4. Espresuki debekatutako aldeetan jan-edatekoak edo beirazko ontziak sartzeari.
5. Kirol instalazioetan erretzea, kanpoko solariumaren eremuan izan ezik.
6. Takillak modu desegokian erabiltzea.
7. Instalazioen ardura duten langileen esanei kasurik ez egitea.
8. Bi zehapen-gaztigu izatea.
9. Erregelamendu honetan ezarritako arauetako edozein ez betetzea, hutsegite larri edo oso larritzat hartzen direnak izan ezik.

Arau-hauste arina egiteagatik, zehapen hauetariko bat ezarriko zaio entitate edo subjektu arau-hausleari:

1. Aldi baterako kanporatzea, gehienez ere hamabost egunetarako, eta aldi horretan abonatu eta erabiltzaile eskubide guztiak galtzea.
2. Kargu hartze publiko edo pribatua.
3. Zehapen-gaztigua aplikatzea.
4. Denbora baterako zehapena, gehienez ere hilabetez kirol eremu berariazkoak ez erabiltzeko.
5. Arau-hauste arinen ondorioz instalazioetan, ekipamenduetan edo materialetan kaltea eragiten bada, zehapenean haren kostua ordaintzeko agindu ahal izanen da, baita betearazpenaren bidetik erreklamatu ere.

Arau-hauste eta zehapen arinak 6 hilabetera preskribatuko dira.

36. artikulua. Arau-hauste larriak dira:

1. Liskar edo eraso fisikoak piztea edo haietan parte hartzea.
2. Instalazioak hondatzen dituzten animalia edo gaiak sartzeta.
3. Instalazioak nahita zikintzea edo hondatzea.
4. Igerilekuetako, hidromasaje igerilekuetako eta/edo jacuzziko uraren kaitatea hondatzea.
5. Kirol instalazio, ekipamendu eta/edo materialetan listu edo pixa egitea edo zikintzea.
6. Kreditazio txartela modu desegokian erabiltzea.
7. 3 arau-hauste arin egitea.
8. Abonatu karneta beste edonori uztea instalazioan sartzeko.
9. Beste erabiltzaileen edo arau-hauslearen beraren segurtasunari eragin diezaiokkeen beste edozein arau-hauste.
10. Instalazioko edozein higigarri edo higiezin hondatzea.
11. Instalazioaren barrenean ordena larriki nahastea dakarren edozer egitea edo ez egitea.

Arau-hauste larria egiteagatik, zehapen hauetariko bat ezarriko zaio entitate edo subjektu arau-hausleari:

1. Instalazioetatik behin betirako kanporatzea, eta abonatu eta erabiltzaile eskubide guztiak galtzea.
2. Aldi baterako kanporatzea, gehienez ere sei hilabeteetarako, eta aldi horretan abonatu eta erabiltzaile eskubide guztiak galtzea.

Arau-hauste larrien ondorioz instalazioetan, ekipamenduetan edo materialetan kaltea eragiten bada, zehapenean haren kostua ordaintzeko agindu ahal izanen da, baita betearazpenaren bidetik erreklamatu ere.

Arau-hauste eta zehapen larriak 2 urtera preskribatuko dira.

37. artikulua. Arau-hauste oso larriak dira:

1. Instalazioak edota kirol materiala hondatzea nahiz ebatsi edo lapurtzea.
2. Instalazioetako langileei gorputzez edo hitzez eraso egitea.
3. Erabiltzaileen gauzak ebatsi edo lapurtzea.
4. Instalazioen barrenean bizikidetzari, ordenari eta segurtasunari bereziki eragiten dieten jarduketak.
5. Instalazioen funtzionamendu arrunta galaraztea edo horretarako oztopo larriak jartzea.
6. Hornidura, azpiegiturak, elementuak edo instalazioak modu larrian hondatzea.
7. Urtebetean hiru arau-hauste larri egitea.

Arau-hauste oso larria egiteagatik, zehapen hauetariko bat ezarriko zaio entitate edo subjektu arau-hausleari:

1. Instalazioetatik behin betirako kanporatzea, eta abonatu eta erabiltzaile eskubide guztiak galtzea.
2. Aldi baterako kanporatzea, gehienez ere sei hilabeteetarako, eta aldi horretan abonatu eta erabiltzaile eskubide guztiak galtzea.

Arau-hauste oso larrien ondorioz instalazioetan, ekipamenduetan edo materialetan kaltea eragiten bada, zehapenean haren kostua ordaintzeko agindu ahal izanen da, baita betearazpenaren bidetik erreklamatu ere.

Arau-hauste eta zehapen oso larriak 4 urteren buruan preskribatuko dira.

38. artikulua. Ematen diren ebazpenen kontra, indarra duen legerian kasu orokorretarako ezarritako errekurtsoak aurkezten ahal dira.

Errekurtso horiek ebazten diren arte, instalaziora sartzeko eskubidea aldi baterako edo behin betiko kendu zaion erabiltzailea ezin izanen da instalaziora sartu.

39. artikulua. Zehapen araubideari aplikatzen ahal zaion arautegia ondokoetan ezarritakoaren arabera arautuko da: Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Foru Legeko IX. titulua, "Zehapen ahalmena",

eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko XI. titulua.

## VIII. KAPITULUA

### Erregelamendu honetako xedapenak

40. artikulua. Berribeiteko Udalaren esku gelditzen dira erregelamendu honen interpretazioa eta aplikazioa. Zerbitzuaren kudeaketaz arduratzen den pertsona edo entitateak jardungo du Udalaren eskuordetza izanik, haren xedapenak interpretatu eta aplikatzen, eta konponbiderik zuzenena bilatuko du instalazioen eguneroko erabileran sortzen diren arazoetan.

## AZKEN XEDAPENA

Erregelamendu honek Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN osorik argitaratu eman eta biharamunean hartuko du indarra.

### TARIFEN ERANSKINA 2008

| Erroldatuak           | 6tik 15 urte arte                           | 16 urtetik goiti                            | 65 urte, erretiratuak eta pentsiodunak      |
|-----------------------|---|---|---|
| Urteko abonam.        | Matrikula 18 euro eta 10 euro hilabete bak. | Matrikula 30 euro eta 17 euro hilabete bak. | Matrikula 18 euro eta 10 euro hilabete bak. |
| Hilabeteko abonam.    | 36 euro hil. bak.                           | 50 euro hil. bak.                           | 36 euro hil. bak.                           |
| Eg. sarrera (laneg.)  | 4 euro                                      | 7 euro                                      | 4 euro                                      |
| Eg. sarrera (jaiieg.) | 5 euro                                      | 9 euro                                      | 5 euro                                      |

| Erroldatu gabeak      | 6tik 15 urte arte     | 16 urtetik goiti      | 65 urte, erretiratuak eta pentsiodunak |
|-----------------------|-----------------------|-----------------------|--|
| Hilabeteko abonam.    | 70 euro hilabete bak. | 70 euro hilabete bak. | 70 euro hilabete bak.                  |
| Eg. sarrera (laneg.)  | 5 euro                | 9 euro                | 5 euro                                 |
| Eg. sarrera (jaiieg.) | 7 euro                | 12 euro               | 7 euro                                 |

| Ikastaroetako tarifak      | Abonatuak       |                | Abonatu gabea   |                |
|----------------------------|-----------------|----------------|-----------------|----------------|
|                            | saio bat astean | astean bi saio | saio bat astean | astean bi saio |
| Haurrak                    | 25,00 euro      | 40,00 euro     | 50,00 euro      | 80,00 euro     |
| 16 urtetik goitiko helduak | -               | 50,00 euro     | -               | 90,00 euro     |

Muskulazio gela (hiruhileko kuota): 9 euro.

Txanosen salmenta: 4 euro.

Txartelaren kopia: 7 euro.

Ordinagiria itzultzearen gastuak: 4 euro.

L0804707

## BUÑUEL

### Ordenantzako aldaketa. Hasierako onespina

Buñuelgo Udalak, 2008ko martxoaren 3an egin osoko bilkura berezian, erabaki zuen hasiera batean onestea hirigintzari buruzko ordenantzako aldaketa partziala, hain zuzen ere lurzoru urbanizaezinetan nekazaritzako biltegiak eraikitzeari dagokiona.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz, onestitako aldaketa jendaurrean egonen da hogeita hamar egun baldiodunean, iragarki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik hasita, interesdunek espedienteaz aztertu eta erreklamazio, kexa edo oharak aurkez dituzten.

Jendaurreko epean alegaziorik aurkezten ez bada, Lurzoru urbanizaezinetan nekazaritzarako biltegiak eraikitzeari buruzko ordenantzako aldaketa partziala behin betikoz onestirik geldituko da eta osorik emanen da argitara Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN.

Buñuelen, 2008ko martxoaren 14an.-Alkatea, Santiago Mayayo Chueca.

L0805127

## CABANILLAS

### Cabanillasko elbarriandako apartatze-txartela arautzen duen ordenantzako aldaketa. Behin betiko onespina

Cabanillasko Udalak, 2008ko urtarrilaren 17an egin bilkura berezian, gehiengo aski zuela, hasiera batean onestea erabaki zuen Cabanillasko elbarriandako apartatze-txartela arautzen duen ordenantza.

Erabakia 2008ko 21. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, otsailaren 15ean, eta jendaurrean egon bitartean Amimet elkarteak aurkezturiko erreklamazioa 2008ko martxoaren 28ko bilkura berezian ebatzi ondoren, behin betiko onetsi da aipatu ordenantza; hori guztia

Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan ezarritako legezko prozedurarekin bat.

Cabanillasen, 2008ko martxoaren 31n.-Alkatea, Ana María Rodríguez Enériz.

#### ELBARRIENDAKO APARKATZE-TXARTELA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

##### 1. artikulua. Xedea.

Ezgaitasuna dutenei aparkatzeko txartelak emateko edo berritzeko arauak ezartzea du helburu ordenantza honek, kontuan hartuz ezgaitasuna dutenen aukera berdintasuna eta haien gizarteratzea. Hori, legedi honekin bat: Europako Kontseiluak 1998ko ekainaren 4an egin zuen 98/376/CE Gomendioa eta EEAO C 62/24, 1998ko otsailaren 26koa; Oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legea, martxoaren 25eko 22/2003 Foru Legearen bidez aldatua; eta abenduaren 19ko 19/2001 Legearen 7.b artikulua; azken lege horrek Bide Segurtasunari eta Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari buruzko Legearen testu artikuluduna (martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia) aldatu zuen.

##### 2. artikulua. Betebeharrak.

Aparkatze txartela eskuratzeko, beharrezkoa da baldintza hauek betetzea:

##### 1. Herriko biztanleen udal erroldan agertzea.

2. Mugikortasuna urritzen dion elbarritasuna izatea; xehetasun hauek frogatu beharko ditu:

##### A. %33ko edo gehiagoko elbarritasunak jota egotearen ziurtagiria.

B. Nafarroako Osasun Zerbitzuak emandako osasun agiria, elbarritasunak kasu hauetako batean modu larrian eragiten diola frogatzeko:

-Ibiltzeko, zangoetako edo gerri pelbikoko gaitz muskulu eskeletikoa dela-eta, eskumakila bat edo gehiago, protesiak edo ortesiak erabiltzera behartua izanik.

-Ehun metroko tartean gelditu gabe ibiltzeko, alterazio organiko edo funtzionalen ondorioz.

-Aulki gurgilduna behar izateko bere joan-etorrietan.

-Aparkatzeko maniobrak egiteko, zango-besoetako edo gerri pelbikoko eta/edo sorbalda-gerrikoko gaitz muskulu eskeletikoa dela-eta.

##### 3. artikulua. Eskatzeko prozesua.

1.-Txartela Udalaren bulegoetan eskatuko da, eta eskabidearekin batera honako hauek aurkeztuko dira:

-Karnet neurriko argazki bat, kolorezkoa, elbarriarena.

-Elbarritasunaren jatorrizko ziurtagiria eta haren fotokopia.

-NANaren fotokopia.

-Eskaera familiako batek edo zaintzaile batek egiten duenean, elbarriaren eta eskatzailearen arteko loturari buruzko datuak sartuko dira.

2.-Udalak behar den dokumentazioa hartu ondoren, Alkatezatz erabakiko du aparkatzeko txartelak eman edo ez, horretarako organo eskuduna baita.

Segurtasuneko kidego eskudunek zaindu eta kontrolatuko dute txartelaren erabilera.

3.-Eskaerak ez baditu baldintzak betetzen edo ez badira aipatu dokumentuak gehitu, interesdunari galdatu egingen zaio hamar eguneko epean akatsak zuzentzeko edo beharrezko dokumentuak gehitzeko; oharraraziko zaio horrela egiten ez badu eskaera baztertu duela usteko dela, eta artxibatu egingen da.

4.-Eskaera aurkeztu eta 5 egun naturaleko epean, Alkatezatz erabakia hartuko du, txartela emateko edo ukatzeko.

##### 4. artikulua. Txartelaren erabilera:

1. Txartela norberarena da eta inori utziezina; mugikortasuna urritua dutenei aparkatzeko eskubide eta erraztasunak ematen dizkio titularrari.

2. Txartelaren titularrak pertsona fisikoa bada, edozein ibilgailutan erabil dezake, berea izan edo ez eta berak ibilgailua gidatu edo ez, bera barrenean bada.

Txartela ibilgailuaren aurreko partean jarriko da, txartelaren aurrealdea kanpotik ikusteko moduan dela.

##### 3. Ibilgailu txartelduna aparkatu ahaliko da:

a) Ordu-tegi mugarik gabe, ezgaituentzako erreserbatuta eta seinalatuta dauden lekuetan.

b) Denbora tarte mugatu batean, bai zamalanetarako erreserbatuta dauden lekuetan (seinale bidez aparkatzeko debekua adierazi denetan) bai bestelakoetan, udaltzainek espresuki baimena emanaz gero.

4. Ondoko kasuetan, ezin izanen da inola ere ibilgailua aparkatu baimen honen babespean:

a) Txartelaren titularrak barrenean ez denean.

b) Oinezkoen pasabideetan.

c) Espaloien gainean.

d) Orokorrean, ibilgailuen nahiz oinezkoen joan-etorria larriki tratzen den tokietan.

5. Bi urteko indarraldia du, non ez den titularraren elbarritasuna aldi baterakoa; kasu horretan, elbarritasunaren ziurtagiriak noiz artekoa den aipatu, ordu arte balioko du txartelak.

Elbarritasunaren gradua eta epealdia behin betiko finkatua dutez, 5 urteko indarraldia izanen du txartelak.

Indarraldia amaituta, ez du gehiago baliorik izanen, eta hartu zen tokian itzuli beharko da. Han, bidezko bada, berri-eginen da.

##### 5. artikulua. Arau-hausteak eta zehapenak.

Arau-hauste administratiboak dira:

a) Txartela lortzeko aurkezten diren datuak faltsutzea eta txartela lortzea eragotziko luketenak gordetzea.

b) Txartelak kontzesio administratiborik gabe erabiltzea.

c) Beste baten txartela erabiltzea.

Faltsutzea egin dutenak eta txartela eskatzen dutenak izanen dira arau-haustearen erantzuleak.

Arau-hausteak zehatzeko, beharrezko zehapen espedienteak abiaraziko da eta, haren ebazpena eman aitzin, interesdunari entzunaldia emanen zaie, zehapen ahalmena erabiltzeko prozedura onesten duen abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretuan xedatutakoari jarraikiz.

#### AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Ordenantza honek indarra hartu eta ondorio juridikoak izanen ditu ordenantzaren testua oso-osorik Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutakoan eta Estatuko edo Foru Komunitateko Administrazioek toki entitateen egintza edo erabakiak indargabetzeko duten eskumena erabiltzeko epea iragandakoan.

L0804827

#### CADREITA

##### 2008ko ekitaldirako aldaketa, ordenantzetako tasa eta prezio publikoetan. Behin betiko onespina

Cadreitako Udalak, 2008ko urtarrilaren 14an egin osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen ordenantza fiskaletako aldaketa, tarifa eta zenbatekoei dagokienean.

Onespenaren erabakia 2008ko 27. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, otsailaren 29an, eta jendaurreko epean inork ez du alegaziorik aurkeztu; hortaz, ordenantza horretako aldaketa behin betiko onetsi eta osorik ematen da argitara, behar diren ondorioak izan ditzan; hori guztia, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

2008ko ekitaldirako tasak eta prezio publikoak ondoko hauek dira.

##### 4. ORDENANTZA. AGIRIAK LUZATU ETA TRAMITATZEA

-Ziurtagiriak:

Edozein agiri: 3,60 euro/bakoitza.

Hirigintza egoera: 3,60 euro/bakoitza.

Gainerako edozein: 3,60 euro/bakoitza.

Hirigintzako kalifikazioa: (teknikariak kobratzen duena).

-Bestelakoak:

Fotokopiak (10 arte, hamargarrena barne): 0,20 euro/bakoitza.

Fotokopiak (10etik goiti): 0,10 euro/bakoitza.

Konpultsak: 2,20 euro/bakoitza.

Faxa: 2,20 euro/bakoitza.

##### 5. ORDENANTZA. IREKITZEKO LIZENTZIAK

Berritik paratzen diren establezimenduak: 103,00 euro.

Lokala tokiz aldatzea: 93,00 euro.

Titulartasuna aldatzea: 103,00 euro.

Sailkapena aldatzea: 103,00 euro.

Legearen arabera ezarritako txostenen kostua, txosten hori eskatu beharra sortarazi zuen subjektu pasiboaren kontura izanen da.

##### 6. ORDENANTZA. ESTOLDERIA ETA UREN ARAZKETA

Saneamendu sarerako hargunearen tasa (etxebizitza, pisu edo lokal bakoitzeko): 99,50 euro+BEZA.

Etxebizitzetako estolderia: 8,50 euro+BEZA.

##### 8. ORDENANTZA. KIROL INSTALAZIOAK ERABILTZEA

-Denboraldiko abonamendua:

Senar-emazteen abonamendua: 90,00 euro.

14 urtetik goitikoan abonamendua: 60,00 euro.

5etik 13 urte bitartekoan (biak barne) abonamendua: 33,00 euro.

Erretiratuen eta ezinduen abonamendua: 15,00 euro.

Familia ugariaren abonamendua: 200,00 euro.

–Hamabostaldiko abonamenduak:

14 urtetik goitikoak: 60,00 euro.

5etik 13 urte bitarte, biak barne: 33,00 euro.

–Eguneko sarrera:

14 urtetik goitikoak: 5,00 euro.

5etik 13 urte bitarte, biak barne: 4,00 euro.

Nork bere pasea galdu edo norbaitek ebastea: 3,00 euro.

#### 9. ORDENANTZA. UR HORNIDURA

Zerbitzua eskura edukitzea (euro/hiruhilekoa): 14,00+BEZA.

Hornidura (euro/m<sup>3</sup>): 0,4450+BEZA.

Hornidura sarrerako hargunearen tasa (etxebizitza, pisu edo lokal bakoitzeko): 99,50+BEZA.

Ur sarean alta edukitzeko, lehenagotik borondatezko baja hartu badu, hargunearen tasari gehituko zaio zerbitzua eskura edukitzea, ur sarean baja hartuta egon den hiruhileko guztiei dagokiena.

Ur kontagailua hautsi eta zuzen irakurtzeko egoeran ez badago, hiruhileko ur kontsumoaren zenbatespena honela egingen da:

A. Familiako kontagailua denean, aurreko 4 hiruhiletako kontsumoaren batez bestekoa aterako da.

B. Enpresako kontagailua denean, aurreko ekitaldiko denbora be-rean izandako kontsumoa hartuko da.

#### 10. ORDENANTZA. HEGALKINAREN, LURZORUAREN ETA ZORUPEAREN APROBETXAMENDUA

–Jaietako barrakak:

Txokeko autoak (eguna): 36,00 euro.

Tiroak (eguna): 5,90 euro.

Tonbolak eta txurrotegia (eguna): 7,10 euro.

Zaldiko-maldikoa (eguna): 5,90 euro.

Txokeko autoak (jaiak osorik): 290,00 euro.

Tiroak (jaiak osorik): 47,00 euro.

Tonbolak eta txurrotegia (jaiak osorik): 58,00 euro.

Zaldiko-maldikoa (jaiak osorik): 47,00 euro.

–Jaietako ibilgailu-tabernak:

6 ml baino gutxiago (eguna): 5,90 euro.

6 ml baino gehiago (eguna): 7,80 euro.

6 ml baino gutxiago (jaiak osorik): 47,00 euro.

6 ml baino gehiago (jaiak osorik): 63,00 euro.

–Azoka txikiak:

Saltoki bakoitzeko (eguna): 4,80 euro.

Saltoki bakoitzeko (jaiak osorik): 38,50 euro.

–Bestelakoak:

Olanak eta karpak (euro/m<sup>2</sup>): 0,75 euro.

Mahaia, aulkiak eta mahaitxoak (euro/mahaia): 21,50 euro.

7 mahai baino gehiago: 142,00.

Merkatu txikiak –gehienez ere 8 metro– (euro/eguna): 5,90.

Gainerako metro bakoitzeko (euro/eguna): 0,80.

Balkoiak eta terrazak ixtea (eraikitako m<sup>2</sup> bakoitzeko, poligono fiskalaren arabera).

Garabiak (euro/eguna): 3,50.

Eraikuntzako materiala (euro/m<sup>2</sup>/eguna): 0,13.

Nekazaritzako produktuak (euro/m<sup>2</sup>/eguna): 0,13.

Eraikuntzako materiala (gutxienez ere): 42,00.

Nekazaritzako produktuak (gutxienez ere): 42,00.

Aprobetxamendu bereziak, jabari publikoko lurzoruan/zorupean (euro/ml.): 1,40.

Aldamioak: 1,75.

Aldamioak urbanizatu gabeko eremuetan: 0,90.

#### 11. ORDENANTZA. PASABIDEAK

–3 metro linealeko pasabidea euro/urtea: 85,00 euro.

–Euro/urtea, pasabideko gainerako metro bakoitzeko: 30,00 euro.

#### 12. ORDENANTZA. BASKULA

0-5.000 Kg: 0,60 euro.

5.000-10.000 Kg: 0,70 euro.

10.000-15.000 Kg: 1,10 euro.

15.000-20.000 Kg: 1,45 euro.

20.000 Kg-tik gora: 3,00 euro.

#### 14. ORDENANTZA. HODIAK LIBRATZEKO KANABERAK

Bakoitzeko: 0,40 euro.

#### 15. ORDENANTZA. KONPRESOREA ALOKATZEA

Zerbitzuko ordu bakoitzeko (peoia eta konpresorea): 30,00 euro+BEZA.

#### 24. ORDENANTZA. MUSIKA ESKOLA

Musika hizkuntza (euro/hilabetea/ikaslea): 20,00 euro.

Musika tresna (euro/hilabetea/ikaslea): 20,00 euro.

#### 16. ORDENANTZA. HILERRIA

Nitxoak euro/bakoitza: 665,00.

Gorpuzkietarako nitxoak euro/bakoitza: 85,00.

Lurzatiak, panteoiak egiteko euro/m<sup>2</sup>: 85,00.

Cadreitan, 2008ko martxoaren 31n.–Alkatea, Alfonso Montori.

L0804846

### CASCANTE

#### Cascanteko ezinduendako aparkatze-txartelak arautzen dituen udal ordenantza. Hasierako onespena

Cascanteko Udalak, 2008ko martxoaren 30ean egindako osoko bilkura arruntean, honako erabaki hau hartu zuen:

Ordenantzaren proposamena aztertutik, Gizarte Ongizate batzordeari aurkeztu baitzitzaion, eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, Udalak osoko bilkuran erabaki du:

a) Behin betiko onestea Cascanteko ezinduendako aparkatze-txartelak arautzen dituen ordenantza.

b) Hasiera batean onestitako ordenantza jendaurrean edukitzea hogeita hamar egunean, Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Udaleko iragarki oholean iragarkia jarri ondotik, bizilagunek eta bidezko interesa dutenek espedientea aztertu eta erreklamazio, kexa edo oharra aurkez ditzaten.

c) Jendaurreko epean inork alegaziorik aurkezten ez badu, ordenantza behin betikoz onestita geldituko da, eta osorik emanen da argitara Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN.

Aditzera ematen da, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 325.1 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Cascanten, 2008ko apirilaren 2an.–Alkate udalburua, Antonio Irujo Redrado.

L0805012

### MILAGRO

#### Udal zergen eta tasa eta prezio publikoen 2008ko portzentajeak eta karga tasak. Behin betiko onspena

Milagroko Udalak, 2007ko abenduaren 12an egin bilkuran, hasiera batean onetsi zituen udal zergen eta tasa eta prezio publikoen 2008ko ekitaldiko portzentajeak eta karga tasak.

Onspenaren erabakia 2008ko 9. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, urtarrilaren 21ean, eta jendaurreko epean inork ez du alegaziorik aurkeztu; hortaz, aipatutako aldaketa behin betikoz onetsi eta osorik ematen da argitara, behar diren ondorioak izan ditzan; hori guztia, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/2008 Foru Legearen 325. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

#### 2008KO UDAL ZERGAK

Hirilurraren gaineko kontribuzioa: katastroko balioaren %0,28.

Landalurraren gaineko kontribuzioa: katastroko balioaren %0,80.

J.E.Z.: katastroko balioaren %1,40.

E.I.O.Z.: obra egiteko aurrekontuaren gainean, %4,32.

Hirilurren balio igoeraren gaineko zerga: ondoko portzentajeak eta tasak, hain zuzen ere Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 175. eta 176. artikuluetan ezartzen direnak (%2,5eko portzentaje finkoa eta %9ko karga).

#### 2008KO TASAK ETA PREZIO PUBLIKOAK

–33001 Agiriak luzatzea.

DIN-A4 tamainako fotokopiak: 0,25 euro bakoitza.

DIN-A3 tamainako fotokopiak: 0,30 euro bakoitza.

Ziurtagiriak eta konpultsak: 2,50 euro bakoitza.

Agiriaren kopiak edo bikoizketak: 2,50 euro bakoitza.

Jarduera sailkatuaren espedientea: 280,00 euro bakoitza.

Irekitzeko lizentziaren espedientea: 200,00 euro bakoitza.

Hirigintzako espediente partikularra: 290,00 euro bakoitza.

Taxi lizentzia: 110,00 euro urtean.  
 Lehenbiziz erabiltzeko lizentzia: 120,00 euro.  
 Ezkontza zibila egitea: 70,00 euro.  
 -330071 Ur hornidura.  
 Hiru hilabeteko kuota finkoa: 8,00 euro/kontagailua.  
 Etxebizitzako kontsumoa: 0,47 euro/m<sup>3</sup>.  
 Industriako kontsumoa: 0,70 euro/m<sup>3</sup>.  
 Saneamendu saria: NILSaren tarifa ofiziala.  
 Lotunerako eskubidea: 134,00 euro+BEZa.  
 -330072 Estolderia tasa.  
 Hiru hilabeteko kuota finkoa: 2,00 euro.  
 Etxebizitzetako sarera isurtzeko tasa: 0,18 euro/m<sup>3</sup>.  
 Industrien sarera isurtzeko tasa: 0,17 euro/m<sup>3</sup>.  
 Lotunerako eskubidea: 134,00 euro+BEZa.  
 -33020 Ibilgailuak eta makinak lagatzea.  
 Atzera hondeamakina: 44,00 euro orduko+BEZa.  
 Dumperra: 21,00 euro orduko+BEZa.  
 Konpresorea: 30,00 euro orduko+BEZa.  
 Traktorea: 27,00 euro orduko+BEZa.  
 Motoponpa: 24,00 euro orduko+BEZa.  
 Eskuko trinkogailua: 18,00 euro orduko+BEZa.  
 Bibragailu-arrabola: 24,00 euro orduko+BEZa.  
 Zisterna: 37,00 euro orduko+BEZa.  
 Plataforma jasotzailea: 14,00 euro orduko+BEZa.  
 Peoiaren lanordua: 17,00 euro orduko+BEZa.  
 Ofizialaren lan ordua: 22,00 euro orduko+BEZa.  
 -35104 Azoka txikia plazan.  
 Saltokiak (4 metro bitarte): 12,00 euro egunean.  
 Gainerako metro bakoitzeko: 4,00 euro egunean.  
 -35118 Zoru, hegalkin eta zorupea okupatzea.  
 Iberdrola: hitzarmenaren ariora.  
 Telefónica: hitzarmenaren ariora.  
 Gas Navarra: hitzarmenaren ariora.  
 Retena-Tenaria: hitzarmenaren ariora.  
 -Eremu publikoa okupatzea.  
 Mahaia eta kadirak: 8 euro/m<sup>2</sup> edo zatikia.  
 Litxarrera eta antzekoen salmenta automatikorako aparatuak: 9 euro egunean.  
 Kalez kaleko salmenta bestetan: 4 euro/metroa eta eguna.  
 Umeendako ikuskizunak eta barrakak, AIFNaren hitzarmenetik kanpo:  
 4 metro karratu bitarte: 22 euro/metroa eta eguna.  
 4 metro karratutik 50era: 17 euro/metroa eta eguna.  
 50 metro karratutik 100era: 9 euro/metroa eta eguna.  
 100 metro karratu baino gehiago: 8 euro/metroa eta eguna.  
 Talka egiteko autoak 1.100 euro/feria.  
 Txurro, saltxitxa, izozki etab.en saltokiak: 60 euro/feria  
 -Obretarako lurzorua okupatzea.  
 Obra hondakinak eta eraikuntzako materialak: 0,125 euro/m<sup>2</sup>/eguna.  
 Garabia: 4,25 euro egunean.  
 -35201 Pasabideak.  
 Pasabiderako urteko lizentzia: 50,00 euro.  
 -56002 Herrilurretako aprobetxamenduak.  
 Ureztatzeko lurzattia: 47,00 euro.  
 Lehorreko lurzattia: 19,00 euro.  
 -Hilerriko nitxoer salmenta: 500 euro+BEZa.

**KULTUR ETXEA**

-Merkataritzako ekitaldiak eta bilerak.  
 - Egun erdia: 160 euro.  
 - Egun osoa (goiz eta arratsalde): 220 euro.  
 -Ekitaldi politikoak hauteskundeetatik kanpo: 110 euro.  
 -Ekitaldi politikoak hauteskundeetan: 0 euro.  
 -Hitzartutako kultur ekitaldiak: 0 euro.  
 -Zinema:  
 - Helduendako sarrerak: 3 euro.  
 - Adingabeendako sarrerak: 2 euro.

-Antzerkia:  
 - Helduendako sarrerak: 5 euro.  
 - Adingabeendako sarrerak: 3 euro.  
 -Irabazteko asmoa duten erakusketak:  
 - Interesdunaren konturako zaintzailearekin: 10 euro egunean.  
 - Zaintzailerik gabe: 25 euro egunean.  
 Erakundeek edo pertsona pribatuek antolatutako ekitaldiak, ordaindu beharrekoak: 250 euro/ekitaldia.

#### FRONTOIA-KIROLDEGIA

Merkataritzako ekitaldiak eta bilerak: 400 euro.  
 Ekitaldi politikoak hauteskundeetatik kanpo: 150 euro.  
 Hitzartutako kirol ekitaldiak: 0 euro.  
 Erakundeek edo pertsona pribatuek antolatutako ekitaldiak, ordaindu beharrekoak: 250 euro/ekitaldia.

#### UDALAREN MUSIKA ESKOLA

-Matrikula: 10,00 euro.  
 -Kuotak:  
 ▪ Hasierako zikloa.  
 Musika hizkuntza, ordubete astean: 16,00 euro hilean. Astean ordu eta erdi: 18,00 euro hilean.  
 Musika tresna, 0,5 ordu astean: 20,00 euro hilean.  
 Musika hizkuntza-Musika tresna: 38,00 euro hilean.  
 ▪ Ziklo ertaina.  
 Musika hizkuntza, 2 ordu astean: 20,00 euro hilean.  
 Musika tresna, 0,50 ordu astean: 27,00 euro hilean. Astean 0,75 ordu: 30,00 euro hilean.  
 ▪ Helduak.  
 Musika hastapena, ordubete astean: 18,00 euro hilean.  
 Musika hizkuntza-Musika tresna, 0,5 ordu astean: 40,00 euro hilean.  
 Musika hizkuntza, 2 musika tresna: 50,00 euro hilean.  
 (\*) Lehen hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleak (7 eta 8 urtekoak)  
 Musika hizkuntza (lehen urtea) eta Musika tresna (bigarren urtea) eskolak jasoko dituzte.

*Kirol instalazioak erabiltzeko kuotak  
 (igerilekuak eta kiroldegiak batera), 2008an  
 (2007ko irailaren 28ko bilkuran aldatua)*

-Kirol instalazioko bazkidea - Hiru hilabeteko kuota.  
 0-5 urte: 0 euro.  
 6 - 9 urte: 10 euro.  
 10 - 13 urte: 20 euro.  
 14 - 17 urte: 25 euro.  
 18 urtetik aitzina: 35 euro.  
 -Kirol instalazioko bazkidea - Matrikulatzeko kuota.  
 0 - 5 urte: 0 euro.  
 6 - 9 urte: 5 euro.  
 10 - 13 urte: 15 euro.  
 14 - 17 urte: 35 euro.  
 18 urtetik aitzina: 50 euro.  
 -Kirol instalazioetako hilabeteko abonamendua.  
 0 - 5 urte: 0 euro.  
 6 - 9 urte: 5 euro.  
 10 - 13 urte: 15 euro.  
 14 - 17 urte: 20 euro.  
 18 urtetik aitzina: 30 euro.  
 -Eguneko sarrera kirol instalazioetan.  
 0 - 5 urte: 0 euro.  
 6 - 13 urte: 2 euro.  
 14 - 17 urte: 3 euro.  
 18 urtetik aitzina: 4 euro.  
 -Instalazioak alokatzea (ordu bat, Milagroko Udalak baimenduta).  
 - Bazkideak: 30 euro.  
 - Bazkide ez direnak: 30 euro + eguneko sarrera.  
 -Hilabeteko jarduerarako kuota.  
 - Bazkideak (16 urtetik goitikoak): 22 euro.  
 - Bazkideak (16 urtetik beheitikoak): 11 euro.  
 -Igerileku publikoetan udako denboraldiko abonamendua.  
 0 - 5 urte: 0 euro.  
 6 - 9 urte: 20 euro.

10 - 13 urte: 28 euro.

14 - 17 urte: 38 euro.

18 urtetik aitzina: 39 euro.

–Prezio bereziak:

65 urtetik goitikoei edo erretiratupei hurrengo tasak ezarriko zaizkie:

Kirol instalazioko bazkidea, hiru hilabeteko kuota: 10 euro.

Igerileku publikoetako bazkidea, udako denboraldia: 10 euro.

Kirol instalazioetako bazkide egiteak, bertako bazkide gisa gutxienez 6 hilabete izatera derrigortzen du. Epe honetan zehar bazkideak ezin izanen du baja eman abonatu gisa.

Hiruhilekoko kuota besterik gabe berrituko da betiere jakinarazten ez bada abonamendua izatetik gelditzeko guraria. Horretarako eskabidea aurkeztu behar da hiruhilekoa amaitu baino hamabost egun lehenago.

Izatetik gelditu ondoan berriz ere abonamendudun izan nahi izanez gero, matrikula ordaindu beharko da, Milagroko Udaleko Kultura, Turismo eta Kirol Batzordeak zehazten dituen kasuetan izan ezik.

Familiendako abonamenduak: Familia bereko 3 kideetatik aurrera (gurasoak eta seme-alabak) bazkidearen kuotaren gaineko %30eko murrizketa ezarriko da.

(\*) Kirol instazioztat joko dira kiroldegia eta igerileku publikoak.

Milagron, 2008ko apirilaren 2an.–Alkatea, Esteban Garijo Pérez.

L0805005

## OLAZTI

### Aldaketa udalerrri honetako Herrilurren ordenantzan. Herrilurrak erabiltzeko 2008ko lur sariaren onespina

Olaztiko Udalak, 2007ko abenduaren 19an egin osoko bilkuran, aldaketa hasiera batean onetsi zuen aipatu ordenantzan.

Onespenaren erabakia 2008ko 9. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, urtarrilaren 21ean. Jendaurreko epean aurkeztutako alegazioak ebatzi ondoan, ordenantzako aldaketa behin betikoz onetsi da eta xedatu osorik argitara dadila, behar diren ondorioak izan ditzan; hori guztia, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan, maiatzaren 31ko 15/2002 Foru Legeak aldatu zuen hartan, xedatutakoari jarraikiz.

### HERRILURRETAKO APROBETXAMENDUAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

20.1 artikulua. 2008rako lur sari hau izanen da: 40 euro/hektarea.

Olaztin, 2008ko martxoaren 31n.–Alkatea, Iñaki Mentxaka Berra.

L0805133

## OLAZTI

### Udal Planeko aldaketa

Olaztiko Udalak, 2008ko martxoaren 27an egin osoko bilkura arruntean, behin betikoz onetsi ditu ondok ematen diren aldaketak indarra duen Udal Planean, eta horiek argitara ematen dira, behar diren ondorioak izan ditzaten. Hona hemen:

1.–Jabari publikotik desafektatzea, gero jabe mugakideei saltzeko, udalerrriko 3. poligonoko 703 eta 705. lurzatieen fronteen artean dagoen lur zerrenda (San Juan kaleko 5 eta 6a). Aranzazu Iparraguirre López eta Felipe Orabengoa Velasco dira aldaketa horren sustatzaileak.

2.–Aldatzea Udal Planeko Hirigintzako Araudiaren 50.3. b) artikuluko 2.1 puntua, honela geldituko baita idatzirik:

"Beheko solairua gehi behégaina izanen da gehienez ere baimentzen den solairu kopurua. Behégainak muga bat izanen du bulego eta biltegiatarako azalera eraikigarrian, eta hura azaleraren araberakoa izanen da, eskala honi jarraituz:

–Nabeko azalera eraikia 250 m<sup>2</sup>-raino denean, behégainaren gehieneko okupazioa %50 izanen da.

–Nabeko azalera eraikia 250 m<sup>2</sup>-tik 500eraino denean, behégainaren gehieneko okupazioa %40 izanen da.

–Nabeko azalera eraikia 1.000 m<sup>2</sup>-tik gorakoa denean, behégainaren gehieneko okupazioa %25 izanen da. Construcciones Arregui, S.A. da aldaketa horren sustatzailea.

Olaztin, 2008ko martxoaren 31n.–Alkatea, Iñaki Mentxaka Berra.

L0805134

## ERRIBERRI

### Aldaketa Erriberriko Babespenerako eta Barne Berrikuntzarako Plan Berezian. Behin betiko onespina

Erriberriko Udalak, 2008ko martxoaren 31n egin osoko bilkuran, behin betikoz onetsi du aldaketa Erriberriko Babespenerako eta Barne Berrikuntzarako Plan Berezian, ondok azaltzen den ildotik:

Zioen azalpena

Erriberriko Udalaren kezka da Alde Zaharreko biztanleria bere horretan uztea eta are handitzea, izan ere bizilagunek nahiago izaten dituzte sortzen ari diren auzoberriak, eta haien ihesak arazoak ekartzen ditu eta andeatze urbanoa.

Horretarako, neurri egokitzat jotzen da etxebizitzak zaharberritzeko aukera ematea, halako moldez non eraikin bateko teilatupeko solairua jadanik bizitegirako denean, estalduraren garaiera goititzen ahalko baita, goititu, alegia, indarra duen araudiaren arabera bizigarritasun baldintzak lortzeraino.

Horretarako, aldaketa hau bideratu da, honako honen bidez:

Artikulu bakarra.–Alde Zaharrean eraikitzea izeneko 1. ordenantzaren 6.6 puntuko C atalari, paragrafo hau erantsi zaio:

Etxebizitzan zaharberritzea.

Zaharberritu nahi den eraikinean teilatupeko solairua jadanik bizitegirako denean, betiere 1,20 metroko garaierako karela baldin badu, estalkia goititzeko baimena emanen da, goititu, alegia, solairu horretako zoru burututik eraikinaren teilatu-hegaleraino 2,20 metro izateraino, teilatupeko solairu horrek indarra duen araudiaren arabera bizigarritasun baldintzak bete ditzan.

Erriberri, 2008ko apirilaren 4an.–Alkatea, María Carmen Ochoa Canela.

L0805216

## ERRIBERRI

### Animaliak edukitzea arautzen duen Erriberriko ordenantzaren aldaketa. Hasierako onespina

2008ko martxoaren 31n egin osoko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, hasiera batean onetsi da animaliak edukitzea arautzen duen ordenantzaren aldaketa, indarrean den ordenantza honetan arau-hauste tipifikazioa eta zehapenak gehitzeko.

Honen bidez onespina argitara eman eta hogeita hamar eguneko jendaurreko epea irekitzen da, edozein herritarrek edo interesdunek espedienteaz zertu eta bidezko juzgatzen dituzten alegazioak aurkez ditzaten.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/90 Foru Legearen 325. artikuluan xedatutakoarekin BAT, aipatu epea igarota alegazio edo erreklamaziorik aurkezten ez bada behin betiko onetsirik dagoela ulertuko da.

Erriberri, 2008ko apirilaren 4an.–Alkatea, María Carmen Ochoa Canela.

L0805224

## ERRIBERRI

### Herrilurren aprobetxamendua arautzen duen Erriberriko ordenantzaren aldaketa. Hasierako onespina

2008ko martxoaren 31n egin osoko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, hasiera batean onetsi da herrilurren aprobetxamendua arautzen duen ordenantzaren aldaketa, Nafarroako Ubideko IV- 4. sektorearen baitako lurren aprobetxamendua esleitzeko berariazko araudia ezarri.

Honen bidez onespina argitara eman eta hogeita hamar eguneko jendaurreko epea irekitzen da, edozein herritarrek edo interesdunek espedienteaz zertu eta bidezko juzgatzen dituzten alegazioak aurkez ditzaten.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/90 Foru Legearen 325. artikuluan xedatutakoarekin, aipatu epea igarota alegazio edo erreklamaziorik aurkezten ez bada behin betiko onetsirik dagoela ulertuko da.

Erriberri, 2008ko apirilaren 4an.–Alkatea, María Carmen Ochoa Canela.

L0805226

**OLLARAN****Aldaketa Udal Planean. Hasierako onespena**

Ollarango Udalak, 2008ko martxoaren 29ko bilkuran, erabaki zuen aldaketa hasiera batean onestea Udal Planeko 7.6.2 artikuluan.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 74. artikuluan ezarritakoa bete dadin, espediente hilabetez egonen da jendaurrean, iragarki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik hasita; epe horretan, interesdunek eskura izanen dute espediente udal bulegoetan, egokiak iruditzen zaizkien alegazioak aurkez ditzaten.

Ollon, 2008ko martxoaren 29an.–Alkatea, Francisco Javier Ecay Iizarbe.

L0805163

**ORKOIEEN****Mendikur Kultur eta Kiroleko Udal Patronatuaren desegitea**

Ikusirik Informazio Batzordearen irizpena. Kontuan hartuz Udalak 2007ko abenduaren 21ean egin osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuela Udal Patronatuaren desegitea, eta haren ondoko jendaurreko aldiaren ez zela erreklamaziorik aurkeztu.

Proposamena bozkatu ondoren, bertaratu guztiek aldeko botoa emanda, onetsi egin zen; hortaz honako hau erabaki da:

Orkoiengo Udalak, 2008ko martxoaren 26an egin osoko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen:

1.–Behin betiko onestea Mendikur Kultur eta Kiroleko Udal Patronatuaren desegitea.

2.–Erabakia Nafarroako Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea eta Toki Entitateen Erregistroari jakinaraztea, dagokion deuseztapena idatz dezaten.

Orkoienean, 2008ko urtarrilaren 10ean.–Alkatea, Casimiro Larrea Ruiz.

L0805195

**PITILLAS****Ordenantza fiskalaren behin betiko onespena**

Pitillasko Udalak, 2008ko martxoaren 25ean egin osoko bilkuran, behin betiko onetsi zuen Legarra, harea eta eraikuntzako bestelako materialak ateratzeko kanonak arautzen dituen udal ordenantza berria. Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 326. artikuluan xedatutakoari jarraituz, agintzen da onetsi ordenantza osorik argitaratzeko:

"1. artikulua. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 12.2, 25, 26 eta 27. artikuluetan xedatutakoaren babespean ezarri da ordenantza hau.

2. artikulua. Ordenantza honetako zergapeko egintza herrilurrak edo herri ondasunak erabiltzea da, legarra, harea, igeltsua eta eraikuntzako bestelako materialak ateratzeko bada.

3. artikulua. 1. Zergapeko egintza. Aurreko artikuluan ezarritako ustiapen lanetan aritzea.

2. Beharraren sorrera. Ustiapen lanetan aritzean sortuko da zerga ordaindu beharra.

3. Subjektu pasiboa. Ordaintzera elkarrekin behaturik daudenak:

a) Udal baimenen titular diren pertsona natural edo juridikoak.

b) Ustiapenaren onuradunak edo erantzuleak diren pertsonak zein erakundeak.

c) Materialak egiazki ateratzen edo garraiatzen dituzten haiexek.

*Oinarriak eta tarifak*

4. artikulua. Ordainarazpen horren oinarria ateratzen diren edo atera beharreko materialen metro kubiko kopurua izanen da.

5. artikulua. Ondoko tarifan zehazten diren aprobetxamendu bereziak ordaindu behar dira:

Obrak udal mugapearen barrenean: 1 euro/m<sup>3</sup>.

Obrak udal mugapearen kanpoan: 1,50 euro/m<sup>3</sup>.

*Administrazioa eta kobratzea*

6. artikulua. Kargapeko ateratzeak egiteko, dagozkien baimenak eta eskubideak nahitaez ordaindu beharko dira alde aurretik.

7. artikulua. Likidatutako kuotak ez badira garaiz ordaintzen, pre-miamendu bidez kobratuko dira.

*Indarraldia*

Ordenantza hau, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan ezarritakoarekin bat, indarrean sartuko da 2008ko ekitaldian eta hurrengoetan, berau aldatzea edo baliogabetzea erabaki bitartean".

Aditzaera ematen da, orok jakin dezatan eta ondorioak izan ditzan.

Pitillasen, 2008ko martxoaren 31n.–Alkate udalburua, Amador Jiménez Herrero.

L0805031

**TAFALLA****H.A.P.O.ko UC-80 unitatearen aldaketa. Hasierako onespena**

Tafallako Udalak, 2008ko otsailaren 26ko osoko bilkura arruntean, erabaki zuen hasiera batez onestea Hiri Antolamendurako Plan Orokorra aldatzea UC-80 unitatean (32. poligonoa, 43-48 arteko lurzatiak, biak barne), Construcciones Lerga, S.L.k sustatua, altuera eta bolu-menei dagokienez unitatea erregularitzeko xedearekin.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen xedatutakoari jarraituz, espediente jendaurrean egonen da hilabetez, iragarki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik hasita, interesdunek espediente aztertu eta erreklamazio, kexa edo oharra aurkez ditzaten.

Tafallan, 2008ko martxoaren 13an.–Alkatea, Cristina Sota Pernaut.

L0805054

**ULTZAMA****Ultzama Udalaren ordenantza, Eraikinak zutitu eta zaharberritu edo berritzeko laguntzak arautzen dituen. Behin betiko onespena**

Ultzama Udalak, 2007ko azaroaren 27an egin osoko bilkura arruntean, hasiera batean onetsi zuen Ultzama Udalaren ordenantza, Eraikinak zutitu eta zaharberritu edo berritzeko laguntzak arautzen dituen. Onesteko erabakia 2008ko 25. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, urtarrilaren 11n, eta jendaurreko epean inork ez du alegaziorik aurkeztu; hortaz, Ultzamako Udalak, 2008ko martxoaren 5ean egin bilkura arruntean, behin betikoz onetsi zuen. Horrenbertzez, testu osoa argitaratuko da, bidezko ondorioak izan ditzan, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan xedatuari jarraituz.

Larrainzarren (Ultzama), 2008ko martxoaren 5ean.–Alkatea, Francisco Pérez Arregui.

**ERAIKINAK ZUTITU ETA ZAHARBERRITU EDO BERRITZEKO LAGUNTZEN UDAL ORDENANTZA**

1. artikulua. Helburua eta aplikazio eremua.

Ordenantza honen xedea da Ultzamako Udalak ezarritako laguntza arautzea, bere udal mugapearen barnean dauden eraikinak zaharberritu edo berritzeko, bai eraikin eta etxebizitza berriak eraikitzeke ere, izanik horiek babestuak edo ohiko etxebizitzetarakoak.

2. artikulua. Jarduketa babesgarriak.

Udalaren babesa obra hauengatik jaso daiteke:

2.1. Eraikinaren egitura egokitzea; hemen sartzen dira eraikinari eraikuntza aldetik behar diren segurtasun baldintzak emanen dizkieten obrak, egonkortasuna eta sendotasuna bermatuko dituztenak.

2.2. Funtzioen aldetik egokitzeko obrak, hots, eraikinari arlo hauetan behar adina baldintza ematen dizkietenak: estalkia, fatxadak, sabideak, patioak, instalazioak eta segurtasun neurriak.

2.3. Eraikineko bizigarritasuna egokitzeko obrak, hau da, eraikinari arlo hauetan baldintza egokiak ematen dizkieten barneko obrak: bana-keta, estaldurak, isolamenduak, arotzeriak, instalazioak eta akaberak.

2.4. Gune irekien egokitzapena eta eraikina kokatzen deneko lurzatiaren itxiturak.

2.5. Indarra duen hirigintza planeamenduan aurreikusitako eraikin eraispenak.

2.6. Oztopo arkitektonikoak kentzea.

2.7. Eraikin berriak, gaur egun udalerrian diren nekazaritza edo abeltzaintzako ustiategiak hobetzen edo ordezkatzeko dituztenak, Ingu-rumena babesteko esku hartzearen Erregelamenduan (93/2006 FD) zehaztua eta Udal Planean gai honetaz xedatzen dena betetzen dituztenak.

2.8. Eraikin berriak, gaur egun diren industriak ordezkatzeko dituztenak, eta egiten den industrialean paratzen direnak, halakorik bada.

2.9. Etxebizitza berriak eraikitzea, titularraren bizitegi ohiko eta egonkorra izanen direnak. Horretarako, titularrak etxebizitza hori bizitegi ohiko eta egonkorra izanen duela adierazi beharko du eskabidearekin

batera. Bankuko abala aurkeztuko du, hartuko duen dirulaguntzaren zenbateko berekoa, legezko betebeharrak hori hurrengo sei urtean beteko duela bermatzeko.

2.10. Etxebizitza babestuak erakitzea, Etxebizitzaren gaineko Dekretuaren arabera, eta honela justifikatzea aurkeztutako proiektuan.

3. artikulua. Baldintzak.

3.1. Jarduketa babesgarrizat hartua izateko, eraikinak baldintza hauek bete behar ditu:

▪ Lehen kasua: etxebizitzak zaharberritzea.

–10 urte baino antzinatasun handiagoa izatea bizitegi ohikorako eraikinetan; idatzizko konpromisoa justifikatu beharko da Udalaren aitzinean.

–Hirigintzaren arloan indarra duen araudian eta prestatzen ari diren planeamenduan xedatzen denarekin bat etortzea.

▪ Bigarren kasua: ohiko bizitegiarako etxebizitzak erakitzea.

–Bizitegi ohikoetarako etxebizitza berri edo zaharrak erakitzea; idatzizko konpromisoa justifikatu beharko da Udalaren aitzinean.

–Hirigintzaren arloan indarra duen araudian eta prestatzen ari diren planeamenduan xedatzen denarekin bat etortzea.

▪ Hirugarren kasua: ohiko bizitegiarako etxebizitzak erakitzea.

–Edozein motatako bizitegi babestuak izateko etxebizitza berri edo zaharrak erakitzea.

–Hirigintzaren arloan indarra duen araudian eta prestatzen ari diren planeamenduan xedatzen denarekin bat etortzea.

3.2. Udalaren babesetik kanpora utzi dira:

–Udalaren txostenean beharrezkotzat jotako obrak egiten ez dituzten jarduketak.

4. artikulua. Laguntzak.

Udal honek ezarritako laguntzek hartuko dituzte aipatutako baldintza horiek betetzen dituzten jarduketa babesgarri guztiak. Diru aldetik, obra gauzatzeko aurrekontuaren %1 izanen da, eta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga kobratzeko kuotan aplikatuko da.

5. artikulua. Onuradunak eta laguntzen harrera.

5.1. Jarduketa babesgarrien sustatzaileak laguntzen onuradun gertatu ahal izateko, aipatu baldintzak bete beharko dituzte jarduketak eta, gainera, obrak hasi baino lehen egin beharko da eskaera. Eskabidearekin bat ziurtagiriak aurkeztuko dira, eta ezinbertzekoa da Udalaren adostasun txostena egotea espedientean.

5.2. Laguntzak behin betikoak bihurtuko dira obrak burutu ondoan eta, horrenbertez, zerbait bete gabe utzi dela ikusiz gero, laguntzak jasotzeko eskubidea galduko da; gainera, horrek ez du eragotziko bertzelako egintzei ekitea. Onuradunek diru-laguntza lehenago jasotzea lortzen ahalko dute, baldin eta laguntzaren zenbateko bera duen banku abal baten bidez bermatzen badute ordenantzetako baldintzak betetzen direla.

6. artikulua. Araubide juridikoa.

Ordenantza honen interpretazioaz sor daitezkeen zalantzak Udalbatzak argituko ditu. Ordenantza honetan espresuki arautzen ez den orotan toki araubidearen gaineko legeria aplikatuko da, baita administrazio prozeduraren gainekoa ere, toki entitatei aplikatzen ahal zaien neurrian.

#### XEDAPEN GEHIGARRIA

Ordenantza honetan araututako dirulaguntzen onuradun izaten ahal dira ordenantza honek indarra hartzen duenetik aitzina tramitatzen diren hirigintzako espedienteen titularrak.

#### AZKEN XEDAPENA

1. Ordenantza honek Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN behin betikoz argitaratzen den egunean hartuko du indarra.

2. Ordenantza honen indarraldiak ez du mugarik.

L0805137

#### VILLAFRANCA

**2008ko ekitaldiko tasa, prezio publiko eta zergak, baita egutegi fiskala ere. Behin betiko onspena**

Udalak, 2007ko abenduaren 27an egindako osoko bilkura berezian, hasiera batean onetsi zituen 2008ko ekitaldiko prezio publikoak, tasak, kargak, zergak eta kontribuzioak.

Onspenaren erabakia 2007ko 18. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, ekainaren 29an, eta jendaurreko epean inork ez du alegaziorik aurkeztu; hortaz, behin betiko onetsi dira prezio horiek; hori guztia, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/2008 Foru Legearen 325. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

KARGA

|  |              |
|--|--------------|
| –KONTZEPTUA  |              |
| ▪ ESTOLDERIA .....   | 31,40        |
| –KONTZEPTUA  |              |
| ▪ ETXERAKO URA .....   | 0,5334+BEZa  |
| ▪ ETXERAKO EZ DEN URA .....  | 0,6629+BEZa  |
| ▪ GUTXIENEZ ERE .....  | 8,6784+BEZa  |
| –EREMU PUBLIKOA OKUPATZEA (tabernak salbu)   |              |
| ▪ KALEZ KALEKO SALTOKIAK: MERKATU TXIKIAK, BARRAKAK (4 m <sup>2</sup> -rainoko saltokiak) .....                | 6,00         |
| ▪ KALEZ KALEKO SALTOKIAK: MERKATU TXIKIAK, BARRAKAK (gainerako m <sup>2</sup> bakoitzeko) .....                | 3,00         |
| ▪ OBRETAKO MAT., SALGAIK (kale 1/2) / (euro/m <sup>2</sup> /eguna) .....                                       | 0,10         |
| ▪ OBRETAKO MATERIALAK, SALGAIK (kale osoa) .....   | 0,20         |
| –EREMU PUBLIKOA OKUPATZEA (tabernak/sistema berria 2005etik)   |              |
| ▪ 0tik 20 m <sup>2</sup> bitarte (euro/m <sup>2</sup> /urtea) .....  | 5,00         |
| ▪ 20tik 50 m <sup>2</sup> bitarte .....  | 5,50         |
| ▪ 50etik 100 m <sup>2</sup> bitarte .....  | 6,00         |
| ▪ 100 m <sup>2</sup> -tik gora Hirigintzako Batzordeak zehaztu eta onetsi beharko du eremuaren okupazioa ..... | 8,00         |
| –AGIRIAK LUZATZEA  |              |
| ▪ ZIURTAGIRI BAT BULEGOETAN ESKURATZEA .....   | 3,00         |
| ▪ ZIURTAGIRI BAT POSTAZ ESKURATZEA 012 BIDEZ .....   | 0,00         |
| ▪ EGIATZATUTAKO AGIRI BAT .....  | 2,00         |
| ▪ BEREIZGARRIRIK GABEKO AGIRI BAT .....  | 3,00         |
| ▪ SALEROSKETA KONTRATUA EDO BESTELAKOA .....   | 7,50         |
| ▪ LURZATIEN GAINENKO ZEDULAK .....   | 4,00         |
| ▪ FAX ZERBITZUA .....  | 2,00         |
| –HILERRIKO ZERBITZUAK (ordenantza aldatu behar da)   |              |
| ▪ EHORTZI ETA ZAINTEKO GASTUAK .....   | 41,50        |
| ▪ HILOBI ESKUBIDEAK LAGATZEA .....   | 215,50       |
| ▪ HORMAKO NITXOA LAGATZEA .....  | 689,00       |
| –TRAKTOREAREN ETA LANTALDEKO LANGILEEN ZERBITZUAK  |              |
| ▪ TRAKTOREA ETA PEOIA ALOKATZEA (euro/ordua) .....   | 42,00        |
| ▪ TRAKT., PEOIA ETA KAINOIA ALOK. (euro/ordua) .....   | 42,00        |
| ▪ LANTALDEAREN ORDU OFIZIALA euro/ordua .....  | 24,00        |
| ▪ LANTALDEKO PEOIAREN ORDUA euro/ordua .....   | 20,00        |
| –LURRETIK ATERATZEA KARGA  |              |
| ▪ LEGARRA PREZIOA euro/m <sup>3</sup> .....  | 0,70         |
| ▪ LURRA PREZIOA euro/m <sup>3</sup> .....  | 0,70         |
| ▪ ANTZEKO BESTELAKO MATERIALAK PREZIOA euroa/m <sup>3</sup> .....  | 0,70         |
| –HARGUNEAK SARERA  |              |
| ▪ UR HORNIDURARAKO SAREA .....   | 177,50       |
| ▪ ESTOLDERIA SAREA .....   | 177,50       |
| ▪ KONTAGAILUA SALDU ETA PARATZEA (materialaren kostua eta ezartzeko orduak, kasua denean, gehituko dira)       |              |
| –FESTETAKO PROGRAMAREN PUBLI. (aukerako tasak) ...   | KAR.+BEZa    |
| ▪ Librergrafic-ek kudeatutako programa (Calahorra) .....   | Librergrafic |
| –IGERILEKUETAKO DENBORALDIKO BANAKAKO ABONAMENDUA  |              |
| ▪ ABONAMENDUAK: 0 - 5 urte .....   | 0,00         |
| ▪ ABONAMENDUAK: 6 - 64 urte (*) .....  | 38,50        |
| ▪ Pentsiodunen, jubilatuen eta abarren ABONAMENDUAK ..   | 23,10        |
| –FAMILIENAKO IGERILEK. DENB. ABONAMENDUA   |              |
| ▪ 2 KIDE .....   | 72,70        |
| ▪ 3 KIDE .....   | 100,00       |
| ▪ 4 KIDE .....   | 124,40       |
| ▪ 5 KIDE .....   | 144,20       |
| ▪ 6 KIDE .....   | 159,30       |
| ▪ 7 KIDE .....   | 170,00       |
| IGERILEKUETAKO HILABETEKO BANAKAKO ABONAMENDUA   |              |
| ▪ ABONAMENDUAK: 0 - 5 urte .....   | 0,00         |
| ▪ ABONAMENDUAK: 6 - 64 urte (*) .....  | 23,10        |
| ▪ Pentsiodunen, jubilatuen eta abarren ABONAMENDUAK ..   | 15,35        |
| –IGERILEKUETAKO EGUNEKO SARRERAK: LANEGUNAK  |              |
| ▪ SARRERAK 0-5 URTE .....  | 0,00         |
| ▪ SARRERAK 6-64 URTE (*) .....   | 3,00         |
| ▪ Pentsiodunen, jubilatuen eta abarren SARRERAK .....  | 1,45         |

|  | KARGA   |
|--|---------|
| <b>-IGERILEKUETAKO EGUNEKO SARRERAK: JAIEGUNAK</b>   |         |
| ▪ SARRERAK 0-5 URTE .....  | 0,00    |
| ▪ SARRERAK 6-64 URTE (*) .....   | 4,45    |
| ▪ Pentsiodunen, jubilatuen eta abarren SARRERAK .....  | 2,25    |
| (*) Igerilekuetako abonamendu eta sarrera mota ezberdinetan "6-64 urte" gisa sailkatutako tartean sartuko dira ekitaldi honetan 6 urte betetzen dutenetik 64 urte betetzen dutenen arteko pertsonak.                                       |         |
| <b>-KIROLDEGIA (gimnasioa kanpo). Pista osoa edo erdia okupatzea</b>   |         |
| ▪ Alta eta kiroldegia erabiltzeko eskubidea .....  | 6,70    |
| ▪ KIROLDEGIA. Pista osoa .....   | 13,25   |
| ▪ KIROLDEGIA. Pista erdia .....  | 6,70    |
| <b>-GIMNASIOA (alta edukitzeko beharrezkoa da kiroldegian ere edukitzea) eta 16 urtetik goitiko izatea.</b>  |         |
| ▪ Alta gimnasioan .....  | 10,00   |
| ▪ Hiruhilekoko kuota .....   | 12,00   |
| <b>-IREKITZEKO ETA JARDUTEKO LIZENTZIAK</b>  |         |
| ▪ Irekitzeko-jarduera lizentzia .....  | 295,50  |
| (*) Kasua denean, irekitzeko lizentziak ematearen eta jarduera sailkatuen proiektuen gaineko txostenen kostuak gehituko dira.  |         |
| <b>-FINKEN BANANTZEA</b>   |         |
| ▪ K.B. > 6.010,12 euro (katakstroko balioaren gaineko %) .....   | %0,1225 |
| ▪ K.B. > 6.012,12 euro (tasa finkoa) .....   | 7,36    |
| <b>-ZERGAK</b>   |         |
| ▪ Hirilurren gaineko kontribuzioa (katakstroko balioaren gaineko %)/gehienez ere 0,5 .....   | %0,4912 |
| ▪ Landalurren gaineko kontribuzioa (katakstroko balioaren gaineko %) .....   | %0,4935 |
| ▪ E.I.O.Z. (Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga) /gehienez ere 5 .....  | %4,20   |
| ▪ Irilurren balio igoera (GAINBALIOA) Karga-tasa (gehienez ere 20) .....   | %10,95  |
| ▪ Urteko portzentajea .....  | %2,30   |
| ▪ J.E.Z. (Jarduera ekonomikoen gaineko zerga) gehienez ere .....   | 1,40    |
| <b>-LANDAZAINTZA</b>   |         |
| ▪ (KATASTROKO BALIOAREN GAINEKO %) .....   | %0,2526 |
| <b>-BAZKALEKUKO KANONA</b>   |         |
| ▪ (KATASTROKO BALIOAREN GAINEKO %) .....   | %1,3220 |
| <b>-HERRILURRETAKO FINKEN ERRENTAMENDUA</b>  |         |
| ▪ EHIZA BARRUTIA (ehizarako eskubidea) .....   | 550,50  |
| ▪ EHIZA BARRUTIA-Herrilurretako habitata (euro/erregua) ...  | 13,75   |
| ▪ LABORANTZAKO LOTEAK, GRABITATEZ UREZTATUAK (euro/erregua)/Errentariak kahizak ordaintzen ditu .....  | 22,80   |
| ▪ LABORANTZAKO LOTEAK, PRESIOZ UREZTATUAK (euro/erregua)/Errentariak kahizak ordaintzen ditu .....   | 30,90   |
| ▪ PRESIOZ ETA GRABITATEZ LANDATUTAKO BELAR LOTEAK (euro/erregua) .....   | 3,15    |
| ▪ Planoko/Junzalgo HERRILARRE ureztatuak (EZ DA LANDATU) (euro/erregua) .....  | 25,00   |
| ▪ Moranteko HERRILARRE ureztatu gabeak (EZ DA LANDATU) (euro/erregua) .....  | 3,00    |
| ▪ HERRILURRAK (Udalaren esku/Udalari utziak) (euro/erregua) .....  | 25,00   |
| <b>-ZAKURRAK</b>   |         |
| ▪ LIZENTZIA/Oso handia eta zailtasuna zakurren zentsurako .....  | 6,25    |
| ▪ ETXETIK BILTZEA EDO ZAKURTEGIAN EGOTEA .....   | 12,75   |
| ▪ EREMU PUBLIKOAN HARRAPATZEA .....  | 92,50   |
| ▪ ALBAIT. AGINDUZ ZAKURTEG. EGOTEA, euro/eguna ....  | 25,50   |
| ▪ BESTELAKO EGONALDIK euro/eguna .....   | 25,50   |
| <b>-EZKONTZA ZIBILAK</b>   |         |
| ▪ EZKONTZA ZIBILAK .....   | 50,00   |
| (*) Alde batek eskatuta hirigintzako arau subsidiarioak aldatu eta horren ondorioz prentsan iragarkiak jarri behar badira, argitaratzearen kostua aldatetaren eskatzailearen kontura izanen da. Argitalpen mota orotan aplikatzen ahal da. |         |
| <b>-KULTUR ETXEA</b>   |         |
| ▪ A. Aretoak (bilkura aretoa ezik) .....   |         |
| -1. kategoria: Udalak eta beste administrazio publiko batzuek edo haien erakunde autonomoek sustatu, antolatu edo koordinatutako jarduerak .....   |         |
|  | 0,00    |

|  | KARGA |
|--|-------|
| -2. kategoria: Administrazio publikoek sustatu edo koordinatutako jarduerak, kontratazio, lagapen edo hitzarmen bidez, beste entitateekin, irabazi asmoa dutenak ala asmorik gabekoak izan. Administrazio publikoak ez diren eta irabazi asmorik ez duten gizarteko elkarte eta entiteak, instituzionalki homologatuak ..... |       |
|  | 0,00  |
| -3. kategoria: Sindikatu, kooperatiba, auzo elkarte, gremioetako elkarte, eta antzeko beste entitateek, betiere irabazi asmorik gabekoak eta ez gizarte arlokoak, beraien taldeko interesak sustatu eta defendatzeko jarduerak egiteagatik .....   |       |
|  | 6,00  |
| -4. kategoria: Irabazi asmoa duten entitate edo pertsona pribatuek antolatu edo garatutako jarduerak .....   |       |
|  | 12,00 |
| ▪ B. Bilkura aretoa: euro/ordua  |       |
| -1 kategoria eta 2 kategoria .....   | 0,00  |
| -3. kategoria: .....   | 10,00 |
| -4. kategoria: .....   | 20,00 |
| ▪ C. Aretoak, ikastaro etengabearen kasuan   |       |
| -Astero erabiltzen den egun bakoitzeko hilabetean 30 euroko tasa ezartzen da   |       |

## MUSIKA ESKOLAKO TARIFAK

|   | KUOTA 2007/2008 (euro/hilabetea) |
|---|----------------------------------|
| Hastapena: .....                                | 17                               |
| Lehen: .....                                    | 46                               |
| 2.a, pianoa/akord/biolina .....                 | 49                               |
| 2.a, gitarra .....                              | 51                               |
| 2.a, haizezko eta perkusiozko tresnak .....     | 46                               |
| 3.a, pianoa/akord/biolina .....                 | 52                               |
| 3.a, gitarra .....                              | 54                               |
| 3.a, haizezko eta perkusiozko tresnak .....     | 52                               |
| 4. eta 5.a, pianoa/akord/biolina .....          | 61                               |
| 4. eta 5.a, gitarra .....                       | 63                               |
| 4. eta 5.a, haizezko eta perkusiozko tresnak .. | 61                               |
| 6.a, pianoa/akord/biolina .....                 | 57                               |
| 6.a, gitarra .....                              | 59                               |
| 6.a, haizezko eta perkusiozko tresnak .....     | 57                               |
| Helduak .....                                   | 46                               |
| Bigarren gradua .....                           | 44                               |
| 2. Musika tresna 30' .....                      | 29                               |
| 2. Musika tresna 40' .....                      | 39                               |

## VIRGEN DEL PORTAL ZAHAR ETXEA

## Konpartitua

Lagundu beharrekoak: 1.366 euro.

Laguntza erdia behar dutenak: 926 euro.

Bere buruaz baliatzen direnak: 711 euro.

## Banakoentzat:

Lagundu beharrekoak: 1.470 euro.

Laguntza erdia behar dutenak: 1.030 euro.

Bere buruaz baliatzen direnak: 815 euro.

Onespina ematen duten erabaki hauek 2008ko urtarrilaren 1ean hartuko dute indarra.

2008eko ekitaldirako zergadunaren egutegi fiskala ezartzea, hain zuzen ere tasak eta prezio publikoak ordaintzeko fakturazio eta ordainketa egunetan, aldizka eta borondatez eta ez-aldizkako moduan. Hona hemen:

| ZERGAK ETA TASAK                       | FAKTURAZIO ETA ORDAINKETA EGUNAK |
|--|----------------------------------|
| URA (LEHEN HIRUHILEKOA) .....          | APIRILAREN 1ETIK 30ERA           |
| URA (BIGARREN HIRUHILEKOA) .....       | EKAINAREN 1ETIK 30ERA            |
| URA (HIRUGARREN HIRUHILEKOA) .....     | URRIAREN 1ETIK 31RA              |
| URA (LAUGARREN HIRUHILEKOA) .....      | URTARRILAREN 1ETIK 31RA          |
| ZIRKULAZIOAREN GAINEKO ZERGA .....     | MARTXOAREN 1ETIK 31RA            |
| IGERILEKUA .....                       | UZTAILAREN 1ETIK 31RA            |
| KONTRIBUZIOA (LEHEN HIRUHILEKOA) ..... | OTSAILAREN 1ETIK 28RA            |
| KONTRIBUZIOA (BIG. HIRUHILEKOA) .....  | ABUZTUAREN 1ETIK 31RA            |
| JEZ .....                              | MAIATZAREN 1ETIK 31RA            |
| HAURTZAINDEGIA .....                   | HILABETE BAKOITZEKO 1ETIK 10ERA  |
| LAB. LOTEEN ERRENTAMENDUA .....        | AZAROAREN 1ETIK ABENDUAREN 31RA  |
| HERRILARREEN ERRENTAMENDUA .....       | AZAROAREN 1ETIK ABENDUAREN 31RA  |

## Aldian-aldikoak ez direnak

| ZERGAK ETA TASAK | EGUNAK |
|------------------|--------|
|------------------|--------|

ERAIK., INST. ETA OBREN GAINEKO ZERGA URTE OSOAN  
GAINBALIOAK ..... URTE OSOAN

Villafrancan, 2008ko urtarrilaren 10ean.-Alkatea, María Carmen Segura Moreno.

L0804666

## NAFARROAKO ERRIBERAGOIENEN H.H.S.EN MANKOMUNITATEA

### Ordenantza fiskalaren behin betiko onespena

Nafarroako Erriberagoieneko Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitatearen batzarrak, 2007ko abenduaren 18an egin bilkuran, boz batez erabaki zuen hasiera batean onestea 2008ko Ordenantza Fiskala. Jendaurrean egoteko epean alegazio, kexa edo oharrik aurkeztu ez denez, behin betikoz onetsirik gelditu da uztailaren 2ko 6/90 Foru Legeak xedatzen duenari jarraikiz.

Azkoienen, 2008ko martxoaren 13an.-Mankomunitateko burua, Lourdes Aramburu Ortega.

### ORDENANTZA FISKALA, HIRI HONDAKIN SOLIDOAK BILTZEKO ETA ZERBITZU HORRI LOTURIK DAUDEN GAINERAKO JARDUERAK EGITEKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

#### I. KAPITULUA

##### Oinarria

1. artikulua. Ordenantza fiskal hau ezarri da Nafarroako toki entitateei aplikatzen ahal zaien zerga araudiak ematen dizkien ahalmenen babespean eta haiekin bat, erran nahi baita, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990, Foru Legearen 180. artikulua eta ondokoak eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 100. artikulua eta ondokoak.

#### II. KAPITULUA

##### Ordainarazpenaren izaera

2. artikulua. Ordenantza honen xedea tasak ezartzea da, hiri-hondakin solidoak biltzeko zerbitzua emateagatik eta horrekin zerikusia duten gainerako jarduerengatik.

Ezarri diren ordainarazpenen izaera fiskala, hortaz, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 100. artikulua eta ondokoak aipatzen dituzten zerbitzuak edo jarduerak egiteko tasena da.

#### III. KAPITULUA

##### Aplikazio esparrua

3. artikulua. Ordenantza hau aldi bakoitzean Mankomunitate hau osatzen duten udalerrietako mugape guztietan aplikatuko da.

Halaber, Mankomunitatekoak ez diren entitate edo pertsonen ere aplikatuko zaie, tasa hauen bidez finantzatzen diren zerbitzuak hartzen badituzte.

Mankomunitateari berari dagokio tasak kobratzeko ahalmena, zerbitzua berak egiten baitu.

#### IV. KAPITULUA

##### Zergapeko egintza

4. artikulua. Ordenantza honen xedeko zerbitzu edo jarduerak eskura izan edo/eta erabiltzeak dakar zergapeko egintza. Zerbitzu eta jarduera horiek ondotik aipatzen dira eta beren tasak sortzen dituzte:

A. Hiri-hondakin solidoak bildu, eta garraiatzeko nahitaezko zerbitzua eskura izan edo/eta erabiltzea, Hiri zabor eta hondakin solidoen bilketari eta tratamenduari buruzko Legeari jarraituz, kasu hauetan:

- 1.-Etxebizitzetakoak;
- 2.-Zerbitzuen arlokoak, kirol eta aisia guneak barne.
- 3.-Industriakoak eta hirikotzat har daitezkeenak.
- 4.-Bulego publikoak.

5.-Ikastetxeak.

6.-Osasun zentroak: ospitaleak, klinikak eta anbulatorioak.

7.-Egoitza zentroak.

Aurreko egoera horietako bakoitzean aipatzen diren jardueren zereendak ez du guzti-guztiak aipatzeko nahikeriarik; beraz, espresuki hor txertatu gabeko jarduerak ere sartzen ahal dira, antzekoak baldin badira.

B. Borondatezko zerbitzu hauek ematea:

1.-Hirikotzat har daitezkeen industri hondakin solidoak bildu eta garraiatzea, haien sortzaileak soilik erabil ditzakeen edukiontzien bidez, ordenantza honetan arautzen den moduan.

2.-Sortzaileak aldeztu aurretik bereizitako hiri hondakin solidoak bildu eta garraiatzea, gero berreskuratzeko asmoz:

#### V. KAPITULUA

##### Subjektu pasiboak

5. artikulua.

1.-Ordenantza honetan ezartzen diren tasak ordaintzera beharturik dauden subjektu pasibotzat hartuko dira, zordunak diren aldetik, pertsona fisiko zein juridikoak, heredentzia banatugabeak, ondasun komunitateak eta, lege nortasunik ez izanik ere, unitate ekonomikoa edo ondare berezia osatzen duten eta zerga ezar dakiekeen bertzelako erakundeak, baldin eta edozein titulu dela bide, etxebizitzak, egoitzak, saltokiak eta dendak okupatzen, erabiltzen edo ustiatzen badituzte edo bertan bizi badira, haien alde nahitaezko zerbitzu orokorra ezarri gero.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Legearen 104.2 artikularen arabera, zorduna ordeztzen duten subjektu pasiboak dira Udal bakoitzeko Katastroko Erregistroan edo Hirilur Aberastasunaren Katastroko Erregistroan eraikin horien jabe gisa agertzen direnak. Haiek, kasuan kasuko onuradunei pasatzen ahalko dizkiete kuotak.

2.-Borondatezko prestazioa denez, pertsona edo erakunde eskatzaileak dira zergak ordaintzera beharturik dauden subjektu pasiboak.

#### VI. KAPITULUA

##### Zerga-oinarria

6. artikulua. Zerga-oinarria zehaztuko da kontuan hartuz zein den emandako zerbitzua, ordenantza honetako tarifetan agertzen diren kopuruen arabera.

4. artikuluko A eta B ataletan ezarritako zergapeko egintzetarako, honako hau da tarifa aplikatzeko zerga-oinarria:

A-1 zergapeko egintzarako: bizitegia den edo izan litekeen katastro unitatea.

Etxebizitza bat jarduera ekonomikoen gaineko zergari lotutako jardueraren baten kokalekua bada, tasarik handiena aplikatuko da.

A-2, A-3, A-4, A-5, A-6 eta A-7 zergapeko egintzetarako: establezimendu-unitatea edo jarduera, jarduera ekonomikoen gaineko zergan (JEZ) inskribaturik dagoen ala ez kontuan hartu gabe, edo funtzionatzen ari dena. Katastro-unitate batean jarduera bat garatzen bada edo hartan inor aritzen bada, hura establezimendu-unitatez hartzen da, JEZan inskribaturik dagoen ala ez kontuan hartu gabe.

Establezimendu bera JEZaren bi epigrafe edo gehiagotan inskribaturik badago, zenbatekorik handiena duen tarifa aplikatuko da, salbu eta jarduera bereziak izan, halakoetan modu berezian ordainduko baita haien zerga.

Industriarako, merkataritzarako edo jostetarako erabiltzen diren katastro-unitateen kasuan, inolako jardueratan inskribaturik ez badaude, A-5 tasa aplikatuko zaie, eta zergapeko egintza xede hori duen katastro-unitatea izanen da.

B zergapeko egintzarako, 1 eta 2. ataletarako, edukiontzien kopurua, haien edukiera eta bilketaren maiztasuna.

Elkarren ondoko zenbait katastro-unitatek etxebizitza edo lokal bakar bat osatzen badute, Mankomunitateak horretarako ematen duen inprimakian egiten den zinpeko aitorpenaren bidez frogatu beharko da, kuota bakarra igortzeko, eta Mankomunitateak hori guztia egiaztatuko du eta burujabe direla egiaztatzen duen katastro-unitateei dagozkien kuotak igorriko ditu.

## VII. KAPITULUA

*Tarifak*

7. artikulua. Tributu-kuota kalkulatzeko, ekitaldi bakoitzean organo eskudunak ezarriko ditu tasa bakoitzaren zerga-oinarriari aplikatu dakizkiokeen tasa eta tarifak, eta ordenantza honen eranskinean agertuko dira, haren parte direlarik.

## VIII. KAPITULUA

*Tributu-kuota*

8. artikulua. Tributu-kuota zehazteko, karga-tasaren oinarriari indarra duten tarifak aplikatuko zaizkio.

9. artikulua. Ateratzen den tributu-kuotaren gainean aplikatuko dira legeek aldi bakoitzean finkatzen dituzten zeharkako zergak, legeetan ezartzen diren maneran eta halabereko baldintzetan.

## IX. KAPITULUA

*Salbuespenak*

10. artikulua. Nafarroako Parlamentuak onetsitako Foru Legeetan espresuki aipatzen direnak dira albuespen eta hobari bakarrak.

## X. KAPITULUA

*Hobariak*

11. artikulua.

1.-Etxeko tarifak sortutako tributu-kuota %70eko hobaria izateko eskubidea izan da, ordaintzera beharturik dagoena Gizarte Segurantzaren edo Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren prestazio baten onuraduna denean, haren zenbatekoa OAEAP baino handiagoa bada, edo lansari hori halako 1,2, ezkontidea edo bizikidea izanez gero, bien dirusarrerak batuta.

Ezkontidearenak ez diren famili kargak baldin badaude (seme-alaba adingabeak, 23 urte arteko seme-alabak, 23koak ere barne, baldin eta legeko langabezia egoeran badaude edota ikasketak egiten, nahiz dirusarrerarik gabeko seme-alaba ezinduek), aipatu muga ekonomikoei OAEAP bider 0,2 gehituko zaie menpeko pertsona bakoitzeko.

Ez dira tarifa honen onuradun izanen aurreko baldintza beteta ere dirusarrera osagarriak dituztenak, alegia, urtean OAEAP gainditzen dutenak, kontuan hartu gabe eskatzailearenak diren edo etxe berean bizi direnenak.

Halaber, eskatzailearen edo bizikideen ondare higigarria nahiz higitza ezin da izan 18.000 mila euro baino handiagoa, ohiko bizilekuarena kontatu gabe.

Aipatu baldintzak betetzen dituztela erakusteko, eskatzaileek honako hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Jasotako prestazioaren ziurtagiria.
- Errenta/Ondarearen aitortpenaren kopia. Ogasunaren ziurtagiria, egin beharrik ez duela dioena, eta eskatzailearen eta haren bizikideen dirusarrerak frogatzen dituzten gainerako agiri guztiak.
- Udal Erroldako Bizikidetzako Ziurtagiria
- Eskabidea, Mankomunitatearen ereduaren, eta hartan zinkeko aitortpena aurkeztutako datuak benetakoak direla eta ordenantza aurreikusitako baldintzak betetzen direla.

Mankomunitateak noiznahi egiaztatzen ahalko du baldintzak betetzen direla hobarirako eskubiderik izan dadin.

2.-%70eko hobaria hartzeko eskubidea dute hutsik dauden etxebizitzetako titularrek, urtero frogatzen badiote Mankomunitateari etxebizitza horietan ur eta argi zerbitzurik ez dutela. Hala dela frogatzeko enpresa hornitzailearen ziurtagiria ekarri ahalko da.

3.-Hobariak urte bakoitzeko lehen hiru hilabeteetan eskatuko zaizkio Mankomunitateari, eta epea luzeazina izan da, eskubidea bertze data batean sortu ezik, orduan sortzen den hilaren epean izan da eta kobrantzarako tokatzen den seihilekoan izan da ondorioak.

Hobariak urte natural bateko indarraldia izan da.

## XI. KAPITULUA

*Sorrarazpena*

12. artikulua.

1.-4. artikuluko 1. puntutik 7.era bitartean ezarritako tasak seihileko natural bakoitzeko lehenbiziko egunean sortuko dira, eta kuotak ezin izan dira ez murriztu ezta hainbanatu ere; beraz, alta nahiz baja

emanen gero, ez da horren eraginik izanen halako zerbait gertatu ondoko sortzapean aldia arte.

2.-4.B9 artikuluan ezarritako tasak hiruileko naturaleko lehenbiziko egunean sortuko dira, eta kuotak ezin izanen dira ez murriztu ezta hainbanatu ere.

## XII. KAPITULUA

*Ordainarazpena*

13. artikulua. Ordenantza honetan araututako tasak hurrengo arauei jarraituz ordainaraziko dira:

- 4 artikuluan aurreikusitako tasak, hiru edo sei hilabetetik behin.

## XIII. KAPITULUA

*Dirubilketa*

14. artikulua.

1.-Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 86. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, 4. artikuluko 1. puntutik 7.era bitartean ezarritako tasak aplikatuzetik sortzen diren tributu-zorrak jakinarazpen gabekotzat hartuko dira.

2.-4. artikuluko 1. puntutik 7.era bitartean ezarritako tasengatik sortutako tributu zorrak, 13. artikuluan erran bezala ordainarazi eta gero, ordaindu behar diren seihileko naturaleko lehenbiziko egunean isilbidez jakinarazitza hartuko dira. Egun horretatik aitzina, hogeita hamar egun baliadun izanen dira borondatezko aldian ordaintzeko epetako.

Aurreko lerroaldean aipatzen diren egunetan ordainarazpenen zereendak prest ez badaude, Mankomunitatearen iragarki oholean argitaratzen diren egunetik aitzina hasiko da kontatzen borondatezko aldia.

15. artikulua. 14. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz borondatezko epean ordaintzen ez diren tributu-zorrak, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 84. artikuluan ezarritako moduan ordaindu beharko dira.

Epe hori iragaten bada zorrak ordaindu gabe, premiamendu bidez ordainaraziko dira, non ez duen Mankomunitateak erregelamenduzko gerorapena ematen, martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 90. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraituz.

16. artikulua. Tributu zorren ordainketa honela egiten ahal da:

a) Ordainketak helbideratu dituzten subjektu pasiboek, horretarako adierazitako banku edo aurrezki kutxako kontuan kargatuz. Zorra ordaintzen ez bada zergadunari egotzen ahal zaizkion arrazoiengatik (ordainagiria nahita itzultzea), Mankomunitatearen diruzaintzan edo Mankomunitateak berak kobratzeko ahalmena ematen dien banku edo aurrezki kutxetan. Ordainagiri hauetako bakoitzean 3,61 euro gehituko dira, kudeaketa gastuak estaltzeko.

b) Helbideratuak egonagatik, zergadunari egotzi ezin zaion arrazoiengatik ordaindu ez diren ordainagiriak, Mankomunitatearen Diruzaintzan, edota Mankomunitateak berak kobratzeko ahalmena ematen dien banku edo aurrezki kutxetan.

c) Ordainketak helbideratu ez dituzten subjektu pasiboentzat, Mankomunitatearen Diruzaintzan edo Mankomunitateak berak kobratzeko ahalmena ematen dien banku edo aurrezki kutxetan. Ordainagiri hauetako bakoitzean 3,01 euro gehituko dira, kudeaketa gastuak estaltzeko.

## XIV. KAPITULUA

*Arau-hausteak eta zehapenak*

17. artikulua. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean arau-hauste eta zehapenen gainean ezarritako xedapenak aplikatuko dira.

## XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Bakarra.-Indarrik gabe utzi dira bai ordenantza honetan arautzen diren gaiei buruz orain arte izan den ordenantza, bai ordenantza honi kontra egiten dioten maila bereko edo apalagoko arauak.

## AZKEN XEDAPENA

Bakarra.-Ordenantza honek 2008ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra eta Mankomunitatearen Batzar Orokorrak indargabetzen edo aldatzen ez duen bitartean indarrean jarraituko du.

## I. ERANSKINA

A.–Hiri hondakin solidoak bildu eta garraiatzeko nahitaezko zerbitzua. Prezioak eurotan eta urteko eman dira

A-1) tarifa. Etxebizitzetakoak: 60 euro.

A-2) tarifa. Saltoki tikiak, janari dendak eta dendak oro har, A-5, A-6, A-7 eta A-8 tarifetan sartutakoak izan ezik. Enpresa txikiak, tailerrak eta garajeak. Elizak, komentuek, zentro publikoak, haurtzaindegiak eta 500 bazkide arteko sozietateak. Apark.: 139 euro.

A-3) tarifa. Banaketa eta handizkako salmentako biltegiak. Supermerkatuak. Enpresa eta fabrika ertainak. Ikastetxeak, institutuak, akademiak, haurtzaindegiak. Zinemak. Klinikak eta ospitaleak, 100 ohe bitartekoak. Egoitzak. 500 bazkide baino gehiagoko sozietateak: 356 euro.

A-4) tarifa. 50 langiletik gorako fabrikak. 100 ohetik gorako klinikak eta ospitaleak: 1.202 euro.

A-5) tarifa. Profesionalen bulegoak (gestoriak, agentziak, kabine-tek, notaritzak, erregistroak, etab), bitxidendak-erlojudendak, ehungintzako dendak, zapata-dendak, estankoak, jendearendako egoitzarik gabeko profesional instalatzaileak. Alderdi politikoan egoitzak: 108 euro.

A-6) tarifa. Arraindegiak, fruta-dendak eta hondakin organiko ugari sortzen duten dendak: 197 euro.

A-7) tarifa. Ostatuak, kafetegiak, disko-ostatuak, hostalak eta pensioak: 432 euro.

A-8) tarifa. Jatetxeak, diskotekak, dantzalekuak eta hotelak: 580 euro. (Erabilera eskusiboko edukiontzia dituzten establezimenduei ez zaie halakorik aplikatuko).

A-CE) tarifa. Ordenantza arautzailean ezarri bezala, kokaera, ezau-garriak edo hondakin kopurua dela eta eurek bakarrik erabiltzen dituzten edukiontzia dituzten industria, merkataritza edo zerbitzuetako establezimenduak.

a) Ohiko bilketarako 360 litroko edukiontzi berdeak, 630 euroko tasa urtean asteko bi bilketa eginda; hori guztia alta emandako edukiontzi bakoitzeko, eta zergadun bakoitzeko lau edukiontzi onartuta gehenez.

b) Ohiko bilketarako 800 litroko edukiontzi berdeak, 830 euroko tasa urtean asteko bi bilketa eginda; hori guztia alta emandako edukiontzi bakoitzeko, eta zergadun bakoitzeko lau edukiontzi onartuta gehenez.

c) Ohiko bilketarako 1.000 litroko edukiontzi berdeak, 1.030 euroko tasa urtean asteko bi bilketa eginda; hori guztia alta emandako edukiontzi bakoitzeko, eta zergadun bakoitzeko lau edukiontzi onartuta gehenez.

d) Bilketa sailkatuko 1.000 litroko edukiontzi horiak, 918 euroko tasa urtean asteko bilketa egun bakoitzeko; hori guztia alta emandako edukiontzi bakoitzeko, eta zergadun bakoitzeko lau edukiontzi onartuta gehenez.

e) Iglu erako 3.000 litroko edukiontzi urdin edo berdeak, papera edo beira sailka biltzeko, 918 euroko tasa urtean hilabeteko bilketa egun bakoitzeko; hori guztia alta emandako edukiontzi bakoitzeko, eta zergadun bakoitzeko lau edukiontzi onartuta gehenez.

f) Material birziklagarriak sailka biltzeko 10.000 litrotik 30.000era bitarteko edukiontzia, 800 euroko tasa finkoa urtean, gehi bertze 50 euro edukiontzia husten den bakoitzeko.

g) Supermerkatuak eta jatetxeak, erabilera eskusiboko edukiontzia dutenak:

–Eguneroko bilketa, edukiontzi bakarra: 1.500 euro urtean.

–Eguneroko bilketa, 2 edukiontzi: 2.200 euro urtean.

Subjektu pasibo bat arestiko tarifetan sailkatzerakoan zalantzarik bada, Mankomunitateak berak erabakiko du aplikatuko den tarifa.

L0805033

## 2.2. AGINTARIAK ETA LANGILEAK

## 2.2.1. Kargu-uzteak, izendapenak eta bestelako egoerak

## BERIAIN

## Alkatetzaren eskuordetzea

2008ko apirilaren 15etik 20ra bitartean, biak barne, alkatea udal mugapetik kanpora izanen denez, Alkatetzaren apirilaren 3ko 44/2008 ebazpenaren bidez, lehen alkateorde Eduardo Valencia Larrañetaren eskuetan utziko dira haren eginkizunak.

Argitara ematen da, orok jakin dezan.

Berriainen, 2008ko apirilaren 3an.–Alkatea, Rafael Blanco Pena.

L0805138

## OLTZA ZENDEA

## Hautetsien dedikazio araubidearen eta alkatetzaren lansarien aldaketa

Oltza Zendeako Udalak, 2008ko otsailaren 28an egindako osoko bilkuran, xedapen zatian honela dioen erabakia hartu zuen:

Lehen.–Oltza Zendeako Udalak 2003ko irailaren 25ean egindako osoko bilkuran onetsitako hautetsien dedikazio araubidea baliogabetzea.

Bigarrena.–Hautetsien dedikazio araubidea onestea, ondoan zehazten diren lansariekin:

–Alkatea: egunean bost orduko dedikazio partziala. Urteko lansaria: 18.931,78 euro.

Hirugarrena.–2008ko urtarrilaren 1etik atzeraeraginez erabaki honen bigarren xedapena ezartzen da, 2008ko ekitaldia behin betiko onesten denetik, 2008ko urtarrilaren 31n egin bilkuran onesti baitzen hasiera batez.

Oltza Zendea, 2008ko martxoaren 12an.–Alkatea, Jose María Cuende Vallejo.

L0805013

## ERRIBERRI ALDEKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA

## Burutza eskuordetzea

Toki Entitateen Antolaketari, Funtzionamenduari eta Araubide Juri-dikoari buruzko Erregelamenduan xedatutakoaren arabera (azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onetsia).

Dekretatu dut:

Artikulu bakarra. Mankomunitateko burua 2008ko apirilaren 2tik 10era, biak barne, kanpoan egonen denez gero, bidezko da hura ordeztzea eta, hortaz Santiago Hualde Cabello Mankomunitateko buruordearen esku utzi dira hari dagozkion eginkizunak.

Erriberrin, 2008ko apirilaren 1ean.–Mankomunitateko burua, María Jesús Arana Aicua.

L0805028

## VILLATUERTA

## Aldaketa alkate udalburuaren ordainsarrietan

Villatuertako Udalak, 2008ko apirilaren 2an egin osoko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen aho batez:

1. Aldatzea 2007ko abuztuaren 30eko osoko bilkuran onetsitako alkate udalburuaren ordainsaria, Udal honetako alkate udalburu karguan aritzegatik. Hileko kopuru garbia 650 euro da eta urte honetako apirilaren 1etik aurrerako eragina izanen du.

2. Erabaki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Udalaren iragarki oholean argitaratzeko agintzea.

Villatuertan, 2008ko apirilaren 4an.–Jarduneko alkatea, Iñaki Suso Espadas.

L0805246

## 2.2.2. Plantilla Organikoa, Lan Publikoaren Eskaintza, oposizioak eta lehiaketak

## ANTSOAIN

## Plantilla organikoa. Behin betiko onespina

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 236. artikuluan xedatutakoari jarraituz, jendaurreko epean inork alegaziorik aurkeztu ez duenez Udalak 2008ko otsailaren 27an egin osoko bilkuran hasiera batean onesteko hartu erabakiaren aurka, behin betiko onetsi da 2008ko plantilla organikoa, eranskinen datorrena. Hasierako onespeneren erabakia 2008ko 33. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, martxoaren 12an.

Antsoainen, 2008ko apirilaren 7an.–Alkatea, Antonio Gila Gila.

1. ERANSKINA  
2008ko plantilla organikoa

| KODEA   | LANPOSTUAREN IZENA                              | Lanpostu kopurua | Araubide juridikoa | Maila taldea | Sartzeko bidea | Esklusibitatea | Bateraezintas. | Zuzend. lanpostua | Lanpostua | Lanaldi luzapena | Arrisku berezia | Osagarri berariazk. | Mailako osagarria | Hizkuntz eskakiz. | EGOERA           |
|---|---|------------------|--------------------|--------------|----------------|----------------|----------------|-------------------|-----------|------------------|-----------------|---------------------|-------------------|-------------------|------------------|
| <b>1.-ADMINISTRAZIO OROKORRA ETA FINANTZA ETA TRIBUTU ARLOKOA</b> |   |                  |                    |              |                |                |                |                   |           |                  |                 |                     |                   |                   |                  |
| 1001  | Idazkaria                                       | 1                | F                  | A            | L              | 55             | -              | -                 | 30        | -                | -               | -                   | -                 | 3                 | H                |
| 1002  | Kontu-hartzailea                                | 1                | F                  | A            | L              | 55             | -              | -                 | 14        | -                | -               | -                   | -                 | 1                 | J                |
| 1003  | Administrari-ofizial koordinatzailea            | 1                | F                  | C            | O              | 55             | -              | -                 | -         | -                | -               | -                   | -                 | 2                 | J                |
| 1004  | Administrari-ofiziala; Tributuen kudeaketa      | 1                | F                  | C            | O              | -              | -              | -                 | 40        | -                | -               | -                   | -                 | 3                 | J                |
| 1005  | Administrari-ofiziala; Adm. Orokorra            | 1                | F                  | C            | OL             | -              | -              | -                 | 35        | -                | -               | -                   | -                 | -                 | H                |
| 1006  | Gordailuzaina                                   | 1                | L                  | C            | O              | -              | -              | -                 | 45        | -                | -               | -                   | -                 | -                 | J                |
| 1007  | Administrari-ofiziala, Erregistroa              | 1                | L                  | C            | O              | -              | -              | -                 | 35        | -                | -               | -                   | -                 | 2                 | J                |
| 1008  | Administrari-ofiziala. Errolda                  | 1                | L                  | C            | O              | -              | -              | -                 | 35        | -                | -               | -                   | -                 | 2                 | J                |
| 1009  | Garbitzailea                                    | 1                | F                  | E            | O              | -              | -              | -                 | 30        | -                | 5               | -                   | -                 | -                 | J                |
| 1010  | Mezulari-menpekoea (lanaldi erdia)              | 1                | F                  | E            | O              | -              | -              | -                 | 30        | -                | 5               | -                   | -                 | 1                 | H                |
| <b>2-HAUR ESKOLA</b>  |   |                  |                    |              |                |                |                |                   |           |                  |                 |                     |                   |                   |                  |
| 2001  | Hezitzaile-koord.                               | 1                | F                  | C            | O.L.M.         | -              | -              | -                 | 40        | -                | -               | -                   | -                 | -                 | J                |
| 2002-2007   | Hezitzailea                                     | 6                | F                  | C            | O              | -              | -              | -                 | 25        | -                | -               | -                   | -                 | 3                 | 4H<br>2J         |
| 2008  | Sukaldaria                                      | 1                | F                  | D            | O              | -              | -              | -                 | 25        | -                | -               | -                   | -                 | -                 | H                |
| 2009  | Sukaldeko laguntzaile-garbitzailea              | 1                | F                  | E            | O              | -              | -              | -                 | 30        | -                | 5               | -                   | -                 | -                 | H                |
| 2010-2011   | Hezitzailea                                     | 2                | L                  | C            | O              | -              | -              | -                 | 25        | -                | -               | -                   | -                 | -                 | J                |
| 2012  | Garbitzailea                                    | 1                | L                  | E            | O              | -              | -              | -                 | 30        | -                | 5               | -                   | -                 | -                 | J                |
| <b>3.-KIROL INSTALAZIOAK</b>                                      |   |                  |                    |              |                |                |                |                   |           |                  |                 |                     |                   |                   |                  |
| 3001  | Instalazioen arduraduna                         | 1                | F                  | D            | O.L.M.         | -              | -              | -                 | 50        | 10               | 5               | -                   | -                 | -                 | H                |
| 3002-3005   | Zerbitzu anitzetako enplegatua                  | 4                | F                  | D            | O              | -              | -              | -                 | 30        | -                | 5               | -                   | -                 | 1                 | J                |
| 3006  | Zerbitzu anitzetako enplegatua                  | 1                | F                  | D            | O              | -              | -              | -                 | 30        | -                | 5               | -                   | -                 | 1                 | ELH              |
| 3007  | Zerbitzu anitzetako enplegatua                  | 1                | F                  | D            | O              | -              | -              | -                 | 30        | -                | 5               | -                   | -                 | -                 | J                |
| 3008-3009   | Garbiketako eta sarrera kontrolerako enplegatua | 2                | F                  | E            | O              | -              | -              | -                 | 30        | -                | 5               | -                   | -                 | 1                 | J                |
| <b>4.-UDALTZAINGOA</b>  |   |                  |                    |              |                |                |                |                   |           |                  |                 |                     |                   |                   |                  |
| 4001  | Udaltzaingoko burua                             | 1                | BB                 | C            | I.L.           | -              | -              | -                 | 85        | -                | -               | 55                  | -                 | -                 | J                |
| 4002  | Kaboa   | 1                | F                  | C            | OL             | -              | -              | -                 | 12,78     | -                | -               | 48                  | -                 | -                 | H                |
| 4003-4004   | Kaboa   | 2                | F                  | C            | OLM            | -              | -              | -                 | 12,78     | -                | -               | 48                  | -                 | -                 | H                |
| 4005-4012   | Udaltzaia                                       | 8                | F                  | C            | O              | -              | -              | -                 | -         | -                | -               | 48                  | -                 | -                 | J                |
| 4013-4020   | Udaltzaia                                       | 8                | F                  | C            | O              | -              | -              | -                 | -         | -                | -               | 48                  | -                 | 2                 | 4J<br>3ELH<br>1H |
| <b>5.-MANTENTZE LAN OROKORRAK</b>                                 |   |                  |                    |              |                |                |                |                   |           |                  |                 |                     |                   |                   |                  |
| 5001  | Mantentze lanetako arduraduna                   | 1                | F                  | C            | OLM            | -              | -              | -                 | 35        | -                | 5               | -                   | -                 | -                 | H                |
| 5002-5003   | Zerbitzu anitzetako enplegatua                  | 2                | F                  | D            | OL             | -              | -              | -                 | 30        | -                | 5               | -                   | -                 | 2                 | ELH              |
| 5004  | Zerbitzu anitzetako enplegatua. Igeltseroa      | 1                | F                  | D            | OL             | -              | -              | -                 | 45        | -                | 5               | -                   | -                 | -                 | H                |
| 5005  | Zerbitzu anitzetako enplegatua. Iturgina        | 1                | F                  | D            | OLM            | -              | -              | -                 | 45        | -                | 5               | -                   | -                 | -                 | H                |
| <b>6.-PARKEAK ETA LORATEGIAK</b>                                  |   |                  |                    |              |                |                |                |                   |           |                  |                 |                     |                   |                   |                  |
| 6001  | Lorezaina                                       | 1                | F                  | D            | O              | -              | -              | -                 | 50        | -                | 5               | -                   | -                 | -                 | J                |
| 6002-6003   | Lorezain-ofiziala                               | 2                | F                  | D            | OL             | -              | -              | -                 | 30        | -                | 5               | -                   | -                 | -                 | H                |
| <b>7.-KULTUR ETA KIROL SUSTAPENA</b>                              |   |                  |                    |              |                |                |                |                   |           |                  |                 |                     |                   |                   |                  |
| 7001  | Kirol eta kultur koordinatzailea                | 1                | F                  | B            | O              | 55             | -              | -                 | -         | -                | -               | -                   | -                 | 3                 | J                |
| 7002  | Administrari laguntzailea                       | 1                | F                  | D            | O              | -              | -              | -                 | 30        | -                | -               | -                   | -                 | 2                 | H                |
| 7003  | Administrari laguntzailea                       | 1                | F                  | D            | O              | -              | -              | -                 | 30        | -                | -               | -                   | -                 | -                 | H                |
| <b>8.-EUSKARA ZERBITZUA</b>                                       |   |                  |                    |              |                |                |                |                   |           |                  |                 |                     |                   |                   |                  |
| 8001  | Euskara teknikaria                              | 1                | F                  | B            | O              | -              | -              | -                 | 30        | -                | -               | -                   | -                 | 3                 | H                |
| <b>9.-IKASTETXE PUBLIKOA</b>                                      |   |                  |                    |              |                |                |                |                   |           |                  |                 |                     |                   |                   |                  |
| 9001-9002   | Eskolazaina                                     | 2                | L                  | D            | O              | -              | -              | -                 | 10        | -                | -               | -                   | -                 | 2                 | 1J<br>1H         |

## LAN ESKAINTZA PUBLIKOA, 2008. URTEA

| KODEA                             | LANPOSTUAREN IZENA                         | Lanpostu kopurua | Araubide juridikoa | Maila taldea | Sartzeko bidea | Esklusibitatea | Bateraezintas. | Zuzend. lanpostua | Lanpostua | Lanaldi luzapena | Arrisku berezia | Osagarri berariazk. | Mailako osagarria | Hizkuntz eskakiz. | EGOERA |
|-----------------------------------|--|------------------|--------------------|--------------|----------------|----------------|----------------|-------------------|-----------|------------------|-----------------|---------------------|-------------------|-------------------|--------|
| <b>4.-UDALTZAINGOA</b>            |  |                  |                    |              |                |                |                |                   |           |                  |                 |                     |                   |                   |        |
| 4003-4004                         | Kaboa                                      | 2                | F                  | C            | OLM            | -              | -              | -                 | 12,78     | -                | -               | 48                  | -                 | -                 | H      |
| 4002                              | Kaboa                                      | 1                | F                  | C            | OL             | -              | -              | -                 | 12,78     | -                | -               | 48                  | -                 | -                 | H      |
| <b>5.-MANTENTZE LAN OROKORRAK</b> |  |                  |                    |              |                |                |                |                   |           |                  |                 |                     |                   |                   |        |
| 5004                              | Zerbitzu anitzetako enplegatua. Igeltseroa | 1                | F                  | D            | OL             | -              | -              | -                 | 45        | -                | 5               | -                   | 12                | -                 | H      |
| 5005                              | Zerbitzu anitzetako enplegatua. Iturgina   | 1                | F                  | D            | OLM            | -              | -              | -                 | 45        | -                | 5               | -                   | 12                | -                 | H      |
| <b>6.-PARKEAK ETA LORATEGIAK</b>  |  |                  |                    |              |                |                |                |                   |           |                  |                 |                     |                   |                   |        |
| 6002-6003                         | Lorezain-ofiziala                          | 2                | F                  | D            | OL             | -              | -              | -                 | 30        | -                | 5               | -                   | 12                | -                 | H      |

## LABURDURAK

Araubide juridikoa:  
 F = Funtzionarioa.  
 LF = Lan-kontratudun finkoa.  
 L = Lan-kontratuduna.  
 LF Jarraig. = Lan-kontratudun finko jarraigabea.  
 BB = Behin-behinekoa.  
 Sartzeko bidea:  
 OP = Oposizioa.  
 OL = Oposizio-lehiaketa.  
 OLM = Oposizio-lehiaketa murriztua.

IL = Izendapen librekoa.  
 ML = Merezimendu lehiaketa  
 Egoera administratiboa:  
 Z.B. = Zerbitzu bereziak.  
 H = Hutsik.  
 J = Jardunean.  
 E.L.H = Erreserb. lanpostu hutsa  
 Arrazoiak:  
 P.L.H.= Plantillako lanpostu hutsa

## 2. ERANSKINA

Izenen zerrenda, 2008-2-27an

| KODEA   | IZEN-DEITURAK                    | ARAUBIDE JURIDIKOA | MAILA EDO TALDEA | GRADUA | LANPOSTUA                                       | EGOERA                        |
|---|----------------------------------|--------------------|------------------|--------|---|-------------------------------|
| <b>1.-ADMINISTRATIO OROKORRA ETA FINANTZA ETA TRIBUTU ARLOKOA</b> |                                  |                    |                  |        |   |                               |
| 1001  | HUTSIK                           | F                  | A                |        | IDAZKARIA                                       | H                             |
| 1002  | ERRO USTARIZ, JUAN CRUZ          | F                  | A                | 5-B    | KONTU-HARTZAILEA                                | J                             |
| 1003  | SALEGI ZIORDIA, JONE MIREN       | F                  | C                | 5      | ADMINISTRARI-OFIZIAL KOORDINATZAILEA            | J                             |
| 1004  | ANTONANA BERMEJO, ARANTZA        | F                  | C                | 2      | ADMINISTRARI-OFIZIALA; TRIBUTUEN KUDEAKETA      | J                             |
| 1005  | HUTSIK                           | F                  | C                |        | ADMINISTRARI-OFIZIALA - ADM. OROKORRA           | -                             |
| 1006  | PELLO MARQUINA, ANA ISABEL       | L                  | C                | 5      | GORDAILUZAINA                                   | J                             |
| 1007  | AYERDI ZURUTUZA, M.ª PILAR       | L                  | C                | 4      | ADMINISTRARI-OFIZIALA. ERREGISTROA              | J                             |
| 1008  | BERMEJO ROS, M.ª PILAR           | L                  | C                | 5      | ADMINISTRARI-OFIZIALA. ERROLDA                  | J                             |
| 1009  | PASCAL ALEMAN, FELICIA           | F                  | E                | 5      | GARBITZAILEA                                    | J                             |
| 1010  | HUTSIK                           | F                  | E                |        | MEZULARI-MENPEKOA                               | -                             |
| <b>2-HAUR ESKOLA</b>  |                                  |                    |                  |        |   |                               |
| 2001  | VALLEJO ECHALECU, M.ª SOCORRO    | F                  | C                | 5      |   |                               |
| HEZITZAILE-KOOR-<br>DINATZAILEA                                   | J                                |                    |                  |        |   |                               |
| 2002  | HARISMENDY MUZICA, ANA M.ª       | F                  | C                | 5      | HEZITZAILEA                                     | J                             |
| 2003  | AGUIRRE COLOMO, M.ª ANGELES      | F                  | C                | 4      | HEZITZAILEA                                     | J                             |
| 2004  | HUTSIK                           | F                  | C                |        | HEZITZAILEA                                     | -                             |
| 2005  | HUTSIK                           | F                  | C                |        | HEZITZAILEA                                     | -                             |
| 2006  | HUTSIK                           | F                  | C                |        | HEZITZAILEA                                     | -                             |
| 2007  | HUTSIK                           | F                  | C                |        | HEZITZAILEA                                     | -                             |
| 2010  | ITURGAIZ SAIZ, M.ª DOLORES       | L                  | C                | 5      | HEZITZAILEA                                     | J                             |
| 2011  | CENFUJEGOS MARQUINA, ROSA        | L                  | C                | 5      | HEZITZAILEA                                     | J                             |
| 2008  | HUTSIK                           | F                  | D                |        | SUKALDARIA                                      | -                             |
| 2009  | HUTSIK                           | F                  | E                |        | SUKALDEKO LAGUNTZAILE-GARBITZAILEA              | -                             |
| 2012  | PINILLOS INDURAIN, JULIANA       | L                  | E                | 5      | GARBITZAILEA                                    | J                             |
| <b>3.-KIROL INSTALAZIOAK</b>                                      |                                  |                    |                  |        |   |                               |
| 3001  | HUTSIK                           | F                  | D                |        | INSTALAZIOEN ARDURADUNA                         | -                             |
| 3002  | AGUIRRE AYENSA, SEBASTIAN        | F                  | D                | 2      | ZERBITZU ANITZETAKO ENPLEGATUA                  | J                             |
| 3003  | PALACIO BELLOSO, JULIO MARIA     | F                  | D                | 2      | ZERBITZU ANITZETAKO ENPLEGATUA                  | J                             |
| 3004  | BIZKAI ITURRI, DAVID             | F                  | D                | 3      | ZERBITZU ANITZETAKO ENPLEGATUA                  | J                             |
| 3005  | GOMEZ BAILE, ROBERTO             | F                  | D                | 2      | ZERBITZU ANITZETAKO ENPLEGATUA                  | J                             |
| 3006  | FERNANDEZ IRIARTE, JOSE RAMON    | F                  | D                | 3      | ZERBITZU ANITZETAKO ENPLEGATUA                  | J                             |
|   |                                  |                    |                  |        |   | (BITARTE BATERAKO KOD. 3001)  |
| 3007  | CHAVES MUÑOZ, ANTONIO            | F                  | D                | 4      | ZERBITZU ANITZETAKO ENPLEGATUA                  | J                             |
| 3008  | PEREZ MOLINERO, LEONARDA         | F                  | E                | 4      | GARBIKETAKO ETA SARRERA KONTROLERAKO ENPLEGATUA | J                             |
| 3009  | MARIN GERMAN, ILDEFONSA          | F                  | E                | 5      | GARBIKETAKO ETA SARRERA KONTROLERAKO ENPLEGATUA | J                             |
| <b>4.-UDALTZAINGOA</b>  |                                  |                    |                  |        |   |                               |
| 4001  | CEBALLOS ITOIZ, CARLOS           | BB                 | C                |        | UDALTZAINGOKO BURUA                             | I.L., LANP. ERRRES., 4015     |
| 4002  | HUTSIK                           | F                  | C                |        | KABOA   | -                             |
| 4003  | HUTSIK                           | F                  | C                |        | KABOA   | -                             |
| 4004  | HUTSIK                           | F                  | C                |        | KABOA   | -                             |
| 4005  | FERNANDEZ BARRERO, ANTONIO       | F                  | C                | 4      | UDALTZAINA                                      | J                             |
| 4006  | ESTEBAZIZ MANZANEDO, FCO. JAVIER | F                  | C                | 3      | UDALTZAINA                                      | J                             |
| 4007  | PEREZ GARDE, ALFREDO             | F                  | C                | 3      | UDALTZAINA                                      | J                             |
|   |                                  |                    |                  |        |   | (BITARTE BATERAKO, KOD. 4003) |
| 4008  | ZUBILLAGA BALDA, JAVIER          | F                  | C                | 3      | UDALTZAINA                                      | J                             |
| 4009  | PEREZ GARDE, EDUARDO             | F                  | C                | 3      | UDALTZAINA                                      | J                             |
|   |                                  |                    |                  |        |   | (BITARTE BATERAKO KOD. 4004)  |
| 4010  | NICOLAS FERNANDO, FERNANDO       | F                  | C                | 3      | UDALTZAINA                                      | J                             |
| 4011  | FLORES CABALLO, ANDRES           | F                  | C                | 3      | UDALTZAINA                                      | J                             |
| 4012  | BETES BETRAN, ALFREDO            | F                  | C                | 2      | UDALTZAINA                                      | J                             |
| 4013  | MONREAL UDAVE, JOSE JAVIER       | F                  | C                | 2      | UDALTZAINA                                      | J                             |
| 4014  | GONZALEZ TORRALBA, ARANZAZU      | F                  | C                | 2      | UDALTZAINA                                      | J                             |
| 4015  | CEBALLOS ITOIZ, CARLOS           | F                  | C                | 2      | UDALTZAINA                                      | J                             |
|   |                                  |                    |                  |        |   | (I.L. KOD. 4001)              |
| 4016  | JIMENEZ JUANTO, GORKA            | F                  | C                | 1      | UDALTZAINA                                      | J                             |
| 4017  | MATEOS TRUJILLANO SOLEDAD        | F                  | C                | 2      | UDALTZAINA                                      | J                             |
| 4018  | UGARTE AGUINAGA, FCO. JAVIER     | F                  | C                | 1      | UDALTZAINA                                      | J                             |
| 4019  | GOMEZ LEONE, CARLOS              | F                  | C                | 1      | UDALTZAINA                                      | J                             |
| 4020  | HUTSIK                           | F                  | C                |        | UDALTZAINA                                      | -                             |
| <b>5.-MANTENTZE LAN OROKORRAK</b>                                 |                                  |                    |                  |        |   |                               |
| 5001  | HUTSIK                           | F                  | C                |        | MANTENTZE LANETAKO ARDURADUNA                   | -                             |
| 5002  | HERRERA TRIGUERO, PEDRO          | F                  | D                | 4      | ZERBITZU ANITZETAKO ENPLEGATUA                  | J                             |
|   |                                  |                    |                  |        |   | (BITARTE BATERAKO KOD. 5001)  |
| 5003  | IGLESIAS LACASA, ALFREDO         | F                  | D                | 2      | ZERBITZU ANITZETAKO ENPLEGATUA                  | J                             |
|   |                                  |                    |                  |        |   | (BITARTE BATERAKO KOD. 5005)  |
| 5004  | HUTSIK                           | F                  | D                |        | ZERBITZU ANITZETAKO ENPLEGATUA. IGELTSEROA      | -                             |
| 5005  | HUTSIK                           | F                  | D                |        | ZERBITZU ANITZETAKO ENPLEGATUA. ITURGINA        | -                             |
| <b>6.-PARKEAK ETA LORATEGIAK</b>                                  |                                  |                    |                  |        |   |                               |
| 6001  | GARCIA-FALCES LARRAÑETA, ALFREDO | F                  | D                | 2      | LOREZAINA                                       | J                             |
| 6002  | HUTSIK                           | F                  | D                |        | LOREZAIN-OFIZIALA                               | -                             |
| 6003  | HUTSIK                           | F                  | D                |        | LOREZAIN-OFIZIALA                               | -                             |

| KODEA                                | IZEN-DEITURAK                 | ARAUBIDE JURIDIKOA | MAILA EDO TALDEA | GRADUA | LANPOSTUA                        | EGOERA |
|--------------------------------------|-------------------------------|--------------------|------------------|--------|----------------------------------|--------|
| <b>7.-KULTUR ETA KIROL SUSTAPENA</b> |                               |                    |                  |        |                                  |        |
| 7001                                 | MARTINEZ ARREGUI, JUAN CARLOS | F                  | B                | 4      | KIROL ETA KULTUR KOORDINATZAILEA | J      |
| 7002                                 | HUTSIK                        | F                  | D                |        | ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA        | -      |
| 7003                                 | HUTSIK                        | F                  | D                |        | ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA        | -      |
| <b>8.-EUSKARA ZERBITZUA</b>          |                               |                    |                  |        |                                  |        |
| 8001                                 | HUTSIK                        | F                  | B                |        | EUSKARA TEKNIKARIA               | -      |
| <b>9.-IKASTETXE PUBLIKOIA</b>        |                               |                    |                  |        |                                  |        |
| 9001                                 | MENDOZA ANTON, M.ª JESUS      | L                  | D                | 6      | ESKOLAZAINA                      | J      |
| 9002                                 | HUTSIK                        | L                  | D                |        | ESKOLAZAINA                      | -      |

## ALDI BATERAKO LAN-KONTRATUDUNAK, PLANTILLAKO LANPOSTUAK BETETZEN ARI DIRENAK (2008/02/27)

## Lanpostu hutsak

| IZEN-DEITURAK                      | LANPOSTUA                             | ALORRA/KUDEAKETA ZENTROA        | ARRAZOIA        | KONTRATU MOTA                  | BUK. EGUNA |
|------------------------------------|---------------------------------------|---------------------------------|-----------------|--------------------------------|------------|
| OLASCOAGA ECHARRI, BEGOÑA          | IDAZKARIA                             | ADM. OROKOR. ETA FIN. ETA TRIB. | P.L.H. KOD 1001 | BITART. ADM.                   | -          |
| VILLANUEVA ESAIN, ALEJANDRA        | ADMINISTRARI-OFIZIALA - ADM. OROKORRA | ADM. OROKOR. ETA FIN. ETA TRIB. | P.L.H. KOD 1005 | BITART. LAN KONTR.             | -          |
| GARAIKOETXEA ARANBURU, M.ª UJUE    | MEZULARI-MENPEKOA, LANALDI ERDIA      | ADM. OROKOR. ETA FIN. ETA TRIB. | P.L.H. KOD 1010 | BITART. LAN KONTR. LAN. PARTZ. | -          |
| NAGORE ESPARZA, BEATRIZ            | HEZITZAILEA                           | HAUR ESKOLA                     | P.L.H. KOD 2004 | BITART. LAN KONTR.             | -          |
| NAVARRA LIZARRAGA, PILAR           | HEZITZAILEA                           | HAUR ESKOLA                     | P.L.H. KOD 2005 | BITART. LAN KONTR.             | -          |
| TELLERIA MARTIN, ALMUDENA          | HEZITZAILEA                           | HAUR ESKOLA                     | P.L.H. KOD 2006 | BITART. LAN KONTR.             | -          |
| GARCIA GILA, JUANA                 | HEZITZAILEA                           | HAUR ESKOLA                     | P.L.H. KOD 2007 | BITART. LAN KONTR.             | -          |
| GOICOECHEA EZCURDIA, M.ª ANGELES   | SUKALDARIA                            | HAUR ESKOLA                     | P.L.H. KOD 2008 | BITART. LAN KONTR.             | -          |
| CISNEROS HERNANDEZ, M.ª ISABEL     | SUKALDEKO LAGUNTZAILE-GARBITZAILEA    | HAUR ESKOLA                     | P.L.H. KOD 2009 | BITART. LAN KONTR.             | -          |
| SANCHEZ AMIGOT, JOSE MARIA         | ZERBITZU ANITZETAKO ENPLEGATUA        | KIROL INSTALAZIOAK              | P.L.H. KOD 3006 | OBRA-ZERB. ZEHATZ.             | -          |
| ALCALDE ECHARRI, M.ª ANGELES       | UDALTZAIN LAGUNTZAILEA                | UDALTZAINGOA                    | P.L.H. KOD 4020 | BITART. ADM.                   | -          |
| ARGANDOÑA LARRAINZAR, ALFONSO      | LOREZAIN LAGUNTZAILEA                 | PARKEAK ETA LORATEGIAK          | P.L.H. KOD 6002 | BITART. LAN KONTR.             | -          |
| ORTIGOSA MURILLO, ITZIAR           | ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA             | KULTUR ETA KIROL SUSTAPENA      | P.L.H. KOD 7003 | BITART. LAN KONTR.             | -          |
| YOLDI LIZARRONDO, MERCEDES         | ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA             | KULTUR ETA KIROL SUSTAPENA      | P.L.H. KOD 7002 | OBRA-ZERB. ZEHATZ.             | -          |
| LECUMBERRI BEGUIRISTAIN, JOSE LUIS | EUSKARA TEKNIKARIA                    | EUSKARA ZERBITZUA               | P.L.H. KOD 8001 | BITART. LAN KONTR.             | -          |
| CENOZ HUARTE, MARIA LUISA          | ESKOLAZAINA                           | IKASTETXEA                      | P.L.H. KOD 9002 | OBRA-ZERB. ZEHATZ.             | 2008/06/30 |

## LANGILEEN IZENEN ZERRENDA 2008-02-27AN

## Langileen ordezkapenak

| IZEN-DEITURAK              | LANPOSTUA               | ALORRA/KUDEAKETA ZENTROA | ARRAZOIA                        | KONTRATU MOTA                  | BUKAERA EGUNA            |
|----------------------------|-------------------------|--------------------------|---------------------------------|--------------------------------|--------------------------|
| CONTIN DONAMERIA, CRISTINA | HEZITZAILEA             | HAUR ESKOLA              | LANALDI. 1/3KO MURRIZ. KOD 2010 | BITART. LAN KONTR. LAN. PARTZ. | LANALDI LUZAPEN. BUKAERA |
| CILVETI LOPERENA, DAVID    | UDALTZAIN LAGUNTZAILEA  | UDALTZAINGOA             | AMATAS. ATSEDEN. KOD 4015       | BITART. ADM.                   | AMATASUN ATSED. BUKAERA  |
| ESPERILLA LOPEZ, ANTONIO   | ZERBITZU ANITZ. ENPLEG. | MANT. LAN OROK.          | ORDEZKAPENA, KOD 5002           | LAN KONTR.                     | 2008/10/17               |
| BLANCO VACA, ROBERTO       | ZERBITZU ANITZ. ENPLEG. | KIROL INSTALAZIOAK       | LAN. 1/2 MURR. KOD 3002         | BITART. LAN KONTR. LAN. PARTZ. | LANALDI LUZAPEN. BUKAERA |

L0805286

## ANTSOAIN

## Deialdia, Antsoaingo Udaltzaingoko kabo izateko 3 lanpostu mailaz igotzeko lehiaketa bidez betetzeko

## OINARRIAK

## 1. Deialdiaren xedea.

1.1. Nafarroako Polizia Kidegoetako kideen eta udaltzainen artean Antsoaingo Udaltzaingoko kabo izateko hiru lanpostu betetzea du xede deialdi honek, mailaz igotzeko lehiaketaren sistema baliatuz. Lanpostuak honela banatuta daude:

-2 lanpostu barne igoerako txandan, Antsoaingo Udaltzaingoko ki-deentzat (aurrerantzean, barne igoerako txanda).

-Lanpostu bat igoera txanda irekian, Nafarroako gainerako Polizia Kidegoetako ki-deentzat eta udaltzaintzat (aurrerantzean igoera txanda irekia).

1.2. Hautaprobak gainditzeko eskatzen den gutxieneko puntuaziora ez iristeagatik, bete gabe gelditzen bada igoera txanda irekiko lanpostu hutsen bat, barne igoerako txandakoei gehituko zaie.

Hautaprobak gainditzeko eskatzen den gutxieneko puntuaziora ez iristeagatik, bete gabe gelditzen bada barne igoerako txandako lanpostu hutsen bat, bete gabe deklaratu da.

Orobat, barne igoerako txandan hutsik dauden lanpostuak baino izangai gehiagok gainditzen badute, txanda horretan lanpostua eskuratzeko, txanda horretako izangaiekin lehia garbian, lortzen duten azken puntuazioaren arabera.

1.3. Izendapenarekin batera pertsona izendatu horiek nomina eta plantillako funtzionario bihurtuko dira, funtzionarioen arloan indarrean dauden xedapenetan ezarri diren eskubide eta betebeharrak guztiekin.

1.4. Lanpostuetan C mailako lantsariak izanen dituzte, eta aplikatu beharreko xedapenen araberrako osagarriak.

1.5. Izangaiek, hautaprobak gainditu eta deialdi honetako lanpostuetan aritzeko izendatu ondoren, Antsoaingo Udaltzaingoa sartu eta

funtzionario eginez gero, Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean afiliatu eta kideetako dira, araubide horretan aurreikusitako babesean.

Deialdi honetako lanpostuetarako izendatu eta lehendik eskubide pasiboan eta osasun eta gizarte laguntzaren araubidean, hots, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuan eta gainerako xedapen osagarrietan aipatzen den hartan, afiliatuta dauden funtzionarioek bertan segitzea aukera dezakete edo Gizarte Segurantzaren afiliatzea.

1.6. Izendatuek zein tokitan duten lana, bertan bizi beharko dute, eta horretarako, Antsoaingo udal mugapean finkatuko dute bizilekua.

## 2. Izangaiei betebeharrak.

2.1. Lehiaketa honetan onartuak izateko, izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

## a) Barne igoerako txandan:

1.-Gutxienez 3 urteko antzintasuna izatea Antsoaingo udaltzain gisa.

2.-Abiapuntuko lanpostuan borondatezko edo nahitaezko eszedentzian ez egotea.

3.-Eginkizun publikoetan aritzeko desgaitu edo gabetua ez egotea eta Administrazio Publikoren baten zerbitzutik berezia ez izatea.

4.-Eginkizunak betetzeko behar diren gaitasun fisiko eta psikikoak izatea.

## b) Igoera txanda irekian:

Gutxienez 3 urteko antzintasuna izatea udaltzain lanpostuan.

2.-Abiapuntuko lanpostuan borondatezko edo nahitaezko eszedentzian ez egotea.

3.-Eginkizun publikoetan aritzeko desgaitu edo gabetua ez egotea eta Administrazio Publikoren baten zerbitzutik berezia ez izatea.

4.-Eginkizunak betetzeko behar diren gaitasun fisiko eta psikikoak izatea.

Eskabideak aurkezteko epea bukatzen denean bete beharko dira baldintza horiek.

3. Eskabideak. Deialdian parte hartzeko eskabideak aurkeztu beharko dira Antsoaingo Udalaren Erregistro Orokorrean (Udaletxeko plaza, 1; Antsoain) edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 20ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako bideetako bat erabiliz. Horretarako, 20 egun naturaleko epea izanen da, deialdi hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik hasita. Eskabide horiek deialdian argitaratu ereduari lotu beharko zaizkio. Antsoaingo Udalaren Herriarrendako Laguntza Zerbitzuan, [www.ansoain.es](http://www.ansoain.es) web orrian, Antsoaingo Udaltzaingoa bulegoetan eta 012-Infolocal telefonoan eskura daitezke.

Haietan, eskabideak aurkezteko epearen azken egunean baldintza guztiak betetzen dituztela adieraziko dute izangaiak.

3.2. Eskabideari agiri hauek erantsi beharko zaizkio:

a) Nortasun agiri nazionalaren aurreko eta atzeko aldeen fotokopia egiaztatua.

b) Egiaztatzea, udaltzain izendatu izana, lanpostuko antzinatasuna eta bertan duen egoera administratiboa ziurtatzen dituena.

c) Alegatutako merezimendu guztien egiaztatzea, deialdiaren 2. eranskinean ezarritako baremoaren arabera.

3.3. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina da.

4. Onartu eta baztertuen behin-behineko eta behin betiko zerrendak.

4.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatutakoan, Antsoaingo alkate udalburuak ebazpena emanen du onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onesteko, eta Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzeko aginduko du.

4.2. Izangai baztertuek hamar egun baldiduneko epea izanen dute, behin-behineko zerrenda Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik, erreklamazioak aurkezteko eta egindako akatsak zuzentzeko.

4.3. Erreklamazioen epea bukatuta, eta haiek ebatzita, Antsoaingo Udaleko alkate udalburuak onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesten duen ebazpena emanen du eta Udalaren web orrian, [www.ansoain.es](http://www.ansoain.es), eta 012-Infolocal telefono bidez argitaratu dadin aginduko. Orobat, aditzera emanen da zein egunetan egin beharko duten izangaiak proba bakoitza, tokia eta ordua adierazita.

5. Epaimahaia.

5.1. Kide hauek osatuko dute epaimahaia:

Mahaiburua: Antsoaingo Udaleko alkate udalburua.

Ordezkoa: M. José Elizondo Urtasun andrea, Antsoaingo Udaleko bigarren alkateordea.

Mahaikidea: Jesús Esteban Lainez jauna, Antsoaingo Udaleko lehen alkateordea.

Ordezkoa: Carmelo Jiménez Hernández jauna, Antsoaingo Udaleko zinegotzia.

Mahaikidea: Iruñeko Udaltzaingoko inspektore bat.

Ordezkoa: Iruñeko Udaltzaingoko kabo bat.

Mahaikidea: Enrique Vellostas Suescun jauna, Burlatako Udaltzaingoko burua.

Ordezkoa: Enrique Ayerra Ayerdi jauna, Burlatako Udaltzaingoko kaboa.

Mahaikidea: Pedro Herrera Triguero jauna, Antsoaingo Udaleko funtzionarioen sindikatuen ordezkaria.

Ordezkoa: Antonio Chaves Muñoz jauna, Antsoaingo Udaleko funtzionarioen delegatu sindikalen ordezkaria.

Mahaikide idazkaria: Begoña Olascoaga Echarri andrea, Antsoaingo Udaleko idazkaria (hizpidea duela baina botorik ez).

Ordezkoa: Lucía Sarasa Amatriain andrea, Berriobeitiko Udaleko idazkaria (hizpidea duela baina botorik ez).

Hautaprobak egiten hasi aurretik eratu da epaimahaia.

5.2. Epaimahaia ezin izanen da eratu, ezta aritu ere, kideen erabateko gehiengo bildu gabe, eta kideen gehiengo beharko da erabakiak hartzeko.

5.3. Epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote eta deialdia egin duen organoari hala jakinarazi, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Foru Legean aurreikusita dauden egoerak gertatzen direnean.

Izangaiak, halaber, zilegi dute mahaikideak errefusatzera, egoera horietako bat gertatzen denean.

5.4. Epaimahaia gehiengo erabakiko ditu deialdiaren oinarriak ulertu eta aplikatzeko moduan inguruan sortzen diren arazo guztiak.

5.5. Epaimahaia aholkulari adituen laguntza izan dezake proba batzuetan nahiz guztietan. Aholkulari horiek dagozkien espezialitate teknikoetan aritzera mugatuko dira, eta haietan baizik ez diote lagunduko epaimahaiari.

6. Lehiaketaldia.

6.1. Merezimenduen lehiaketa: gehienez ere 30 puntu.

Merezimenduetan, honako elementu hauek baloratuko dira, Nafarroako Polizia Kidegoetako Langileen Erregelamendua onesten duen abenduaren 29ko 718/2003 Foru Dekretuaren 2. eranskinarekin bat:

a) Administrazio publikoetan egindako zerbitzuak: gehienez ere 15 puntu.

b) Prestakuntza, irakaskuntza, ikerketa eta beste merezimendu batzuk: gehienez ere 8 puntu.

c) Hizkuntzak jakitea: euskara, frantsesa, ingelesa eta alemana; gehienez ere, 5 puntu.

d) Sariak: gehienez ere 2 puntu.

Aurreko a) eta b) ataletan alegatu eta egiaztaturiko merezimenduak epaimahaia kalifikatu eta puntuatuko ditu, deialdi honetako 2. eranskineko baremoaren arabera. Lehiaketan parte hartu nahian eskabidea aurkeztu den unean alegatu beharko dira merezimenduak, baita agiri bidez frogatu ere. Epaimahaia ez du inolaz ere kontuan hartuko agiri bidez egiaztatu ez den merezimendurik, eta ez du emanen merezimenduen atal bakoitzarentzat adierazitako puntuazioa baino handiagorik.

Epaimahaia argibideak eta datu osagarriak eskatzen ahal ditu, bai lanpostuko errendimendua baloratzeko, bai lehiatzaileek alegatu merezimenduen buruz.

7. Proba praktikoa eta psikoteknikoen aldia:

Proba praktikoen aldian honako hauek sartuko dira:

a) Proba praktikoa: gehienez ere, 40 puntu.

b) Proba psikoteknikoa: gehienez, 30 puntu.

Proba guztiak deialdi bakarrean egingen dira. Bazterturik geldituko dira haietako edozeineta agertzen ez diren izangaiak.

7.1. Proba praktikoa 40 puntu izanen dituzte gehienez, eta haietan ariketa bat edo gehiago egin beharko dira kabo lanaren edukiaz eta egitekoen. Proba guztiek gehieneko puntuazio bera izanen dute. Baztergarriak izanen dira, eta kanpoan geldituko dira proba bakoitzean puntuen erdiak baino gehiago ateratzen ez dituztenak.

7.2. Proba psikoteknikoa: gehienez, 30 puntu.

Proba psikoteknikoa hasi aurretik, Psikologia Aplikatuaren Zerbitzuak, Udaltzaingoko Burutzari kontsulta egin ondoren, lanpostuaren profilarren gaineko proposamena igorriko dio alkate udalburuari. Antsoaingo Udaleko alkate udalburuak profil hori onetsiko du, eta epaimahaiari jakinaraziko dio.

Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko Psikologia Aplikatuaren Zerbitzuak, probak egin ondoren, txosten psikotekniko bat emanen du lehiatzaile bakoitzari buruz. Hartan, norbera deialdiaren xedeko lanpostuaren izaera eta ezaugarriak nola egokitzen zaien baloratuko da. Zerbitzu horrek txosten psikoteknikoan izangai bakoitzari ematen dion puntuazioa loteslea izanen da epaimahaiarentzat.

Baztertu egingen dira 10 puntu lortzen ez dituzten izangaiak.

Proba guztiak deialdi bakarrean egingen dira. Bazterturik geldituko dira haietako edozeineta agertzen ez diren izangaiak.

8. Igoerarako prestakuntza ikastaroa gaintzea:

Proba psikoteknikoa egindakoan, epaimahaia jendaurrean jarriko du, Antsoaingo Udalaren iragarki oholean eta azken probaren tokian, probak gaintu dituzten izangaien behin-behineko zerrenda, lortutako puntuazioaren hurrenkeran eta zein bere txandan, baita gaikuntza ikastaroan onartutako izangaien zerrenda ere (3 ikasle gehienez).

Nafarroako Segurtasun Eskolak emanen du gaikuntza ikastaroa, eta baztergarria izanen da.

Epaimahaia gaikuntza ikastaroa egiteko onartutako behin-behineko zerrendarekin batera adieraziko du ikastaroa zein toki, egun eta ordutan hasiko den.

Gaikuntza ikastaroa egin bitartean izangaiak zerbitzu berezien egoeran deklaratu dituzte haien jatorrizko administrazioek, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren 24.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Ikastaroa bukatutakoan, langilea jarduneko egoerara itzuliko da berehala, zerbitzu berezien egoeran deklaratu zenean zuen lanpostura.

Zerbitzu berezien egoeran deklaratzek ez du aldaketarik sortuko izangaiaren gizarte aurreikuspeneko sisteman, jatorrizko lanpostuan zuenarekin segituko baitu.

Zerbitzu berezien egoeran deklaratu eta gaikuntza ikastaroa egiteko onartzen diren izangaiak honako lansari hauek jasoko dituzte Antsoaingo Udaletik: C mailako hasierako soldadari dagozkion eta deialdi lanpostuen berriazko osagarriak, baita jatorrizko lanpostuan onarturik dituzten gradua, antzinatasuna eta familia laguntza ere.

Izangaiak gaikuntza ikastaroa uzten bada, egun horretara arte izanen du eskubidea aurreko atalean aipatu lansariak jasotzeko.

Zerbitzu berezien egoera bukatzen denean, aurreko atalean aipatutako lansarien sistema izateari utziko zaio, eta ez du eskubiderik ekarriko, ez eskubide pasiborik sortuko, ezta deialdiko lanpostuaren ondo-riko inolako eskubiderik ere.

Izangaiak Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko Segur-tasun Eskolari atxikiko zaizkio.

Izangaiak hamabost egun naturaleko epea dute, gaikuntza ikasta-roan onartu eta baztertu direnen behin-behineko zerrenda argitaratzen denetik hasita, ikastaroak dirauen bitartean zerbitzu berezien egoeran daudela frogatzeko.

9. Probak gainditzen dituztenen zerrenda eta izendapen proposa-mena.

9.1. Gaikuntza ikastaroa bukatutakoan, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko Segur-tasun Eskolak ikastaroko puntuazioak igorriko dizkio epaimahaiari, baita arlo bakoitzerako eta haren azken kalifikaziorako proposamena ere.

Epaimahaiak izangaien kalifikazioa onetsi eta mailaz igotzeko lehiaketa gainditzen duten izangaien zerrenda, azken puntuazioaren ara-berakoa, Antsoaingo Udaleko Alkate udalburuari igorriko dio.

10. Izendapena eta lanpostuaz jabetzea.

10.1. Antsoaingo Udaleko alkate udalburuak Antsoaingo Udal-tzaingoko kabo izendatuko ditu lehiaketa gainditzen duten izangaiak. Izendapenak Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko dira.

10.2. Izangai izendatuek hamar egun naturaleko epea izanen dute lanpostuaren jabetza hartzeko, izendapena jakinarazten denetik hasita. Aipatu epean, eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, jabetza hartzen ez badute, igoerarako eskubidea galduko dute.

11. Errekurtsoak.

Deialdi honen, bere oinarrien eta aplikazio egintzen aurka, erre-kurtso hauetako bat aurkeztea aukeratzen ahal da:

a) Berraztertze errekurtsoa, egintza burutu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, hura jakinarazi edo argitaratu eta bihara-munetik aitzina.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Justizia Au-zitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien Salari zuzendua, bi hilabe-teko epean, errekurritutako egintza edo erabakia argitaratu edo jakina-razi eta biharamunetik aitzina.

c) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia argi-taratu edo jakinarazten denetik aitzina.

## 1. ERANSKINA

### Eskabide eredu

Izena: ....., adinez nagusia, N.A.N: ....., jaioteguna: ....., jaioterrria: ....., probintzia: ....., egungo helbidearen herria: ....., probintzia: ....., kalea: ....., zenbakia: ....., solairua: ....., letra: ....., posta kodea: ....., etxeko telefonoa: ....., laneko telefonoa: ....., sakelako telefonoa: .....

Zure aitzinera agertu eta adierazten dut:

Antsoaingo Udaltzaingoko kabo izateko 3 lanpostu mailaz igotzeko lehiaketa bidez betetzeko deialdian parte hartzeko onar nazatela eska-tzen dudala, honako txanda honetan (deialdia ..... zenbakiko Nafa-rrako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, .....(e)an), Antsoaingo Udalaren zerbitzuan aritzeko.

Barne igoerako txanda, Antsoaingo Udaltzaingoko kideentzat.

Igoera txanda irekia, Nafarroako gainerako polizia kidegoetako kideentzat.

Eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean, behar diren baldintza guztiak betetzen ditudala.

Datuen babesa. Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 1999ko abenduaren 13ko Lege Organikoan ezarritakoa bete dadin, aditzera ematen zaizu inprimaki honetan ematen diren datu pertsonalak hau-tapen prozeduran Udalak dituen eskumenak erabiltzeko baizik ez direla erabiliko eta Antsoaingo Udalaren datu basea osatzen duten fitxategiei batuko zaizkiela. Fitxategietan sartu, datuak zuzendu eta ezabatzeko eta haien aurka jotzeko eskubideak Antsoaingo Udalari zuzendurik erabiltzen ahalko dituzu, Erregistro Orokorrera joz (Udaletxeko plaza, 1; 31013-Antsoain).

Antsoainen, 2008ko .....aren .....(e)an.

(Sinadura)

ANTSOAINGO UDALEKO ALKATE UDALBURUA.

## 2. ERANSKINA

### Merezimenduak baloratzeko baremoa

A.–Administrazio publikoetan egindako zerbitzuak: gehienez ere, 15 puntu.

1) Nafarroako Polizia Kidego batean egindako zerbitzu urte ba-koitza: puntu bat, agente lanpostuan.

2) Zerbitzu urte oso bakoitza, bere mailako lanpostuan baino han-diagoko batean, Nafarroako Polizia Kidego batean: 1,5 puntu.

3) Administrazio publiko baten bestelako segurtasun indar eta ki-degoetan, lanpostu finkoan, egindako zerbitzuak: puntu bat, urtean.

4) Edozein administrazio publikotan, lanpostu finkoan, polizia ki-dego batekoak ez diren lanpostuetan egindako zerbitzuak: puntu bat, urtean.

Oharrak:

1. Urteen kopurua osoa ez bada, zerbitzuan egindako aldiari pro-portzioan dagokion puntuazioa emanen zaio.

2. Lanaldi partzialean egindako zerbitzuen kasuan, behar den zatia kenduko da.

3. Deialdia argitaratu ondoan egindako zerbitzuak ez dira balora-tuko.

B.–Prestakuntza, irakasle eta ikerketa lana eta beste merezimendu batzuk: gehienez ere, 8 puntu.

1) Erakunde edo zentro publikoek eta unibertsitateek antolaturiko prestakuntza-ekintzetan parte hartzea: 0,10 puntu, kreditu akademiko edo horren baliokide bakoitzeko (10 ikastordu), eta gehienez ere 2 puntu.

Oharrak:

1. Baloratu beharreko ikastaroetan, irakastorduen zatikiak hainba-natuko dira.

2. Irakastorduen kopurua agertzen ez duten ziurtagiriei kreditu bateko balorazioa emanen zaie.

3. Ikasturte bateko iraupena agertzen duten ziurtagiriei 12 kredi-tuko balorazioa emanen zaie.

4. Ikastaro bakoitzeko gehienez ere eman daitekeen balorazioa puntu bat da.

5. Erakunde antolatzaileari buruzko betebeharrak betetzen ez ba-dituzte ere, Administrazioak agindurik edo oniritziarik eginak diren pre-stakuntza ekintzetan parte hartzea puntuazio berarekin baloratuko da. Horien artean, espresuki, sindikatuek Administrazio Publikoetako Eten-gabeko Prestakuntzarako Itunen barruan antolatuak sartuko dira.

2) Biltzar edo jardunaldietan txostenak edo komunikazioak aur-keztea, beka edo saria jaso duten zientzia edo ikerketa lanak egitea eta aldizkari espezializatueta lanak argitaratzea: 2 puntu, gehienez ere, epaimahaiak baloratu beharrekoa, kontuan hartuz lana edo jarduera bakar batek edo taldean egina den eta biltzarra edo argitalpena zein mailatakoa den, tokikoa, eskualdekoa, naziokoa edo nazioartekoa.

3) Sektore publikoan prestakuntza saiok antolatu edo halakoetan irakasle jardutea: gehienez ere 2 puntu, epaimahaiak haien iraupenaren arabera baloratu beharrekoak.

4) Titulazio eta espezialitate akademikoak, deialdian eskatu ez di-renak: gehienez ere, 2 puntu.

5) Doktore edo lizentziatu gradua, deialdian eskatutako titulazioari buruz: gehienez ere, 2 puntu.

6) Beste merezimendu batzuk, epaimahaiak kontuan hartu beha-rrekoak: besteak beste, hizkuntzak, sektore pribatuan egindako lanak, beka edo prestakuntza egonaldiak, kontsulta egiteko, aholku emateko, parte hartzeko edo ordezkartzeko organoetan parte hartzea: gehienez ere, 2 puntu.

Oharrak b) atal osorako:

1. Atal honetan aipatutako merezimenduak deialdiko lanpostua-rekin ikusteko izanez gero soilik baloratuko dira. Kabo lanpostua esku-ratzeko prestakuntza ikastaroak ez dira inondik ere baloratuko.

C.–Hizkuntzak jakitea: euskara, frantsesa, ingelesa eta alemana: gehienez ere, 5 puntu.

1. Hizkuntza Eskola Ofizial batek emandako Gaitasun Agiria edo ofizialki baliokidetzat jotzen den titulua edukitzeagatik aurreko atalean hizkuntza bakoitzerako adierazten den gehienezko puntuazioa eskura-tuko da.

Titulurik eduki ezik, Hizkuntza Eskola Ofizialean gainditutako maila bakoitzagatik gehienezko puntuazioaren bosten bat emanen da. Euska-raren kasuan, Nafarroako Gobernuak antolatutako ikastaroetan gaindi-tutako urrats bakoitzeko 1/12 emanen da.

Hizkuntza horietatik bakoitzak zer dakien baloratzeko, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak espresuki antolatutako azterketak egiten ahal ditu; bost zailtasun maila izanen dira, eta hizkuntza bako-



*Izenen zerrenda*

Duque Ibarrondo, Joaquín. Maila: A. Egoera administratiboa: jardunean.

Oyarzábal Zubieta, María Dolores. Maila: B. Egoera administratiboa: jardunean.

Elgorriagan, 2008ko apirilaren 3an.–Alkatea, Santos Irurueta Santesteban.

L0805114

**LAPOBLACION****2008ko plantilla organikoa. Hasierako onespina**

Lapoblaciongo Udalak, 2008ko martxoaren 28an egin osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen 2008ko plantilla organikoa.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 271. artikulua 236. artikuluari buruz xedatutakoari jarraikiz, onetsitako plantilla Idazkaritzan egonen da ikusgai hamabostegun baliodunean, iragarki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik hasita, herritarrek edo interesdunek espedienteaz aztertu eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten.

Lapoblación-Meanon, 2008ko apirilaren 7an.–Alkatea, Javier Martínez Fernández de Las Heras.

L0805241

**ETXALAR****Plantilla organikoaren hasierako onespina**

Etxalarko Udalak, 2008ko apirilaren 11ko osoko bilkuran, 2008. urteko plantilla organikoa onetsi zuen hasiera batez.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 271. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, 236. artikuluari lotuta baitago, onetsitako plantilla Idazkaritzan egonen da ikusgai, hamabost egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN

argitaratu eta biharamunetik hasita, herritarrek edo interesdunek espedienteaz aztertu eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten.

Etxalarren, 2008ko apirilaren 14an.–Alkatea, Patxiku Irisarri Elizagoien.

L0805763

**LEGARIA****Plantilla organikoa. Behin betiko onespina**

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 236. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, jendaurrean egoteko epea inork alegaziorik aurkeztu gabe iragan baita, behin betikoz onetsi da 2007ko plantilla organikoa. Hasierako onespinen iragarkia 2007ko 136. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, urriaren 31n.

Administrazio-kontratudunak:

Lanpostua: Idazkaria. Maila: A. Lanpostuko osagarria: %10. Sarbidea: oposizioa. Buru den Udala: Legaria. Etaio, Oko eta Olexuako Udalekin Batasunean.

Administrazio-kontratudunen izenen zerrenda

Izen-deiturak: Rafael Hervás Guerrero. Lanpostua: idazkaria. Maila: A. Antzinasuna: 2006/08/22.

Legarian, 2008ko martxoaren 17an.–Alkate udalburua, José Javier Echeverría Martínez.

L0805130

**MILAGRO****2008ko plantilla organikoa**

Milagroko Udalak, 2008ko martxoaren 18an egin osoko bilkuran, onetsi zituen 2008ko plantilla organikoa eta lan eskaintza publikoa, hori guztia Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/2008 Foru Legearen 233 eta 236. artikuluetan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.ean xedatutarekin bat. Hona hemen:

**FUNTZIONARIOAK**

| KARGUAREN IZENA                                | MAILA | SARBIDEA | KOPURUA | OSAGARRIA  | E G O E R A  |
|--|-------|----------|---------|------------|--------------|
| IDAZKARIA .....                                | A     | O.L.     | 1       | 40+35+1,16 | JARDUNEAN    |
| KONTU HARTZAILE-DIRUZAINA .....                | B     | O.L.M.   | 1       | 31+1,16    | HUTSIK       |
| ADMINISTRARI-DIRUZAINA .....                   | C     | GAITUA   | 1       | 16+15+1,16 | IRAUNGITZEKO |
| ADMINISTRARIA .....                            | C     | O.L.     | 2       | 16+10+1,16 | JARDUNEAN    |
| ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA .....                | D     | O.       | 1       | 16+1,36    | JARDUNEAN    |
| UDALTZAINA .....                               | C     | O.       | 3       | 12+23      | JARDUNEAN    |
| UDALTZAIN LAGUNTZAILEA .....                   | D     | GAITUA   | 2       | 12+23      | JARDUNEAN    |
| OBRA ETA ZERBITZUEN ARDURADUN OROKORRA .....   | C     | O.L.     | 1       | 16+10+1,16 | JARDUNEAN    |
| ZERBITZU ANITZETAKO ARDURADUNA, LANDAKOA ..... | C     | O.L.     | 1       | 16+1,16    | JARDUNEAN    |
| GIDARIA .....                                  | D     | O.L.     | 1       | 16+1,36    | JARDUNEAN    |
| 2. MAILAKO OFIZIALA, OBRA LANTALDEKO .....     | D     | O.L.     | 1       | 16+1,36    | JARDUNEAN    |
| OBRA LANTALDEKO ESPEZIALISTA .....             | D     | O.L.     | 1       | 16+1,36    | HUTSIK       |
| MANTENTZE LAN OROKORRETARAKO OFIZIALA.....     | D.    | O.L.     | 1       | 16+1,36    | HUTSIK       |
| OBRA LANTALDEKO PEOIA .....                    | E     | O.L.     | 1       | 16+1,56    | JARDUNEAN    |

**FUNTZIONARIOEN IZENEN ZERRENDA**

| IZEN-DEITURAK                     | MAILA | GRADUA | ANTZINATASUNA | OSAGARRIAK | K A R G U A          |
|-----------------------------------|-------|--------|---------------|------------|----------------------|
| HERNANDEZ OSCOZ, ALFREDO. ....    | A     | 7      | 72-08-01      | 40+36,16   | IDAZKARIA            |
